



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko maiatzaren 20a

43-4. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena ([2. or.](#)).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bost aletan argitaratzen da, 43-1, 43-2, 43-3, 43-4 eta 43-5. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena.

43-4 ALEKO AURKIBIDEA

II- 05. FUNTZIO PUBLIKOA

ADMINISTRAZIO KARRERA

- [...] ospitaleko Barne Medikuntzako zerbitzuruaren aldi baterako izendapena.

ARAUBIDE JURIDIKOA

- Erradiologia Zerbitzuko erradiodiagnostiko arloko teknikari espezialisten eta erizaintzako diplomatuen eginkizunak mugatzea.
- Nafarroako administrazio publikoen montepio-etako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean borondatezko erretiroa hartzeko ezarritako baldintzak.

HAUTAPEN PROZESUAK

- Maisu-maistren kidegoan sartzeko eta aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrendak osatzeko hautapen prozesuaren garapena.

II- 06. OGASUNA

UDAL TRIBUTUAK

- Tasak ezartzea kalean performance bat egiteagatik.
- Udal katastroko ondasunen titulartasuna aldatzea.
- Zergadunaren ordezkari hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuen-gatiko tasak eskatzea.
- Zabor-bilketaren gaineko tasa eskatzea zerbitzurik eman gabe.

PREMIAMENDU PROZEDURA

- Ondasunak bahitzea horretarako ezarritako prozedura bete gabe.
- Bankuko kontuaren bahiturarekin amaitu zen premiamendu prozeduraren garapena.

TRIBUTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

- Sindikatu batek informazio ekonomikoa eskatzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari.

II- 07. BARNEA

TRAFIKOA

- Iruñeko Alde Zaharrean autoa aparkatzeko zailtasunak.
- Funtzionarioak ez diren langileek eginiko trafiko salaketak.
- Baimendutako ordutegiaz kanpo aparkatzeagatik jarritako zehapena.
- Minusbaliatuentzako txartela kentzea eta aparkatzeagatik isuna jartzea.

IKUSKIZUN PUBLIKOAK

- Lodosako sokamuturra egiteko baldintzak.

HERRITARREN SEGURTASUNA

- Iruñeko Udaltzaingoaren jarduketa grabatzea, udalaren baimenarekin, eta irudi horietan agertzen diren pertsonen eskubideen babesa.

II- 08. JUSTIZIA

- Prokuradoreen Elkargoaren jarduna.
- Abokatuen Elkargoaren jarduna.
- Epaiak betetzea.

II- 09. INGURUMENA

HIRIKO INGURUMENA

- Autoen garaje-tailer baten jarduna aztertzea eta udalak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzea.
- Ostatuen pilaketak hiriguneko alde batean eragiten dituen eragozpenak.
- Tabernetako musika ekipoen bolumena eta itxeko ordutegia kontrolatzea.

- Auzo-komunitate bateko garajearen atea sortutako zarata.
- Jarduera bat beharrezko lizentziarik gabe gauzatzea.

INGURUMEN OSASUNA

- Hirigunetik gertu abeltzantzako ustategiak egotea.
- Harrobietan gauzatutako jarduera.

II- 05. FUNTZIO PUBLIKOA

ADMINISTRAZIO KARRERA

– [...] OSPITALEKO BARNE MEDIKUNTZAKO ZERBITZUBURUAREN ALDI BATERAKO IZENDAPENA.

AURREKARIAK

Kasu honetan (01/267/F espedientea) kexa bat aurkeztu zen [...] ospitaleko Barne Medikuntzako zerbitzuburuaren aldi baterako izendapena zela eta.

Kexa-egileak ospitale horretako medikuak dira, eta haiek adierazi digutenez, aipatu zerbitzuburu-tza hutsik geratu zen titularra erretiratu ondoren, 2001eko urtarrilaren 29an. Urte bereko otsailean –/2001 Ebazpena eman zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, eta horren bidez, [...] jauna izendatu zuen kargu horretarako, behin-behinekoz.

Hala ere, guregana jo zutenen iritziz, izendapen hori ez dago objektiboki justifikatuta, kontuan hartzen bada, alde batetik, hautatutakoak betetzen zuen lanpostua –izan ere, 1986tik 1991ra barne medikuntzako mediku albokoa izan zen beste ospitale batean eta 1991tik aurrera lanpostu berdina zuen Barne Medikuntzako zerbitzuburu izendatu duten ospitalean– eta, bestetik, zerbitzu horretan badaudela bi mediku, klinikaburu kategorian dutenak, eta kargurako izendatutakoak baino antzintasun askoz handiagoa dutenak.

Ukitutakoen arabera, aztertzen ari garen kasua bezalakoetan, ohikoena da behin-behinekoz izendatzea beheagoko lehen kategorian antzintasun handiagoa duen medikua. Kasu honetan ez dago lanpostu-erreserbarik eta, horrenbestez, behin-behineko egoerak urtebete iraun dezake gehinez. Hala ere, jada ia bi urte pasa dira.

Bigarrenik, aginduzkoa da lanpostua izaera finkoaz betetzea, funtzionarioen arteko mailaz igozteko merezimendu lehiaketaren bidez; izan ere, hori da legez ezarritako sistema. Hala ere, lanpostua behin-behinekoz bete zenetik denbora dezente igaro bada ere, ez da merezimendu lehiaketarik

deitu lanpostu hori betetzeko, lanpostu huts hori lan eskaintza publikoan ez dela agertzen argudiatuta.

Osasun Departamentuak, kontseilariaren bidez, ondokoa adierazi zigon gai honi buruz:

“Gaur egun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeari eta lanpostuen betetzeari buruzko azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan biltzen da laguntza medikoaren burutzak –izan ere, arartekoak eskatutako txostenaren xede den lanpostuak baldintza hori betetzen du– betetzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen araudi indarduna.

A) Zehazki, plaza horiek betetzeko araubide orokorra foru dekretu horren 1. kapituluko 2. atalaren A azpiatalean (15. artikulua eta hurrengoak) biltzen da. Bertan ezartzen denez, lanpostu horiek oposizio-lehiaketa askearen bidez beteko dira, edota, salbuespen moduan, 11/1992 Foru Legearen 31. artikuluan aurreikusitako merezimendu lehiaketaren bidez. Bi kasu horietan, lanpostuak betetzeko sistemak izaera irekia edo askea du eta sartzeko prozedurarekin parekatzen da. Horrenbestez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostua jabetzaan duten langileen partehartzea ahalbidetzen da, baina baita lehendik erakunde autonomoarekin loturarik ez duten langileena ere. Horren ondorioz, ohartarazi behar da aztertzen ari garen lanpostuak ez zirela inolaz ere behin betikoz bete Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile finkoentzako erreserbatutako merezimendu lehiaketaren prozeduraren bidez, aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak bidali digun idazkitik ondoriozta daitekeenez.

Bestalde, eta prozeduraren ezaugarri jarraikiz, laguntza medikoaren burutzak aipatu sistemen bidez betetzeko, bete beharreko baldintza da lanpostu hutsak lan eskaintza publikoan sartzeari deialdia egin aurretik. Horrekin lotuta, esan behar da hutsik dauden laguntza medikoaren burutzak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gainerako lanpostu hutsak bezala, urtero sartzeari direla lan eskaintza publikoan, administrazioak, normalean negoziatziorako mahai orokorrean dauden sindikatuarekin adostuta, ezarritako kopuruari jarraikiz (hala gertatu da azken urteotan, Nafarroako administrazio publikoetako langileen lan baldintzei buruzko itunetan). Eta halaxe egin behar da kexaren xede den lanpostuarekin ere.

B) Laguntza medikoaren burutzak aurreko atalean azaldutako prozeduraren bidez betetzen ez direnean, aipatu 347/1993 Foru Dekretuak berak –hain zuzen, 28.6. xedapen gehigarriak– aurreikusten du, ez bakarrik lanpostu hauetan, burutza

guztietan baizik, lanpostua behin-behinekoz betetzeko aukera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen izendapenaren bidez. Eta horixe da kexaren xede den kasuan erabili den ahalmena, [...] jauna izendatzeko, [...] Ospitaleko zuzendaritzak proposatuta. Burutzak behin-behinekoz betetzeko prozedura hori izendapen askeko sistema gisa eratzten da, horrenbestez, konfiantza printzipioan oinarrituta. Hori dela eta, ez kasu honetan ez orokorrean, ez dago izangaia hautatzeko aurrez finkatutako irizpiderik; aldiz, kasuan kasuko zentroak eginiko proposamenari jarraikiz egiten da izendapena?"

ANALISIA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko burutzak betetzeko modua azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 15. artikuluan arautzen da. Arau hori urriaren 8ko 151/1998 Foru Aginduaren bidez garatu da.

Araudi horrek zehazten duenez, zerbitzuburu karguei dagozkien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa askearen bidez bete beharko dira, edota, salbuespen gisa, merezimendu lehiaketaren bidez, eta horietan parte hartu ahalko dute kasuan kasuko deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten fakultatibo guztiek, Nafarroako Osasun Zerbitzukoak edota Nafarroako Foru Komunitatekoa ez den beste osasun zerbitzuren batekoak izan. Halaber, lanpostu honen titularra hautatzeko, beharrezkoa da alde aurretik lanpostua dagokion lan eskaintza publikoan sartzeara eta deialdia behar bezala egitea.

Lehenik eta behin, lanpostu hori lan eskaintza publikoan sartzeari buruzko iritzia eskatu ziguten. Izan ere, 2001eko urtarrilaren 29an titularra erretiratu eta lanpostua hutsik geratu bazen ere, orain arte ez da deialdirik egin lanpostu hori behin betikoz betetzeko.

Horri lotuta, ohiz kanpoko egoera hori justifikatze aldera, Osasun Departamentuak adierazi du lanpostu hori ez dela Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lan eskaintza publikoan sartu, sindikatuekin adosten delako lan eskaintza.

Aitzitik, esan behar da ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko Erregelamenduaren 3. artikuluan hauxe ezartzen dela lan eskaintzari dagokionez:

– Nafarroako administrazio publikoek urteko lan eskaintza bat onetsiko dute eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

– Lan eskaintza horretan ageriko dira dauden lanpostu huts guztiak, aurrekontuan ageri direnak, eta bertan adieraziko da zein diren urte horretan berean bete beharrekoak eta zein diren gainerakoak betetzeko dauden denbora-aurreikuspenak.

– Lan eskaintza publikoa argitaratzeak administrazio publikoetako organo eskudunak behartzen dituela urte naturaleko lehen hiruhilekoan egitera merezimenduen lehiaketak edo sartzeko hautapen probak.

Aurreikuspen horiek, gure foru araudian txertatuak Funtzio Publikoaren Erreformarako neurri buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 18. artikuluan ezarritakoa erreferentziatzen harturik, bat datoz lege testu horretakoekin, horiek ere behartzen baitzuten estatuko administrazioaren zerbitzuko lanpostuen urteko eskaintza egitera, aurrekontuan diruz horniturik zeuden lanpostu huts guztiak barne. Era berean, eskaintza hori argitaratzeak organo eskudunak behartzen zituen hautapen probak deitzera urte naturaleko lehen hiruhilekoan.

30/84 Legeak aldaketa batzuk izan ditu, eta guri interesatzen zaigun heinean abenduaren 29ko 22/1993 Legearen bidez egindakoa nabarmenduko dugu, enplegu planen figura sartu eta ondoriozko lan eskaintzaren itxuraketan eragina duena.

18. artikuluari emaniko testu berriak enplegu planei ematen dien eitea da administrazio antolaketaren giza baliabideen politikak modu globalean planteatzeko funtsezko tresnak izatearena; plan horietan zenbait neurri aurreikus daitezke, hala nola langileak berraxikitzea, lan eskaintzak eta mugikortasun prozesuek sartu beharreko langileak lanean hastea etetea etab., eta gero lan eskaintza publikoaren xedea eta edukia mugatzen du giza baliabideetan dauden beharretara, lanpostu horiek aurrekontuko diruaz horniturik badaude eta dauden langileekin horiek betetzerik ez badago.

Horrek norabide aldaketa garrantzitsua ekarri zuen lege testu horretan lehen ezarritako aurreikuspenekiko, ez baitzuen behartzen lan eskaintzari sartzera aurrekontuko diruaz horniturik zeuden lanpostu huts guztiak, baizik eta dauden langileekin bete ezin direnak soilik. Beraz, araudi horren arabera lan eskaintzari lehen aplikatu ahal zitzaion eskema araututik urrunduta, aldaketak zuhurtziarakotasunerako tarte handia uzten die administrazio publikoei, eta haiek dira zehazten dutenak, egokitasunean oinarriturik, zein diren beren ustez enpleguan edo langile hautaketan dauden beharrak, lehentasunez bete behar direnak.

Azkenik, administrazio publikoen jarduketan Konstituzioaren aginduz nagusi izan behar den eraginkortasunaren printzipioak bide ematen die administrazioei aintzat hartzeko arrazoi objektibo teknikoak, lan eskaintzetan sartu beharreko lanpostu hutsen kopurua mugatzea eragiten dutenak.

Beharrezkoa da aitortzea ahalmen mota horren zuhurtziazko izaerak ahalbidetzen duela giza baliabide guztien kudeaketa eraginkorra bermatuko duten erabakiak hartzea; erabaki horiek ezin dira legekotasunaren ikuspuntutik baloratu, egokitasun teknikoaren ikuspegitik baizik.

Hortaz, Auzitegi Gorenak 1997ko ekainaren 30ean emaniko epaiak, 18. artikulua horren aldaketa eta ondoko erregelamenduzko garapena (363/95 E.D., 7. artikuluan hasierako aruari gehitzen ziona ekitaldian bertan betetzea komenigarritzat jotzearena) aztertzean hauxe zioen: “dauden langileekin bete ezin daitezkeen giza baliabideen beharrak zein diren ezartzeko ahalmen hori, administrazioak bere gain dituen zerbitzu publikoak ahalik eta modurik onenean emateko xedearekin bere organoak egituratu eta eginkizunak banatzeko, antolaketarako edo auto-antolaketarako bere esku duen ahalmenaren barruan dago. Hori horrela, erregelamenduzko aurreikuspen hori, hain zuzen ere estatuko administrazioaren lan eskaintza publikoari dagokionez gobernuari ahalmena ematen diona ekonomia- eta kontuan hartu beharreko gainerako inguruabarren arabera ekitaldi bakoitzean bete beharko liratekeen giza baliabideen beharrak zehazteko, ez da legearen kontra, ez du urratzen lege erreserbaren printzipioa, eta ez ditu erregelamenduaren mugak gainditzen: administrazioaren antolaketarako ahalmenaren adierazpidea da”.

Aurrekoa esanik, lan eskaintza publikoaren prestaketa ere hobeki ulertzen laguntzen baitigu, beharrezkoa da, nolana ere, xehetasun batzuk ematea erakunde honen iritzi figura honekin jokatutako behar den moduz.

Administrazio publikoek giza baliabideen arloan dituzten beharrak eta behar horiek asetzeko modua zehazteko duten askatasuna onarturik ere, beharrezkoa da adieraztea auto-antolaketarako ahalmen zabal horrek kasu bakoitzean aplikatzen den araudian ezarritakoaren menpe egon behar duela uneoro.

Halatan, araudia azterturik ikus dezakegu ezen, igorritako txostenean ikusten zenez, zerbitzu eginkizunen figura dela lanpostu mota hori aldi baterako betetzeko alternatibetako bat, hutsik daudenean (347/1993 Foru Dekretuaren 2. 6. xedapen gehigarria). Une zehatz batean sortzen diren

behar zehatz batzuetarako lanpostuak behin-behinekoz betetzeko modu horretaz baliatzea ala ez administrazioak berak eskura duen aukera bat da, eta kasuan kasuko inguruabarren arabera soluzio bat edo beste bat hautatu ahal du, bere jarduketan bilatu behar duen interes publikoari modurik egokienean erantzutearren.

Kasu honetan, adierazi digute [...] Ospitaleko Barne Medikuntzako zerbitzuburuaren lanpostua behin-behinekoz bete dela 2001eko otsailaren 23az geroztik, [...] Ospitaleko zuzendaritzak proposatuta, [...] jaunaren behin-behineko hautaketaren bidez.

Legeak figura hori erabiltzeko aukera ematen duen lanpostu hutsak behin-behinekoz betetzeko ala ez eztabaidatzeko asmorik gabe, langileei buruzko araudia aztertuz gero, ikusiko dugu egoera horrek urtebeteko iraupena izan dezakeela gehienez, eta kasu honetan epe hori dezente gaintu da. Horrela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 4. artikuluan ezartzen da, lege horretan arautzen ez diren gaietarako abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoari jarraitu behar zaiola. Arau horren 32.4. artikulua hauxe ezartzen du: “behin-behinekoz betetzen den lanpostuaren titularra lanpostua erreserbatzeko eskubidea duen funtzionarioa den kasuetan izan ezik, behin-behineko egoerak urtebeteko iraupena izanen du gehienez; epe hori pasa ondoren, lanpostua hutsik deklaratu da eta behar bezala beteko da.” Arau horretan ezarritakoari jarraituz, eta kontuan hartuta behin-behinekoz betetako lanpostua ez dela lanpostu erreserbarako eskubidea duen funtzionario batena –izan ere, hala balitz, behin-behineko egoerak titularra lanpostura itzuli arte iraungo luke–, behin-behineko izendapena 2002ko otsailean amaitu beharko zatekeen, baita lanpostua hutsik deklaratu eta zegokion lan eskaintza publikoan sartu ere. Hortik aurrera, bidezkoa zen lanpostua behin betiko betetzea.

Nafarroako Kontseiluak ere horren aldeko iritzia eman zuen abuztuaren 3ko 39/2001 irizpenean. Haren bidez adierazi zuen “Foru Administrazioak behin-behineko izendapenak egiten dituenean, legeak ematen dion eskumena erabiliz, (...) izendapen horien iraupena errespetatu beharko da eta, kasua bada, administrazioak legean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko du, izendapenak orokorrean ezarritako gehienezko epetik haratago luzatzea erabakitzen badu. Gauza bera adierazi zuen Asturiaseko Justizi Auzitegi Nagusiak apirilaren 27ko 1089/2001 epaian. Haren bidez Insalud zigortu zuen Asturiaseko Ospitale

Nagusiko zerbitzuburu lanpostu huts baterako deialdia egitera. Lanpostu hori behin-behineko izendapen baten bidez beteta zegoen, indarrean zegoen araudia zorrotz beteta; izan ere, hala ez balitz izan, antolamendu juridikoa urratu eta lege iruzur garbia izanen zen.

Finean, gure ustez, behin-behineko izendapenak ez dira erabili behar beharizan iraunkorrek betetzeko, eta kasu honetako lanpostua bezalakoak, lan eskaintza publikoan sartu ondoren, legeak ezartzen dituen prozeduren bidez bete behar dira.

Arestian azaldukoagatik, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin zitzaion, hurrengo urteko lan eskaintza publikoa prestatzerakoan [...] Ospitaleko Barne Medikuntzako zerbitzuburuaren lanpostua sar zedin, legeak ezarritako prozeduren bidez betetzeko; izan ere, horrela funtzio publikoan sartzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak ez urratzea bermatuko litzateke.

Osasun kontseilariak erantzun zigun gogorazpena onarturik zegoela eta Nafarroako Gobernuari eskatuko ziola lanpostu hori urteko lan eskaintza publikoan sartu eta behin betiko betetzeko, horrela gaur egungo behin-behineko egoera amai dadin; izan ere, lanpostu horrek beharrezkoa du iraunkortasuna.

ARAUBIDE JURIDIKOA

ERRADIOLOGIA ZERBITZUKO ERRADIODIAGNOSTIKO ARLOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTEN ETA ERIZAINZAKO DIPLOMATUEN EGINKIZUNAK MUGATZEA.

Kexa-egileak (01/343/F espediente) bere egoera jakinarazi zigun; izan ere, [...] Ospitaleko Erradiologia Zerbitzuko erizain lanpostu bat betetzen du eta lan jazarpena pairatzen zuela zioen.

Horren haritik, adierazi zigun behin eta berriro bere lanarekin loturiko ospe kentzeak jasaten dituela Erradiologia zerbitzuburuaren aldetik eta Erradiodiagnostiko arloko teknikari espezialisten aldetik. Bere ustez, horren arrazoia da eskumen gatazka dagoela talde horren eta OTAren erabileran espezialistak diren erizainen artean, estamentu bakoitzaren eginkizunak ez baitaude behar bezala zehaztuta, eta nagusiek eta arduradun zuzenek ez dutela egin beharrek kontrolik egiten, eta horrek etengabeko liskarrak sortzen ditu eguneroko lanean eta lan giroa hondatzen du.

Halaber, adierazten du ospitaleko zuzendariari idazki bat igorri ziola, eta honek zuzeneko nagusiarengana edo Erizainen zerbitzuburuarengana jotzeko esan zion. Eskaini zioten irtenbide bakarra

zerbitzua uztea izan zen, eta horren ondorioz, lanaldiaren murrizketa eskatu zuen. Ondoren baja eman zioten, lanak eragindako estresa zela eta.

Hori guztia dela eta, erakunde honen laguntza eta bitartekotza eskatu du, administrazioak behar diren neurriak har ditzan arazo hau konpontzeko eta bizitza profesionalera ohiko baldintzetan itzuli ahal izateko.

Osasun Departamentuari informazioa eskatu genion –zehazki, Erradiologia Zerbitzuaren funtzionamenduari eta halako gertaerek erabiltzaileengan izan dezaketen eraginari buruz–, eta berak ondokoa erantzun zigun:

“Ospitaleko eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunei kontsulta egin eta gero, esan daiteke ospitale horretako Erradiologia Zerbitzuan arazo bat dagoela, kexa eragin duena; hain zuzen, zerbitzu horretan lan egiten duten estamentuen eginkizunak ez daudela behar bezala zehaztuta. Hori dela eta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduan ezarritakoa bete behar du, Auzitegi Gorenaren epai hauetan adierazitakoari jarraikiz: 1992ko abenduaren 4koa, 1993ko ekainaren 4koa, 1994ko martxoaren 10ekoa, 1995eko ekainaren 9koa eta 1995eko otsailaren 16koa, hurrenez hurren.

Informazio hori ez zitzaigun nahikoa iruditu gure jarduteko aukerak zehazteko, eta horren ondorioz, Osasun Departamentuari informazio gehiago eskatu genion, hain zuzen, aipatu Ministerio Agindu horrek ezartzen duena Reina Sofía Ospitaleko Erradiologia Zerbitzuan betetzeko moduari buruz, baita egiaz betetzen zen ala ez egiaztatzeko hartutako neurriei buruz ere.

Hauxe da jaso genuen erantzuna:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek eginiko ikerketatik ondorioztatzen da gai honekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duen inork ez duela kexa egilearenganako jazarpenik ezagutzen ezta onartzen ere. Gai honi buruzko azalpen gehiago emateak babesik gabeko egoera begi-bistakoan eta onartezinean utziko lituzke kexa egilearekin harremana duten guztiak.

Gai honekin lotuta, aurreko erantzunean emandako informazioa da eman dezakegun elementu objektibo bakarra, hau da, 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Agindua betetzeari buruzkoa. [...] andreak 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Agindua kexa-idazkian aipatu izanak gure iritzia sendotzen du; hau da, kexaren arrazoia ministerio agindu hori betetzean datzala. Izan ere, ministerio agindu horren 4. artikuluan hauxe ezartzen da: “teknikariek tresna erabiltzeko eginkizuna dute; erizaintzako

zainketak, aldiz, erizainen eginkizuna dira.” Horixe da jarraitzen den jarduketa ildo, eta horrek ez du inolako laguntza arazorik sortu.

ANALISIA

Alderdiek aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ikusi dugu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak [...] Ospitaleko Erradiodiagnostiko Zerbitzuari atxikitako erizainen eta erradiodiagnostiko arloko teknikari espezialisten eginkizunak zehazteko moduaren ondorioz sortu dela kexan aipatzen den arazoa. Baita Osasunbideak bere burua antolatzeke ahalmena erabiltzeko moduagatik ere, langileen kudeaketari dagokionez.

I. 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduak ezarritako eginkizunen zehaztapenaren eragina.

Osasun kontseilariak igorritako idazkian adierazten denez, arazoa da “zerbitzu horretan lan egiten duten estamentuen eginkizunak ez daudela behar bezala zehaztuta”, eta horri dagokionez, aipatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua betetzen ari dela gai horri buruz 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduak ezartzen duena. Hain zuzen ere, horixe da aplikatu beharreko araua, baina ondoren azalduko dugun jurisprudentziak behar bezala zehaztu du bere eragina. Erregelamendu horren helburua zen arlo sanitarioko bigarren graduako lanbide heziketako ikasketek jarduketa eremu berezkoa eta mugatua izatea erizaintza diplomaturaren aldean, bereziki erradiodiagnostikoari eta analisi klinikoetarako dagokienez. Horretarako, arau haren xedapen gehigarriak ezartzen zenez, titulu hura beharrezkoa zen lanpostu jakin batzuk betetzeko, nahiz eta ordura arte kasuan kasuko espezialitatea zuten OLTak eta EDUak aritu lanpostu horietan.

Baina Auzitegi Gorenaren 1988ko apirilaren 27ko epaiak deuseztatu egin zuen aipatu erregelamenduaren xedapen gehigarria. Auzitegi Gorenak dioenez, “1984ko ministerio aginduaren xedapen gehigarriak ezartzen du aipatu lanpostuetara sartzeko “nahitaezko baldintza” izanzen dela laguntzaile eta diplomatuen horiena ez den beste titulu bat izatea, eta horrek esan nahi du, besterik gabe, lanbide heziketako titulua dutenen aldeko monopolio bat ezartzea ministerio aginduaren 4. artikuluan aipatzen diren eginkizunetarako, eta bestelako tituluak baztertzea. Horren haritik, eztabaidagarria bada lanbide jakin batean jarduteko eskubide eskuratuak baztertzea, lege baten bidez baztertuta ere, erraza da erantzuna asmatzea ministerio agindu baten bidez baztertzen badira, kasu honetan gertatzen den bezala.”

Epai hori oinarritzat hartuta, Auzitegi Gorenak 1994ko urtarrilaren 26ko epaia eman zuen eta beraren bidez Andaluziako Osasun Zerbitzuak eginkizun deialdi bat deuseztatu zuen, hain zuzen Velez-Malagako Eskualdeko Ospitalean teknikari espezialista lanpostuak betetzeko deialdia. Izan ere, deialdi hark eragozten zuen erizaintzako diplomatuen eta teknikari espezialistak lanpostu berberak bete ahal izatea. Epaiaren arabera, “(...) auzitegi honek 1988ko apirilaren 27an emandako epaiaren ondorioz, osasun arloko laguntzaile teknikoek eta erizaintzako diplomatuen espezializatuek aukera erreala dute teknikari espezialistek berezkoak dituzten eginkizunak eta jarduerak esleituta dituzten lanpostu hutsak nahiz berriak –1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoak– betetzeko; hala ere, administrazio eskudunak ez du baremo komunik edo bestelako prozedurarik ezarri (eta hala onartzen du espresuki berraztertzeke errekurtsioaren ebazpen aurkaturan) teknikari espezialista lanpostuak, aukera berdintasunean, nori dagozkion erabakitzeke (OLTei eta EDei edo teknikari espezialistei), eta hori dela eta, lanpostu horiek betetzeko aukera hori entelekia hutsera murrizten da. Horren haritik, esanguratsua da, alderdi apelatzaileak dioten moduan, auzitegi honek epai hura eman zuenez geroztik OLTek eta EDek lanpostu hutsik edo berririk lortu ez izana –alderdi apelatuak ez du alegazio horren kontrarik esan– eta lanpostu horiek teknikariek soilik bete izana.(...)

Duela gutxiago, Auzitegi Gorenak, lan arloko salak 2000ko martxoaren 6an doktrina bateratzeko emandako epaiaren bidez, bere iritzia eman du erregelamendu horrek inplikaturako estamentuengan duen eraginari buruz. Epai horretan adierazten denez, “teknikari espezialisten lanpostu hutsak nahiz berriak betetzeko baldintzei buruz Auzitegi Gorenako administrazioarekiko auzien salak 1988ko apirilaren 27an emandako epaiaren arabera, teknikari espezialistek gain, OLTek eta erizaintzako diplomatuek ere badute aukera 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduan araututako lanpostu hutsak nahiz berriak betetzeko, baldin eta analisi klinikoetako espezialistak badira.

Lehen ondorio gisa, esan behar dugu aipatu ministerio aginduaren 4. artikuluan azaltzen diren eginkizun guztiak bete ditzaketela behar den espezializazioa dutela egiaztatzen duten OLTek eta EDUek. Aitzitik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren txostenean ondorioztatzen da 4. artikulua ezartzen duela “teknikariek tresna erabiltzeko eginkizuna dutela eta erizaintzako zainketak, aldiz, erizainen eginkizuna direla”. Txostenak aipatzen duen jurisprudentziak ez dauka zerikusirik kexa honetan planteatzen den arazoarekin; izan

ere, gizarte segurantzaren erizaintzako laguntzaileen kategoria duten langileek planteatutako ordainketa aferei buruzko jurisprudentzia da, eta ez da batere lagungarria hemen eztabaidatzen ari dena argitzeko.

Hala ere, Osasun Departamentuak hori adierazi izanagatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak 5 eta 6/1996 zirkularrak eman zituen. Zirkular horietan ezartzen zenez, erradiazio ionizatzaileak zuzenean erabiltzen dituzten langileek erradiodiagnostiko, medikuntza nuklear eta erradioterapia arloetan aplikatzen dituzten teknikei buruzko berariazko ezagupenak egiaztatu beharko zituzten, bai lanpostu horiek betetzen dituzten langileen prestakuntza-curriculumaren bidez –kasu horretan dira, hain zuzen, arlo bakoitzeko teknikari espezialistak edo erradiologia eta elektroerradiologia espezialitateetako OLT/EDUak–, bai 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako egoeran egoteagatik. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak zirkular horiek deuseztatu zituen 2000ko martxoaren 14an emandako epaiaren bidez, zirkularrak eman zituen organoak ez baitu erregelamendu-ahalmenik; baina hala ere, badirudi zirkular horien bidez erantzun nahi izan zitzaiela erizaintzako diplomatu espezialisten eskakizunei, lehen azaldutako jurisprudentzia-ildoari jarraikiz. Dena den, arau horiek deuseztaturik, ez dakigu gaur egun arazoa konponduta dagoen.

Azken finean, bi estamentuek badute eginkizun eremu komun bat; izan ere, osasun jarduerako eremu berariazko bati buruzko ezagupen sakonak partekatzen dituzte biek. Horregatik, hain zuzen, Auzitegi Gorenak deuseztatu egin zuen teknikari espezialistei eremu komun horren gainean eman nahi zitzaien monopolioa eta bi talde horiek eremu horri dagozkion eginkizun berberak garatzeko aukera ezarri zuen.

Gure ikuspuntutik, kontua da erabiltzaileari bermatzea gaikuntza berariazkoa eta nahikoa egiaztatzen duten langileek emandako zerbitzua jasotzeko eskubidea, eta berdin da gaikuntza hori estamentu horietako espezialitateak osatzen dituzten ezagutza eta jarduera osagarrien bidez edota beren lanbidearen xedea izateagatik eskuratu badute. Halaber, ezagupen horien artean, erradiazio ionizatzaileen aplikazioarekin lotura zuzena duten ezagupen espezializatuak eskatu behar dira, Europako Batasuneko 84/466/Euratom zuzentaraua gure antolamendura ekarri zuen 1132/1990 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, gure ustez, ospitaleko estamentuen arteko arazoak eta liskarrak saihesteko abiapuntua da Osasunbidea-Nafarroa-

ko Osasun Zerbitzuak eta ospitaleko zuzendaritzak argitzea enplegatuen aurrean zer eginkizun dagozkion estamentu bakoitzari, zehazki, erizaintzako diplomatu espezialistei; izan ere, hauek, gai-xoen laguntzak berezko dituen eginkizunenez gain, teknikari espezialistek dituzten eginkizun berberak dituzte.

II. Administrazioaren antolaketa ahalmenak.

Arauk eta jurisprudentziak teknikarien eta erizaintzako diplomatuaren artean ezarritako eskumen banaketa aztertu ostean, bidezkoa da adieraztea, kexan planteatzen diren arazoak konpontzeko, modu egokian erabili behar direla antolamendu juridikoak administrazio publikoei esleitutako antolaketa ahalmenak.

Administrazioaren antolaketa ahalmena diskrezionala da, eta berorren bitartez zerbitzu publikoa behar bezala kudeatzeko neurri egokienak hartu behar dira, eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraikiz. Ahalmen horrek soilik doktrinak eta jurisprudentziak ezarritako mugak bete behar ditu, hain zuzen, Auzitegi Gorenaren 1988ko apirilaren 13ko epaiak ezarritako norainokoak kontuan hartuta: “administrazioaren antolaketa ahalmenaren aurrean, funtzionarioak arrakastaz balia ditzakeen eskubide bakarrak dira finkatzearen poderioz eskuratutako eskubide bilakatu direnak; hain zuzen, jurisprudentziak etengabe mugatu ditu eskubide horiek eskubide ekonomikoetara eta bete beharreko eginkizunaren edukiari buruzkoetara.”

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta bere organo hierarkizatuak erabateko eskumena dute zentro medikoetako lana antolatzeko, eta horretarako ahalmen handia dute langile beharrak antolatzeko eta langileak zentro bakoitzeko unitateetan banatzeko. Beraz, ez bada egiaztatzen erabakia arbitrarioa dela edota ez diola antolaketa-behar bati erantzuten, onartu behar da.

[...] Ospitaleko zuzendaritzako organoek badute ahalmena beharrezkotzat jotzen dituzten erabakiak hartzeko, beren zerbitzuetako antolaketaren alderdiei dagokienez, zerbitzu horien eraginkortasuna eta efizientzia hobetze aldera, baina era aktiboan ziurtatu behar dute akatsak konpontzea eta langileak hobeto baliatzea, haien ezagutza kontuan hartuta. Horren haritik, funtzionarioak unitateetara atxikitzeko prozesuek bermatu behar dute horiek haien kargua betetzeko merezimendu eta gaitasun tekniko nahikoak badituztela. Halaber, zuzendaritzako organoek zerbitzuetako antolaketa aldatzeko ahalmena dute, baita funtzionarioei beren eginbeharrak betearazteko ere, errendimendu nahikorik ez, arreta falta edo gaitasun eza era-

kusten badute, betiere behar den espedientea tramitatu eta interesdunari entzun ondoren.

Inolaz ere egokia ez dena da zuzendaritzako organoek ezer ez egitea unitate bateko langileen artean sortzen diren arazoak konpontzeko, are gutxiago ospe kentze orokorrak gertatzen direnean; izan ere, halakoek langileen izen ona galtzea ekartzen dute eta ez diete uzten defentsarako oinarritzko eskubidea baliatzen, eta horretaz gain, zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendu egokia eragozten dute. Zuzendaritzak atzematen badu kexa-egileak ez duela ezagutza nahikorik erradiodiagnostiko unitatean jarraitzeko edota bere errendimendua ohikotzat jotzen dena baino askoz txikiagoa dela, behar diren neurriak hartu beharko ditu; betiere bermatuko du, ordea, kexa-egileak bere defentsarako eskubidea baliatu ahal izatea. Horretaz gain, bistakoa da neurriak hartu behar direla beren lankideekiko portaera desegokia duten langileen aurka.

Kexa-egileak adierazi digun moduan, arazoak 1996an hasi baziren eta orain arte iraun badute, bistakoa da etengabeko gatazka dagoela eta ospitaleko zuzendaritzak ez duela jakin behar bezala konpontzen; izan ere, ez du gatazka hori konpontzeko erabakirik hartu, arazoa ukitutako langileekin batera aztertzeraz eta behin betiko irtenbide bat bilatzeraz behartuta zegoen arren. Administrazioaren txostenak ez du arazo horri buruz ezer esaten; hala ere, 2001eko urriaren 31n ospitaleko zuzendaritzari igorritako idazki baten kopia bidali digu interesdunak. Idazki horretan, kexa-egileak ahozko tratu txarra salatu zuen, lanbidean zuen izen ona zikintzeko, eta adierazi zuen gatazkaren erroa teknikarien eta erizainen eginkizunak zehaztu gabe egotean datzala.

Nahiz eta salatutako gertaerak oso larriak diren, ospitaleko zuzendariaren erantzuna, 2001eko azaroaren 12koa, ezin urriagoa izan zen. Idazki horretan, 5 eta 7/1996 zirkularren berri eman zion eta arazoa konpontzeko erizainen buruarengana edo gertueneko buruarengana jotzeko esan zion, beste inolako jarduketarik egin gabe. Planteatutako afera larriaren oinarria aztertu beharrean, zuzendaritzak ihes-erantzuna eman zuen, arazoa argitzen ez zuena eta gertakariak argitzeko eta horren arabera neurriak hartzeko prozedurarik ezartzen ez zuena.

Hori guztia ikusita, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin genion Nafarroako Gober-

nuko Osasun Departamentuari, bere burua antolatzeko ahalmena era aktiboan erabil dezan, bi arlotan, hain zuten: a) langileei azaltzea arazo honekin zerikusia duten bi estamentuek zer eginkizun dituzten, zuzenbideak eta jurisprudentziak ezarritakoari jarraikiz; eta b) [...] Ospitaleko zuzendaritzari agintzea esku-hartze aktiboa izan dezan, erradiodiagnostiko unitatean OTAren erabilera dela-eta sortutako arazoak konpontze aldera.

Legezko betebeharren gogorazpen horri emandako erantzunean, Osasun Departamentuak adierazi zuen erizainen eta teknikari espezialisten eginbeharrak oso ongi zehaztuta daudela arautan eta jurisprudentzian, eta kexa-egileak ez duela teknikari espezialisten eginkizunik bete 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Agindua indarrean sartu aurretik, ezta geroztik ere, ez baitauka horretarako behar den espezializaziorik. Halaber, esan zuen ez dagoela [...] Ospitaleko zuzendaritzaren esku-hartzea eskatzen duen arazorik, salbu interesdunaren salaketa orokorrak. Hori dela eta, Osasun Departamentuak adierazi zigun ez zuela onartzen egin genion legezko betebeharren gogorazpena.

Erantzuna ikusirik, gure iritzia jakinarazi genion; hain zuzen, kexa egin zenean aipaturiko bi osasun estamentuen eginkizunen mugatzea ez zela behar bezain argia. Gure ebazpenean azaldu bezala, Auzitegi Gorenak 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Agindua deuseztatu zuen 1988. urtean, baina auzitegi horrek doktrina bateratzeko epaia eman arte, 2000ko martxoaren 6an, gaia ez da behar bezala argitu.

Nafarroari dagokionez, egoera hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako 5 eta 7/1996 zirkularretan islatzen da. Zirkular horiek ere deuseztatu zituen Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2000ko martxoaren 14an emandako epaiak, eta ez dakigu zer egoeratan dagoen arazoa gaur egun eta ez digute horri buruzko informaziorik bidali. Horregatik, departamentuari eskatu genion gai horri dagokion errealitate juridikoa zehazki isla zezala, aipatutako jurisprudentzian esandakoa kontuan hartuta, zerikusia duten estamentu eta pertsonak jakin dezaten zer betebeharrak dituzten lan harremanetan; izan ere, 2000. urtean eginkizunen mugatzea ez zen batere argia artean. Hala ere, arazoari emandako erantzuna erabat formala izan da, eta horrenbestez, guk eginiko legezko betebeharren gogorazpena onartu ez denez, halaxe islatuko dugu urteko txosten honetan.

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MONTEPIOETAKO FUNTZIONARIOEN ESKUBIDE PASIBOEN ARAUBIDE IRAGANKORRARI BURUZKO MARTXOAREN 5EKO 10/2003 FORU LEGEAN BORONDATEZKO ERRETIROA HARTZEKO EZARRITAKO BALDINTZAK.

Nafarroako Gobernuak hainbat funtzionarioi kexa egin zuten (03/114/F espediente), haien ustez, diskriminaziozko tratua pairatzen dutelako, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen eskubide pasiboaren sistema arautzen duen martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 29. eta 39. artikuluen aplikazioaren ondorioz.

Kexa-egileek adierazten dutenez, aipatutako 26. artikuluan baldintza hauek ezartzen dira borondatezko erretiroa hartzeko: 60 urte beteta eta 35 kotizazio urte eginak izatea. Hala ere, 39. artikuluan ezartzen denez, borondatezko erretiroko pentsioaren zenbatekoa erregulazio oinarriaren ehuneko 100ekoa izanen da pentsioa eskatu duen funtzionarioak 35 urteko zerbitzu aitortuak dituenean, eta hori diskriminaziozko faktore bat da; izan ere, 60 urterekin erretiroa hartu nahi duten funtzionarioek 60 urte beteta dituztela eta 35 kotizazio urte eginak dituztela egiaztatu behar dute, baina pentsio osoa kobratuko dute soilik baldin eta administrazio publikoetan 35 urteko zerbitzu aitortuak badituzte. Aldiz, borondatezko erretiroa 60 urterekin eskatu duen funtzionarioak 35 urte baino gutxiagoko zerbitzu aitortuak dituenean, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera, pentsio portzentajeak behera eginen dio gehienez ere % 35.

Azken finean, haien ustez, zerbitzu aitortuak eta kotizazio urteak bereiztea baztertzalea eta ez arrazoizkoa da; izan ere, bereizten dira administrazio publikoetan emandako zerbitzuak –horiek bakarrik aitortzen dira– eta enpresa pribatuetan emandakoak, aitortzen ez direnak, nahiz eta bietan araubide publikoei kotizazioak egiten diren.

Kexa-egileen arabera, diskriminaziozko tratua dago beste funtzionario batzuekiko; hain zuzen, Gizarte Segurantzari lehenago eginiko kotizazioak kontuan hartu behar zaizkien eta beste administrazio publiko batzuentzat lan egin dutenekiko, baita lan kontratuarekin ere; izan ere, hauei aitortzen zaizkie zerbitzu horiek Nafarroan. Horretaz gain, adierazten dute estatuko funtzionarioen pasiboaren araubideak, 1991n aldatutako apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez arautzen denak, soilik kotizazio urteen irizpidea erabiltzen duela adinarenaz gain.

Hori dela eta, erakunde honi eskatzen diote behar diren urratsak egin ditzan, kexa-egileek –eta ia 700 funtzionariok, Foru Diputazioaren Monte-

pioa osatzen dutenetatik % 22 egiten dutenak– pairatzen duten diskriminazio bidegabearekin amaizteko.

Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizi eta Barne Departamentuak gai horri buruzko txosten luzea igorri zigun, kexa-egileek planteatutakoari buruzko informazioa eskatu ondoren.

Txostenaren hasieran kexa-egileen planteamendua gogora ekartzen da, baita 10/2003 Foru Legeko 26. eta 37.etik 40.erako artikuluen eragina ere, eta agindu horietan ezartzen diren bereizketei buruzko azalpenak ematen dira. Azalpenak kexan adierazitako alegazioekin bat datoz, alderdi bakoitzak berdintasun printzipioari buruz egiten duen balorazioa izan ezik.

Azken alderdi horri dagokionez, txostenak dio martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 29. eta 39. artikuluetako arauditik ezin daitekeela ondorioztatu berdintasun printzipioa urratzen denik, ondoren azaltzen diren arrazoiengatik:

“A) Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 26. artikulua ahalbidetzen du Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionario guztiek borondatezko erretiroa hartu ahal izatea, betiere aipatutako baldintzak betetzen badituzte, hain zuzen, hirurogei urte bete eta hogeita hamabost kotizazio urte egin badituzte. Horrenbestez, erretiroa hartzeko baldintza horiek komunak dira sistemari atxikitako funtzionario guztientzat, inolako bereizketarik gabe.

Foru lege horren 39. artikulua egiten duen bereizketak eragina dauka, esan den moduan, aitortutako pentsioaren zenbatekoari dagokionez, eta bereizketa horrek kasuan kasuko administrazioan aitortutako zerbitzuei loturiko hobekuntza edo pizgarria dakar; hain zuzen, koefiziente murriztailerik ez ezartzean datzana.

B) Azaldutako araudia bat dator Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an administrazio publikoaren beste esparru batzuetan emandako zerbitzuak aitortzeari buruz hartutako erabakiarekin. Erabaki horren 1. puntuko c) atalean hauxe ezartzen da:

“Zerbitzu horiek kontuan hartu ahalko dira erretiroa hartzearen ondorioetarako, bai zerbitzu-aldi gisa, erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea izateko, bai dagokiokeen ehunekoia igotzeko eta pentsioaren zenbatekoa zehazteko.”

Horretaz gain, transkribatutako testuak adierazten du, kexa-egileek diotenaren aurka, foru administrazioan emandako zerbitzuak aitortzeari buruzko araudiak ez duela bere eragina mugatzen funtzionarioaren antzinatasunera, zerbitzu aktibo-

ko egoeran dagoen bitartean; aitzitik, eskubide pasiboen eremura ere zabaltzen du. Edonola ere, arau hori bat dator gai berberari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen 3. artikuluan estatuko eremurako ezarritakoarekin.

C) Arestian emandako azalpenek alderdi garrantzitsu bat islatzen dute; hain zuzen, salatutako tratu desberdina ez dela montepioen sistemari atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko araudiaren ondorio, baizik eta administrazioan emandako zerbitzuak aitortzearen ondorio.

Bestela esanda, martxoaren 5eko 10/2003 Legeak ez du bereizketarik egiten (ezta pentsioaren zenbatekoaren ondorioetarako ere), Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioaldiak erakunde publikoetan emandako zerbitzuengatik edota enpresa pribatuetan emandakoengatik diren kontuan hartuta; aitzitik, “zerbitzu aitortuak” adigai erabiltzean gai horri buruzko araudia hartzen du kontuan, zerbitzuak konputatzeko irizpideari dagokionez.

Halaxe baieztatzen da aipatzen denean, hipotesi huts gisa bada ere, 1981eko urriaren 29ko erabakiaren bidez ezarritako araubidean eginiko aldaketek (adibidez, Foru Komunitatekoak ez diren administrazio publikoetan emandako zerbitzuen aitortpena kentzea edo mugatzeak) salaketaren xede den tratu desberdinaren aldaketa ekarriko luketela.

Horren haritik, zerbitzuak aitortzeari buruzko araudiak, bai estatuko eremuan, bai Foru Komunitatekoan, tratu mesedegarria ematen die sektore publikoan, orokorrean, emandako zerbitzuei, eta horrek eragina du langileengan zerbitzu aktiboko egoeran dudenengan, baita erretiroa hartzeko eskubidea sortzen denean ere; halaber, tratu mesedegarri hori –baita desberdina ere, entitate pribatuetan emandako zerbitzuen aldean– ez da inoiz zalantzan jarri bere balizko izaera diskriminazionalerik, nahiz eta legezko araubide hori aspalditik egon indarrean.

Deigarria da kexa-egileek eginiko ahalegina, funtzionarioaren bizitza aktiboan zerbitzuen aitortpenaren aplikatzearen oinarria justifikatzeko, baina ez funtzionarioak erretiroa hartu ondoren. Baina egiazki, araubidearen azken oinarria komuna da; hain zuzen, sektore publikoarekiko lotura saritzea, zentzu zabalean hartuta (hau da, kexa idazkiak aipatzen duen enpresa bakarra). Bestela esanda, zilegi bada enpresarekiko “leialtasuna” saritzea administrazio publikoan kasuan, ezin da ulertu zergatik onura hori aldi batera, zerbitzu aktiboko aldira –aldi horretan ondorio garrantzitsuak ditu,

hala nola ordainsariak– mugatu behar den, eta ez zerbitzu-harremana amaitu ondoren.

D) Horrexegatik, eta aurreko puntuan azaldutakoa baieztatze aldera, salaketaren xede den tratu desberdina ez da 10/2003 Foru Legearen berrikuntza; aldiz, lege horrek ezarritakoaren aurretik indarrean zegoen eskubide pasiboen araubidea aplikatzen zenean ere egoera oso antzekoa zen.

Are gehiago, Nafarroako administrazio publikoan montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko aurreko araubideari jarraikiz, “zerbitzu aitortuen” kontzeptuak (eta ez aldi kotizatuak) gaur egungo, hots, 1981eko urriaren 29ko erabakitik ondorioztatutako araubideak duen eragin bera zuen; baina horretaz gain, gabezia baldintza ere bazen, eta, orokorrean, ez zuen borondatezko erretiroa hartzeko aukerarik ematen, baldin eta ez baziren hogeita hamabost urte egiaztatzen (nahiz eta, kasu batzuetan hogeita hamar eta hamabost urtera murriztu eta ondorio bereziak izan, pentsioaren zenbatekoa ez igotzeari dagokionez).

Hau da, lehen indarrean zegoen araubidearekin balizko diskriminaziozko tratua neurri berean edo handiagoan gertatzen zen –izan ere, gaur egun ez du galarazten borondatezko erretiroa hartu ahal izatea, soilik zenbatekoari eragiten dio–, eta tratu horri ez zaio inoiz baliorik kendu arauaren aplikazio judizialaren bidez.

E) Halaber, salatutako diskriminazio arrazoia ezin da kontuan hartu, beste aurreikuspen sistema batzuekin alderatuta ere. 10/2003 Foru Legea indarrean sartu arte aplikatzen zen eskubide pasiboari buruzko araubideari dagokionez, esan dugu ez dagoela alderik puntu horretan. Aldiz, gaur egungo araubideak nabarmen hobetzen ditu borondatezko erretiroa hartzeko baldintzak, baina, zerbitzuei dagokienez (kasuan kasuko administrazioan aitortuak ala ez), bereizketa berbera mantentzen da.

Bestalde, kexa-idazkian estatuko eskubide pasiboari buruzko araudiari buruz egiten den aipamena ere ez da argudio juridiko baliagarria diskriminaziozko tratua dagoela hautemateko edota kexa-egileen nahia kontuan hartzeko, alde batera utzita arau aplikagarriak aipatzean eginiko akatsen bat; izan ere, kexa-idazkian espresuki aipatzen den 32.1.e artikulua deuseztatua geratu zen apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuak berak ezarritakoa aplikatzearen ondorioz.

Nafarroako administrazio publikoan montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen sistema berria aurreikuspen sistema berekia da, estatuko eskubide pasiboen sistemaren eta Gizarte Segurantzako sistemaren –horren araubide guztiak,

orokorra nahiz bereziak— aldean bestelakoa eta berezia; eta nahiz eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren oinarriko printzipioak eduki, badiu Nafarroako Foru Komunitateko montepioen aurreko sistemaren berezitasun batzuk ere, hala nola borondatezko erretiroa ukitzen duena.

Horrekin esan nahi da aurreikuspen sistema desberdinak izanda ere, araubide desberdinekin denbora-epeari eta langileei dagokienez, ez dagoela alderaketa partzialik egiterik, eta horrexegatik, ez dagoela diskriminaziozko arrazoirik gai horri buruzko araubidea berrikusteko.

Adibidez, klase pasiboen araubidean, borondatezko erretiroa hartzeko baldintzak onuragarriagoak izan daitezke hainbat alderdiri dagokienez (zerbitzu aitortuak hogeita hamar urtera murriztea eta urte kotizatuekin parekatzea), baina ez beste batzuei dagokienez (ez badira hogeita hamar urte kotizatu egiaztatzen, ezin da erretiro aurreratua hartu; aldiz, 10/2003 Foru Legearen araubidean har daiteke, baina koefiziente murriztaileak aplikatuta). Eta, horri lotuta, komeni da gogoraraztea borondatezko erretiro aurreratua hartzeko aukerarik ez duela ematen Gizarte Segurantzaren araubideak (salbuespen batzuekin), 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kotizatzaileentzat izan ezik; eta kasu horietan ere, koefiziente murriztaileak aplikatu behar dira. Eta ezin da esan hori diskriminaziozko arrazoiak denik, kasu honetan diskriminazio positibozkoa, montepioen araubideari atxikitako langileekiko.

F) Orain arte azaldutakoak adierazten du egindako kexak ez duela, egiaz, balizko diskriminaziozko tratu kontu bat planteatzen. Aldiz, eskakizun bat planteatzen du (zilegia dena, baina ez zorrozki lege juridikoa), 10/2003 Foru Legearen bidez diseinatutako babes sozialeko sistema hobetzeko, Gizarte Segurantzaren sistemari kotizatutako aldi guztiak erabateko ondorioak izan ditzaten borondatezko erretiroa hartu ahal izateko.

Horren haritik, aurreikuspen sistema guztiak dira ezinbestean mugatuak ematen dituzten prestazioei dagokienez, eta kexa-egileek planteatutakoaren moduko beste hainbat eskakizun ere egin daitezke, prestazioak eskuratzeko baldintzak hobetzeko, babes-esparrua zabaltzeko edota haien iraupena eta zenbatekoa handitzeko xedearrekin.

Are gehiago, kexaren xede zehatza borondatezko erretiroa hartzeko baldintzei buruzkoa den neurrian, hots, funtzionarioak erretiroa hartzeko ohiko adina bete baino lehenago eskatutakoa (eta, horrenbestez, baldintzak eta ondorioak ezagututa eta onartuta), zilegi da ulertzea badirela justifikatu-

agoak diren eskakizunak, sistemaren azken helburua aintzat hartzen badugu.”

Azkenik, planteatutako gaietako buruzko txostena eskatu genionean departamentuari, adierazi genion guretzat bistakoa zela azaldutako arazoaren konponbidea ez zela aurkituko Nafarroako Gobernuak estatuko gobernuarekin eskubide pasiboen araubide desberdinetako kotizazioen elkarrekiko konputua egiteari buruzko negoziazioa amaitu arte eta elkarrekiko zenbaketa ezarriko duen konponbidea aurkitu arte.

Adierazpen horren erantzuna hau izan zen:

“2003ko uztailaren 3ko kexaren igortze-idazkiaren iradokitzen denaren aurka, kotizazioen elkarrekiko zenbaketa balizko negoziazioak eta arauketak ez daukate zerikusirik eztabaidaren xedearrekin eta, horrexegatik, gai horri buruz lor litekeen konponbideak ez dauka inolako eraginik salatutako egoeran.

Lehenik eta behin, esan behar da gaur ez dagoela arazorik Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako eta Gizarte Segurantzaren araubideetako kotizazioen elkarrekiko zenbaketari dagokionez.

Izan ere, 1995 urterako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 26/1994 Foru Legea onartu zenez geroztik, baita hurrengo aurrekontuen legeetan ere, ezarri zen Gizarte Segurantzako kotizazioak eskubide pasiboen ondorioetarako konputatuko zirela. Zehazki, aipatu foru legearen 13. artikulua hau ezarri zuen:

Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen arabera, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbitzu-aldia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan hartuko. Urte horien barnean sartuko dira administrazio publikoan egiazki egindako urteak, beti ere behar den administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981.eko urriaren 29an hartutako Erabakiari (RN 1981\140) eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo toki entitateetako administrazioaren montepioen bati atxikitako funtzionarioek, 1992ko urtarrilaren 1etik aurrera jardunean hil edo erretiratu zirenek, gauzatutako jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioei buruzkoan, honako hauek zenbatuko dira, pentsioaren zio den egintza gertatzen den eguneko atzeraeraginezko ondorioz: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, betiere, aipatu aldiak montepio horiei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako

soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbatgariak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteen araberako ehunekoa edo kuota.

Aurreko atalean aipatu funtzionarioek gauzatu-tako jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inolaz ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, beste batzuekin batuta –hala behar badute–, aipatu erregimenen ondoriozko pentsiorik gauzatu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu eginen baitira horiek.

Horregatik, eta nahiz eta martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriak hitzez hitz esaten duen “Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio estatuarekin hitzarmen bat egin dezan, urtebeteko epean, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako eta Gizarte Segurantzaren araubideetako kotizazioak batera konputatzeari begira”, gaur egungo egoerak islatzen du Foru Komunitateak jada zehaztu duela bere aldetik Gizarte Segurantzako kotizazioen zenbaketa, montepioen erregimenak ematen dituen prestazioen aitortpenaren ondorioetarako.

Edo, bestela esanda, gaur egun arautu gabe dagoen alderdi bakarra da montepioen araubideari kotizatutako aldiak onartzeari buruzkoa, Gizarte Segurantzaren sistemak ematen dituen prestazioen ondorioetarako, eta, kasua bada, gai hori estatuko araubideari dagokio. Hala ere, araubide horren bidez ezin da inolaz ere oztopatu edo baldintzatu 10/2003 Foru Legearen babesean onartutako prestazioei aplikagarri zaien berezko araubidea.

Ildo horri jarraikiz, esan behar da duela urte batzuk hasitako elkarrizketek aurrera darraitela; Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak arau proposamen bat bidali zuen 2003ko maiatzaren 7an, Nafarroako Gobernuak azter zezan, eta beharrezkoa balitz, bere alegazioak egin zitzaizkion. 2003ko maiatzaren 20an, Nafarroako Gobernuak, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilari eta lehendakari-ordearen eta Toki Administrazio kontseilariaren bitartez, idazki bat bidali zuen; horren bidez, proposamenaren balorazioa egin eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak idatzitako xedapen gehigarriaren zirriborroari ohar batzuk egin zizkion.

Edonola ere, beharrezkoa da berriro esatea gaur egun prestatzen ari den arau horrek adierazitako izaera eta eragina dituela eta ez dakarrela inolako aldaketarik 10/2003 Foru Legearen bidez onetsitako eskubide pasiboari buruzko araubide berekiari dagokionez.

ANALISIA

Kexa hau dela-eta guk izan dugun esku-hartzea behar bezala kokatze aldera, orobat adierazi genion ezen gure jarduna uztaillaren 4ko 4/2000 Foru Legearen bidez esleitu zaizkigunetara mugatu beharra dugula, lege horretan ezartzen baita zein diren Nafarroako arartekoaren eskumenak, ondokoak batik bat: Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta gainontzeko entitateen, hala nola Nafarroako toki entitateen jarduna aztertzea. Parlamentuari dagokionez, aipatu foru legean ezarritakoa mugatzen da soilik parlamentu-administrazioaren jarduna edo, hertsiki, legebiltzarreko administrazio-jardura aztertzea.

Horrek esan nahi du ez dugula ahalmenik Nafarroako Parlamentuak edo bere organo batek daukaten botere legegilea erabiliz hartutako erabakiak aztertzeko. Izan ere, arlo horretan hartutako erabakiak arartekoa bezalako erakunde baten kontrolpetik at daude, erakunde hori ez baita sortu legebiltzarretako jardun politikoa kontrolatzeko, baizik eta haren goi mandatarari gisa, herritarrek administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babesteko.

Horri dagokionez, babes errekurtsua edo konstituziokontraktasuneko errekurtsua para daiteke Gorte Nagusiek izendatutako arartekoaren bidez, honek kasuan kasuko akzioak erabil ditzan, aipatu legearen 14.2 artikulua ahalbidetzen duen moduan. Legeriaren gabeziak ere nabarmendu ditzakegu, eta gabezia horiek ez badira interpretazio zuzenaren bidez saihesten, Nafarroako Parlamentuari adierazi beharko diogu; izan ere, azken finean administrazioak legerari lotuta daude eta haren aginduak bete behar dituzte. Hori dela eta, gure eginkizuna legeen ondorio okerrak eta bidegabeak salatzea izanen litzateke, baina ez administrazioari gomendatzea legeak urratzeko, baizik eta, esan bezala, legearen gabeziak nabarmentzea.

Dena den, Nafarroako Gobernura jotzeko eta iradokizunak egiteko aukera ere badugu, horrek, kasua bada, antolamendu juridikoa hobetzea ahalbidetuko duten legeen aldaketak proposa ditzan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 19. artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz.

Azalpen honekin hasteko arrazoia da bistakoa dela Nafarroako Gobernu zorroztz ari dela betetzen Nafarroako montepioei atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboak arautzen dituen foru legearen bidez ezarritakoa. Hain zuzen, arau hori betetzean datza kexaren muina; izan ere, salatutako diskriminazioaren jatorria da lege horren 26. eta 37.tik 40.era bitarteko artikuluen eduki hitzez hitzezkoa eta kontraesanik gabea. Horregatik, aztertuko dugu lege horren aplikazioak legearen berdintasunaren printzipio konstituzionala urratzen duen gabeziarik dakarren. Halaber, planteatu daitezkeen konponbideak aztertuko ditugu, abiapuntutzat hartuta estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko negoziazioa Nafarroako montepioetako eta Gizarte Segurantzako kotizazioen elkarrekiko zenbaketa arautzeko.

a) Legearen aurreko berdintasun-printzipioa.

Berdintasun printzipioa herritarren eskubide subjektibo gisa ezartzen du Konstituzioaren 14. artikulua, herritarren artean desberdintasun arbitrarioak sustatzen dituzten arauen aurrean babesten dituen. Konstituzioak ezartzen duenez, egitatezko kasu berdin edo antzekoek tratamendu juridiko berbera aplikatu behar zaie; izan ere, arauak berdin-berdina izan behar du guztientzat eta haren aurreikuspen juridikoek ondorio berberak izan behar dituzte. Berdintasun printzipioaren arabera, egoera homogeneoen aurrean, arauak herritarrentzako eskubide eta betebeharrak berdinak ezarri behar dituzte. Horrela ez bada, printzipio konstituzionala urratzen da.

Aitzitik, arauak tratatu berezitua ezar dezakete, diskriminaziozkoa baina ez arbitrarioa, egoera juridiko heterogeneoak arautzen dituztenean, betiere egoera horiek, ezaugarri desberdinak izateagatik, ezaugarri horiekin bat datozen arauak behar badiuzte. Horretarako, ezinbestekoa da justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onartutako irizpide eta balio-judizioekin bat datorrena, baita neurriaren xedea eta ondorioak kontuan hartuta beharrezkoa izatea bere aplikazioa ere, betiere proportzionaltasun irizpideak aplikatuta erabilitako baliabideen eta lortu nahi den xedearen artean. Konstituzio Auzitegiak askotan adierazi duen moduan, tratatu desberdinak ez dakar arbitrariedadea nahitaez; aldiz, herritarrekiko tratamendua arbitrarioa izanen da herritar batzuek besteekiko duten desberdintasun "arrazoigabe" batean oinarritzen bada, hau da, desproporzionatua eta funts nahikorik gabea tratamendu desberdina, onerako edo txarrerako, justifikatzeko.

Azalpen horiek abiapuntutzat hartuta, gure ustez, zerbitzu aitortuei buruzko 10/2003 Foru Legearen 39. artikuluan ezarritako bereizketa, hau

da, edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen eta sistema publikoetan eginiko kotizazio soilaren artekoa, ez da justifikaziorik edo arrazoirik gabea, alderaketaren terminoak ez baitira homogeneoak: ez daude egoera berean beste administrazio batzuetan egindako zerbitzuak –hau da, enplegatu publiko gisa egindakoak (baita lan edo administrazio araubideko kontratuarekin egindakoak ere)– aitortu zaizkien funtzionario foralak eta beste funtzionario batzuk, enpresa publikoan egindako zerbitzuengatik Gizarte Segurantzaren eginiko kotizazioak ziurtatzen dituztenak.

Bereizketa erabat onargarria da eta justifikatuta dago, arrazoizkoa baita bereiztea "interes publikoarentzat" lan egin izana, administrazio publiko bateko enplegatu gisa, eta interes pribatuarentzat edo norberaren interesarentzat, autonomo gisa, lan egin izana. Egindako zerbitzuen izaerak garrantzi juridikoa du, administrazioaren txostenean esaten den moduan, eta garrantzi hori kontuan hartu du 10/2003 Foru Legeak, eta horregatik saritzen ditu borondatezko erretiroa hartzen duten funtzionarioak administrazio publikoetan urteetan egindako zerbitzuengatik, borondatezko erretiroa hartu baina halako zerbitzurik egin ez duten funtzionarioen aldean, nahiz eta hauek ere Gizarte Segurantzaren eginiko kotizazioak ziurtatu. Finean, legeak saritzen du 65 urte bete baino lehenago erretiroa hartu nahi duten funtzionarioen fideltasuna sektore publikoarekiko, eta ez dugu uste tratamendu hori diskriminazio arbitrario eta arrazoigabea denik; izan ere, aipatu tratamendua justifikatzen duen alderaketaren terminoen artean bada nolabaiteko heterogeneotasuna.

Bestalde, ezin da ahaztu funtzionarioak administrazioarekin duen harremana estatutupekoa dela, eta horrek esan nahi du funtzionarioa administrazioan sartzen denean egoera juridiko objektibo batean kokatzen dela, legearen eta erregelamenduen bidez zehaztua eta behar diren arau tresnen bidez alda daitekeena. Arau horiek "estatutua" osatzen dute eta bai administrazioa, bai funtzionarioa haren menpe daude, jurisprudentziak eskubide ekonomikoetara eta bete beharreko egin-kizunaren edukiari buruzkoetara etengabe mugatu dituen eskuratutako eskubideei zor zaien errespetua galarazi gabe.

Horren ondorioz, 10/2003 Foru Legeak nabarmen aldatu du funtzionarioen eskubide pasiboaren araudia eta, horrenbestez, Nafarroan aplikagarria den estatutu-araubidea; baina, hala ere, aurreko sistema mantentzea ahalbidetzen da aldi baterako araubide baten bidez, funtzionarioek beren interesetarako komenigarriena den araubidea hauta dezaten. Hala ezartzen du bigarren xedapen gehi-

garriak eta, horrenbestez, ezin da esan sistema funtzionarioen kalterako izan denik; aitzitik, onura argia ekarri die montepioei atxikitako funtzionario gehienei, eta nahikoa da legea irakurtzea hori ondorioztatzeko.

b) Kotizazioen elkarrekiko zenbaketa araubide desberdinetan.

Gai honi buruzko txostena eskatu genionean Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, adierazi genion guretzat "bistakoa zela azaldu-tako arazoaren konponbidea ez zela aurkituko Nafarroako Gobernuak estatuko gobernuarekin eskubide pasiboaren araubide desberdinetako kotizazioen elkarrekiko konputua egiteari buruzko negoziazioa amaitu arte. Izan ere, elkarrekiko zenbaketa ezartzen duen konponbide arrazoizko bat aurkituz gero, bistakoa dirudi Nafarroako funtzionarioen egoera beste lege baten bidez arautuko litzatekeela eta araubide publikoari eginiko kotizazio guztiak behar bezala aitortuko liratekeela." Egiaz, kexa jaso genuenetik atzeman genuen 10/2003 Foru Legeak ez zuela urratzen berdintasunaren printzipio konstituzionala eta, gainera, eskubide pasiboaren aurreko sistemaren gabezia larriak, udaletako eta foru funtzionario asko ukitzen zituenak, konpontzen dituela. Hala ere, ego-kia iruditzen zitzaien bide bat zabaldu genuen, kexan planteatutako arazoa konpontze aldera.

Bere aldetik, administrazioaren txostenean adierazten da estatuko eta Nafarroako sistemen balizko elkarrekikotasunak ez duela zerikusirik gai honekin. Halaber, jakinarazten da ukitutako administrazio publikoaren artean badi-rela negoziazioak kotizazioen elkarrekikotasuna ezartze aldera, baina, dena den, Nafarroan 26/1994 Foru Legea onetsi zenetik aitortzen zaizkiela Gizarte Segurantzaren eginiko kotizazioak erretiroa hartzeko unean montepioei atxikita dauden funtzionarioei.

Nahiz eta txalogarria izan Nafarroako funtzionarioei Gizarte Segurantzaren eginiko kotizazioak aitortzeko ekimen hori, gure ustez badira bi arazo larri konpontzeke, aipatu dugun eskubide pasiboaren sistemen elkarrekikotasun faltaren ondorioz.

Lehenengo arazoak eragina du eszedentzian dauden funtzionario batzuegan; izan ere, Gizarte Segurantzaren kotizatzen hasi dira eta, horren ondorioz, Nafarroako montepioetan urteetan eginiko kotizazioak ez zaizkie balagarriak erretiroa hartzeko edota bestelako eskubide pasiboak lortzeko, Gizarte Segurantzak ez baititu aitortzen montepio horietan eginiko kotizazioak. Sektore pribatura edo bestelako administrazio publikoetara joan diren enplegatu publiko batzuei dagokienez, nahiz eta hainbat araubide publikotan kotizatu, beren lanbi-

de karreraren amaieran ez dute estaldurarik izanen edota pentsio urria izanen dute, inolaz ere bat ez datorrena egindako kotizazioekin, eta hori guztia aurreikuspen sistemen bat-etortze eta osagarritasun falta bidegabearen ondorioz.

Pertsona horiek duten aukera bakarra da eskatzea Foru Komunitateko administrazioan edo Nafarroako udaletan berriro sartzea, berriro montepioetan kotizatzen hasi ahal izateko; izan ere, horrek ahalbidetuko luke Gizarte Segurantzaren kotizatutako aldiak aitortzea, nahiz eta hori zama absurdua izan. Dena den, nabarmendu nahi dugu kasu horretan bigarren arazoa sortzen dela. Nafarroak ordainduko litzuke sortutako pentsio guztiak, Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkien funtsak jaso gabe, elkarrekikotasunik ez baitago.

Zalantzarik gabe, Nafarroak dauka eskubide pasiboaren sistemaren ardura, baita bere funtzionarioei dagozkien pentsioak ordaintzearena ere, eta hori ondorio logikoa da beren lan bizitza osoan montepioetan kotizatu duten enplegatuei dagokienez. Aitzitik, ez da arrazoizkoa, ezta egokia ere, Foru Komunitateak oso-osorik ordaindu behar izatea montepioetan eta Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatu duten funtzionarioen pentsioak, langile horiek beren lan bizitza foru funtzionario gisa amaitu dutelako soilik, Nafarroako Gobernuak ez baditu eskuratu behar langile horiek Gizarte Segurantzaren eginiko kotizazioei dagozkien zenbaterakoak.

Arazo horiek konpontze aldera, estatuak Nafarroako montepioetan kotizatutako aldiak onartzea nahi da; izan ere, esan dugun moduan, Foru Komunitatean jada aitortzen dira Gizarte Segurantzaren kotizazioak. Baina aitortpen horrekin ez da nahikoa, bilatzen dena bada enplegatuak kotizatu duen azken eskubide pasiboaren araubideak pentsio guztien ardura hartzea, konponbide hori ez baitator bat bidezko banaketaren printzipioarekin. Dirudienez, funtsezkoa da Nafarroako montepioen eta Gizarte Segurantzaren araubideen artean lortu nahi den elkarrekikotasunak ziurtatu behar izatea enplegatu publikoaren pentsioen ordainketa partekatua, eta horren ondorioz, pentsioen ondoriozko zama proportziorik hartzea, enplegatu bakoitzaren lan bizitzan egindako kotizazio aldiak kontuan hartuta. Horrela, araubide bakarrak dagozkion zama hartu behar ditu, kotizazioetatik lortutako onuren arabera.

Hori da Gizarte Segurantzaren araubideetako kuota elkarrekiko konputatzeari buruzko apirilaren 12ko 691/1991 Errege Dekretuaren bidez hautatu den konponbide logikoa; izan ere, bigarren eta seigarren xedapen gehigarrietan aipatzen dira zama eta eskubideen banaketa bidezkoa egiteko formu-

lak, baldin eta araubide desberdinetan egin badira kotizazioak.

Ikuspegi horretatik, eta kexan planteatutako gaira itzuliz, elkarrekikotasunaren arazoa konpondu ostean aipatu irizpideei jarraikiz, hau da, esku-bide pasiboen zamak araubide desberdinen artean banatzea benetako kotizazioen arabera, gure ustez, jada ez dago arrazoirik “zerbitzu aitortuen” eta “urte kotizatuen” arteko bereizketa egiteko, 10/2003 Foru Legearen 26., 37. eta 39. artikuluek egiten duten moduan.

Gure iritziz, pentsioen finantzaketa egokia elkarrekikotasun formulen bidez konpondu ondoren, onuragarriagoa izanen litzateke enplegatu publiko-entzat soilik urte kotizatuak kontuan hartzea esku-bide pasiboen araubidea zehazteko irizpide gisa, “zerbitzu aitortuak” aintzat hartu beharrean. Aldiz, zerbitzu aitortuak ebalua daitezke funtzionarioa jardunean dagoen bitartean. Gure ustez, defendatzen ditugun irizpide hauek ez diote kalterik ekartzen interes publikoari; baina aldiz, onuragarriak dira funtzionarioentzat. Gure iritziz, bistakoa da pentsioek izaera ekonomikoa dutela, eta horrek aholkatzen du pentsioak emateko eta horien zerbatekoak zehazteko irizpideak ezartzerakoan kontuan hartzea, adinaz gain, enplegatuaren lan bizi-tza osoan zehar kotizatuakotako egiazko aldiak ere.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, egokia irudituz zitzaigun Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari IRADOKI-ZUN bat egitea, eskubide pasiboen araubide desberdinetako kotizazioen arteko elkarrekikotasunaren arazoa konpondu ondoren legean egin beharreko aldaketak susta ditzan, funtzionarioen pentsioen araubidetik “zerbitzu aitortuen” irizpidea kentzeko, eta aldi baterako araubidea ezar dezan, kexa-egileen arazoa konpondu ahal izateko.

Departamentuko kontseilariak erantzuna igorri zigun, iradokizuna ez onartzeko arrazoiak azalduz. Txostenean emandako azalpen gehienak gure ebazpenean adierazitakoari erantzuteko ziren; hain zuzen, gure ustez, administrazio publikoek hartu behar dituzten zamen bidezko banaketa lortze aldera kontuan hartu behar diren irizpideei buruzko iritziei. Baina gure iradokizunari dagokionez, soilik gogora ekartzen du Gizarte Segurantzaren sistemak ez duela erretiro aurreratua ahalbidetzen, eta horren ondorioz, alderdi horri dagokionez ezin dela elkarrekikotasunik egon, eta, gainera, hori baino lehentasun handiagoko beharrak badirela.

Hori dela eta, ulertu genuen gure iradokizuna ez zela onartzen, eta horrenbestez, inguruabar hori gure urteko txostenean islatu dugu, gure era-

kundea arautzen duen legean ezartzen den moduan.

HAUTAPEN PROZESUAK

MAISU-MAISTREN KIDEGOAN SARTZEKO ETA ALDI BATERAKO KONTRATATUAK IZATEKO IZANGAI-ZERRENDAK OSATZEKO HAUTAPEN PROZESUAREN GARAPENA.

Kexa egileak (02/231/F espedientea) hainbat gai aipatu zituen. Lehenik eta behin, azaldu zuen aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrendak osatzeko deialdi bat onetsi zela, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emandako urriaren 31ko 2199/2001 Ebazpenaren bidez, lanpostu hutsak betetzeko eta irakasle titularren bajak ordezkatzeko xedearekin. Kexa-egileak dioenez, izangai batzuekiko diskriminazioa izan zen; izan ere, izangai horiek, “Merkataritzako antolamendua eta kudeaketa” eta “Merkataritza prozesuak” espezialitateetako irakaskuntzan aritu izanagatik, aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrenda berrian sartu ahal izateko ezagutza proba egitetik salbuesita daude. Aitzitik, “Enpresen kudeaketa” eta “Administrazio kudeaketaren prozesuak” espezialitateetako irakaskuntzan aritutako izangaiek proba hori gainditu behar dute.

Aipatzen duenez, lan esperientzia gisa kontuan hartzeko merezimenduen baremoan puntuak ematen ziren zentro publikoetan nahiz pribatuetan hartutako esperientziagatik. Dena den, berak dioenez, ez diote baloratu atzerriko ikastetxeetan gaztelaniazko irakurle gisa hartutako esperientzia. Azaltzen du eskabidea aurkeztu duen bakoitzean ahozko erantzun desberdinak eman dizkiotela esperientzia hori baloratzeari buruz, eta ondoren, behin betiko baremazioan, ez diotela kontuan hartu, ez baita irakasle jardueratzat hartzen. Interesdunak, aldiz, kontrakoa ulertzen du, eta horregatik eskatzen du jarduera hori irakaskuntzako esperientziatzat har dadila. Halaber, salatzen du aldi baterako kontratatuak diren irakasleek ez dutela jasotzen funtzionarioei ematen zaien familia laguntza.

Hirugarrenik, jakinarazi digu 53/2001 Foru Aginduaren bidez onetsitako maisu-maistren kidegoan sartzeko oposizioan parte hartzeko izena eman zuela, pedagogia terapeutikoaren espezialitatean, eta lehenengo proban baztertu zutela. Hori dela eta, epaimahai kalifikatzaileari eskatu zion bere ariketa berrikus zezan, bere ariketari emandako kalifikazioan akatsen bat gertatu izan zitekeela uste baitzuen, baina ez zioten erantzunik eman. Horretaz gain, bere azterketaren kopia eskatu zuen, eta hiru aldiz eskatu ondoren eman zioten, zortzi hilabete pasa ondoren.

Azkenik, kexa honen bidez adierazi nahi du baduela ebatzi gabeko auzi bat Nafarroako Gobernuarekin; izan ere, administrazioari kalte-ordaina eskatu zion galtzadako hartxintzar solteek bere autoari eragindako kalteagatik, baina oraindik ez du administrazioaren erantzunik jaso.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuari informazioa eskatu genion eta hauxe jakinarazi zigten:

“Lehenik eta behin, familia laguntza soldata-osagarri gisa emateari dagokionez, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateginako 93. artikuluan ezartzen da administrazio-araubideko kontratuak dituzten langileei erregelamendu bidez ematen diren xedapenak eta kasuan kasuko kontratuan ezarritakoa aplikatuko zaizkiela. Aipatu araudia garatzeko, 2004ko urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretua onetsi zen (17. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, otsailaren 8koa); haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileak administrazio araubidean kontratatzeari buruzko arauak eman ziren. Foru Dekretu horren 11. artikuluan 1. atalean ezartzen denez, “administrazio araubidean kontratatzen diren langileek betetzen duten lanpostuari edo egiten dituzten lanei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, alde batera utzita funtzionarioei dagozkien sariak, hots, antzinasuna, gradua eta famili laguntza”.

Horrela, bada, antzinasuna, gradua eta famili laguntza langile finkoei dagozkien ordainsarizat hartzen dira, administrazioan duten antzinasuna eta bere famili egoera saritzen dituztenak. Horren ondorioz, interesdunak 2001eko irailaren 10ean sinatutako lan kontratuaren bigarren klausulan ezartzen da “jaso beharreko ordainsari osoa izanen da lanpostu hori betetzen duen funtzionario batek jasotzen duena, alde batera utzita funtzionarioei dagozkien sariak, hots, antzinasuna, gradua eta famili laguntza”.

Bigarrenik, irakaskuntzako esperientziaren balorazioari dagokionez, irakasle lanpostuetarako aldi baterako kontratatuak izateko izangaiak onartzeko deialdi guztietan, baita irakasleen kidegoetan sartzeko oposizio-lehiaketaren bidezko hautaketa-prozeduretan ere, aipatu esperientzia merezimenduztat hartzen da, eta irakaskuntzako esperientziatzat hartzen da ikastetxe publiko nahiz pribatuetan eginiko lana, baldin eta irakasleei edo maisu-maistrei dagozkien eginkizun guzti-guztiak betetzen badira (irakasgaiaren programazio didaktikoa edukiei, metodologiari eta ebaluazio-irizpideei dagokienez; tutoretza eta orientazio lanak; ikas-

leen ebaluazioa; ikastetxeko koordinazio didaktikorako organoen berezko eginkizunetan parte hartzea eta abar). Kasu horietan, interesduna irakasle gisa kontratatzen da, agerikoa denez. Solaskideen lana ez da “irakaskuntzako esperientziatzat” hartzen, solaskideek ez dituztelako betetzen irakasleei edo maisu-maistrei dagozkien eginkizun guzti-guztiak eta, horrenbestez, ez direlako irakasle gisa kontratatzen.

Hirugarrenik, maisu-maistren kidegoko pedagogia terapeutikoa (gaztelania) espezialitateko epaimahai kalifikatzailearen jardunari dagokionez (Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 23ko 53/2001 Foru Agindua), [...] jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen, oposizioaldiko lehen proban egin zuen ariketari emandako kalifikazioa berrikustea eskatuz. Epaimahaiak, zegokion berrikusketa egin ondoren, ebazpena eman zuen; hain zuzen, ebazpen horren kopia honekin batera doa eranskin gisa.

Epaimahaien ebaluazio egintzak arrazoitzeari dagokionez, aipatu behar da estatuko administrazioaren zerbitzura langileak sartzea eta estatuko administrazio funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-promozioa arautzen dituen Erregelamendua onesten duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko 22. artikuluan 2. atalean ezarritakoa; izan ere, irakasleei era subsidiarioan aplikatzen zaie: “Hautapen-prozedurei amai- era ematen dieten egintzak arrazoituak izan beharko dira. Hautapen-organoei balorazio lanean, zuhurtziarakotasun teknikoaz baliaturik emandako egintzei dagokienez, horiek erregelamenduetan eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoa bete beharko dute.” Epaimahaiak emandako ebazpena, arrazoiari dagokionez, bat dator aipatutako artikularekin; hori dela eta, uste dugu horri buruz egindako kexak ez duela zentzurik.

Halaber, gure ustez epaimahaiak ez du azterketen kopiarik eman behar. Azterketak oposizio-lehiaketaren administrazio-espeditentearen zati dira, eta espediente hori ikustea eska daiteke departamentuko idazkaritza teknikoan. [...] jaunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen epaimahaiaren ebazpenaren aurka eta espedientea ikustea eskatu zuen, bere azterketa barne. Aurtengo apirilaren 10ean, espedientea azterketarik gabe ikusi zuen eta, horren ondoren, departamentu honetako idazkaritza teknikoak jakinarazi zion interesdunari bere azterketa ikus zezakeela idazkaritzako bulegoan. Hala, interesduna ekainaren 28an etorri zen azterketa ikustera”.

ANALISIA

Interesdunak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurkeztu duten dokumentazioa ikusi ondoren, hainbat alderdi aurkitu ditugu, gure ustez berezi behar direnak, aztertu ahal izateko:

1. Proba bat gainditu beharra, urriaren 31ko 2199/2001 Ebazpenaren bidez onetsitako deialdiko lanpostu batzuk bete ahal izateko.

Kexa-egileak dioenez, izangai batzuekiko diskriminazioa izan zen; izan ere, izangai horiek, "Merkataritzako antolamendua eta kudeaketa" eta "Merkataritza prozesuak" espezialitateetan irakasle eginkizunak bete izanagatik, aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrenda berrian sartu ahal izateko ezagutza proba egitetik salbuetsita daude. Aitzitik, "Enpresen kudeaketa" eta "Administrazio kudeaketaren prozesuak" espezialitateetan irakasle aritutako izangaiek proba hori gainditu behar dute, nahiz eta, ebazpen hori eman arte, espezialitateetako bateko aldi baterako irakasleek beste espezialitateko lanpostu hutsak bete zitzaketen ezagutza proba berezirik egin beharrik gabe.

Horri dagokionez, uste dugu interesdunak 2001eko abenduaren 21ean aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezesterakoan Hezkuntza Departamentuak emandako argudioak erantzun egokia direla.

Horrela, departamentuak dio urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuan ezartzen direla bigarren hezkuntzako irakasle kidegoen eta lanbide heziketako irakasle teknikoaren kidegoen espezialitateak; horren arabera, "Administrazio teknologia" bitan banatzen da: "Enpresen kudeaketa" eta "Merkataritzako antolamendua eta kudeaketa"; "Administrazio praktikak" izeneko espezialitatea, berriz, beste bitan banatzen da: "Administrazio kudeaketako prozesuak" eta "Merkataritza prozesuak". Banaketa horren ondotik, "Enpresen kudeaketa" eta "Administrazio kudeaketa" espezialitateetako irakasleek beren ezagutza egiaztatu beharko dute, "Merkataritzako antolamendua eta kudeaketa" eta "Merkataritza prozesuak" espezialitateetako eskolak eman ahal izateko. Proba hori egitetik salbuetsiko dira soilik kasuan kasuko espezialitatean jada eskolak eman dituztenak, gaiari buruzko ezagutza nahikoa egiaztatu baitute.

Egia da 2199/2001 Ebazpena eman baino lehen bi espezialitateetako zerrendetan zeuden irakasleak kontratatuak izan zitezkeela baterako edo besterako, baina, edonola ere, kontratazio horiek espezialitateen zerrenda behin betikoz berrizendatu arte indarrean egon den maiatzaren 6ko 656/1999 Ebazpenean ezartzen den aparteko arauaren babesean egiten ziren.

Bat gatz departamentuaren argudioarekin; horren arabera, interesdunaren asmoak –alegia, kontratua izateko itxaropen soilak babes juridikoa izatea eta ukitutako pertsonak ezagutza proba egitetik salbuesteko nahikoa izatea–, hautapen-prozeduretan nagusitu behar diren merezimendu eta gaitasun printzipioen indargabetzea dakar; izan ere, prozedura horietan ezin daiteke izangai jakin batzuen gaitasuna susmatu beste batzuen kaltetan.

Halaber, bat gatz departamentuaren ikuspuntuarekin eskubide eskuraturik ez dagoela esaten duenean; izan ere, jurisprudentziak behin eta berriro adierazi du bitarteko lanpostuak betetzeko izangaiek lanpostu hori betetzeko eskubide itxaropena besterik ez dutela, eta ez eskubide eskuratu, eta, horrenbestez, itxaropen horri ezin zaio babes juridikorik eman.

Horrenbestez, lehen alegazioari dagokionez, uste dugu departamentuaren jokabidea, hau da, izangaiei eskatzea ezagutza proba gainditzea "Merkataritzako antolamendua eta kudeaketa" eta "Merkataritza prozesuak" espezialitateetan sartu ahal izateko, zuzenbidearen araberakoa dela. Beste kontu bat da irakasgai horietan irakaskuntzako esperientzia egiaztatu duten izangaiei ez eskatzea proba horiek gainditzea; izan ere, horrela beren gaitasuna erakusten dute eta horien egoera ezin da alderatu esperientziarik ez dutenen egoerarekin.

2. Atzerriko unibertsitateetan irakurle gisa izandako esperientzia irakaskuntzako esperientzia gisa ez baloratzea langileak hautatzeko prozeduren deialdietan.

Izangaia hautatzeari dagokionez, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako funtzionarioen estatutuaren 5.1. artikuluan ezartzen denez, izangaia deialdi publiko bidez hautatuko dira, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako hautaprobaren bidez."

Printzipio horiek Konstituzioak berak emanak dira, 23.2 artikuluan xedatzen baitu "herritar guztiek eskubidea dutela funtzio publikoan sartzeko, berdintasun baldintzetan, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat eta legeak adierazitako baldintzak betez gero." Eta 103.3 artikulua dio "legeak arautuko duela funtzio publikoan sartzeko modua, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat."

Merezimenduen kalifikazioa Konstituzioaren aurkakoa noiz den zehazte aldera, Konstituzio Auzitegiak ezarri zuen 1998ko martxoaren 2an emaniko epaian "berdintasunaren printzipioa urra-

tzen dela tratu desberdina emateko arrazoi objektibo eta zentzuzkorik ez dagoenean merezimendu eta gaitasun baldintzak ikusirik edo desberdintasunerako elementua arbitrarioa denean edo oinarri arrazoizkorik ez duenean.”

Jurisprudentzia hori aztertzen ari garen kasuari aplikatuta, esan dezakegu izangaiek atzerriko unibertsitate batean irakurle gisa izandako esperientzia ez baloratzeko arrazoa dela solaskideek ez dituztela betetzen irakasleei edo maisu-maistrei dagozkien eginkizun guzti-guztiak, departamentuak azaltzen duen moduan, eta, horrenbestez, ez direla irakasle gisa kontratatzen eta haien lana ez dela “irakaskuntzako esperientziatzat” hartzen, eta ezin da inolaz ere alderatu maisu-maistrek eta gainerako irakasleek egiten duten lanarekin.

Edonola ere, izangaiek alegatutako merezimenduak hautapen prozedura batean baloratzeari dagokionez, dena da eztabaidagai, baina administrazio publikoari eskatu beharreko gauza bakarra da aukeratutako irizpideak arrazoizkoak izatea eta arbitrariorik ez botere desbideraketarik ez eragitea, eta kasu honetan ez da halakorik gertatu, epaimahaiak merezimenduak baloratu dituen moduan baloratzeko arrazoiak justifikatu baitira.

3. Langile kontratatuek funtzionarioek jasotzen dituzten osagarri berberak ez jasotzeak eragiten duen diskriminazioa.

Kasu honetan, araubide juridiko desberdinak aplikatzearen ondorioz arau tratu desberdina duten egoerak planteatzen dira; halakoak askotan planteatu dira funtzio publikoaren esparruan. Gisa horretako egoeretan Konstituzioko zenbait printzipio urratzen ote diren aztertzeko, Konstituzioko 14. artikulua ezartzen duen berdintasun printzipioaren ikuspegia erabili behar da.

Halatan, 14. artikuluan ezarritakoa urratzen dela salatzen bada ere, artikuluko horri buruz Konstituzio Auzitegiak emandako jurisprudentziak ez du ukatzen tratua desberdina izan daitekeela baldin eta lege-tratamendu desberdina emateko arrazoi objektiboak baldin badaude, eta tratu-desberdintasun hori aztertzerakoan aintzat hartu behar dela zer helburu eta ondorio dituen neurri horrek. Beraz, ikuspuntu horretatik begiratuta, ez da behar arauak egoera desberdinak bereizteko beharra edo komenigarritasuna jasotzea.

Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro adierazi bezala, “(...) Zuzenbidearen kariaz sortutako egitura arteko berdintasun nahiz desberdintasuna, eta kidegoak egitura dira noski, baldin eta halakorik badago, zuzenbideak egitura horiei emandako definizioaren ondorio dira, alegia, haien taxutze juridikoaren ondorio, zeina hainbat faktorek muga

baitezakete. Bereizkeria, gertatzekotan, legegileak edo administrazioak bereizteko irizpide ez objektibo ez orokorrak erabiltzen dituztelako gertatuko da; izan ere, badute jarduteko askatasun handia haien egiturak sendotu, aldatu nahiz osatzerakoan eta haien zerbitzuko langileen estatusa zehaztu eta antolatzerakoan”. (Konstituzio Auzitegiaren 50/1986, 57/1990, 293/1993 eta 9/1995 epaiak).

Horrela, bada, gure goi auzitegiak sendotu egin du bere jarrera, esan nahi baita administrazioari zerbitzuak emateko modu desberdina –funtzionario gisa edota administrazio kontratudun gisa– kontuan hartuta ezartzen den bereizketak eta kasu horietan ordainsari gaitan aplikatu beharreko araubide juridikoen bereizketak markatzen dutela prestazio bakoitzaren garapena; ezin dela teknikarik aldatu batetik bestera eta araubide batek sorturiko aukerak ezin direla exijitu halako aukerarik sortu ez duen beste batean, aldi baterako edo behin betiko, hain zuzen ere ez dagoelako halakorik ezartzen duen inolako lege manurik.

Aipatu jurisprudentziaren arabera, egoera horiek ezin daitezke erabili Konstituzioak ezartzen duen berdintasuna neurtzeko konparazio-gai gisa, azaldu bezala, egoera juridiko desberdinak direlako eta ezin delako tratamendu bera emateko exijitu, Konstituzioaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, egoera horien artean “elementu bereizgarri objektiboak” daude eta horrek eragozten du berdintasun juridikoa ezartzea puntu jakin bati dagokionez.

Hori dela eta, ez dugu uste tratu desberdina dagoenik; izan ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak alegatu moduan, antzinasuna, gradua eta famili laguntza langile finkoei dagozkien ordainsaritzat hartzen dira, administrazioan duten antzinasuna eta bere famili egoera saritzen dituztenak eta, horrenbestez, ezin zaie kontratatutako langileei aplikatu, horien ezaugarriengatik, ez dutelako finko izaerarik. Aitzitik, ordainsarien arteko desberdintasunak lanpostu bakoitzak berezko dituen ordainsariengatik sortuak balira, alde batera utzita funtzionario bakoitzak denboran zehar eskuraturako osagarri pertsonalak, orduan Konstituzioko printzipioaren urraketa salagarria izanen litzateke; baina ez da kasua, aldi baterako kontratudunek ez baitituzte eskubide horiek eskuratzen.

4. Maisu-maistren kidegoko Pedagogia terapeutikoa (gaztelania) espezialitateko epaimahaiaren jokabidea eta eginiko ebaluazio egintzaren arrazoa.

Interesdunak eginiko ariketen balorazioari dagokionez, zuhurtziarakotasun teknikoa aitortzen

zaio epaimahai kalifikatzailearen jardunari, eta soilik zuhurtziarakotasunaren muga gainditzen denean sala daiteke arbitrariotasuna izan dela.

Jurisprudentziak, gai hau planteatu zaionean, askotan alegia, zedarritu egin ditu ebaluaziorako epaimahai edo batzorde horien jardun esparrua eta horien erabakiak berrikusteko aukerak.

Horrela, Auzitegi Gorenaren 1991ko martxoaren 13ko epaian hauxe esaten da: "oposizioen eta lehiaketen organo kalifikatzaileek zuhurtziarakotasun teknikoaren izeneko dute balorazio lanetan baliatzea, eta beraz zenbait inguruabarretan baizik ez daiteke organo horien jarduketan berrikuspen juridikionala egin, hala nola doloa, koakzioa edo jarduketa hori arautzen duten arauen eta, inoiz ere, administrazioarentzat eta hautaketa prozesuan parte hartzen dutenentzat lotesleak diren deialdiaren oinarrien kontrako arau-haustea dagoenean (...). Nolanahi ere, arestiko guztia ez da eragozpen organo kalifikatzaileen jardueran auzitegien berrikuspenaren xede izateko, doktrina modernoan jarraiki, emaitza arbitrarioa dela nabaria denean edo egitateak modu okerrean ulertu direla begibistakoa denean, eta hori auzitegian frogatzen bada, kasu batean edo bestean, frogabideak aurkeztuz, batez ere perituenak, alderdiari dagokiona, eta ulertzeko eman behar den askatasunarekin. Horrek guztiak ez du esan nahi inola ere justizia salak bigarren mailako organo kalifikatzaile gisa jardun dezakeenik, berrikuspenak soilik zuzenbidearen arabera egitea eta oposizio eta lehiaketen epaimahaiei, lehen aipatutako zuhurtziarakotasun teknikoaren dela-eta, bere duten jardueran ezagutu behar zaien askatasuna aintzat harturik.

Entzutegi Nazionalako administrazioarekiko auzien salak 1996ko otsailaren 13an emaniko epaiak ere, ildo horretan esaten du: "jurisprudentziak behin eta berriro dioenez, auzitegiek, organo kalifikatzailea bere menpe duen administrazioak berak bezala, ez dute eskumenik organo haren ordeztzeko parte-hartzaileen gaitasuna eta egokitasuna neurtzeko hautaketa probetara aurkeztutako merezimendu eta ezagutzak baloratzeko zereginetan, baloratu beharreko ezagupenen izaera objektiboa zein den ere, hau da, zuzenbidearen arlokoak izan edo beste zientzia diziplina batekoak izan; izan ere, hautaketa probetan parte hartzen dutenen merezimenduen eta gaitasunen berezko kalitatea baloratzeko organo kalifikatzaileari soilik dagokio, ikuspegi juridikzionaletik berrikusterik ez dagoen zuhurtziarakotasun teknikoaz baliaturik. Azkenik, ildo berean, Auzitegi Gorenak, Hirugarren Salako Laugarren Sekzioak 1993ko martxoaren 9an emaniko epaian dio etsaminen epaimahaiek, kalifikatu behar duten gaian adituak diren eta etsa-

mina egiten dutenen interesekin zerikusirik ez duten pertsonak osatuak, ongi jardunen dutela pentsatu behar dela, baina uste hori desegin daitekeela kontrako frogak baldin badaude, pentsarazten dutenak doloa, hutsegitea, eskubide-abusua, hautaketa prozesua zuzentzen duten arauen kontrako arau-haustea edo botere desbideraketa izan dela tartean.

Jurisprudentziak nabarmendu du epaimahai kalifikatzaileek zuhurtziarakotasun tekniko handia dutela gaitasuna erakusteko lehia-proba horiek baloratzeko; proba horiek zuzentzerakoan ez da kontuan hartu behar soilik izangaiak eginiko azalpena; aldiz, azalpen hori gainerako izangaiak erakutsitako ezagupen mailarekin alderatu behar da. Halaxe eskatzen du proba horien xedeak berak; izan ere, helburua da proba horien bidez prestakuntza hobea duten izangaiak hautatzea.

Edonola ere, ez dugu atzeman arbitrariotasun edo alderdikierarik probak baloratu zituen epaimahai kalifikatzailearen jardunean, pentsarazteko doloa, hutsegitea, eskubide-abusua, hautaketa prozesua zuzentzen duten arauen kontrako arau-haustea edo botere desbideraketa izan dela tartean.

Azkenik, uste dugu interesdunak aurkeztutako erreklamazioari epaimahaiak emandako erantzuna laburra baina behar bezala arrazoitua dela; izan ere, erantzun zabalagoa exijitzeak berrikusketa osoa eskatuko luke, ez bakarrik interesdunaren ariketarena, baizik eta ariketa guztiena; esan bezala, hautapen prozesu lehiakorra baita.

5. Bere azterketaren kopia ukatzea.

Interesdunak bere azterketa ikusteari eta beronen kopia emateari dagokionez, atzeman dugu hasieran ukatu egin zitzaiola azterketa ikusteko eskubidea, baina 2002ko apirilaren 10ean departamentuko idazkaritza teknikoak jakinarazi zion bere azterketa ikus zezakeela, eta halaxe egin zuen interesdunak ekainaren 28an, nahiz eta ez zuen lortu azterketaren kopiarik.

Interesdunek administrazio-espeditentea eskuratzeko eskubideari dagokionez, gogoratu behar da ezen Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroren 26ko 30/1992 Legeko 35 eta 37 artikuluek barnean hartzen dutela, herritarrek interesdun izaera daukateneko prozeduren tramitazio-egoera edozein unetan ezagutzeko daukaten eskubidea ez ezik, haietan dauden dokumentuen kopiak eskuratzeko daukaten eskubidea ere, nahiz eta eskubide hori egikaritzeko beharrezkoa den aldez aurretik exakzioak ordaintzea, dokumentuen kopi-

ak edo ziurtagiriak lortzeko ezarritakoak, aipaturiko legeko 37.8 artikulua dioenez.

Baina kontua da espedientea zertan den jakiteko eskubide horrek, zeinak barnean hartzen baitu espedienteko agirien kopiak lortzeko eskubidea ere, lotura estua duela babes judizial eraginkorrako eskubidearekin eta horrekin batera doan babesgabetasunaren debekuekin. Izan ere, espedientea ikusteko eta haren kopiak lortzeko eskubideari ezezkoa emateak erakar dezake interesdunaren asmoen defentsa egokia egiteko egiazko ezintasuna. Gai hau garrantzitsuago bilakatu da hautaketa-prozesuetan, epaimahaiek nolako zuhurtziarakotasun teknikoak jarduten duten kontuan izanik. Ez da ahaztu behar irregulartasun-alegazio bat egiten duenari dagokiola frogaren zama, eta horretarako, funtsezko froga-elementuak (susmopean jartzen dituen azterketak kasu) ikusi eta eskuratzeko ahalmena izan beharko du. Hori dela eta, azterketaren kopia eskuratzeko eskubideari ezezkoa emateak babesgabetasun-egoera batean utz ditzake interesdunak, hain zuzen ere Konstituzio Auzitegiak debekatuta duena (Konstituzio Auzitegiaren 71/1984 eta 64/1986 epaiak eta 153/1999 autoa).

6. Nafarroako Gobernuari kalte-ordaina eskatzeko hasitako prozedura, galtzadako hartxintzar solteek bere autoari eragindako kalteagatik.

Azkenik, galtzadako hartxintzar solteek bere autoari eragindako kaltea dela-eta kexa-egileak hasitako kalte-ordaina eskatzeko prozedurari dagokionez, esan behar dugu kexa honetan ez diola eskaera zehatzik egiten erakunde honi; soilik planteatzen dituen gainerako alderdiekin zerikusi gutxi duen gaia komentatzera mugatzen da. Edonola ere, atzeman dugu 2001eko abuztuaren 17an erreklamazio bat aurkeztu zuela Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan eta, ondoren,

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak jakinarazi ziola erreklamazioa tramitera onartu zela. Hori dela-eta, badirudi erreklamazioa aztertzen ari direla, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ote dagokion zehazte aldera. Arrazoi hori dela medio, erakunde honek ezin izan du gai horri buruzko informaziorik eskatu, prozedura oraindik ez baita amaitu eta ez baitakigu nolakoa izanen den bere emaitza.

Nolanahi ere, komeni da ohartaraztea kalteengatik ordaina jaso ahal izateko beharrezkoa dela eskatzaileak frogatzea egindako kaltea, baita kaltea zerbitzu publikoen funtzionamendu egokiaren edo desegokiaren ondorioz izan dela ere; izan ere, erakunde honek, justizi auzitegien moduan, ezin du interesduna ordeztu berari dagokion froga-jardunean. Gure eskumena mugatzen da prozedurazko alderdiak berraztertzea eta herritarrek gai horretan dituzten eskubideak errespetatu direla egiaztatzea. Kexa-egileak espedientera ekarritako agiriak aztertuta, atzeman dugu kasuko departamentua egindako eskakizuna aztertzen ari dela, baina oraindik ez duela erabaki kalte-ordainik dagokion, ezta balizko kalte-ordain horren zenbatekorik ere.

Hori dela eta, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin zitzaion, kexaren egileak eskatutako eta bere espedientean bilduta dauden agirien kopia eman diezaion. Halaber, gomendatzen zaio hemendik aurrera aintzat har ditzan hautapen prozeduretako parte-hartzaileek eginiko informazio eta azterketen kopia eskaerak, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluetan ezarritako eran.

Departamentuak jakinarazi zigun eginiko gogorazpena onartzen zuela.

II- 06. OGASUNA**UDAL TRIBUTUAK****TASAK EZARTZEA KALEAN PERFORMANCE BAT EGITEAGATIK.****AURREKARIAK**

Kasu honetan, kexaren egileak Seminario pasabidean eginiko "performance" baten garapena aipatzen zuen; "performance" hori 2002ko ekainaren 11tik 16ra bitartean antolatu zen. Ekitaldia herritarrei zuzenduta zegoen eta artea jendeari hurbiltzea zuen helburu. Halaber, Iruñeko Udaleko Kultura Arloak babestutako ekitaldia zen.

Ekitaldiak kultur balio handia izan arren eta artistak hori egiteagatik onura ekonomikorik lortu ez zuen arren, aipatu udalak ordainagiri bat igorri zion, lurzorua okupatzeagatik tasa bat ordaintzeko eskatuz. Hori dela eta, interesdunak berraztertze-ko errekurtsioa paratu zuen, likidazioa deuseztatze-ko eskatuz, baina ez zuen erantzunik jaso.

Gai horri lotuta, Iruñeko Udalak hauxe jakinarazi zigun:

"[...] jaunaren ekimenez, Kultura Arloak aipatu "performancea" egiteko laguntza eman zuen eta, horretarako, hainbat material utzi zituen, baita giza laguntza eta 1.044 euroko dirulaguntza eman ere. Kopuru hori [...] jaunari ordaindu zitzaion eta aipatu jarduerak eragindako gastuak finantzatzeko erabili zen, eta gastu horien artean sartzen ziren lurzoru publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko udal tasak ere.

"[...] jaunak bide publikoa aukeratu zuen bere jarduera egiteko, eta bide publikoa okupatzeagatik udal tasak ordaindu behar dira. Beste leku bat aukeratu izan balu, udaletxeko erakusketa areto bat kasu, ez luke kontzeptu horrengatik deus ordaindu beharko."

ANALISIA

Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, 4/1999 Foru Legeak aldatu zuenak, tasak aipatzen ditu Nafarroako toki entitateen finantza-baliabideen artean. Horrela, foru lege horren 100. artikuluan hau ezartzen da: "Toki entitateek (...) zilegi izanen dute tasak ezartzea tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik eta beren eskumenpeko zerbitzu edo jarduerak eman edo egiteagatik. Zergagaitzat joko da tokiko jabetza publikoa modu eskklusiboan erabiltzea edo modu berezian probetxatzea."

Artikulu horren 4. atalean hainbat kasu ezartzen dira, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezartzea justifikatzen dutenak. Zerrenda hori ez da itxia, baina tasak ezartzea berekin dakarten balizko kasuei buruzko orientabidea ematen digu.

Bada, "performance artistiko" bat instalatzea ezin daiteke alderatu zerrenda horretan agertzen diren jarduerekin; izan ere, hurbilena 4/1999 Foru Legeko 100.4. artikuluko n) letra izanen litzateke, baita tokiko jabari publikoaren lurzoru, lurgain edo lurrazpiaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik Iruñeko Udaleko 21. ordenantza fiskaleko h) letra. Bi letra horiek aipatzen dute "postuak, barrakak, saltzeko txabolak, ikuskizunak, atrakzioak edo jolastokiak tokiko erabilera publikoko terrenoetan ezartzea, baita kaleko industriak eta tokiz tokiko industriak ezartzea eta zine filmazioak egitea ere," baina hori ez da erabat zuzena jarduera honi dagokionez, erakusketa artistiko elkarreragilea baita, haurrentzako tailerrez eta musika kontzertuen lagundua. Horrenbestez, zaila da [...] jaunak garatutako "performancea" sartzea araudian tasa ezartzeko zergagai gisa aurreikusten diren kasuetan.

Bigarrenik, aztertu behar da [...] jaunak tasaren subjektu pasibotzat hartzeko baldintzak betetzen dituen. Lehen aipatutako 4/1999 Foru Legea jotzen badugu, 104. artikuluan ondokoa ezartzen da: "1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren partez, pertsona fisiko edo juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen duten entitateak:

a) Baldin tokiko jabari publikoa bereziki beren mesede erabili edo aprobetxatzen badute, Foru Lege honetako 100.4 artikuluko aurreikusten dituen kasuetako baten arabera.

Kasu zehatz honetan, ezin dugu esan kexa-egileak onurarik edo aprobetxamendu berezi zenbakaririk atera duenik jarduera artistiko horren antolaketarekin; izan ere, jarduera horren xedea zen artea herritarrei hurbiltzea haurrentzako tailer-rrak bezalako jardueren bitartez, hain zuzen, helburu erabat hezigarria. Are gehiago, Iruñeko Udaleko kultura Alorrek, jarduera horri buruz eginiko txostenean onartu zuen "proposamena oso interesgarria zela hiriaren hedapen eta sustapenerako, baita sormen artistikorako ere"

Halaber, udalak erakunde honi bidalitako txostenean onartzen du "udaletxeko erakusketa aretoa aukeratu izan balu, ez zukeela kontzeptu horrengatik deus ordaindu beharko," eta horrekin onartzen ari da, inplizituki, beste artista batzuek ez dutela ezer ordaintzen lokal horietan erakusketak

egiteagatik, xede artistikoa dutelako, “performance” honek duen xede berbera, alegia.

Horretaz gain, beharrezkoa da gogora ekartzea 1997an artista honek beste “performance-happening” bat egin zuela Gaztelu plazan, eta Iruñeko Udalak ez ziola deus ere kobratu bere xede kulturala kontuan hartuta. Hain zuzen, erakustaldi artistiko hura Seminario pasabidean egindakoaren antzekoa zen, eta administrazio aurrekari hori aintzat hartuta, ez zitzaion zergarik ezarri behar.

Hirugarrenik, uste dugu beharrezkoa dela aipatzea interesdunari tasa gisa ordaindu beharreko zenbatekoari buruz eginiko jakinarazpena. Izan ere, Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariak interesdunari igorritako ebazpenean soilik hau jakinarazten zaio: “okupatutako azalera neurtu ondoren, behar diren tasak ordaindu beharko dira, hain zuzen, 0,47 euro hamar metro karratuko eta eguneko;” baina ez da zehazten “performanceak” okupatutako metro karratu kopurua, ezta horren ondoriozko tributu kuota ere.

Puntu honetan Iruñeko Udalaren 21. ordenantzen 6. artikulura jo behar dugu berriro. Artikulu horren arabera, “tarifak aplikatzeko oinarria okupatutako bide publikoaren erabileraren edo aprobetxamenduaren iraupenaren arabera zehaztuko da.” Kasu honetan, zerga-oinarria “performanceak” irauin zuen egunetan okupatutako metro koadroen arabera zehaztu da. Dena den, zerga-oinarri hori ez da zehazten interesdunari igorritako jakinarazpenean. Gainera, interesdunak dioenez, han ez zen agertu agintaritzaren agenterik edota langilerik egiaz okupatutako azalera neurtzeko; beraz, tasaren zerga-oinarria ez dago zehaztuta.

Zerga-oinarria ez bada zehaztu, ez da zehaztu, halaber, interesdunak ordaindu beharreko kuota; izan ere, horretarako eragiketa matematiko bat egin behar da, hain zuzen, egiaz okupatutako metro koadroak —eta horretarako neurketa ofiziala egin behar zen, in situ— biderkatu behar dira ezarritako diru kopuruaz. Tasaren jakinarazpenak ez du jasotzen eragiketa matematiko hori ere; hori dela eta, interesdunak ez daki udalarekin hartutako zerga zorra. Horrenbestez, tributu harremana dagoela zehazteko behar diren oinarritzko elementuak falta dira.

Horren ondorioz, gure ustez beharrezkoa da Iruñeko Udalarik GOMENDIO bat egitea, [...] jauna tasa ordaintzetik salbuetsizat jo dezan; izan ere, kexa-egileak ez du onurarik edo aprobetxamendu berezi zenbakaririk atera tokiko jabari publikoaren lurzorua erabiltzeagatik.

Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako Alorreko zinegotzi ordezkariak bidalitako erantzunean,

adierazi zigun kexaren egileari ez zitzaiola azkenean bide publikoa okupatzeagatik tasarik eskatu, ez baitzen egiaztatu egiaz erabilitako azalera.

Hori dela eta, ulertu genuen egindako gomendioa onartu zutela, eta hala jakinarazi genion kexaren egileari, nahiz eta guk ebazpenean ondorioztatutako arrazoiak ez beste batzuegatik onartu izan. Hala ere, gure argudioetako hirugarrenean nabarmentzen genuen espresuki tasa ordainaraztea ez zela egokia, udalak ez baitzuen modu fedemailean egiaztatu zergadunak okupatutako lurzoru publikoaren azalaren neurketa.

UDAL KATASTROKO ONDASUNEN TITULARTASUNA ALDATZEA.

Kexa-egilea (02/271/H espediente) ez zetoarren bat Tafallako Udalak igorritako enbargo-probidentzia batekin. Horren bidez, udalak eskatzen zion lursail batzuei zegokien lur-kontribuzioa ordaintzeko. Aitzitik, kexa-egileak azaldu zigun lursail horiek ez direla bere jabetzakoak.

Interesdunak azaldu zigunez, 1991 eta 1992. urteetan bere jabetzako lursail batzuk besterendu zizkien hainbat erosleri. Salmenta horiek eskritura publiko bidez burutu ziren eta beharrezko titulartasun aldaketak inskribatu ziren Tafallako Jabetza Erregistroan. Hala ere, udalera jo zuenean jabe aldaketa udal katastroan islatu zedin eskatzeko, eskaerari uko egin zioten, hain zuzen, lursailak banatu eta sail txikitari saltzeko baimena falta zitzaiolako.

Bere esanetan, nahiz eta udalak ondo jakin lursaila saldu zuela, kontribuzioaren ordainagiriak bidaltzen jarraitu du. Dena den, kexa-egileak ez ditu ordainagiri horiek ordaindu, eskualdaketa dataz geroztik ez baita zergapeko lursailen jabe.

Ondoren, interesdunak eginbide bat jaso zuen, eta berorren bidez jakinarazi zitzaion 607,52 euro enbargatu zizkiotela, 2001eko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioz itzultitako zenbatekoen kargura. Enbargoaren arrazoia zen 1994. urtetik 2000.era bitarteko ekitaldietan lur-kontribuzioa dela eta hartutako zorra; baina 1992az geroztik lursail horiek ez dira bere jabetzakoak.

Hori guztia kontuan hartuta, eskatzen zuen udal katastroa aldatzea eta lursail horiek gaur egungo jabeen izenean inskribatzea, Tafallako Jabetza Erregistroan agertzen diren moduan. Halaber, zerga horiek ordaintzeko arduraduntzat ez izatea eskatzen zuen, baita zergak ez ordaintzeagatik hartutako balizko zorra deuseztatzea eta PFEZaren aitortzearen atxikitakoa itzultzea ere.

Tafallako Udalak, alkate udalburuaren bidez, ondokoa adierazi zigun interesdunak planteatuta-koarekin lotuta:

“LEHENA.- 1991ko martxoaren 14an, [...] jaunak baimena eskatu zuen, bere oilasko-granja biltegi bihurtzeko, eraikina eraldatu gabe. 1991ko martxoaren 21ean, Gobernu Batzordeak, txosten teknikoa ikusi ondoren, erabilera aldatzearen aurkako txostena ematea erabaki zuen, lurzoru horretan (nekazaritza produkzio handiko lurzoru urbanizaezina) ez baita sartzan eskatutako biltegi erabilera. Hala ere, planaren berrazterketa egiteke zegoenez, jakinarazi zitzaion bere proposamena kontuan hartuko zela aipatu plana idazterakoan, eta bere garaian berraztertuko zela. Erabakiaren jakinarazpena 1991ko apirilaren 4an jaso zuen interesdunak.

BIGARRENA.- [...] jaunak gaia berriro aztertze-ko hainbat ahozko eskaera egin ondoren, Gobernu Batzordeak, 1991ko irailaren 5ean eginiko bilkuran, beste erabaki bat hartu zuen. Horren arabera, plan orokorrak proposatutako erabilera baimentzen ez duen arren, udalaren interesen arabera da gaur egungo jarduera kentzea, hirigunetik hurbil baitago. Horrenbestez, 6/87 Foru Legearen 31. artikuluari jarraikiz, erabilera aldaketari buruzko txostena eskatu zitzaion Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiroko Batzordeari. Entitate horrek irailaren 17an jaso zuen eskaera.

HIRUGARRENA.- Lurraldearen Antolamendu Departamentuak urriaren 2an erantzun zuen eta dokumentazioa igortzeko eskatu, hala nola nabea-ri emanen zaion erabilera zehatza. Informazio hori urriaren 9an eskatu zitzaion interesdunari, honek urriaren 17an aurkeztu zuen eta udalak gobernuari bidali zion urriaren 18an.

LAUGARRENA.- 1991ko abenduaren 27an –idazkiak 1992ko urtarrilaren 3ko sarrera-data dauka–, Lurraldearen Antolamendu Departamentuak jakinarazi zuen arrazoizkoa izan zitekeela eraikina enklabetzat hartzea, ondare eraikigarria baita, baina baldintza batzuk jartzen ditu jarduera bat garatu ahal izateko, jarduera sailkatuen espedientearen tramitazioan bete beharko direnak. Hori ikusirik, Gobernu Batzordeak, urtarrilaren 16an eginiko bileran, informazio osoa interesdunari bidaltzeko erabakia hartu zuen. Halaber, jarduera sailkatuaren espedienteak hasteko eskatu zion, erabilera aldaketa gauzatu ahal izateko. Erabaki hori 1992ko urtarrilaren 23an jakinarazi zitzaion [...] jaunari.

BOSGARRENA.- 1992ko martxoaren 24an, udal arkitektoak txostena igorri zion Hirigintza Batzordeari, eta bertan jakinarazi zion interesdu-

nak ez zuela jarduera sailkaturik aurkeztu; aitzitik, nabea saldu egin zuela eta bere nahierara zatitu zuela, erosleen beharrezan arabera. Horrenbestez, legearen kontrako hirigintza lurzaketak zirela, lizentziarik gabe eginak, eta zaila izanzen zela departamentuak ezarritako baldintzak betetzen zituen jarduera espedienteak egokitzea nabearen zatiketa berrietara. Bere iritziz, jabea ohartarazi behar zen bere egintzak legearen aurkakoak izateaz, eta zehapen espedienteari ekin behar zitzaion. Hala ere, batzordeak ez zuen inolako erabakirik hartu gai horri buruz.

SEIGARRENA.- 1992ko maiatzaren 29an, udal aparejadoreak txostena aurkeztu zuen, eta bertan adierazi zuen batzordeak ez duela ezer erabaki arkitektoak eginiko txostenari buruz, baina lurzati horretan jarduteko hainbat lizentzia eskaera zuzenduz, hura ikuskatzera joan zela eta egiaztatu zuela hainbat lan egin zirela, obra lizentzia eta banantzeko lizentziarik gabe. Halaber, txostenean obra horiek deskribatu zituen. Txostenak ikusirik, alkateak, ekainaren 5eko ebazpenaren bidez, obrak geldiarazteko erabakia hartu zuen, baita lizentziak eskatzeko epea ematekoa eta zehapen espedienteak hasteko ere. Erabakiaren berri egun horretan bertan eman zitzaion [...] jaunari.

ZAZPIGARRENA.- 1992ko urriaren 14an, aparejadore baten agiria aurkeztu zuten, eta bertan, eginiko zatiketak zehazten ziren. Era berean, [...] jaunak bere jabetzako granja eta nekazaritzako lursailaren banantze eta jarduera-espedienteak aurkeztu zuen 1993ko urtarrilaren 18an. 1993ko otsailaren 2an, udal arkitektoak txostena eman zuen eta bertan adierazi zuen testu horrek ez zuela baliorik jarduera sailkatuaren proiektu gisa, ez baitzegoen ez teknikari batek sinatua, ez bisatua, eta ez baitzuten betetzen indarrean zegoen araudiak ezarritako baldintzak. Halaber, adierazi zuen ordu-ra arte eginiko jarduketetatik hirigintza arloko arau-hauste larriak ondoriozta daitezkeela, hala nola: Lurzoruari buruzko 1/92 Legearen 257., 137., 142. eta 45.1. artikulua, eta horren ondorioei buruzko ohartarazpena egin ondoren, proposatu zuen jabeari eskatzea 15 eguneko epean jarduera sailkatuaren proiektua eta legeztatze behar zen dokumentazio guztia aurkez zitzan, besteak beste. Txostena ikusirik, Gobernu Batzordeak, 1993ko otsailaren 4an eginiko bileran, bertan proposatzen zenaren arabera erabakia hartu zuen. Erabaki hori urte hartako otsailaren 16an jakinarazi zitzaion interesdunari.

ZORTZIGARRENA.- 1993ko azaroaren 4an, zerbitzu teknikoek txostena aurkeztu zuten, eta bertan adierazi zuten jabeak ez zuela inongo dokumentaziorik aurkeztu eta proposatu zuten

espedientea Lurraldearen Antolamendu Departamentura bidaltzea. Gobernu Batzordeak hori onetsi zuen azaroaren 4an eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuari berri eman zion azaroaren 17an. Departamentuak ez zuen erantzun.

BEDERATZIGARRENA.- 1993ko azaroaren 23an, [...] jaunak eskatu zuen adierazitako jabetzei buruzko kontribuzioak, ordainketak eta kargak ordaintzetik salbuesteko eta, halaber, Torreta dermioko 29. poligonoko 123. lurzatian eginiko banaketan eta salmenten berri eman zuen.

Ondorioak:

LEHENA.- Finka horrek nekazaritza produkzio handiko lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa dauka eta hasieran abeltzaintzarako erabiltzen bazuen ere, [...] jaunak biltegi erabilera eman nahi izan zion, baina udalak hainbat kudeaketa egin ondoren, jabeak berak geldiarazi zuen prozesua, ez baitzuen aurkeztu jarduera sailkatuei buruzko araudiak eskatzen duen dokumentazioa.

BIGARRENA.- Horren ondorioz, lurzoria nekazaritza produkzio handiko lurzoru urbanizaezin gisa geratu da. Hala ere, une jakin batean zatikako salmentak egin dira, baina ez Notaritzak, ez Erregistroak, ez dute eskatu behar den banantze-baimena.

HIRUGARRENA.- Hori dela eta, egindako salmenten berri ematearekin batera, lurzoria banantzeko eskaera jaso genuen, baina ezinezkoa da eskaera hori onartzea eta baimentzea; izan ere, ez ditu betetzen 205/96 Foru Dekretuaren 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak, ez baita errespetatzen gutxieneko laborantza unitatea. Horrenbestez, orain arte ez zaio eman finka lurzaticatze-ko lizentziarik, ezta bereizteko lizentziarik ere.

LAUGARRENA.- Halaber, katastroa ez da aldatu eta ordainagiriak finkaren titularrari bidali zaizkio; izan ere, honek eskatzen ahal zien erosleei kasuan kasuko ordainketa. Dena den, udalak barne-analisisa egin du, eta bertan planteatzen da, egoera ikusirik, banantzeko baimenik ez izatearen eta emateko ezintasunaren ondorioz sortutako arazoa konpontzeko aukera badagoela. Konponbide horren arabera, aurrerantzean ere finka bakarizat hartuko litzateke, baina katastroan jasoko lirateke erosle bakoitzaren portzentajeak, ondasun banatugabea baillitzan.

BOSGARRENA.- Kontribuzio kuoten likidazioa erroldan finkaren titular gisa azaltzen denari egin zaio, eta horrek ez du udalean erreklamaziorik aurkeztu ordainagiriak bidali zaizkionean”

ANALISIA

1. Udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ondorioztatu genuen planteatutako arazo guztiak interesatuak hirigintzari eta nekazaritzari buruzko araudiaren aurka hasieran eginiko arauhausteen ondorio direla; izan ere, 1992an animaliak hazteko nabe bat eraikia zuen landa-lurzati bat zatikatu eta saldu zuen. Eta hala, bada, [...] jaunak bere nahierara banandu zuen lurzattia, erosleen beharrez araber, eta lurzattia eta nabearen zatiak lote bereizietan saldu zituen. Jokamolde horrekin ez zuen bete udalari lurzaticetarako baimena eskatzeko betebeharra, agian baimenik ez ziotela emanen pentsatuta, saldu nahi zituen zatiketaren ondoriozko lurzattia gutxieneko laborantza unitateetarako ezarritako azalera baino txikiagoak baitziren.

Salmenta egin zenean, indarrean zegoen Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretua. Arau horren 16.1. artikuluan ezartzen zen, lurzoru ez urbanizagarriari zegokionez: “lurzoru mota honetako lurzaticien jabetza-transferentzietan, zatiketetan eta bereizketetan ezin izanen da inolako lurzaticetarik egin nekazaritzako edo antzeko bestelako legerian xedatutakoaren aurka, nahi den xedea lortze aldera”.

Halaber, arau horren 257.2. artikulua zehazten zuen: “legez kanpokotzat hartzen dira, hirigintza aldetik, aplikagarria den hirigintza-planeamenduan ezarritakoaren aurka jotzen duten lurzaticetak, baita hirigintza-araudian ezarritakoa urratzen duena ere”. Horretaz gain, gaur egun bezala, udal lizentzia beharrezkoa zen obrak egin ahal izateko, aipatu legearen 242. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aplikatzekoa zen nekazaritza arloko araudia Nekazaritza berri eta garatzeko Legea zen, 118/1973 Errege Dekretuaren bidez onetsia. Lege horrek gutxieneko laborantza unitatea ezartzen zuen.

Lizentzia eskatzeko beharra ere aurreikusten da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 221.1. artikuluan. Artikulu horrek espresuki aipatzen ditu landa finken bereizketa eta banaketak, eta aplikagarria zen kexa egin zenean.

Horrenbestez, ez dugu onartzen kexaren egileak egindako alegazioa, hain zuzen, dioenean “saldu zenean baimenik ez zuela behar, ez baitzen onartu”. Izan ere, salmenta egin zenean indarrean zegoen araudiak argi ezartzen zuen legearen aurkakoak zirela gutxieneko laborantza

unitatea errespetatzen ez zuten bereizketak. Halaber, ezartzen zuen derrigorrezkoa zela lurzatiketa egitea lurzattia lotetan saldu aurretik, baita nekazaritza biltegia zatitzeko ere. Hori dela eta, ondorioztatu behar dugu [...] jaunak hirigintzaren eta nekazaritzaren arloko arau-hauste nabarmenak egin zituela.

2. Partikularraren ardura zehazturik, beharrezkoa da egiaztatzea udalak administrazio akzioak erabiltzeko preskripzio epeak bete diren. Horrela, ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren 262.1. artikuluan ezartzen zenez, "arau-hauste larritzat joko dira lurzatiketei buruzko arauak ez betetzea dakarten egintzak edo egintza ezak (...)", eta horien preskripzio epea lau urtekoa zela ezartzen zuen, arau-haustea egin zen egunetik hasita edo, kasua bada, zehapen-prozedura hasi behar zen egunetik.

[...] jaunak 1992an saldu zituen legearen aurka bereiztutako lurzatiak, eta udal arkitektoak 1992ko martxoaren 24an Hirigintza Batzordeari igorritako txostenean nabarmentzen zuenez, salmentaz gain, lurzoruaren gainean obrak egin ziren, beharrezko obra lizentziarik gabe. Halaber, 1993ko azaroaren 23an, interesdunak baja eskatu zuen kontribuzioan, baita egindako bereizketen eta ondorengo salmenten berri eman ere, eta horrela, subjektu pasiboek duten betebeharra bete zuen, hain zuzen, beren ondasunetan izandako aldaketen berri ematekoa ondasunak dauden udalerriko udalari.

Horrenbestez, agerikoa da egun hartatik aurrera udalak modu fede-emailean izan zuela eginiko arau-haustearen berri, eta, horren ondorioz, behartuta zegoen hirigintzako legezkotasunaren babeserako prozedura hastera, horretarako ahalmena ematen baitzioten ekainaren 26ko Legegintzako Errege Dekretuaren 248. artikulua eta ondorengoek, baita zegokion zehapen espediente ere.

Arau horretan oinarrituta, 1992ko ekainaren 5ean, alkateak erabaki zuen obrak geldiaraztea eta espedientea hastea. Halaber, [...] jaunari epe bat eman zion, behar ziren lizentziak eskatu eta obra legeztatu zezan. Administrazio egintza hori ez zen ebazpen zehatz batean islatu ordea. Bere egintza eza justifikatzeko, udalak alegatzen du 1993ko azaroaren 4an espediente bidali zuela Lurraldearen Antolamendu Departamentura, eta horrek ez zuela gaiari buruzko txostenik eman. Puntu horri dagokionez, gogora ekarri behar da udalen ardura dela begiratzea hirigintzako legezkotasuna errespetatzen dela bere lurralde esparruan, eta bere pasibotasuna ez dela aitzakia nahi-

koa egoera bat ez-legezkitasunean mantentzeko, egin duen moduan.

Hori dela eta, 1992ko ekainaren 5ean hasitako hirigintzako legezkotasuna babesteko prozedura iraungi egin da udalaren jardun ezaren ondorioz, eta zaila izanen du berriro hastea; izan ere, hirigintza arloko araudiak ezarritako preskripzio epea alde handiz igaro da. Halaber, zehapen espediente hasteko aukerak ere preskribitu du.

3. Hirugarrenik, beharrezkoa da aipatzea udalak duen betebeharra udal katastroa Jabetza Erregistroko datuen arabera egokitzeko.

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen arabera, zergaldi bakoitzerako, udalek katastroko datuak gaurkotuko dituzte Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuen arabera. Gainera, katastroaren kontserbazioak aditzera ematen zaizkien aldaketa, oker edo omisioak jaso, gainbegiratu eta egiaztatzeko betebeharra hartzen du.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala martxoaren 10eko 3/1995 Foru Legean araututa dago, eta arau horren 22. artikuluan eta ondorengoetan zehazten da datu base hori Jabetza Erregistroarekin koordinatu behar dela. Horri dagokionez, 23. artikulua ezartzen du Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalaren eta Jabetza Erregistroaren arteko koordinazioaren xedea dela bien arteko kidetasuna ezartzea, bakoitzak jarduteko dituen teknikak erabiliz. Jabetza Erregistroak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalari igorriko dio koordinaturik dauden finen jabetzaren edota eskubide erreala dituzten titularren izena, katastroko erreferentziaren bidez behar bezala identifikatuak. Arau horiek indarrean sartu aurretik ere jabea behartuta zegoen zergapeko finen titulartasunean izandako aldaketan berri ematera eta, halaber, katastroek Jabetza Erregistroko datuekin bat etorri behar zuten.

Planteatutako kasuan, dirudienez, duela urte dezente egin zen Jabetza Erregistroko inskripzioa eskuratzailen izenean, hala aitortzen du behintzat Tafallako Udalak bere txostenean. Horrenbestez, bere betebeharra zen Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala gaurkotzea eta finka horien erregistro titulartasun berria gehitzea, egin behar zuen moduan, lurzatiaren bereizketaren eta salmentaren aurka esku hartu ezean.

Udalak alegatzen du katastroko datuak ez direla aldatu –datu horiek dira lurralde kontribuzioa eskatzeko oinarri juridikoa–salmenta aurreko banaketa debekatuta zegoelako, eta, horrenbestez, katastroko datuak aldatzeak, egitez, legeztatu-

tzea ekarriko zuelako. Dena den, kontuan hartu behar da udalaren pasibotasuna izan dela egoeraren legeztatzea ekarri duena, preskripzio epea igarotzeagatik. Hori dela eta, udalak bere gain hartu behar ditu bere administrazio jardun ezaren ondorio juridikoak, eta gaur egungo udal katastroa aldatu behar du eta bertan jaso Jabetza Erregistroan islatutako finkaren titulartasun aldaketa.

4. Azkenik, [...] jaunari lurralde kontribuzioaren kuota ordaintzeko eskatzea legezkoa den aztertu behar da.

Zerga hori Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 133. artikuluan eta hurrengoetan araututa dago. Ondasunen jabetzak ezartzen du zergapeko egintza (134. artikulua) eta zergaren subjektu pasiboak dira, besteak beste, katastroan zergapeko ondasun higiezinaren jabe gisa azaltzen diren pertsona fisikoak.

Halaber, ezartzen da subjektu pasiboek euren ondasunetan izandako aldaketak deklaratzeko betebeharra dutela ondasun horiek direneko udalerriko udaletxean. Horren ondorioetarako, maila juridikoko aldaketatzat hartzen da ondasun higiezinaren bereizketa, eta horrenbestez, udaletxean jakinarazi behar da eskritura publikoa egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Bidali diguten txostenean esaten da [...] jaunak 1993ko azaroaren 23an eman ziola udalari 29. poligonoko 123. lurzatian eginiko banaketen eta salmenten berri, baina udal arkitektoak bazuen horren berri lehenagotik ere. Hori dela eta, egun horretatik aurrera, Tafallako Udalak modu fedemailean zekien interesduna jada ez zela finka horren jabea eta, horrenbestez, jada ez zuela subjektu pasibo izaerarik, hain zuzen, tributua eskatu ahal izateko ezinbesteko baldintza. Kasu honetan, eska ziezaiokeen partikularrari erregistroko inskripzioa ziurtatzeko, titulartasun aldaketa egiaztatze aldera, baina hori ere ez zion eskatu.

Tributuaren ardura zuten subjektu pasiboaren aldaketa ezagutu arren, gaur arte, udalak kexaren egileari eskatu dio zerga ordaintzeko, udal katastroan agertzen diren datuetan oinarrituta; izan ere, bertan oraindik jabe gisa agertzen da, katastro horrek Jabetza Erregistroa egokituta aspaldi egon behar bazuen ere. Kasu honetan, interesdunak Tafallako 1. Jabetza Erregistroaren ohar soila aurkeztu zuen, 2002ko uztailaren 29an emana, eta bertan azaltzen da azken inskripzioa 1996ko apirilaren 24an egin zela eta, horrenbestez, egun horretatik aurrera jakina da [...] jauna ez dela finkaren jabea.

Hori dela eta, uste dugu ez dela onargarria lurralde kontribuzioa [...] jaunari eskatzea, bera ez baita finkaren egiazko jabea eta, horrenbestez, ez da zerga horren subjektu pasiboa. Horren ondorioz, subjektu pasibo hori ezin da izan zergapeko egintzaren arduradun. Kasua bada, Jabetza Erregistroan finkaren gaur egungo jabe gisa agertzen direnei eskatu behar die udalak zerga hori ordaintzeko, kontuan hartuta, gainera, ezin izanen diela zor osoa eskatu, preskribitu ez duten likidazioak baizik.

Azaldutako guztiagatik, zegokion GOMENDIOA egin zitzaion Tafallako Udalari, udal katastroa aldatu eta Jabetza Erregistroan agertzen diren datuetara egoki zezan, erregistroak irudikatzen duen errealitate juridikoa islatze aldera. Halaber, lurraldearen kontribuzioaren kuotak ez ordaintzeagatik 2002ko ekainaren 17an emandako kreditu-bahitze eginbidea deuseztatzea gomendatu genion, kexa-egileak tributuen subjektu pasiboa izateari utzi ziola ondorioztatzen den urteetan, baita urte horiei dagozkien zenbatekoak itzultzeko ere.

Tafallako Udalak, berriro alkate udalburuaren bidez, Udal Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren ziurtagiria bidali zигun. Horren bidez katastroa aldatuko zen gure gomendioan planteatutako-ari jarraikiz.

ZERGADUNAREN ORDEZKOARI HORNIDURA, SANEAMENDU ETA HIRI-HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUENGATIKO TASAK ESKATZEA.

Beste kasu honetan (03/62/H) kexa Jurramediko Mankomunitateak bidalitako likidazioei buruzkoa zen, hain zuzen, kexa-egilearen jabetzako higiezin batengatik hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuengatik kobratzeke zeuden tasak eskatzeko.

Kexa-egileak azaldu zигun Lizarrako Foruen kalean dagoen merkataritza lokal baten jabe zela eta lokal hori [...] andreari errentan eman ziola. Errentariak kontratu bat sinatu zuen aipatu mankomunitatearekin hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuak emateko, baina zerbitzu horiek ez zituen ordaindu negozioko jarduerak irauin zuen hemeretzi hilabeteetan. Adierazi zigunez, geroago negozioa zigilatu egin zuten epailearen aginduz eta mankomunitateak interesdunarengana jo eta zorra ordaintzeko eskatu zion, higiezinaren jabea zenez gero zergadunaren ordezkoa zela ulertzen baitzuen.

Bere aldetik, Jurramediko Mankomunitateak adierazi zигun kexa-egileari tasen likidazioa jakinarazi ziotela errentariak ez zituelako ordaindu; izan

ere, legearen arabera, kexa-egilea zergadunaren ordezkoa da.

Hain zuzen ere, likidazioen aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren ebazpenean argi eta garbi azaltzen den moduan, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 104.2. artikuluan ezartzen da higiezin jabeak zergadunen ordezkotzat hartzen direla etxebizitza edo lokalak okupatzen dituztenei eragina edo onura egiten dieten zerbitzuen aldera jarritako tasen kasuan eta, hain zuzen, horixe da hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuen kasua.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 23. artikuluan definitzen da zergadunaren ordezkoa eta horren arabera, legeak hala aginduta haren ordezkotzat tributu obligazioaren prestazio material eta formalak egitera beharturik dagoen subjektu pasiboa da. Halaxe dio arauak: zergadunaren ordezkotzat izanen da foru legeak hala aginduta eta haren ordezkotzat tributu obligazioaren prestazio material eta formalak egitera beharturik dagoen subjektu pasiboa.

Arau horiek lotzen baditugu, bistakoa da kexaren egileak, lokalaren jabea den aldetik, mankomunitateari tasak ordaintzeko ardura duela, zergadunaren ordezkotzat baita legeak hala aginduta. Ezin dira legeak ezarritako arazoak ez diren beste batzuk erabili tributu ordainarazpen horiek behar bezala kudeatzeko; izan ere, legekototasun printzipioarekin bat, tributuen osagarriak zorrotz arautzen dira legeen bidez, eta partikularrek edo administrazioak ezin dute araubide hori aldatu; halaber, debekatuta daude legearen bidez ezarritako araubidea alda dezaketean interpretazioak.

Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bidez diseinatutako sistemaren xedea da, jakina, administrazioaren aldeko tasak kobratzeko kudeaketa erraztea; izan ere, ondasun higiezin izaerak berak bermatzen du, bidezko bilketa-prozeduraren bidez zorrak ordainaraz baitaitezke.

Hala ere, legean ezartzen da jabeek zilegi izanen dutela tasak, hala tokatzen bada, kasuko onura hartzaileei egozte, 104.2. artikuluan adierazten denez, baina egotzita edo egotzi gabe, mankomunitateak ezin du tributuen likidazioa kobratu gabe utzi, eta kobratzeko betebeharra du gainera; izan ere, ematen dituen zerbitzuak oinarritzeko dira eta tasen bidez finantzatzen dira eta, horretaz gain, legeak legitimazioa ematen die zerbitzu horiek jasotzen dituzten higiezin jabeek tasak ordainarazteko.

Horren ondorioz, kexa-egileari erantzun genion gure ustez mankomunitateak ez duela irregulartasunik egin berari tasak eskatzeagatik, kasuko lokalaren jabea baita.

Kexaren egileak guk ateratako ondorioekin ez zegoela ados adierazi zigunez, azaldu genion, lehenik eta behin, halako desadostasunak zilegiak direla eta horregatik onartzen ditugula; izan ere, gure eginkizuna da herritarrei laguntza ematea administrazioarekin dituzten harremanetan, eta bereziki garrantzitsua da haien arazoak eta iritziak ezagutzea, ez bakarrik haien eskubide eta interes zilegiak defendatzen saiatzeko, baita administrazio publikoaren kalitatea eta herritarrekin dituen harremanak hobetzen saiatzeko ere.

Bigarrenik, adierazi genion mankomunitateak legea aplikatu besterik ez duela egin; eta, horregatik, ezin izan dugu irregulartasunik atzeman uraren eta zabor-bilketaren ordainagiriak bidaltzeagatik; izan ere, lokalaren jabea baita. Horren haritik, uste dugu mankomunitateak antolamendu juridikoa errespetatu duela. Are gehiago, egiaztatu du ordainagiriak kobratzen saiatzeko lokalaren errentariaren aurkako betearazte-bidea ere erabili zuela, baina, saiakera guztiak alferrikako izan zirenez, mankomunitateak jabearen aurka jo zuten ordainagiriak kobratzeko; izan ere, antolamendu juridikoak hori egiteko baimena ematen du.

Halaber, azaldu genion gai hori arautzen duen foru legeak estatuko legeriaren irizpide berberak jarraitzen dituela, hain zuzen, jabea zergadunaren ordezkotzat hartzea; izan ere, ematen du hori dela toki entitateek ematen dituzten oinarri-oinarritzko zerbitzu horiei dagozkien tasak kobratzea bermatzeko modu bakarra. Ulergarria da batzuetan nagusi izaten den iritzia, hau da, halako kasuetan egokiena tasak lokalaren errentariari eskatzea izan litzatekeela dioena, bera baita zerbitzu horien egiazko onuraduna. Baina ezin da alde batera utzi legearen xedea dela betiere zerbitzu horien finantzaketa bermatzea eta, hala, nahikoa berme aurkitzen du higiezin jabetzan, eta ez hainbestekoa, ordea, administrazioak ordaintzen ez duten errentarien aurka jotzen badu; izan ere, horiek erraz saihestu baititzakete haien zerga betebeharrak. Horrek ez du esan nahi legeak bidegabeak direnik, idazkian esaten den moduan; izan ere, finean, haien xedea da zehaztea nork ordaindu behar duen oinarritzko zerbitzu bat zergadun batek bere betebeharrak saihesten dituenean eta zorrak nahitaezko exekuzioaren bidez kobratzerik ez dagoenean, zergadunak ondasun ezagunik ez duelako. Kasu horietan, aukeratu egin behar da higiezinaren jabeak ala erabiltzaile guztiek, oro har, hartu behar dituzten bere gain zenbateko ordaindu

gabeak; izan ere, zerbitzua ezin da eten, eta legeak aukeratu du jabea izatea arduraduna zergadun nagusiaren ordean, gainerako zergadunak izan beharrean.

Edonola ere, kexa-egileak adierazi digu Jurrmendiko Mankomunitateak errentariaren aurka jo behar zuela ordainagiriak itzuli zituen lehen alditik hasita; izan ere, arazorik gabe eten zezakeen ur-hornidura. Beraz, mankomunitateak neurriak azkarrago hartu izan balitu, kexa-egileak ez zituen ordaindu beharko orain eskatzen dizkieten ordainagiri guztiak. Horrela da, bai. Izan ere, negozio-lokala izanda, eta ez etxebizitza, uraren zerbitzua eten zitekeen zergadun nagusiaren aurkako neurri gisa, hainbat hilabete pasatzen utzi beharrean, lokalaren jabearen kalterako, orain berak sortu ez zituen zorrak hartu behar baititu bere gain. Mankomunitateak ordainagiriak kobratzeko kudeaketa zehazkiago eginen balu eta ordainagirien kobratzea ardura handiagoz jarraituko balu, lokalaren jabeak legeak behartuta ordaindu behar dituen zorren zenbatekoa txikiagoa izanen litzateke. Horren haritik, gure ustez egokia zen tributuen likidazioen kudeaketa hobetzeko neurriak hartzea.

Azaldukoagatik, IRADOKIZUN bat egin genion Jurrmendiko Mankomunitateari, aurrerantzean tasen ordainketa azkarrago eska diezaien zerbitzua ematen dien negozio-lokalen titularrei, eta antolamendu juridikoak aitortzen dizkion hertsapenezko ahalmenak erabili dituzan, zorraren zenbatekoa arrazoirik gabe handitzea saiheste aldera; hori, finean, negozio-lokalen jabeen kalterako baita.

Mankomunitateko lehendakariak iradokizunari erantzun eta entitateak berori onartzen zuela adierazi zigun.

ZABOR-BILKETAREN GAINEN TASAK ESKATZEA ZERBITZURIK EMAN GABE.

Kexa-egilearen idazkian azaltzen zenez (03/112/H), 1998an kendu egin zuten Arrietako Bentako antzinako bidezainen etxean ordura arte zegoen zabor-erakundeak. Halaber, kexu azaltzen zen zerbitzu hori emateagatik kobratzen den tasagatik.

Interesdunak azaltzen duenez, 2001eko martxoan idazkia bidali zion 10. eremuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariari, zabor-erakundeak eta zaborrak biltzeko zerbitzua emateko eskatuz, baina ez zuen mankomunitatearen erantzunik jaso aurtengo maiatza arte, eta orduan 2001. urteari dagozkion zabor-bilketaren tasak ordaintzeko eskatu diote, nahiz eta zerbitzua ez duten berrezarri.

Kexan azalduko gaiei buruzko informazioa eskatu genion aipatu mankomunitateari, eta lehendakariak txostena igorri zigun.

Bertan adierazi zigun bera buru duen mankomunitatea ez dela zabor-bilketaren gaineko tasak kobratzeaz arduratzen, Artzibarreko Udala baizik, eta kexan aipatzen den zabor-erakundeak antzinako bidezainen etxetik kendu egin zela oso gutxi erabiltzen zelako. Hala ere, esaten du zerbitzua bermaturik dagoela; izan ere, bada beste erakunde bat handik 50 metrora, errepidearen ezkerrean, zehazki, Iruñeko norabidean, eta “[...] jaunak nahitaez pasa behar du bertatik hiriburura joateko, eta bertan utz ditzakeela sortzen dituen hondakinak”.

Aipatu mankomunitateak emandako erantzuna ikusirik, ematen zuen hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua egokiro ematen dela, bai baitago zabor-erakunde bat antzinako bidezainen etxetik 50 metrora, beraz, ezin esan zerbitzurik ez dagoenik. Azaldu digute zabor-erakundeak kendu zela gutxi erabiltzen zelako, zerbitzua eraginkorragoa izate aldera, baina, hala ere, badagoela beste zabor-erakunde bat handik urrun gabe, herritarrek erabili ahal izateko. Arazoa da biztanle gutxi tokietan eta hirigune sakabanatuetan zaila dela zabor-erakundeak kokatzea herritar gutxi eskuira; izan ere, horretarako erakunde asko erabili beharko lirateke eta zerbitzuaren kostuek nabarmen egingen lukete gora.

Administrazioak zerbitzu hori ematen badu, tasak kobratzen ahal ditu zerbitzua finantzatzeko, eta horrek ez du esan nahi dagozkion eskumenak gehiegikeriaz erabiltzen dituenik.

Esandakoa gorabehera, aipatu mankomunitateari gogorarazi genion Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42 artikuluan ezartzen denez, zerbitzuaren erabiltzaileek eginiko eskabide guztiei erantzutera behartuta dagoela; izan ere, 2001eko martxoaren 26an kexa-egileak eskaera bat bidali zion mankomunitateko lehendakariari, idazki baten bidez, eta ez zuen erantzunik jaso.

Azaldukoagatik, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORAZPENA egin genion 10. eremuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari, [...] jaunak eginiko eskaerari espresuki eta lehenbailehen erantzun diezaien, aipatu legean ezartzen den moduan; izan ere, erantzunean adierazi behar da zein errekurtsio jar daitezkeen, zein organori aurkez dakizkiokeen eta zein epetan egin beharko litzatekeen.

Mankomunitateko lehendakariak adierazi zигun mankomunitateak interesa zuela gure gogorazpena betetzeko eta, hain zuzen, egun hartan bertan erantzunen ziotela kexa-egilearen idazkiari.

PREMIAMENDU PROZEDURA

ONDASUNAK BAHITZEA HORRETARAKO EZARRITAKO PROZEDURA BETE GABE.

AURREKARIAK

Kexa (02/97/H) Iruñeko Udalak emandako bahitura-eginbide bati buruzkoa zen. Horren bidez 239,45 euro bahitu zizkioten kexa-egileari, 1995, 1996, 1997 eta 1998. urteetako ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga eta isun bat ordaindu ez izanagatik, nahiz eta berez isun horren berririk ez izan.

Udalari informazioa eskatu genion, eta Ekonomia, Dirubilketa eta Diruzaintza Arloak txostena igorri zigun. Haren bidez 1993 eta 1997 bitarteko ekitaldietako ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren ordainagiriak kobratzeari eta —/2000 espediente zenbakia duen trafikoko isunari buruzko galderari erantzun zitzaion.

ANALISIA

Kexa honetan bi arazo desberdin planteatzen dira. Alde batetik, Iruñeko Udalari trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ondorioz zor zaizkion zenbatekoak eskatzea, kasuko likidazioak ediktu bidez jakinaraztearen baliagarritasuna eta zorren balizko preskripzioa. Bestalde, —/2000 zenbakidun zehapen espedientean ezarritako trafikoko isun baten legezketasuna zalantzan jartzen da.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.

1. Zerga hori horrela definitzen da Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 159. artikuluan: "Zerga zuzena da eta bide publikoetan zirkulatzeko gai diren halako ibilgailuen titulartasunari ezartzen zaio, zein ere den haien klase eta kategoria. Zirkulatzeko gai den ibilgailutzat hartzen da zein ere matrikulatu izan baita hartarako erregistro publikoetan haietan baja hartu ez duen bitartean."

Ibilgailuaren titularrak den pertsona fisiko nahiz juridikoak ibilgailua matrikulatu eta helbideratzen duen une berean sortzen da tributua ordaintzeko betebeharrak. Halaber, betebeharrak indarrean da titularrak dagokion erregistroan baja eskatu arte. Tributua ordaintzea betebeharrak fiskala da eta ez du zerikusirik ibilgailuaren egiazko erabilerekin, zerga-egilearen ibilgailuaren titulartasuna baita.

Horregatik, ez da onargarria kexa-egileak ordainagiriak ez ordaindu izana justifikatzeko egiten duen baieztapena, alegia, ibilgailua geldirik egon dela 1995 urteaz geroztik; izan ere, inguruar bar hori ez da onartzen legean tributua ez ordaintzeko arrazoi gisa. Horren ondorioz, ibilgailu baten titularrak udalari zerga ordaintzeko betebeharrak du titular gisa agertzen den bitartean. Gainera, edonola ere, zergadunaren ardurak zergapeko ibilgailuaren baja eskatzea, hirugarren bati eskualdatuz gero.

Kasu zehatz honetan, zerga 1998ko abenduaren 30a arte eskatu zen; izan ere, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak egun horretan eman zion baja NA—M matrikuladun ibilgailuari. Beraz, 1998. urteari dagokion likidazioa da Iruñeko Udalari ordaindu beharreko azkena. Horren ondorioz, tributu zorra erabat justifikatuta dago.

2. Bigarrenik, tributu zorra eskatzeko erabili den jakinarazpen prozedura aztertu behar da. Gai horri dagokionez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 86. artikuluan hauxe ezartzen da: "Egindako likidazioetatik heldu diren tributu zorrak horrela sailkatzen dira, bilketa kontuetarako: jakinaraziak, jakinarazpen gabeak eta autolikidatuak (...). Jakinarazpen gabeko zorrak dira jakinarazpen indibidualik behar ez dutenak, subjektuek aurretik ezagunak dituzten zergadun erroldetatik datozelako. Konparaziora, epe epe errezipio bidez kobratu beharreko tributuetan, behin errolda, padroi edo matrikula hartan alta hartuaren likidazioa jakinarazi denean, zilegi izanen da hurrengo likidazioak multzoka jakinaraztea, ediktu bidez hala aditzera emanaz, baldin likidazio horiek lehengoekin berdin-berdinak badira, edo izan diren aldaketak orokorrak badira."

Arau horretatik ondoriozta daiteke epe epe errezipio bidez, jakinarazpenik gabe, kobratu beharreko tributua dela; izan ere, zergaduna jakituntzat hartzen da bere ibilgailuari dagokion zirkulazio baimena eskatu eta jasotzeko unetik hasita. Hurrengo ekitaldietan nahikoa da udalak ediktuak argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean zergaduna tributua ordaintzera behartuta gera dadin, eta halaxe egiten du Iruñeko Udalak.

Kexa-egileak ez zituen ordaindu eskatutako ekitaldiei dagozkien likidazioak, ordea, eta, horren ondorioz, zordunaren ondarearen gaineko premiamendu prozedura hasi zen. Horretarako, Iruñeko alkateak premiamendu eginbideak eman zituen, ondoko egunetan: 1995eko abuztuaren 18an, 1996ko maiatzaren 16an, 1997ko maiatzaren 16an eta 1998ko ekainaren 1ean."

Aipatu premiamendu eginbideei buruzko nahi-taezko jakinarazpenari dagokionez, udalak adierazi du "saiatu zela eginbideen jakinarazpenak udaleko zergadunen fitxategian azaltzen zen helbidean egiten, baina ez zela posible izan, interesduna jada ez baitzen bertan bizi". Horren haritik, esan behar da 1998ko abenduaren 3ra arte ez dela agertzen helbide aldaketa, eta aldaketa hori interesdunak eskatuta egin zela. Hala ere, data hori baino lehenago, udalak modu ez ofizialean jakin zuen zein zen interesdunaren helbide berria, eta 1998ko apirilean 1993tik 1997ra bitarteko premiamendu eginbideak bidali zizkieten, posta ziurtatuaren bidez.

Posta zerbitzuak eman gabe itzuli zituen jakinarazpen horiek, interesduna haien bila joan zedin zerrendan eduki ondoren. Hori dela eta, 1998ko irailaren 11n Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Interesdunak alegatu du ez zuela agiri horien guztien berririk, ez baitzizkieten jakinarazi, baina udala ez dator bat horrekin, zeren eta "1998ko ordainagiriari zegokion premiamendu eginbidearen jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez igorri zen, eta posta zerbitzuak itzuli egin zuen, 1999ko urtarrilaren 21ean hartzaileak hura jasotzeari uko egin ziola zioen ohar batekin batera. 1999ko martxoaren 3an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen".

Antza denez, hartzaileak errefusatu egin zuen azken premiamendu eginbidearen jakinarazpena eta, horretaz gain, ez zion helbide aldaketaren berri eman udalari, hori egitera behartuta egon arren. Horrenbestez, ediktu bidezko jakinarazpena legezkoa izan zen, egintza horien berri emateko azken aukera baitzen. Hain zuzen, Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 59.5. artikuluan haxe ezartzen da, komunikabide horri dagokionez: "Prozedurako interesdunak ezezagunak badira, jakinarazpena egiteko lekua edo modua jakiteko modurik ez bada eta jakinarazpena egiten saiatu arren ezin izan bada jakinarazi, jakinarazpena kasu horietan egiten da iragarkia jarritz interesdunak azken bizileku ezaguna izan duen udaletxeko iragarki-oholean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegokoan edo probintziakoan, kontuan hartuta jakinarazi beharreko egintza zein administrazioarena den eta egintza eman duen organoa zein lurralde-eremutakoa den".

Artikulu horretan kasuan kasuko egintzen edo erabakien ediktu bidezko jakinarazpena ezartzen da, betiere arrazoizko irizpideen bidez ziurtatzen bada komunikabide arruntak ez direla baliaigarriak

(Konstituzio Auzitegiaren 157/1987 eta 234/1998 epaiak).

Aztergai dugun kasuari irizpide horiek aplikatzen badizkiogu, gure ustez, Iruñeko Udalak ez du ediktu bidezko jakinarazpenen gehiegizko erabilerririk egin, interesdunaren etxean eginiko jakinarazpenen kaltetan.

3. Hirugarrenik, beharrezkoa da aztertzea zerga horrek sortutako tributu zorraren preskripzio epearen gaia.

Zorrek borondatez ordaintzeko epea Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 88. artikuluan ezartzen da modu orokorrean. Bertan haxe ezartzen da: "Tributu zorrak honela ordaindu behar dira:

a) Jakinaraziak, jakinarazi eta hogeita hamar laneguneko epean.

b) Epez epe errezibo bidez kobratu beharreko tributuen kasuan, bana-banako jakinarazpena beharrezkoa ez dutenetan, aurreko letran adierazitako epe berean, ordainketa egin behar deneko hiruhileko naturalaren lehen egunetik kontatuta".

Agindu hau 163. artikuluan ezarritakoarekin lotu behar da, hain zuzen, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zergaldiari eta sortzapenari buruz. Artikulu horretan ezartzen da tributuarien sortzapena urteko lehen egunean izan behar dela; horrenbestez, tributu zorra hurrengo hogeita hamar egun baliodunetan ordaindu behar da. Kasu honetan, partikularrik ez zuen tributu eman beharra bete eta, hori dela eta, udalak prozedura betearazlea hasi zuen aipatu premiamendu eginbideen bitartez.

Eginbide horiek data desberdinetan eman ziren -1995eko abuztuaren 18an, 1996ko maiatzaren 16an, 1997ko maiatzaren 16an eta 1998ko ekainaren 1ean-eta, udalaren txostenak adierazten duen moduan, saiatu zen interesdunari jakinarazten zergadunen fitxategian azaltzen zen helbidean, baina ez zen posible izan, kexa-egilea jada ez zelako bertan bizi. Hori dela eta, 1998ko irailean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen, bidezkoa den bezala.

Garai hartan, tributu zorren preskripzio epea bost urtekoa zen, Toki ogasunen Foru Legearen 17. artikuluari jarraikiz. Epe hori zenbatzen hasten zen borondatezko ordainketarako epea bukatzen zen egunetik aurrera. Ondoren, preskripzio epea murriztu eta lau urtetan finkatu zen, martxoaren 2ko 2/1999 Foru Legearen bidez.

Bestalde, 18. artikuluan ezartzen denez, "preskripzio epea eten egiten da edozein administrazio

ekintza egiten bada, subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean dagoela, kreditu edo eskubide hori aitortu, erregularizatu, ikuskatu, segurtatu, egiaztatu, likidatu eta jasotzeko asmoz”

Araudi hori aplikatzen badiogu aztertzen ari garen kasuari, ikusiko dugu 1994tik 1998ra bitarteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion tributu zorrek ez dutela preskribitu; izan ere, legean ezarritako preskripzio epea eten egin zen 1998ko irailaren 11n eta 1999 martxoaren 3an eginiko ediktu bidezko jakinarazpenen bitartez, hain zuzen, bidezkoak eta baliozkoak ziren ikusteko arestian aztertutakoak.

Hala ere, 1993ko ekitaldiko likidazioari dagokion tributu zorrari buruz, ez dugu gauza berbera ondorioztatu; izan ere, kasu honetan, preskripzio epea borondatezko ordainketarako epea bukatuta koan hasi zen, hau da, sortzapenaren egunetik hasita –1993ko urtarrilaren 1a– hogeita hamar eguneko epea zenbata ondoren, eta bost urte beranduagoko egun berean bukatu zen eta, hain zuzen, hori da aplikatzekoa den preskripzio epea. Kontuan hartzen badugu ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen data, hots, 1998ko irailaren 11, bistakoa da preskripzio epea igaro zela. Hori dela eta, premiamendu eginbideen jakinarazpenak ezin izan zuen etenaldiaren eraginik izan preskripzio epean, epe hori bete baitzen zordunaren alde. Horrenbestez, 1993ko zorra deuseztatu egin behar da, baita zordunari bahitutako ondasunak itzuli ere.

.- —/2000 zenbakidun trafiko zehapena

Udalak emandako informazioaren arabera, “udaltzainek 2000ko abuztuaren 23an jarri zuten salaketa, NA—BB matrikuladun autoa oinezko-entzako eremuan aparkatzeagatik, Estafeta kalean, hain zuzen. Salaketaren jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez igorri zen. Interesduna etxean ez zegoenez, posta zerbitzuak itzuli egin zuen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2001eko urtarrilean. Zehapenaren jakinarazpena helbide berera igorri zen, eta interesdunak berak jaso zuen, 2001eko martxoaren 16an.

Alkateak premiamendu eginbidea eman zuen 2001eko ekainaren 7an. Horri buruzko jakinarazpena itzuli egin zuen posta zerbitzuak, 2001eko abuztuaren 28an, interesdunari ematen saiatu eta zerrendan eduki ondoren. 2001eko azaroaren –(e)an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Kasu honetan ere ez da preskripziorik izan; izan ere, nahiz eta trafikoko zehapenek irmotu eta handik hasita urtebetera preskribitzen duten, aztertzen ari garen zehapena 2001eko maiatzaren

16an irmotu zen, eta handik premiamendu eginbidea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen arte –2001eko azaroaren –a– ez zen epe hori igaro.

Lehenik eta behin, trafikoko zehapenen preskripzioari buruz dihardugunez, saihestezina da urtarrilaren 30eko 116/1998 Errege Dekretura jotzea. Horren bidez, trafiko, ibilgailu motoredunen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna aldatzeko martxoaren 24ko 5/1997 Legeari egokitu zitzaizkion zirkulazioari buruzko Erregelamendu orokorra eta trafiko, ibilgailu motoredunen zirkulazio eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozedurari buruzko Erregelamendua. Azken hori otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretu bidez onetsi zen, zeinaren 18.1 artikulua testu hau izanen baitu:

“Arau-haustek zehatzeko akzioak hiru hilabete igarota preskribitzen du, arau-haustea egin den egunetik aurrera zenbatuak. Zehapen-prozedurari ekin aurretik egiaztatuko da ea arau-haustek preskribitu duen; kasu horretan erabakiko da ez dela bidezkoa izan prozedurari ekitea edo haren jarraitzea. Preskripzioa eteten da pertsona salatuaren ezagutzara iristen den edozein administrazio-egintzaren ondorioz, edo haren identitatea nahiz helbidea zein den jakiteko xedea izanik egile duen erakundetik kanpoko proiektzioa duen ondorioz. Halaber, preskripzioa eteten da Erregelamendu honetako 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz eginiko jakinarazpenaren ondorioz. Preskripzio-epeak aurrera egingen du baldin eta prozedura hilabete bat baino gehiagoz geldituta egonen balitz interesdunari egoztekoa den arrazoi bat dela-eta”

Aipatutako araua aztertzen ari garen kasuarekin lotzen badugu, ikusten da ez direla bete arauak epea eteteko ezartzen dituen baldintzak. Lehenik eta behin, pertsona salatuaren ezagutzara preskripzio-epearen etetea eragiteko adinako indarrez iristen den edozein administrazio-egintza gertatu behar izan da. Kasu zehatz honetan, ez dugu jotzen salaketaren formulazioaren eta hura interesdunari jakinaraztearen artean eginiko jardueren preskripzio-epea eteteko adinako indarrak daukatenik, ez baitago interesdunak zehapen espedientea irekitzearen berri izan zueneko konstantziarik.

Bigarrenik, ez da izan identitatea edo helbidea ezagutzera bideraturiko inolako egintzarik, datu horiek guztiak administrazioarentzat ezagunak zirelako hasieratik.

Horrela, udalak ezagutzen zuen helbidean jakinarazpena egiteko ahalegina egin eta ezin jakinarazi ondoren, beste saiakera bat egin behar zen

beste egun batean eta ordu desberdinean, hala agintzen baita Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59. artikuluan; ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bitartez jakinarazi behar zen. Alabaina, hori gertatzen ari zen bitartean, 2001eko urtarrilaren 17an, 2000ko abuztuaren 13an salaturiko gertakaria zehatzeko akzioak jadanik preskribitu zuen, 3 hilabete baino gehiago igarota baitzeuden; zehazki, 4 hilabete eta 25 egun.

Gogora ekarri behar dugu trafiko arloko zehapen-prozedurari buruzko Erregelamenduaren 18.1. artikulua, non ezartzen baita organo zehatzaileari prozedura hasi aurretik dagokion betebeharra, arau-haustea preskribitua ote dagoen egiaztatzearena eta, kasu horretan, espedientea artxibatzea erabakitzearena. Horren zergatia da preskripzioa, ordena publikoari dagokion gaia izaki, ofizioz aztertu behar dela.

Azaldutakoagatik, bidezkoa iruditu zitzaigun GOMENDIO bat egitea Iruñeko Udalari, 1993ko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokion likidazioa eta 28237/2000 zenbakidun espedientearen bidez jarritako zehapena deusezta ditzan eta bahitutako zenbatekoak interesdunari itzultzea agindu dezan.

Ekonomiako Alorretik eta Hiritarren Babeserako Alorretik emandako lehen erantzunetik ondorioztatu genuen ez zutela gure gomendioa betetzeko asmorik. Erabaki hori justifikatzeko, azaldu zuten lehenengo zorraren gaineko erreklamaziorik ez zuela egin interesdunak eta, horretaz gain, zehapena tramitatu zenean arau-haustea ez zuela preskribitu; izan ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialera jo aurretik bi aldiz saiatu zirela jakinarazpena egiten eta ez zuten lortu.

Lehenengo zorraren haritik, berriro gogorarazi genion udalari erakunde honek kexak onartzea baino eginkizun zabalagoak dituela antolamendu juridikoa gainbegiratzeari dagokionez, halaxe ondorioztatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 1. eta 18. artikuluetan ezarritakotik. Herritarrek igortzen dizkiguten kexen bidez, aipatutako 1. artikuluan zehazten diren administrazio publikoen jarduna aztertzeke aukera dugu; hori dela eta, herritarren eskaeran agertzen ez diren alderdiei buruzko iritzia ere eman dezakegu, betiere administrazioaren jarduna hobetzeko xedearekin.

Egia da kexa-egileak 1995etik 1998ra bitarteko zirkulazioaren gaineko zergari dagozkion zorrak bakarrik aipatzen zituela, Ekonomia Alorraren txostenak adierazten duen moduan, baina egia da ere 1998ko irailaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuan agertzen direla 1993 eta 1994. urteei kontzeptu horrengatik dagozkien zorrak. Horrengatik eman genuen 1993ko likidazioa deuseztatzeko gomendioa, zalantzarik gabe preskribitu baitzuen. Udalak ez zuen zor hori kobratzeko saiakerarik egin behar, preskripzioa ofizioz deklaratu behar baita, interesdunak salatzen ez badu ere. Bestela, erabat deuseza izanen litzateke.

Zehapen espedienteari buruz, esan dugu preskripzioa eteten dela pertsona salatuaren ezagutzara iristen den edo haren identitatea zein den jakiteko xedea duen edozein administrazio-egintzaren ondorioz. Eta hori 320/1994 Errege Dekretuaren bidez onetsitako trafiko arloko zehapen-prozedurari buruzko erregelamenduaren 18.1. artikuluan ezarritakoaren gogorarazpena besterik ez da. Ondorioztatu genuen partikularrak ez zuela salaketaren berririk izan 4 hilabete eta 25 egun pasa arte, arau-haustea egin zen egunetik ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte zenbatuta. Horrenbestez, begi-bistakoa zen arau-haustea preskribitu zuela salaketa argitaratu zenean. Hori dela eta, zuzenbideari jarraikiz, udalak arau-haustearen preskripzioa deklaratu behar zuen, prozedurarekin jarraitu beharrean.

Horren ondorioz, gure ustez bidezkoa da udalari eginiko gomendioa berriro egitea.

Azkenik, aipatu udaletik erantzun ziguten, Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariaren bidez. Lau lerroko idazki bat igorri ziguten, inolako argudiorik gabea, eta horren bidez adierazi ziguten udalak ez duela onartzen gomendioa erakunde honek emandako moduan, nahiz eta berori arau-haustearen eta tributu likidazioaren preskripzioan oinarrituta egon. Edonola ere, administrazioak arau-haustearen eta tributu likidazioaren preskripzioa ofizioz deklaratzeko betebeharra du, hori ordena publikoari dagokion gaia baita eta administrazio publikoak Konstituzioak aitortutako berdintasun printzipioaren menpe baitago. Eta horrek kasu honetan esan nahi du ezin dela albo batera utzi aipatu preskripzioa.

Hori dela eta, horren berri eman dugu urteko txosten honetan.

BANKUKO KONTUAREN BAHITURAREKIN AMAITU ZEN PREMIAMENDU PROZEDURAREN GARAPENA.

Kexa egin zuen pertsonak (03/128/H) salatu zuen Iruñeko Udalak Nafarroako Kutxan irekitako kontu bat bahitu ziola. Interesdunak azaldu du aurrezki entitate horrek jakinarazi ziola bahituraren jatorria isun bat zela, hain zuzen, NA—AX matrikuladun autoa Iruñeko Aralar kalean gaizki aparkatzeagatik jarritako isuna.

Kexa-egileak adierazi zigunez, ez zitzaizkion jakinarazi premiamendu espediente osatzen duten egintzak eta, hori dela eta, ezin izan zuen bere burua defendatu; horrenbestez, agindutako zenbatekoa ez bahitzeko eskatzen du.

Iruñeko Udalak, lehenik eta behin, txosten bat bidali zigun, eta bertan Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariak kasuaren inguruabarrak azaldu zituen. Eta erakunde honek bidalitako informazioa osatzeko eskatu ondoren, espedientearen kopia bidali zigun.

ANALISIA

Iruñeko Udalak adierazi zigunez, zehapen-prozedura abiarazi zen kexa-egileak trafiko arloko araudiaren aurkako arau-hauste bat egin zuelako, hain zuzen, 2000ko martxoaren 20an NA—AX matrikuladun autoa Aralar kalean aparkatu eta behar bezala seinaleztatutako oinezkoentzako pasagune baten zati bat okupatu zuelako. Espediente argazki bat agertzen da arau-haustearen froga gisa, eta trafiko zaindari batek eginiko salaketa berresten du.

Prozedura modu egokian garatu zen. Izan ere, salaketa behar bezala jakinarazi zen interesdunaren etxean, hain zuzen [...] herrian, eta interesdunak alegazioak aurkeztu zituen. Azaldu zuenez, butano-botilen banatzailea da eta, hori dela eta, arau-hauste txikiak egin beharrean izaten da, salgaien zama-lanetako tokiak normalean beteta egoten baitira. Ondoren ebazpen proposamena egin zen eta helbide berean jakinarazi zitzaion, baita zehapen ebazpena ere.

Jakinarazpen horiek posta zerbitzuaren bidez egin ziren eta abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsitako posta zerbitzuei buruzko erregelamenduak ezarritako baldintzak bete ziren. Hain zuzen, erregelamendu horrek Posta zerbitzu unibertsalari eta posta zerbitzuak liberalizatzeari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legea garatzen du. Jaso-agirien kopia guztietan adierazten da interesduna ez zegoela etxean, baina inguruabar hori argitu daiteke; izan ere, jakinarazpen guztiak goizez egin ziren, eta ordu horie-

tan [...] jauna lanean egon zitekeen. Edonola ere, kortesiazko abisuak utzi zitzaizkion eta bi aldiz sailatu ziren jakinarazpena ematen, erregelamenduak ezartzen duen moduan. Gainera, jakinarazpena egiteko saiakeretan ez da azaltzen hartzailea ezezaguna denik.

Erregelamenduaren 42. artikuluan ezartzen da postariak bi jakinarazpen saiakera egin behar dituztela, balizko hartzaileak jasotzeari uko egiten dionean izan ezik. Inork jakinarazpenaren ardurarik hartu nahi ez duenean, saiakeraren berri emanen da, bai zerbitzuko enpleguaren dokumentazioan, bai jaso-agirian, eta eguna eta ordua adieraziko dira. Jakinarazpena emateko beste saiakera bat egingen da hurrengo hiru egunetan, ordu desberdinean, eta orduan ere alferrik balitz, inguruabarren berri emanen da, lehen saiakeran bezala. Postariak jakinarazpena utziko du zerbitzuaren egoitzan, hilabetez, baita iriste-ohartarazpena ere, interesdunaren gutunontzian. Ohartarazpen horrek ahalbidetzen du hartzaileak jakitea jakinarazi nahi zaion agiria iritsi dela, eta beroren bidez eskatzen zaio posta bulegora joateko hura jasotzera. Behar bezalako arretaz ez badu jokutzen, sortzen diren ondorioak bere kalterako izanen dira; izan ere, hilabete bat pasa ondoren —epe horretan dokumentazioa eskuragarri dauka posta bulegoan—, jakinarazpena ediktu bidez egin daiteke.

Esan dugun moduan, jakinarazpenak egiteko baldintza horiek bete zituen posta zerbitzuko enpleguak, eta, salatua inoiz ez zegoenez etxean, udalak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta [...] kontzejuko iragarri-oholean argitaratutako ediktu bidezko jakinarazpena erabili behar izan zuen, eta halaxe ziurtatu zuen, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.5. artikuluan ezartzen den moduan.

Laburbilduz, gure ustez zehapen-prozedura behar bezala tramitatu zen eta ez dugu partikularren defentsa-gabezia eragin zezakeen akatsik atzeman. Arau-haustea behar adina frogarekin egiaztatuta zen eta zehapena ezarri zen, bidezkoa zen moduan.

Hala ere, horren ondotik, diru bidezko zehapena kobratu ahal izateko udalak tramitatutako premiamendu prozedurak akats formal larria du, zalantzarik gabe deuseztasuna dakarrena, eta akats hori da salatuari ez zaizkiola egintzak eraginkortasunez jakinarazi.

Atzeman dugunez, premiamendu eta bahitura eginbideak, baita isuna kobratzea ahalbidetu zuen bahitura diligenzia bera ere, salatuarentzat ziren, baina agiri horietan agertzen den helbidea da [...]

herriko San Esteban kaleko 9.a. Azalpenik eman ez digutenez, ezin da jakin zergatik erabaki zen egintza horiek jakinaraztea zehapen-prozedurarako kontuan hartu zen [...] herriko helbidea ez zen beste batean. Izan ere, helbide horretan, postariak ohartarazi zuen interesduna ez zegoela etxean jakinarazpenak egiten saiatu zenean, baina, halaber, adierazi zuen ez zela ezezaguna. Helbide zuzena hori dela frogatzen du [...] jaunak bere idazki guztietan agerrarazi izanak. Hala ere, jakinarazpena egitera joan zen agenteak adierazi du kexa-egilea ezezaguna dela Barañaingo helbidean.

Akats horrek ezinbestez dakar premiamendu prozedura osatzen duten egintzen erabateko deuseztasuna, herritarraren defentsa eskubidea ukitzen baitu. Halaber, akats hori ezin da konpondu jakinarazpenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta [...] kontzejuko iragarki-oholean ediktuen bidez argitaratuta, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 62.1. artikuluan ezartzen den moduan.

Azaldutakoagatik, GOMENDIOA eman genion Iruñeko Udalari, kexa-egilearen aurka aipagai dugun isuna nahitaez kobratzeko tramitatutako premiamendu prozedurari dagozkion egintzak atzera bota ditzan, eta gaizki bahitutako zenbatekoa itzul diezaión.

Aipatu udaletik jakinarazi ziguten gomendioa onartu zutela. Halaber, adierazi ziguten kexa-egileak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa onartu zutela eta trafiko isun bat ez ordaintzeagatik bere ondasunen aurka emandako premiamendu eta bahitura eginbidea deuseztatu zutela.

TRIBUTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

SINDIKATU BATEK INFORMAZIO EKONOMIKOA ESKATZEA EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUARI.

AURREKARIAK

Sindikatu batek kexa aurkeztu zigun (03/85/H espediente), Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari informazio ekonomikoa eskatu ziolako eta honek ez diolako eman nahi.

Idazkian azaltzen duenez, entitate horrek urtero jakin behar izaten ditu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dauzkan datu publikoak, txosten ekonomikoak egiteko, eta eskatutako dokumentazioa nekez lortzen dute, beti hainbatetan saiatu ondoren, nahiz eta eskatutako informazioa publikoa izan. Zehazki, adierazten da

sindikatuak 2002ko abenduaren hasieran jo zuela departamentura, 2003. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua eta 2002ko hirugarren hiruhileko aurrekontu-egoerari buruzko txostena eskatze-ko, eta kexa aurkeztu den egunean oraindik ez dizkiotela eman.

Aipatzen dutenaz, hauxe da urtero jakin behar izaten dutena:

a) Aurrekontuei dagokienez: X urteko aurrekontu proiektua; X-1 urteko hirugarren hiruhileko aurrekontu-egoerari buruzko txostena; eta X-2 urteko gastuaren likidazioa.

b) Fiskalitateari buruzko urteko ikerketari dagokionez, sindikatuak dokumentazio hau behar du: X urteko abenduari dagokion dirubilketa likido metatuaren koadro orokorra eta X-1 urteko koadroarekin eginiko alderaketa; X urteko abenduari dagokion dirubilketa likido metatuaren dirubilketa homogeneizaturako koadroa eta X-1 urteko koadroarekin eginiko alderaketa; errentaren jatorri funtzionala, X urteko ehunekoa (etekin garbia) adierazita, baita aurreko urteetako ere; eta X-1 urtean eta aurreko urteetan errenta aitorten bakoitzeko aitortutako etekin garbiak. Departamentuak informazio hori ez badauka, ondokoak jakin nahi ditugu: zergapeko bakoitzaren batez besteko etekinak, aitorten kopurua eta aitortzaile kopurua, X-1 eta aurreko urteetarako.

Gai horri lotuta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hauxe jakinarazi zigun:

1.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legean Nafarroako Aurrekontu Orokorak arautzen dira 11. Tituluan, 27. artikulutik 67.era, biak barne.

2.- Aipatu foru legearen 29.etik 35.era artikuluetan ezartzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorren edukia, baita Nafarroako Gobernuak nola prestatu eta tramitatu behar dituen Nafarroako Parlamentura bidali arte, foru lege proiektu gisa, bertan "aztertu, zuzendu eta, kasua bada, onartzeko. Aipatu foru lege proiektuarekin batera aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa bidaliko da" (hain zuzen, 34. artikulua, non zehazten diren [...] sindikatuak eskatutako agiriak).

3.- Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legearen 2. artikuluko 1. puntuaren A letrako 4. atalean arautzen da kontseilu horrek aholkuak emanen dituela, aginduzko txosten baten bidez, Nafarroako Gobernuaren ingurumen arloko aurrekontuaren aurreproiektuari buruz, baita Foru Komunitateko administrazioaren ingurumen arloko jarduketan urteko

programari eta kasuko urteko oroit-idazkiari buruz ere.”

4.- Nafarroako toki administrazioaren araubidea arautzen duen 6/1990 Foru Legean arautzen da Toki Araubideko Foru Batzordearen funtzionamendua, eta 69. artikuluan, beste eginkizun batzuen artean, esleitzen zaio Nafarroako Gobernuari proposamenak eta iradokizunak egitekoa, toki administrazioaren arloko gaietan eta, bereziki, “toki entitateak ukitzen dituen Nafarroako aurrekontuei dagokienez.”

5.- Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua arautzen duen apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legearen 2. artikuluan xedatzen denez, aipatu kontseilua kontsulta-organoa da, eta 3. artikuluko 1. puntuaren a) letrako 2. atalean ezartzen denez, “eskumena esleitzen zaio nahitaezko irizpena emateko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektuari buruz, baita horren onarpenean aldi baterako laguntzen dioten Foru Lege aurreproiektuei buruz ere.”

6.- Nafarroako Gobernuak aurreko puntuetan aipatutako erakunde guztiei bidaltzen die [...] sindikatuak arartekoari aurkeztutako kexan eskatzen duen informazioa.

7.- Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 105. artikuluan xedatzen dira tributu informazioaren izaera eta xedeak.

Ikus daitekeenez, inongo xedapenetan ez da arautzen Nafarroako Gobernuak betebeharra duenik behin eta berriro aipatzen den Nafarroako aurrekontuei buruzko informazio hori edozein pertsona fisiko edo juridikori emateko. Hala ere, informazio hori beti egon da kontsultagai interesik agertu duenarentzat. Izan ere, jende asko etorri da Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzuko liburutegira, bertan dagoen informazio publiko guztia aztertzerako. Era berean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren ale bat bidaltzen dio, euskarri elektronikoen eskatzen duen edonori. Informazio horren laburpen bat herritar guztientzat eskuragarri jartzen da Nafarroako Gobernuaren web orrian, baina Nafarroako Parlamentuak 2004ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren onartzen dituen, oso-osorik eskainiko da.

[...] sindikatuak eskatutako informazio fiskalari dagokionez, adierazi behar da 1999. urteaz geroztik eman dizkiogula urte bakoitzeko abenduari dagokion dirubilketa likido metatuari buruzko datuak, baita aurreko urteko ekitaldiarekin eginiko alderaketa ere. Dirubilketa homogeneousatuari buruzko datuei dagokienez, [...] sindikatuari hainbatetan azaldu diogun moduan, Nafarroako Tributu Ogasuneko Dirubilketa Zerbitzuak jada ez ditu

datu horiek islatzen, ez baititu interesgarritzat jotzen.

[...] sindikatuak eskatutako gainerako informazioak ematen zaizkio, betiere Nafarroako herritarrei ezagutzera eman ondoren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kanpaina eta aurreko ekitaldiari buruzko datuak aurkezteko urtero egiten den prentsurrekoan.”

ANALISIA

Kexa honetan planteatzen den auzia da, funtsean, ea sindikatuak eskatzen duten informazioa jasotzeko eskubide orokorra duten; izan ere, legeak egoera juridiko berezia aitortzen die, bestelako erakundeetan sindikatuak berezkoa duten lan arlokoak ez diren gaietan parte hartu ahal izan dezaten. Egoera juridiko berezi hori Askatasun sindikalari buruzko Lege Organikoaren 6.1. artikuluan aitortzen da espresuki, hitzez hitz xedatzen baitu “sindikatu batzuei aitortzen zaien ordezkaritza handiak egoera juridiko berezia ematen die sindikatu horiei, bai erakundeetan parte hartzeko, bai sindikatu-ekintzaren ondorioetarako.”

“Erakundeetan parte hartzeko” aukera hori izanen luketen sindikatuak dira, legearen arabera, estatu mailan ordezkaritza handiena dutenak, autonomia mailako beste sindikatu batzuek daukaten ordezkaritza erreala kontuan hartzea galarazi gabe; izan ere, horiek antzeko parte-hartze eskubidea izanen lukete haien berezko esparruan. Lege horren 6.3. artikuluan zehazten da erakunde sindikal horiek ordezkaritza instituzionala izateko eskubidea izanen dutela, estatuko edo autonomia erkidegoetako administrazio publikoen aurrean edo ordezkaritza hori aurrekusten duten bestelako entitate eta erakundeen aurrean.

Nafarroan, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua arautzen duen apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legearen bidez organo hori sortu zen, besteak beste, Foru Komunitatean ordezkaritza handiena duten sindikatuen parte-hartze instituzionala errazteko xedearekin. Horretarako, 4. artikuluan organo aholku-emaile horren osaera ezartzen da; hain zuzen, 28 kide izanen ditu, eta horietatik zazpi, ordezkaritza handiena duten sindikatuak izendatuko dituzte.

Aipatu organoaren berezko eginkizunen artean, 3. artikuluan aipatzen da nahitaezko irizpena ematekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektuari buruz, horri laguntzen dioten lege aurreproiektuei buruz, eta Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektuei buruz. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, behar den aldearekin, behar den dokumentazio

guztia igorri behar du Kontseilura, honek bere irizpena eman dezan aurreproiektuak Nafarroako Parlamentura bidali eta han onartu baino lehen. Administrazioaren txostenean azaltzen denez, bistakoa da aipatutako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuak, horiei laguntzen dieten lege aurreproiektuak, eta Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektuak beren dokumentazio osoarekin batera igorri behar direla Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilura, gai horri aplikagarri zaion araudiaren arabera.

Hala ere, ezin da ahaztu Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua arautzen duen legearen 9. artikuluan kontseilukideen eskubideak ezartzen direla eta, besteak beste, "beren eginkizunak hobeki betetzeko beharrezko dituen argibideak eskatzeko eskubidea" aipatzen dela. Bidezkoa denez, kontseilukideek eskubidea dute egokitzat jotzen duten edozein informazio zehaztapen eskatzeko, beren iritzia behar bezala oinarri dezaten, eta horrek esan nahi du kontseilukideek beren eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar dituzten agiri, txosten eta azterketak emateko betebeharra dutela bai kontseiluko lehendakariak, bai administrazio publikoek. Arau hau ez dugu modu mugatuan interpretatu behar, legeak organo horri esleitzen dizkion eginkizun garrantzitsuen ikuspegitik baizik. Eginkizun horiek zailak dira, administrazioak ez badu borondatez eta arretaz laguntzen, eta kontseilukideei ez badie ematen iritzia sortzea ahalbidetuko dien guztia.

Ezin da ahaztu aurrekontuak direla Foru Parlamentuaren eta Comptos Ganberaren, Nafarroako Gobernuaren eta horien menpeko sozietateen betebeharren eta eskubideen adierazpena, zifra-tan eta modu bateratu eta sistematikoan emanak, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 27. artikuluan ezartzen den moduan. Halaber, Parlamentuaren ezinbesteko tresna da, Nafarroako Gobernuaren tributu eta finantza eta ekonomia jarduera kontrolatzeko. Hori dela eta, ulergarria da gaiaren zailtasuna eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aipatu kontseilu aholku-emileari ezinbestez eman behar dion laguntza, bai organo kolegiatu gisa, bai haren kideei; izan ere, beren eginkizunak bete ahal izateko behar duten dokumentazio guztia eman behar die.

Finan, kontseilukideek eskubidea dute aurrekontuen edo haiek laguntzen dituzten legeen eta urteko kontuen espedienteetako agiriak ezagutzeko, baita irizpena eman behar duten gaiari buruzko iritzia sortzea ahalbidetzen duen edozein dokumentu ere. Hala, kexa egin duen sindikatuak departamentuari eskatutako dokumentazio guztia bat dator kontseilukideen informaziorako eskubi-

dearekin; ez bakarrik aurrekontuen aurreproiektua osatzen duten agiriak, baita gainerakoak ere; izan ere, komenigarria da, baita beharrezkoa ere, bestelako datuak ezagutzeko, hala nola tributuen eta bestelako dirusarreraren dirubilketari dagozkienak eta aurreko urteetako etekin alderatuak, hau da, dirusarreraren egoera, horrela ebaluatu baitaiteke ekitaldiko aurrekontuei buruzko aurreikuspenak zuzenak diren.

Kexa honi buruz eginiko txostenean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuaren ez dagoela legez behartuta pertsona fisiko edo juridiko pribatuei Nafarroako aurrekontuei buruzko informazioa ematera, baina onartzen du informazio hori kontsultagai egon dela beti Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzuko liburutegian, baita eskatzen duenari Nafarroako Aurrekontuen ale bat bidaltzen diotela ere, euskarri elektronikoa. Halaber, esaten da Parlamentuak 2004ko Nafarroako aurrekontu orokorrak onartzen dituenean, informazio hori oso-osorik agertuko dela Nafarroako Gobernuaren web orrian.

Egia da herritarrek administrazio publikoetatik informazioa lortzeko daukaten eskubidea aitortzen dela Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan, eta eskubide horren mugak lege horretan eta beste batzuetan ezartzen direla. Baina ez dirudi hori denik kasu honetan kontuan hartu beharrezko arau esparrua, baizik eta arestian aipatu duguna; izan ere, kexa egin duen sindikatuak ordezkari bat dauka Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan, hain zuzen, kexa sinatu duen [...] jauna, aipatu kontseiluko kide izendatua izan baitzen Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren ordezkariak izendatzen dituen abenduaren 20ko 619/1999 Foru Dekretuaren bidez.

Erakunde horren iritziz, sindikatu horretako ordezkari batek aipatu erakundearen parte hartzeak eskubide sorta bat sortarazten du, hain zuzen, sindikatu horri parte-hartze instituzionala izateko gizarte ordezkari-tza nahikoa aitortzearen ondorioz. Eskubide horri foru administrazioaren betebeharrak bat dagokio, hain zuzen, sindikatuaren ordezkariari behar duen informazio guztia ematea, aipatu dugun kontseilukideen eginkizuna behar bezala bete dezan; izan ere, sindikatuak ez da erakunde pribatu soila. Aitzitik, Nafarroan emandako arauak ahalmen batzuk aitortzen dizkiote, garrantzizko ordezkari-tasunaren ondoriozko parte-hartze instituzionalak berarekin dakartzanak. Horrek berekin du parte-hartze instituzional hori betetzeko behar duen informazio guztia jasotzeko eskubidea, besteak beste, kexan eskatzen dena, betiere informa-

zio hori foru administrazioan prestatutakoa bada edo bertan baldin badago.

Hala ere, administrazioaren txostenean esaten da sindikatuari ematen zaizkiola eskatzen dituen datu ekonomikoak, baina, aldez aurretik, Nafarroako herritarrei ezagutarazten zaizkiela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kanpaina aurkezteko urtero egiten den prentsurrekoan. Halaber, aitortzen du sindikatuak eskatutako informazio fiskala 1999. urteaz geroztik ematen zaiola, zehazki, urte bakoitzeko abenduari dagokion dirubilketa likido metatuari buruzko datuak, baita aurreko urteko ekitaldiarekin eginiko alderaketa ere, eta ez, aldiz, dirubilketa homogeneizatuari buruzko datuak; izan ere, Nafarroako Tributu Ogasuneko Dirubilketa Zerbitzuak jada ez ditu datu horiek islatzen, ez baititu interesgarritzat jotzen.

Dena den, erantzun horretatik ondorioztatzen da sindikatu horri ez zaiola behar bezalako begirunerik aitortzen: Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kide den entitate adierazgarri bat, eta ez lan entitate elkartu soila. Begi-bistakoa dirudi Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sindikatu horrek eskatzen duen dokumentazioa emateko betebeharra duela; are gehiago, sindikatuaren ordezkariaren eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko gainerako kideen eskuragarri jarri

behar du horiek hala eskatzen dutenean, kide guztiek irizpide bat osatu ahal izateko eta haien eginkizuna bete ahal izateko, hain zuzen, aurrekontu eta urteko kontuei buruzko aginduzko txostena ematea Nafarroako Parlamentuari. 8/1995 Foru Legearen 9. artikuluan ezartzen den moduan, kontseilukide bakoitzak behar duen dokumentazioa eskatzeko eskubidea dauka eta, era berean, eskatutakoa emateko betebeharra dauka administrazioak, betiere, noski, eskatutakoak kontseiluaren aginduzko txostena eskatzen duten gaiekin lotura badu, erakunde honek ezagutza nahikoarekin bete ditzan legeak esleitzen dizkion eginkizunak, formari nahiz muinari dagokienez.

Azaldutakoagatik, GOMENDIO bat eman genion Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, lehen adierazi dugun dokumentazio guztia eman diezaion aipatu sindikatuari berak eskatzen duenean, betiere informazio hori departamentuan prestatua bada edo bertan baldin badago.

Aipatu departamentuko kontseilariak erantzun zigun gomendioa onartu zutela eta gai horiei buruz daukaten informazioa ematen jarraituko dutela, betiere herritarren datuen konfidentzialsuna babesten duten legeek ez badute eragozten informazio hori zabaltzea.

II- 07. BARNEA**TRAFIKOA****IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN AUTOA APARKATZEKO ZAILTASUNAK.****AURREKARIAK**

Beste kasu honetan (02/21/I espedientea) Iruñeko Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak Trafiko Batzordean duen ordezkariak kexa aurkeztu zuen, Iruñeko auzo horretako bizilagunek beren autoak aparkatzeko dituzten zailtasunak direla eta. Arazo horien arrazoa da gaur egun hainbat obra egiten ari direla bertan, bide publikoak oinezkoentzako bihurtzeko eta aparkaleku itxiak egiteko. Horren berehalako ondorioa da auzokideentzako aparkalekuak 400 ingurura murriztu direla, nahiz eta 2.650 izan egoiliar-txartela lortu dutenak.

Aipatzen duenez, auzokide horiek ez dituzte Iruñeko beste eremu eta auzo batzuetakoek dituzten aukera berak; izan ere, autoa etxetik gertu aparkatu ahal izateko ordaindu egin behar dute eta, hala ere, ezin dute aparkatu, toki nahikorik ez baitago.

Halaber, kexa-egileak salatzen du gai horri buruzko seinaleztapena ez dela batere ona auzo horretan eta etengabeko kontrol falta dagoela. Eta horren ondorioz, aparkatzeko baimenik ez duten autoak arazorik gabe aparkatzen dituztela.

Hori guztia dela eta, eskatzen du egoiliar-txartelen banatzeko modua eta erreserbatutako aparkalekuak aldatzeko, baita tasa ordaintzetik salbuestea ere. Halaber, erakunde honen laguntza eskatzen du, Iruñeko Udalarekin beharrezkoa den elkarrizketa bideratzeko, auzoan dituzten arazoak konpondu ahal izateko; izan ere, hainbat bilera eskatu dituzte udaleko ordezkariekin, baina ez da bilerarik izan.

Iruñeko Udalak, Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariaren idazkiaren bidez, ondoko erantzuna eman zion guk eginiko informazio eskaerari:

“Egia da aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuaren 1. eremuan egoiliar-txartel dezente gehiago daudela aparkalekuak baino; horregatik, aipatu sektoreko txartelak balio du 2. eremuan eta 4. eta 5. eremuetako zati batean aparkatu ahal izateko (Aralar eta Media Luna kaleak, hasieratik Nafarroako Behereko etorbidera arte, baita kale horien artean dauden Arrieta, Leire eta San Fermín kaleen zatiak ere).

Berriki aparkaleku bat gaitu da zezen plazaren ondoan, soilik 1. eremuko egoiliarrentzat izanen dena.

Compañía plazako aparkalekua ere amaitze dago. Bertan 225 toki izanen dira, soilik Alde Zaharreko bizilagunentzat. Aparkaleku horretako toki bat lortzen dutenek ez dute egoiliar-txartela izateko eskubiderik izanen; horrenbestez, lur gainean aparkatzeko toki gehiago izanen da.

Gazteluko Plazako aparkalekua eraikitzen ari dira. Bertan 800 toki izanen dira eta gehienak 1. sektoreko egoiliarrentzat izanen dira.

Halaber, aparkalekuak eraikiko dira Santa María La Real plazan eta Corazonisten elizaren alboan.

Udaltzaingoak etengabe salatu eta garabien bidez eramaten ditu 1. eremuan aparkatutako autoak, egoiliar-txartelik ez badute. 2001. urtean 9.065 salaketa egin ziren, guztira, arrazoi hori zela medio.

Udaleko ordezkariekin bilera egiteko eskaerari dagokionez, jakinarazten dizut bilera bat egiteko eskatu den bakoitzean, Herritarren Babeserako zinegotziak aintzat hartu duela eskaera. Gainera, Alde Zaharreko [...] Auzokideen Elkarteak ordezkari-tza dauka eta parte hartzen du “Alde Zaharreko Mahaian” Foro horretan, hain zuzen, Alde Zaharreko gizarte-taldeek eta Iruñeko Udalak parte hartzen dute eta bertan hainbat gai aztertu eta lantzen dira, parte-hartzaile guztien adostasuna bilatu nahian, Alde Zaharreko arazoei konponbidea aurkitze aldera; besteak beste, nola ez, aparkatzeko arazoa.”

Ondoren, informazioa zabaltzeko eskatu genion Iruñeko Udalari, jakiteko zenbat aparkatzeko toki dauden aparkatze arautuko 10 eremuetako bakoitzean, baita zenbat egoiliar-txartel banatu diren ere.

Horri dagokionez, udalak azaldu zuen 1. eremuan aparkatzeko 1.090 toki daudela, Alde Zaharreko bizilagunei 2. 4. eta 5. eremuetan eskaini zaizkien tokiak kontuan hartuta. Halaber, aipatzen du 2.491 egoiliar-txarteldun daudela 1. eremuan. Gainerako sektoreetan aparkatzeko tokien kopurua eta egoiliar-txarteldunena nahiko proportzionala da, kontuan hartu gabe 1. eremuko bizilagunek 2., 4. eta 5. eremuetako tokiak erabiltzeak izan dezakeen eragina.

ANALISIA

Bide publikoak autoak aparkatzeko erabiltzea orokorra eta doakoa izan da denbora luzez, zirkulazioaren betebeharrak teknikoek dakartzaten mugak besterik gabe (izkinak libre utzi beharra; kale estuen aldeetako batean, suhiltzaileen irteeretan, etab. aparkatzeko debekua), baina iritsi zen unea non

erabilera publiko aske eta orokor horrek hiriak andeatu zituen, bereziki gune zahar eta historikoak, baita bizilagunen bizi-kalitatea ere, eta, horren ondorioz, ezinbestekoa bihurtu da ibilgailu pribatuen trafikoari buruzko neurri murriztaile zorrotzak hartzea. Hori dela eta, kale batzuk oinezkoentzako bihurtu dira eta ibilgailuen zirkulazioa edo aparkatzea erabat debekatu da; beste eremu batzuetan, berriz, aparkatze mugatua denboran baimentzen da, “eremu urdinaren” bidez; eta, azkenik, bide batzuetan erabilera publiko askea baimentzen da. Horretaz gain, aparkaleku itxiak eraikitzen dira, ibilgailuak uztea errazteko eta erabiltzen ez diren kalean egon ez daitezen.

Begi-bistakoa da ibilgailuak bide publikoan aparkatzea jabari publikoaren aprobetxamendu berezia dela, eta horrek ahalbidetu du administrazio publikoek aparkatze askeari aipatu ditugun mugak ezartzea, hiriko bizi-kalitatea gehiago zaintzen duten garraio bideen erabilera sustatze aldera. Horrela, ibilgailuak bide publikoetan aparkatuta egoteko gehieneko epeak ezartzeaz gain, aprobetxamendu horregatik tributuak kobratzen dira, norberaren ibilgailua erabiltzea garestiagoa izan dadin eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko xedearekin.

Azken urteotan hiri askotan ezarri diren bide publikoak erabiltzeko araubide desberdinek ezaguri hauek dituzte:

Hiri-ertzeko auzo edo eremuetako araubidea. Eremu horietan galtzada aparkatzeko erabiltzea doakoa eta publikoa da herritar guztientzat (eremu horietan bizi ala ez) inolako mugarik gabe, salbu eta trafikoa ahalbidetzeko beharrezkoak direnak (kale estuak, izkinak eta abar) edota segurtasun arrazoiengatik ezartzen direnak (ikuskitzen egiten diren lokalen, anbulantzien eta abarren irteerak), eta eremu publikoaren aprobetxamenduetatik ezer ordaindu gabe.

Ohiko erabilera araututa dagoen eremuak (erdialdeko auzoak), berriz, erabilera publikokoak dira, baina erabilerari muga zorrotzak ezartzen zaizkio. Horren arabera hainbat egoera bereiz daitezke:

Eremu horietan bizi direnen egoera; horiek denbora-mugarik gabe aparka dezakete autoa bizi diren eremuan, eta horren truke tasa bat edo antzeko tributu bat ordaindu behar dute.

Eremu horretan bizi ez direnen egoera; horiei aparkatzeko denbora mugatzen zaie –normalean 2 ordu, gehienez– eta ordaintzen tasa bat eskatzen zaie, egoiliarrek ordaintzen dutena baino garestiagoa. Horren helburua da herritarrari hirigunearen erdialdera joateko bere ibilgailua erabiltze-

ko asmoa kentzea eta garraio publikoa edo berea ez den ibilgailua erabil dezan lortzea.

Bistakoa denez, hiri bakoitzak hiriko trafikoaren erregulazio berezia ezarri du eta bere beharretarako konponbide egokienak aukeratu ditu; baina, hala ere, ezarritako ereduak bat datoz funtsezkoen, nahiz eta berdinak ez izan: kasu guztietan, helburua da ibilgailuen gehiegizko erabilerak dakarren degradazioa saihestea hiriko eremu jakin batzuetan, eta, horretarako, ibilgailu pribatuen trafikoa nabarmen mugatzen duten neurriak hartu dituzte.

Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, 4/1999 Foru Legeak aldatu zuenak, tasak aipatzen ditu Nafarroako toki entitateen finantza-baliabideen artean, eta 100. artikuluan tasaren zergagaiaren definizioa ematen da: “2. ...jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia...”

Artikulu horren 4. atalean hau zehazten da: “Toki entitateek zilegi izanen dute tasak ezartzea tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik (...);” besteak beste, u) lerrokadan aurreikusten den kasuan; hain zuzen, trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako bide-kaleetan aparkatzeagatik, hartarako jartzen diren eremuetan eta ezar daitezkeen mugekin.

Iruñeko Udalak 1998. urtean arautu zuen gai hori, aparkatze mugatu eta murriztuko eremuak arautzen dituen ordenantzen bidez. Ondoren, aparkaldi mugatuko bide publikoetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala onetsi zuen, eta ordenantza hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2001eko abenduaren 31n.

Horien bidez, araubide bereziko 10 aparkatze-eremu ezarri ziren. Soilik kexaren xede den 1. eremuak dauka erabilera erabat mugatua Alde Zaharreko bizilagunentzat. Soilik bertan bizi direnek aparka dezakete eremu horretan, salgaien kargatzeko eta deskargatzeko aparkatzen dutenez gain. Eremu horretan aparkatzeko eskubidea izateko, bizilagunek egoiliar-txartela izan behar dute; txartel hori udalak ematen du urteko tasa bat ordaindu ondoren –35,5 euro 2002. urtean–.

Gainerako eremuek erregulazio komuna dute: egoiliar-txartela duten bizilagunek bertan aparka dezakete txartela lortu eta 35,5 euroko urteko tasa ordainduz gero, baina bizilagun ez direnek ere aparka dezakete, 2 orduz, gehienez, beste tasa bat ordaintzearen truke –1,45 euro 2 orduko aparkaldiagatik–. 10. eremuan, aparkatzeko gehieneko denbora zabaldu egiten da; izan ere, hiriaren

erdialdetik urrun egoteagatik gutxi erabiltzen delako eta herritar gutxiagok aprobetxatzen duelako.

Salaketa jarri duen elkarteak eremuen banaketa berria eskatzen du, bere ustez 1. eremuko bizilagunak diskriminatzen dira gainerako eremuetako bizilagunekiko; izan ere, eremu horretan ez dago proportziorik aparkatzeko tokien eta emandako txartelen artean. Halaber, egoiliar-txartela lortzeko ezarritako tasa kentzea eskatzen dute.

Eskakizun horiei erantzuteko, auzoa ikustera joan gara eta errealitatea ahalik eta hoberen islatzen duen informazioa lortzen saiatu gara; izan ere, bistakoa da planteatutako arazoa behar den bezala aztertzeak dakarren zailtasuna, eragina baitu ez bakarrik Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunengan, baita erregulatutako gainerako eremueta-ko bizilagunengan ere, eta jakina, beste auzoetako herritarrengan, horiek ere bai baitute erdialdera beren ibilgailuetan joateko eskubidea. Horien guztien aukera, hain zuzen, beren ibilgailua modu askean hartu eta Iruñean zehar ibiltzekoa, ukituta geratu da eta, nolabait, hiriaren erdialdeko kale batzuk oinezkoentzat bihurtzeak ekarri dituen hobekuntzek hainbat neke ekarri dizkiete herritar guztiei, maila desberdinetakoa, pentsatzekoa denez. Onurak ere herritar guztien artean banatzen dira, batzuentzat gehiago eta besteentzat gutxiago. Pentsatzekoa denez, onura gehien dutenak Alde Zaharreko bizilagunak dira. Dena den, esan dugun moduan, hamarkadak dira eremu hori degradazioa jasaten ari dela, eta beharrezkoa zen administrazioak aplikatzea azken urteotan hartzen ari den neurrien modukoak.

Ikuspuntu horretatik, auzokideen elkarteak erabiltzen dituen konparazio-gaiak ez dira egokiak; izan ere, alderatzen ditu Alde Zaharreko bizilagunen egoera -1. eremua aparkatze murriztuko eremu gisa katalogatua dago eta, horrenbestez, eremu horretako egoiliarrek bakarrik erabil dezakete- beste eremuetako bizilagunen egoerarekin. Baina eremu horiek aparkatze mugatuko eremu gisa katalogatuak daude eta, hori dela eta, eremu horietako egoiliarrek gainerako herritarrekin lehiari aritu behar dute aparkatzeko toki bat aurkitzeko; izan ere, aparkatze mugatuko eremuetan ez dago egoiliarrentzat erreserbatutako tokirik. 1. eremuan 400 eta 500 aparkaleku bitartean daude, eta horiek guztiak dira eremu horretako egoiliarrentzat. Gainerakoetan ordea ez dago inolako erreserbarik. Izan ere, eremu horietako egoiliarrek beren ibilgailuak aparkatzeko dituzten arazoak 1. eremuko bizilagunek salatutako arazoan antzekoak dira. Hori erraz atzeman daiteke dendak irekita dauden egun-orduetan, baita asteburuetako edozein orduetan ere.

Aitzitik, egiaztatu dugu dendak irekita dauden bitartean, arratsalde erdira arte, 1. eremuan badi-rela bete gabeko aparkalekuak Labrit Aldapa, katedrala eta Karmen kaleko aldean. Aldiz, ordu jakin batzuetatik aurrera ezinezkoa da eremu horretan aparkatzea. Hori dela eta, gure ustez arazoa ezin daiteke konpondu udalak ezarritako eremuak aldatuta, arazoa orokorra baita eremu guztietan, 10. eremuan izan ezik, nahiko urrun baitago, eta eremuak txikiak direla kontuan hartzen badugu, zaila da konponbidea aurkitzea.

Egia esateko, ez dugu uste epe laburrerako konponbiderik dagoenik; izan ere, arazoa aspalditik dator, kaleak oinezkoentzat bihurtzeko lanak hasi baino lehenagotik. 1. eremuaren planoaztertzen badugu, ondorioztatzen da kaleak oinezkoentzat bihurtzeak eta gaur egun egiten ari diren lanek ekarri dutela balizko aparkalekuen ia ehuneko 65 galtzea; beraz, oraindik 400 eta 500 aparkaleku bitartean erabilgarri badaude, salaketa egin duen elkarteak adierazitako moduan, horrek esan nahi du Iruñeko Alde Zaharrean ez legokeela 1.350 ibilgailu baino gehiago aparkatzeko tokirik lanak hasi baino lehen. Aintzat hartzen badugu 2.491 egoiliar-txartel daudela, horrek erakusten du ezinezkoa zela bizilagun horiek guztiek aparkatzeko toki ziurtatua izatea eremuan, kontuan hartu gabe, gainera, egoiliar-txartela eskuratu nahi ez duten ibilgailuen titularrak. Aldiz, ematen du lehenago aparkatzeko tokiak beste eremu batzuetan behar zirela eta egoera larritu egin dela azken urteotan, ibilgailuen kopurua nabarmen handitu baita.

Halaber, ez dugu uste tasa ezabatzeak arazoa konponduko duenik; izan ere, neurri horren ondorioak are kaltegarriagoak izanen lirarteke Alde Zaharreko auzokideentzat. Horren haritik, ordaindu beharreko kopurua txikia izanda ere -35,5 euro-, kontuan hartzen badugu urtero ezartzen dela, iruditzen zaigu disuasio efektua izan dezakeela beren ibilgailua gutxi erabiltzen duten bizilagunengan; izan ere, agian horiek nahiago izanen dute ibilgailua erregulatu gabeko inguruko eremuetan utzi. Ez dakigu zenbat gidari dauden egoera horretan, baina, gutxi izanda ere, hori oso garrantzitsua izan daiteke 1. eremuko gainerako bizilagunentzat: txartela ez eskuratzeko arazoia bada, uste dugun bezala, beren ibilgailuak gutxi erabiltzen dituztela, argi eta garbi dago tasa ezabatuz gero ibilgailuak eremu horretan aparkatuko dituztela, etxetik hurbilago, eta oso gutxitan mugituko dituztela. Horren ondorioz, eremuan dagoen errotazioa nabarmen murriztuko da eta zailtasunak handiagoak izanen dira.

Esan dugun moduan, arazoa larria da eta ez da konponbiderik antzematen epe laburrean. Hiri garraioaren arazoa orokorra da gure kultur eremuko hirietan eta denborarekin larritzen joan da, ibilgailuen kopurua handitu egin delako eta agintariek, orokorrean, aurreikuspen eza nabarmena izan dutelako, baina baita herritarren mentalizazio faltagatik ere; izan ere, finean, horiek dira ulertu behar dutenak garraio publikoak edota hiria hainbeste degradatzen ez duten garraio motak erabili behar dituztela, baita ibilgailu bat erosteak ez dakarrela administrazio publikoek berori aparkatzeko doako toki bat ziurtatzeko eskubiderik ere.

Azken finean, onartu behar dugu Iruñeko Udala ahalegin handia egiten ari dela azken urteotan azaldutako arazoa konpontze aldera. Horrela, oso egokia iruditzen zaigu 1. eremuko bizilagunei beren ibilgailuak 2. eremuan eta 4. eta 5. eremuetako zati batean aparkatzeko eman zaien aukera, hori konponbide partziala den arren eta arazoa behin betiko konpontzen ez duen arren. Neurri hori hartu izanak erakusten du udalak aintzat hartzen dituela arazoa eta bizilagunen eskakizunak; baina, hiriaren ardura duen administrazioa izanik, nahasturik dauden interes guztiak baloratu behar ditu, eta hori bereziki zaila da gai honetan, interes kontrajarri asko baitaude. Horren haritik, Alde Zaharreko Mahaiaren garrantzia aitortu behar dugu, hori baita herritarren parte-hartzea ahalbidetzen duen foroa. Bertan parte hartzen du, beste pertsona eta erakunde batzuekin batera, Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak.

Halaber, baloratu dugu hainbat lurrazpiko aparkaleku eraikitze asmoa, horien erabilerak ahalbidetuko bailuke toki libre gehiago izatea 1. eremuan. Dena den, gaur egun, horietako bi proiektuak besterik ez dira –Santa María La Real plazakoa eta Corazonisten elizaren albokoa–, beste bat eraikitzen ari dira –Gazteluko Plazakoa– eta soilik Compañía plazakoa dago erabiltzeko moduan. Udalaren jardunaren alderdi kritikagarri bakarra da ez duela aurreikuspen nahikorik izan hartutako neurrien artean lehentasunak ezartzeko. Izan ere, erraz aurreikus zitekeen Alde Zaharreko kaleak oinezkoentzat bihurtzeak berehala ekarriko zuela hainbat aparkatzeko toki desagertzea. Hori dela eta, lehenbizi hartu beharreko neurria zen desagertu behar ziren tokien orde besterik ez izatea, proiektaturikoak bezalako lurrazpiko aparkalekuetan, eta ondoren hastea kaleak oinezkoentzat bihurtzeko lanekin, eta ez egin dena; izan ere, ibilgailuak aparkatzeko tokien ehuneko 65 desagertzeak daukan garrantzia kontuan hartuta, bizilagunei alde aurretik beste balizko

aparkaleku batzuk eskaini behar zitzaizkien, baita horien eskuratzea sustatu ere. Horrenbestez, hori da kontuan hartu eta udalari iradoki diezaioketuen alderdi bakarra, hain zuzen, lehenbailehen eraiki ditzan proiektatutako lurrazpiko aparkalekuak, edota bestela, auzokideei eman diezaien horiek sustatzeko aukera. Horrela, auzokideek proiektuen idazketa, lanen zuzendaritza eta exekuzioa eta abar kontratatuko lituzkete, baita finantzaketa bere gain hartu ere, eta horren truke aparkalekuak urte askotan erabiltzeko eskubidea izanen lukete, Iruñeko beste auzo batzuetan egiten den moduan. Ondoren, proiektatutako lanak eta egiteko daudenak bukatutakoan, baloratu ahalko da beste neurri osagarri batzuk hartzea beharrezkoa den.

Azaldutakoa dela eta, egokitzen jotzen da Iruñeko Udalari IRADOKIZUNA egitea, lehenbailehen eraiki ditzan hiriko Alde Zaharreko bizilagunak erabili ditzaten proiektatutako lurrazpiko aparkalekuak, edo bestela, interesa duten auzokideei eman diezaien aparkaleku horiek sustatzeko aukera.

Udaletik bidalitako erantzunean azaltzen zen 2001. urtean hasiak zirela Santa María La Real plazan eraiki beharreko aparkalekuari dagozkion azterketa geoteknikoak. Horretarako, TRAMA, S.L. entitateak hainbat zundaketa arkeologiko burutu zituen eta orain Vianako Printzea Erakundearen txostenaren zain dago. Bestalde, radar bidez prospekzioak eginen dira, aztarna arkeologikorik ba ote dagoen antzemateko.

Aldapa kalean eraiki nahi den aparkalekuari dagokionez, adierazten da udalak badituela eremu horri buruzko datu dokumentalak eta komenigarria dela indusketa arkeologiko bat egitea. Indusketa hori ekitaldi honetako udal aurrekontuarekin finantzatuko da, 600.000 euroko kontsignazioa baitu horretarako. Halaber, aipatzen da aurtengo maiatzean radar bidezko prospekzioak eginen direla, aztarna arkeologikorik ba ote dagoen antzemateko.

Txostenaren bukaeran esaten da udalak ez dituela geldiarazi eremuko aparkaleku faltaren arazoa konpontzeko jarduketak; aitzitik, horretan jarraituko duela hasitako prozesua amaitu arte.

Hortaz, uste dugu, adierazpen horien bidez udalak gure iradokizuna onartu duela, eta espero dugu ildo horretatik jarraitzea, lehenbailehen ziurtatze aldera auzoko bi aparkaleku horiek eraikita egotea, halako eraikuntzek berekin dakartzaten zailtasunak, eraiki nahi den zoruak izan dezakeen balio arkeologikoa kontuan hartuta, konpondu bezain laster.

FUNTZIONARIOAK EZ DIREN LANGILEEK EGINKO TRAFIKO SALAKETAK.**AURREKARIAK**

Kasu honetan (02/49/I espediente), kexa-egileak Ribaforadako Udaleko langile baten egoera irregularra salatu zuen; izan ere, idazkian azaltzen zuenez, Ribaforadako agintaritzaren agente eta udaltzain gisa ari da lanean, horretarako behar diren baldintzak bete gabe.

Horri dagokionez, azaldu zuen idazki bat aurkeztu zuela udalean, gai horri buruzko informazioa eskatzeko, baina orain arte udalak ez duela neurririk hartu irregulartasun horiek konpontzeko; izan ere, pertsona horrek agintaritzaren agente gisa jardun du kexa aurkezteko unera arte. Horregatik guztiarengatik, Ribaforadako Udalak legearen arabera jardun dezan neurriak har zitezela eskatu zuen.

Aipatu udalari gai hauei buruzko informazioa eskaturik, alkate udalburuak hurrengo erantzuna igorri zigun:

1. [...] jaunaren lanpostua udaltzain lanpostua da, 1998ko martxoaren 2ko 26. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiaren arabera.

2. Lanpostu hori D mailakoa da, lan-kontratupeko langile finkoa da eta, beste eginkizun batzuen artean, "maila eta lanpostu bereko funtzionarioei dagozkien eginkizunak eta antzekoak beteko ditu".

3. [...] jauna bezalako funtzionarioak ez dira inoiz poliziatzat hartu, Ribaforadan ez baita halako kidegorik.

4. Ez da inolako erabakirik hartu, ezta ebazpenik eman ere, [...] jaunak eta gainerako funtzionario albienteek eta antzekoek udaltzainen eginkizunak bere gain har ditzaten".

Erantzun hori ikusirik, informazio osagarria eskatu genion aipatu udalari, eskura genituen datuak aztertuta erabat argitu gabeko hainbat gairi buruz, zehazki aipatutako udal enplegatutako horrek kexa-egilearen aurka egindako trafiko salaketa bati buruz.

Informazio eskaera horren aurrean, Ribaforadako Udalak hauxe adierazi zigun:

"1. [...] jaunaren eginkizunak, udaltzain (lan-kontratupekoa) gisa, D mailari dagozkionak dira, lansarien behin-behineko erregelamenduaren bidez (158/1984 Foru Dekretua) ezarritako mailen araberrako sailkapenari jarraikiz.

2. Ribaforadan ez dago polizien kidegorik. Bestelako kontua da D mailako funtzionarioek eta [...]

jaunak lan-kontratupeko langilea den aldetik, antzeko eginkizunak betetzea, hala nola hirigunean egiten diren trafiko salaketak.

3. Kasu honetan, [...] jaunak salaketa egin zuen gaizki aparkatzeagatik, eta beste funtzionario batek sinatu zuen tramitatua izan zedin.

4. Alkatetzak ez zion kexa-egilearen idazkiari erantzun, egokitasunezko arrazoiak direla medio; izan ere, gertakariak ez zuten garrantzirik eta haiei buruzko ezagutza partziala genuen. Hala ere, [...] jaunak, administrazioaren isiltasunaren aurrean, bazuen errekurtsioa jartzeko aukera, baina ez zuen bide hori erabili.

5. Alkatetza honek adierazten du badakiela badirela irregulartasun batzuk udal ibilgailuaren errotulazioari eta agenteen uniformeari dagokionez, eta behar diren aginduak eman direla horiek behar bezala erregulariza daitezela.

ANALISIA

1.- Administrazio publikoek herritarrei erantzuteko betebeharra.

Lehenik eta behin gogorarazi behar da Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen dela herritarrek interesdun izaera daukateneko prozedurei buruz eskatzen duten informazioa jasotzeko eskubidea.

Legearen arabera, herritarrek, administrazio publikoekin dituzten harremanetan, administrazio publikoetako erregistro eta artxiboetara jotzeko eskubidea dute, Konstituzioak ezarritako moduan, betiere pertsonen intimitateari buruzko daturik ez bada agertzen. Erregistro eta artxiboetara jotzeko eskubidea ukatu ahal da, interes publikoko arrazoiak tarteko, besteren interes babesgarriagoak daudenean edota lege batek hala ezartzen duenean. Kasu horietan organo eskudunak ebazpen arrazoitua eman beharko du. Helburua da herritarrei behar dituzten baliabideak ematea, administrazio-arekiko harremanak modu eraginkorrean bideratzeko behar duten informazioa lor dezaten. Hori zuzenbide estatuaren oinarritzko zutoinen agerpena da eta, horrenbestez, administrazio publiko guztiek zorrotasun handienarekin bermatu behar dute.

Eztabaidaezina da kexa-egileak interes zilegia duela bere aurkako salaketa jarri zuen udaltzainak funtzionario izaera duen jakiteko; izan ere, udalari eskatu zizkion datuak ez dira pertsonen intimitateari buruzkoak.

Ribaforadako Udalak erantzun zion erakunde honi Alkatetzak ez ziola kexa-egilearen idazkiari

erantzun “egokitasunezko arrazoiak direla medio; izan ere, gertakariak ez zuten garrantzirik eta haiei buruzko ezagutza partziala zen”. Hala ere, erantzun horrek ez du udalaren isiltasuna justifikatzen.

Gertakarien “ezagutza partzialean” oinarrituriko azalpen hori ez da nahikoa; izan ere, [...] jaunak eskatutako informazioa ez da udal langileak salatatuko gertakari buruzkoa, salaketa egin zuen agentearen lanpostuari eta lan kategoriari buruzkoa baizik. Hain zuzen, jakin nahi zuen agente hori funtzionarioa zen, Nafarroako Segurtasun Eskolako probak gainditu zituen eta, orokorrean, salaketa egin zuen pertsonak agintaritzaren agente izaera ote zuen.

Datu horiek guztiak ezagutzen ditu Ribaforadako Udalak, eta horien berri eman behar zion herri-tarrari lehenbailehen, 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluei jarraikiz.

2.- Agintaritzea erabiltzea dakarten eginkizunak betetzeko legeko baldintzak.

Udaltzaingorik ez duten Ribaforada bezalako herriei dagokienez, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeak albienteak ezartzen ditu agintaritzea erabiltzea dakarten eginkizunak betetzeko. Lege horren lehengo testuan –aztertzen ari garen gertakariak izan zirenean indarrean zegoena; izan ere, urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren testua desberdina da– ezartzen zen Udaltzaingorik ez zuten udalek bazutela aukera agintaritzaren erabilera dakarten eginkizunak beste funtzionario publiko batzuei esleitzeko.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 1/1987 Foru Lege Orokorreko 12. artikulua ezartzen zuen: “1.- Udaltzaingorik ez duten toki entitateetan, beste agente batzuek bete ahalko dituzte horien eginkizunak eta beste batzuk, armak eraman ala ez. Agente horiek funtzionario publikoak izan beharko dute ezinbestean eta zaindari, zaintzaile, agente, albiente, alguazil, gauzain izendapena edo baliokidea izanen dute.

2.- Langile horiei Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritakoa aplikatuko zaie. Hautatu eta sartzeko prozeduran 30. artikuluko 2. atalean aipatzen den prestakuntza ikastaroa egin beharko dute, bestela ezin izanen baitute izendapena jaso.”

Horrenbestez, legeak hainbat baldintza ezartzen ditu agintaritzaren agenteen eginkizunak bete ahal izateko:

1.- Funtzionario publikoa izatea.

2.- Zaindari, zaintzaile, agente, albiente, alguazil, gauzain izendapena edo baliokidea izatea.

3.- Nafarroako Segurtasun Eskolak emandako prestakuntza ikastaroa egitea.

Aipatu foru legeak ezartzen duenez, agintaritzaren erabilera dakarten eginkizunak funtzionario publikoek bakarrik bete ditzakete. Era berean, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak baldintza bera ezartzen du 92.2. artikuluan, bertan esaten baita “funtzionarioen estatutuari atxikitako langileei soilik dagozkien funtzio publikoak dira agintaritzaren erabilera dakartenak, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza ematekoak, ekonomia eta finantza arloetako kudeaketaren barne kontrola eta fiskalizazioa (...)”; eginkizun horiek betetzeko behar den objektibotasuna, inpartzialtasuna eta independentzia bermatze aldera.

Funtzionarioen estatutuak enplegatu publikoei ematen dien aldaezintasuna ezinbesteko baldintza da eginkizun jakin batzuk bete ahal izateko; izan ere, eginkizun horiek, dituzten ezaugarriengatik, independentzia eta objektibotasun handienaz bete beharrekoak dira, eta dohain horiek hobeto bermatuko dituzte langile funtzionarioek lan kontratupekoek baino. Izan ere, horiek kaleratuak izan daitezke, baita modu bidegabean ere, eta, horrenbestez, ezin daitezke izan legearen betetzearen bermatzaileak, eta hori da, finean, funtzio publikoaren oinarria.

Ribaforadako Udalak emandako erantzunetik ondorioztatzen da bere enplegatuak ez duela baldintza horietako bakar bat ere betetzen; izan ere, bertan adierazten da langilea D mailakoa dela eta lan-kontratupeko langile finko gisa kontratatuta dagoela, udaltzain lan kategoriarekin. Horretaz gain, onartzen da berak egin zuela aipatu salaketa, beste funtzionario batek sinatu arren; baina salaketa sinatu zuen funtzionario horretaz ez dakigu ezer, ezta gertakarien unean han zegoen ere. Halaber, onartzen da langile horrek udaltzainek erabiltzen duten uniformearen antzekoa erabiltzen duela, baita erabiltzen duen ibilgailuak antzeko ezaugarriak dituzten bereizgarriak dituela, eta hori bat dator kexa-egileak emandako bertsio eta dokumentuekin.

Udalak ez du azaltzen langile horrek Nafarroako Segurtasun Eskolan ematen duten prestakuntza ikastaroa gainditu duen eta, horrenbestez, pentsatzekoa da baldintza hori ere ez duela betetzen.

Finean, aipatu enplegatuak, lan-kontratupean dagoen bitartean, ezin du agintaritzea erabiltzea dakarren funtzio publikorik bete eta, horrenbestez, ezin du ibilgailuen trafikoa zuzendu, horrek gidariei aginduak ematea baitakar, ezta gidariei dokumentaziorik eskatu ere, eta are gutxiago salaketak

kasuko buletinean formalizatu arau-hauste bat egin dela jakiten duenean, ezta, orokorrean, herritarren aurka koakziorik txikiena egitea dakarren egintzarik gauzatu ere. Horrekin bat etorritik, ezin du bereizgarri, ezkutu, seinale edo uniformerik eraman, ezta, orokorrean, gai horri buruzko nahasketarik eragin dezakeen jokabiderik izan.

Hori guztia dela eta, bidezkotzat jo zen Ribaforadako Udalari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPEN bikoitza egitea:

1.- Handik aurrera eta orokorrean, udalak administrazio publiko guztiek herritarren eskakizunei erantzuteko duten betebeharra bete dezan, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraikiz.

2.- Agintaritzak dakarten eginkizunak soilik funtzionario publikoei esleitzen diren eta, horrenbestez, lan-kontratupeko udal enplegatuek ez ditzatela bete, kasu bada, funtzionario izaera lortu arte.

Aipatu udaletik erantzun ziguten guk eginiko legezko betebeharren gogorazpena onartzen zutela.

BAIMENDUTAKO ORDUTEGIAZ KANPO APARKATZEAGATIK JARRITAKO ZEHAPENA.

Kexa egin zuen pertsonak (02/333/l espediente) aipatzen zuen Iruñeko Udalak isun bat ezarri ziola, trafikoko arloko arau-hauste bat egitearen ondorioz; hain zuzen, hiri horretako Mercaderes kalean baimendutako ordutegiaz kanpo aparkatzeagatik.

Interesdunak azaldu zigun bere laneko ibilgailua aparkatu zuela Mercaderes kaleko zama-lanak egiteko eremuan, bezero bati gasolioa emateko, eta gasolioa deskargatu eta kobratzeko zain zegoen bitartean, aparkatzeko baimendutako ordutegimuga pasa zela, baina 10 minutu pasa baino lehenago ibilgailua kendu zuela. Bere iritziz, ezarritako isuna gehiegizkoa da arau-haustearen larritasunari dagokionez; izan ere, 95 euroko isuna ezarri zitzaion, eta aurkeztutako alegazioak udalak onartuko zituela espero zuen arren, premiamendu eginbidea jaso zuen, kopuru hori gehi % 20ko errekarua nahitaez ordain zezan.

Iruñeko Udalari gai horri buruz eskatutako txostenean, udalak azaldu zuen partikularrak ez zuela isunaren aurkako errekurtsorik aurkeztu horretarako epearen barruan, eta horrekin batera, Udaltzaingoaren salaketa eta zehapen espediente osatzen duten gainerako dokumentuak bidali zituen, baita partikularrak aurkeztutako alegazioak eta gertakarian parte hartu zuten udaltzainek eginiko

salaketaren berrespena ere. Horretaz gain, ziurtatu zuen jakinarazi beharreko egintzak behar bezala jakinarazi zirela.

ANALISIA

Aldeek aurkeztutako datuak eta txostenak ikusirik, ados geunden zehapen espediente eragin zuten gertakariekin, ez ordea gertakari horien balorazioarekin; izan ere, partikularrak eta udalak onartzen zuten 11etatik aurrera aparkatzea debekatuta dagoen hiriko eremu batean aparkatuta zegoela ibilgailua.

Gure ustez, partikularrak arau-haustea justifikatzeko erabili zuen arrazoia, hain zuzen, minutu gutxi batzuetako atzerapenez kendu zuela ibilgailua, ez da zehapena deuseztatzeko aitzakia baliagarritzat hartu behar. Erakunde honek gogoan izan behar du hiriko alde zaharreko eremu batean gaizki aparkatzea saihestu behar den jokabidea dela eta, arau-hauste bat denez, ez dago arrazoirik dagokion zehapen espediente ez hasteko.

Gidariekin ulertu eta onartu behar dute, denon onerako, arauak ezagutu eta bete egin behar direla, salbuespenik gabe, kontrakoa gehiegikeria eta arbitrariotasuna onartzea izanen bailitzateke. Begibistakoa da eremu horretako ibilgailuen trafikoa erregulatzea nahiko zaila dela Udaltzaingoarentzat, alde zaharrak dituen ezaugarriak direla medio: kale estuak, salgaiak banatzeko mugimendu asko, trafikoko murrizketak, kale asko oinezkoentzat bihurtu izana, ibilgailuak aparkatzeko mugak egoiliarren mesedetan eta abar. Udala ahalgin handia egiten ari da eremu horrek behar diren ingurumen eta bizigarritasun baldintzak izan ditzan, horrela denboran zehar pairatzen ari zen degradazioa gerarazi eta auzoa berreskuratzeko. Hori dela eta, herritarrek ahalik eta gehien errespetatu behar dituzte udalak hartutako neurriak.

Hala ere, ikusi dugu arau-haustea zirkulazioari buruzko erregelamenduaren 94.2.e) artikuluan oinarritzen dela; izan ere, artikulua horrek arau-haustetzat jotzen du ibilgailuak aparkatzea "espalo, pasealeku eta oinezkoentzako gainerako eremuetan". Eta halaxe agertzen da administrazio espedientearen egintzetan.

Horren ondorioz, 94. artikulua 3. atalean ezartzen dena kontuan hartuta, arau-hauste hori ez da larritzat jotzen, ez baita sartzen atal horretan agertzen den arau-hauste larrien zerrendan, eta hortik ondorioztatzen da kexaren xede den arau-haustea arintzat kalifikatu behar dela.

Salaketari dagokion buletinean ez da aipatzen 91. artikulua, ibilgailuak gelditu eta aparkatzeagatiko arau-hauste larriak ere tipifikatzen dituen; hain

zuzen, arau-hauste larritzat hartzen ditu ibilgailuen eta oinezkoen trafikoa “modu larrian oztopatzen dutenak” (2. ataleko m) letra). Baina esan dugun moduan, udaltzainek ez zuten arau-haustea larrituko lukeen inguruabar horren berririk eman, ez zehapen ebazpenean, ez ebazpen proposamenean; horrenbestez, argi dago arau-haustea arina izan zela eta ezarritakoa baino isun txikiagoaz zehatu behar dela.

Egia da, udalaren txostenak aipatzen duen moduan, partikularrak ez zuela zehapenaren aurkako errekurtsorik jarri horretarako epearen barruan eta, horrenbestez, bidezkoa zen premiamendu bidezko exekuziozko prozedura hastea. Hori dela eta, exekuziozko jarduketa onargarria da, baina horrek ez dio eragozten erakunde honi udalari gomendatzea isunaren zenbatekoa aldatzeko, legearen aurkakoa baita, eta arau-haustearen arintasunari egokiagoa zaion zenbatekoa ezartzeko. Ezerk ez du eragozten hori betetzea; izan ere, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105. artikuluan ezartzen da kalterako diren administrazio egintzak tramiterik gabe kentzeko aukera, hirugarren pertsonentzat eskubiderik sortzen ez badute. Kasu honetan kentzea partziala izanzen litzateke, soilik isunaren zenbatekoari dagokionez.

Azaldutakoagatik, bidezkotzat jo zen Iruñeko Udalari GOMENDIOA egitea, lehenbailehen partzialki ken zezan ezarritako zehapena eta haren zenbatekoaren orde zezan arau-haustearekin bat datorren beste bat ezar zezan eta, halaber, premiamendu eginbidearen bidez hasitako exekuziozko prozedura indarririk gabe utz zezan.

Hasieran, Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariak erantzun zigun, inolako azalpenik eman gabe, gure gomendioa kontuan hartzeko asmorik ez zutela. Hori dela eta, berriro azaldu genion gure jarrera, baita kexaren xede zen gaia aztertu ondoren eginiko ohartarazpenak errepikatu ere.

Bigarren erantzunean, zinegotzi ordezkari berberak berriro azaldu zuen gomendioa ez onartzeko jarrera, lehen egin zuen modu berean, hau da, inolako azalpenik edo argudiorik eman gabe, gure ebazpenean ematen ziren ohartarazpenekin desadostasuna edota bestelako interpretazioa adierazteko.

Horren aurrean, eta gure erakundea arautzen duen legean ezarritakoari jarraikiz, egoera horren berri eman dugu urteko txosten honetan.

MINUSBALIATUENTZAKO TXARTELA KENTZEA ETA APARKATZEAGATIK ISUNA JARTZEA.

AURREKARIAK

Kasu horretan (03/81/I), kexa-egileak bere desadostasuna agertu zuen, Iruñeko Udaleko Udaltzaingoak minusbaliatuentzako gordetako gunean zegoen bere anaiaren ibilgailua kendu zuelako.

Interesdunak ezgaitasuna du (% 88ko ezgaitasuna aitortzen duen ziurtagiria du), eta ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela zeukan, Donostiako Udalak emana, hiri horretan bizi baita.

Kexan azaldu zuen gertatutakoa:

“Goizaldeko 01:00ean, ikusi nuen nire anaiaren ibilgailua, nik erabiltzen nuena eta minusbaliatuentzat gordetako gunean aparkatuta zegoena, desagertu egin zela, Donostiako Udalak eta hiri bereko Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako -- zenbakidun minusbaliatuentzako txartela izan arren. Poliziari deitu nion, eta adierazi zidaten ibilgailua kendu eta Iruñeko ibilgailuen gordailura eramán zutela, minusbaliatuentzako gordetako gunean aparkatuta baitzegoen.

Arreta eman zidan udaltzainak eta bere nagusiak ez zuten beren burua identifikatu nahi izan, eta modu txarrean esan zidaten txartelak ez zuela baliorik eta minusbaliatuentzako txartela faltsutu nuela. Gainera, txartela ez zidaten itzuli nahi eta zakarrontzira botatzearekin mehatxu egin zidaten, nik behin eta berriro eskatu arren.

Ordu eta erdi baino gehiagoz jasan genituen haien isekak eta trufak, eta uneoro irainka aritu zitzaizkigun.

Apirilaren 27an ibilgailuen gordailuan guardian ziren udaltzainen izen-abizenak eskatzen dizkizut, bidezkoa den salaketa jarri ahal izateko.

Halaber, eskatzen dut isunagatik eta garabia-gatik ordaindutako zenbatekoa itzultzea, arau-hausterik ez bainuen egin.

Horretaz gain, nire minusbaliatu txartela itzultzea eskatzen dut, bidegabeki eta arrazoirik gabe kendu baitzidaten, beharrezko erakundearekin edo erakundeekin kontsulta egin gabe, kasu honetan Donostiako Udalarekin eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin, eta batez ere, minusbaliatu txartela ez edukitzeagatik izan ditudan kalteak ordaintzea.

Jasotako tratu txarra mingarria izan da, baita gurekin erabili zuten agintekeria ere; ez dakit ni atzerritarra izateak zerikusirik izan zuen horretan”

Kexa aztertu ondoren, eta erakunde honen jarduteko aukera zehatzak mugatu ahal izateko, Iruñeko Udalera jo genuen, kexan planteatzen zen auziari buruzko informazioa eman ziezagun, zehazki, azal zezan zergatik ez zuen baliozkotzat jo Donostiako Udalak emandako txartela, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

Gai horri lotuta, Iruñeko Udalak hauxe jakinarazi zigun:

2003ko apirilaren -(e)ko 23:20ean, ----- matrikuladun ibilgailua kendu zen, minusbaliatuentzako gordetako gunean baitzegoen.

Ibilgailuak ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela zeukan jarrita, baina txartel hori boligrafoz beteta zegoenez eta matrikularik agertzen ez zenez, ibilgailua salatu eta kendu zuen udaltzainak pentsatu zuen faltsututako txartela zela.

Ondoren, Donostiako Udalarekin mintzatu ginen eta azaldu zigutenez, haiek txartel hutsak eman eta interesdunek betetzen dituzte. Aldiz, Iruñeko Udalak ez du horrela jokatzeko; izan ere, hemen txartelak Hiritarren Babeserako Arloko bulegoetan betetzen dira, ordenagailuaren bidez, eta erabili behar dituzten ibilgailuen matrikulak beti agertzen dira bertan”.

ANALISIA

Gure ustez, bereziki kontuan hartu beharreko bi gai daude: administrazioaren jokaera, alde bate-tik, eta planteatutako auziaren muina, bestetik.

1.- Administrazioaren jokaerari dagokionez: arestian azaldutakotik, argi eta garbi ondorioztatzen da udalak onartzen duela minusbaliatuentzako gordetako gunean aparkatuta zegoen ibilgailua kendu zuten udaltzainek pentsatu zutela ibilgailuak jarrita zeukan aparkatzeko txartela faltsututakoa zela.

Horren ondorioz, txartela kendu eta ez zioten interesdunari itzuli, egiaztatu arren ezgaitasuna duten pertsonentzako txartela ustez faltsutu zuen pertsonak ezgaitasun handia zuela; izan ere, interesduna txartela jasotzera joan zen.

Halaber, udalak onartzen du bere txostenean Donostiako Udalarekin harremanetan jarri zela eta egiaztatu zuela ustezko txartel faltsutuak bete egiten zituela Donostiako Udalak berori emateko jarritako baldintzak.

Egindako akatsaz oharturik, eta udalak interesdunari txartela kendu ziola kontuan hartuta, horrek pertsona horri dakartzkion ondorioekin, udala, Donostiako Udalaren jokabidearekin ados egon ez

arren, ez zen saiatu egoera konpontzen eta txartela ez zion itzuli interesdunari. Gainera, kontsultatu ahal izan zuen — zenbakidun aparkatzeko txartela bere garaian eman egin ote zitzaion haren titular gisa agertzen zenari.

Jokabide hori ez dator bat Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen diren administrazioaren jardueraren printzipioekin; izan ere, arau horretan hauxe ezartzen da: “Administrazio publikoek, ...fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak errespetatu beharko dituzte bere jardueran”.

2.- Planteatutako auziaren muinari dagokionez: ez da erakunde honen eginkizuna Donostiako Udalaren edota Eusko Jaurjaritzaren jarduera fiskalizatzea, minusbaliatuentzako aparkatzeko txartelak emateko behar diren baldintzak betetzen ote dituzten zehazteko. Hala ere, udalak bere txostenean aipatzen dituen alderdietako batzuei dagokionez, hau adierazi nahi dugu: txartelean berori erabili behar duen ibilgailuaren matrikula ez agertzeari dagokionez, esan dezakegu Europako Kontseiluaren 1998ko Gomendioaren eranskinean ez dela datu hori aipatzen txartelean agertu behar dutenen artean. Horren arrazoia txartelaren helburua izan daiteke; izan ere, beraren bidez lortu nahi da berori eskuratzen dutenak gizartean gehiago integratzea eta bidaiatzeko arazoak dituzten pertsonen mugikortasuna erraztea, lantokira edo beste edonora joan ahal daitezen. Pertsona horiek, batzuetan, ezin dute ibilgailu bat gidatu eta beste pertsona batzuekin bidaiatu behar dute, eta ez dira beti pertsona berarekin eta ibilgailu jakin batean ibiltzen.

Erakunde honen eginkizuna bada herritarren eskubideak babestea administrazioaren jardueraren edozein bidegabekeria, gehiegikeria, irregularitate edota lege-hausteren aurrean, gure ustez, Donostiako Udalak bere garaian txartela eskuratzeko jarritako baldintza guztiak betetzen bazituen interesdunak, eta txartela autonomia erkidegoan eta handik kanpo erabil badaiteke (Europako Kontseiluaren 1998ko Gomendioari eta Trafikoari buruzko Legearen testu artikulatuari jarraikiz), Iruñeko Udalarik ez dagokio Donostiako Udalak txartela emateko eskatzen dituen baldintzak kontrolatzea, ezta, balorazio horren ondorioz, kexa-egileari autonomia erkidegotik kanpo txartela erabiltzeko duen eskubidea kentzea ere; izan ere, legeak eskubide hori aitortzen dio (Trafikoari buruzko Legearen testu artikulatua).

Azaldutakoa ikusirik, Iruñeko Udalarik GOMENDIOA egin genion, ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen ondorioak onar ditzan,

betiere pertsona horiek txartela eskuratu duten tokian berori lortzeko behar diren baldintzak betetzen badituzte; finean, txartel horiek Iruñean erabiltzeko aukera onar dezan, hala ezartzen baitute Europako Batasuneko Gomendioak eta Trafikoari buruzko Legeak. Halaber, eta kexa-egileari dagokionez, bere txartela itzultzeko gomendia egin genion, bere eskubidea erabiltzeko aukera izan dezan. Horrenbestez, interesdunari ezarritako zehapena deuseztatzeko eta horrek isuna ordaintzeko emandako zenbatekoa itzultzeko eskatu genion udalari.

Iruñeko Udalak hau erantzun zion gure gomendioari:

“- Udaltzaingoa baliozkotzat jo ohi ditu Nafarroako eta Espainiako gainerako udalek emandako minusbaliatuen txartelak. Kexaren xede den kasua berezia izan zen, udaltzainak txartela faltua zela uste izan baitzuen.

– Ez dago inolako eragozpenik kendutako minusbaliatuentzako txartela interesdunari itzultzeko.

– Hasitako zehapen espedienteak artxibatuzko, interesdunak alegazioen idazkia aurkeztu behar zuen, eta ez zuen halakorik egin. Zehapenaren jakinarazpena 2003ko irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta beroren aurka dagozkion errekursoak jar daitezke.

– Ibilgailua eraman ahal izateko ordaindu zuen zenbatekoa itzultzea eskatzeko, zegokion errekursoa jarri behar zuen.”

Azaldutako erantzuna kontuan hartuta, berriro jo genuen Iruñeko Udalera, txartela eta interesdunak ordaindutakoa lehenbailehen itzuli behar zituena argi zezan, baita ezarritako zehapena deuseztatu behar zuen ere; finean, egindako gomendia bere osotasunean onartu behar zuen jakiteko. Izan ere, gomendia onartzen duen ala ez jakitea oso garrantzitsua da, 4/2000 Foru Legearen 34.2. artikuluan ezarritako betebeharra bete ahal izateko.

Azkenik, Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariak ondokoa erantzun zigun:

“- 2003ko urriaren 8ko erantzunean azaldu zen moduan, ez dugu inolako eragozpenik [...] andreaki minusbaliatuentzako txartela itzultzeko, kendu zitzaion egunetik, hain zuzen, 2003ko apirilaren 27tik, inork txartelarengatik galdetu ez badu ere. Donostiako Udalarekin harremanetan jarri ginen, eta esan zigutenez, 2003ko apirilaren 29an beste txartel bat eman zitzaion [...] andreaki, beraz, bere garaian kendu ziotena gorde edo deusezta daiteke.

– Ez da itzuliko ibilgailua bide publikotik erretiratzeagatik ordaindutako tasaren zenbatekoa; izan ere, interesdunak ez du berori ordaintzearen aurka jar zitzakeen eta ordaintzerakoan eman zitzaion ordainagirian zehazturik zeuden errekursoetatik bat ere aurkeztu.

– Trafikoaren arloko arau-haustea dela-eta hasitako zehapen espedienteak ez da artxibatu, eginiko salaketari ez baitaio alegaziorik aurkeztu, eta oraingo behintzat, ezarritako zehapenaren aurka errekursoak ez delako aurkeztu.”

Horrenbestez, gai honi buruz eginiko jarduketak amaituztat jo genituen eta, jasotako erantzuna ikusirik, gomendia ez onartuztat jo genuen, eta halaxe jaso dugu gure urteko txostenean.

IKUSKIZUN PUBLIKOAK

LODOSAKO SOKAMUTURRA EGITEKO BALDINTZAK.

AURREKARIAK

Animalien defentsarako talde batek kexa aurkeztu zuen (03/136/I espedienteak), haien ustez, 2002ko irailaren 13an eta 14an Lodosan eginiko sokamuturrean erabili ziren zezenei tratu txarrak eman zizkietelako.

Elkarteko ordezkariak kexaren idazkian azaldu zuenez, 2002ko urriaren 16an elkarteak Lodosako Udalaren aurkako salaketa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan –ondoren salaketa zabaldu egin zuen–, aipatu zezen-ikuskitzunean izandako gertakariak zirela medio. Gertakari horiek ziurtatu zituzten salaketarekin batera aurkeztutako bideo, argazki eta lekukoen txostenen bidez, baita salaketa zabaltzeko idazkiaren bidez ere. Hain zuzen, ondoko tratu txar motak salatu zituzten:

“1. Zezen gorri bati adarrak hautsi zizkieten eta eskortara eraman behar izan zuten, odol gehiegi zeriolako.

2. Prozedura basatiak erabili zituzten soka jartzeko; halaxe erakusten du sendaketak egiteko kutxaren hormigoizko hormak erabat odoloztatuta egoteak.

3. Animaliei elektroshocka aplikatu zieten kamiointatik jaistera eta bertara igotzera behartzeko.

4. Jendeak eraso egin zien eta zaborrontziak, zabor-erakundeak eta abar bota zizkieten.

5. Tratu txarrak begi-bistakoak ziren, muturrean eta apatxetan zauriak odoloztatuta baitzituzten eta adarrak, berriz, hautsita eta printzatatuta.

6. Han ez zen ordenaren indarririk agertu, udaltzainik, ezta foruzainik ere.

Kexaren idazkiarekin batera aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, salaketaren oinarri juridikoa hauxe izan zen, Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren 88. artikuluan ezarritakoari jarraikiz: "Ikuskizunetan ezin izanen da zezena zauritu, ziztatu, kolpatu edo lotu, ezta bestelako tratu krudelik eman ere... halakorik gertatuko balitz, izendatutako agenteek ikuskizuna bertan behera uzten ahalko dute."

Nafarroako Gobernuak, 2002ko azaroaren 26ko idazkiaren bidez, interesdunari jakinarazi zion "salatutako gertakizunak arau-hauste arintzat hartzen direla foru araudian, eta, horien ondorioz, 30 eta 300 euro bitarteko isunak jartzen ahal dira... Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 21. artikulua ezartzen duenez, arau-hauste arinak bi hilabetera preskribitzen dira; horrenbestez, ezin da zehapen espedienterik hasi, dokumentazioa preskripzio epea bukatzeaz zegoela sartu baitzen gobernuko erregistroan." Halaber, adierazi zion ikuskizun hori egiten den hurrengoan Foruzaingoak esku hartuko zuela, eta zezenei tratu txarra ematen zaiela ikusiz gero, behar diren neurriak hartuko dituela.

Salatutakoa zalantzan jarri ez zenez eta argia zirudienez Nafarroako Gobernuak zehapen espedientea hasi izanen zuela animaliei emandako tratu txarra arau-hauste arina izan ez balitz eta, horrenbestez, bi hilabeteko preskripzio epe laburra izanen ez balu, aipatu elkarteak, bere ordezkariaren bidez, berriro jo zuen Nafarroako Gobernura eta 249/1992 Foru Dekretua aldatzeko eskatu zuen; izan ere, elkartearen ustez, zezen ikuskizunetan animaliei tratu txarrak ematea oso modu eskasean tipifikatuta dago Nafarroan, hain gertakari larria izanda. Beste autonomia erkidego batzuetan, arau-hauste hori "oso larritzat" edo "larritzat" hartzen da, eta 60.000 (Madrilen), 30.000 (Errioxa) edota 24.000 euroko (Gaztela eta Leon) isunak ezartzen dira. Gobernuak ez zion idazki honi erantzun.

Hori dela eta, elkarteak kexa aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, administrazioak ez erantzun izana salatuz eta Nafarroako Gobernua gai horri buruz jarduketarik egiten ari ote den jakiteko.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak igorritako erantzunean hauxe adierazi zitzaizgun:

"Arartekoak 2003ko uztailaren 31ko idazkian ondokoei buruzko azalpenak eskatu zituen: 1.) [...]

jaunak eginiko eskaerari, hain zuzen, zezen ikuskizunetan animaliei tratu txarrak ematea Nafarroan oso modu eskasean tipifikatuta dagoela-eta Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretua aldatzekoa, ez erantzutearen arrazoia; 2.) interesdunaren gogoetari buruz departamentuak duen iritzia eta, finean, 3) Departamentuaren iritzia eta gai horri dagokionez duen asmoa. Hona hemen gure erantzuna:

1. EZ ERANTZUN IZANA. ARRAZOIAK.

Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorreko datuak kontsultatu ondoren, ondorioztatzen da aipatu elkarteak aurkezturiko idazkiak, hain zuzen, salaketari, bigarren salaketari eta salaketaren zabaltzeari dagozkienak, Madrilgo Posta Bulegoaren 8. sukurtsalean datatu zirela 2002ko urriaren 16. 17. eta 23. egunetan, hurrenez hurren. Barne Zuzendaritza Nagusiko Araubide Juridiko eta Administratiboaren zerbitzuruak erantzun zien idazki horiei, azaroaren 26ko idazki baten bidez.

Hala ere, ez dugu Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretua alda dadin eskatzeko [...] Hellín jaunak aurkeztutako idazkiaren berririk. Horrenbestez, ordezkatzeko dudak departamentuak, eta zehazki, Barne Zuzendaritza Nagusiak, ez dio erantzun idazki horri, eta horren eraginez, kexa idazkia aurkeztu zaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari.

Bestalde, [...] jaunak eginiko eskakizuna ez da sartzeko administrazio publikoen jarduerara esparruan. Hain zuzen, esparru hori Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen IV. Tituluan dago arautua, eta bertan herritarren eskubideak eta administrazioen betebeharrak ezartzen dira. Eskakizun horri erantzuteak eta, horrenbestez, zezen ikuskizunetan animaliei tratu txarrak ematea arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzeak, Nafarroako Parlamentuak ahalmen legegilea erabiltzea dakar, Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legea edota, kasua bada, Animaliak babesteari buruzko Foru Legea aldatzeko, legezotasun eta tipizitate printzipioei jarraikiz, Konstituzioaren 9. artikuluan eta Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 127. eta 129. artikuluetan ezarritako moduan. Finean, interesdunak ez du jo Nafarroako Gobernura administrazio organo gisa, bere eginkizun exekutibo batean dezan eskatzeko, organo politiko gisa baizik, azken batean legegintzarako ekimena erabil dezan eskatzeko.

Horri lotuta, Nafarroako Gobernuak, bere erabakien egokitasuna eta interes orokorrarekin bat etortzea bermatzeko, ezin du, organo politiko gisa, iritzirik eman eta, are gutxiago, bere jarrera politikoa pertsona baten ekimenaren menpe jarri, alde zuzenak ukitzen dituen interes guztiak eza-gutu gabe (antolatzailea, abeltzaina, parte-hartzaileak, sokamuturraren defentsarako elkarteak, teknikariak eta profesionalen iritzia eta abar).

2. INTERESDUNAREN IRITZIA.

[...] jaunak alegatzen duenez, zezen ikuskizunetan animaliei tratu txarrak ematea oso modu eskasean tipifikatuta dago Nafarroan, eta argudiatzen du beste autonomia erkidego batzuetan arau-hauste hori larritzat edo oso larritzat hartzen dela eta 60.000 euroko (Madrilgo Autonomia Erkidegoa), 30.000 euroko (Errioxako Autonomia Erkidegoa) edota 24.000 euroko (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa) isunak ezartzen direla.

Baieztape horren iritzia emateko, beharrezkoa da autonomia erkidego horietan indarrean dauden lege edota erregelamenduzko xedapenak aztertzea eta, ondoren, Nafarroako antolamenduak ematen dituen aukerak azaltzea eta, azkenik, ondorioak ateratzea.

Madrilgo Autonomia Erkidegoari dagokionez, Herriko zezen ikuskizunei buruzko erregelamendua onesten duen uztailaren 25eko 112/1996 Dekretuaren 4. artikuluan –"Tratu txarrak emateko debekua" izenburua duena– ezartzen denez, "herriko zezen ikuskizun orotan debekatua dago zezenak zauritzea, ziztatzea, kolpatzea, lotzea edo edozein tratu krudel ematea" Bestalde, "Zehapenen araubidea" izeneko Lehen Xedapen Gehigarrian ezartzen denez, "Herriko zezen ikuskizunei dagokienez, Zezen ikuskizunen arloan administrazioak dituen ahalmenei buruzko apirilaren 4ko 10/1991 Legean ezarritako zehapenen araudia aplikatuko da..." Apirilaren 4ko 10/1991 Legean, ordea, ez da zezenei tratu txarrak ematea arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzen; hori dela eta, ondoriozta daiteke arau-hauste arintzat hartzen duela, 30etik 150 eurora bitarteko zehapena izan dezakeena. Lege horretako 10.2 eta 15 p) artikuluen babesean, zezenei emandako tratu txarrei arau-hauste larrietarako ezarritako zehapenak ezarri nahi izateak esan nahi du erregelamendu horren aurkako arau-hauste guztiak larritzat behintzat hartuko direla eta, horren ondorioz, horrek ekarriko luke lege horren 14. artikulua, hain zuzen arau-hauste arinak definitu eta tipifikatzen dituenak, edukirik gabe uztea.

Errioxako Autonomia Erkidegoari dagokionez, maiatzaren 31ko 30/1996 Dekretuaren bidez one-

tsitako Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamenduen 3.7. artikuluan ezartzen denez, Agintaritzaren ordezkariak ikuskizuna eteteke ahalmena dauka "animaliak tratu krudelaren xede direnean, Animaliak babesteari buruzko martxoaren 22ko 5/1995 Legearen 2.2 a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz", hain zuzen, tratu txarra ematen zaienean edo eraso fisiko edota sufrimendu nahiz kalte bidegabea eragin diezaieketen praktikak ezartzen zaizkienean (aipatu legearen 2.2. artikulua). Hala ere, erregelamendu horrek ez dauka zehapenen araubiderik, eta bertan zezen ikuskizun tradizionaltzat hartzen da Ceniceroko sokamuturra. Bere aldetik, autonomia erkidego horretako Animaliak babesteari buruzko Legearen 6.1. artikuluan ezartzen denez, "Debekatuta dago animaliak ikuskizunetarako, borrokarako, herriko jaietarako eta krudelkeria edo tratu txarra dakarten jardueretarako erabiltzea, baita animaliei naturaren kontrako tratamenduak ezartzea ere. Hala ere, artikuluko bereko 2. atal debekutik kanpo uzten ditu zezenekin egiten diren ikuskizunak, hala nola zezenketak, entzi-erroak eta antzekoak eta, hori dela eta, zaila da lege horretako zehapen araubidea zezen ikuskizunei aplikatzea.

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoari dagokionez, otsailaren 8ko 14/1999 Dekretuaren bidez onetsirik Herriko zezen ikuskizunei buruzko Erregelamendua arau-hauste larritzat hartzen da "Berehalako heriotza edota tratu txarra dakarren zezenketetarako aziendekiko krudelkeria" (38.2.k artikulua), eta 60tik 24.000 euro bitarteko isunarenkin zehatzen ahal da.

Nafarroako Foru Komunitatean, Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legean ezartzen denez, administrazioaren baimena behar da edozein zezen ikuskizun egin ahal izateko (7.2.a artikulua). Gainera, 14.1. d) artikuluen bidez debekatuta daude animalientzat krudelkeria edo tratu txarra dakarten ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak, baina horietan ez dira sartzen zezen ikuskizunak, betiere aplikagarri zaizkien arauei jarraituz egiten badira. Bestalde, halakorik gertatuz gero, 15. artikuluan ahalmena ematen zaie ekitaldian dauden administrazioari eta agintaritzaren agenteei edo ordezkariari zezen ikuskizuna eteteke. Zehapen araudiari dagokionez, 22.3. artikuluan arau-hauste larritzat hartzen da zezen ikuskizun bat kasuko agintaritzaren baimenik gabe edo haren debekuarekin egitea eta horregatik 60.000 euro arteko isuna ezar daiteke.

Horretaz gain, ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamenduen 88.1d) artikuluan

ezartzen denez, "ikuskitzetan ezin izanen da animalia zauritu, ziztatu, kolpatu, lotu, ezta edonolako tratu krudelik eman. Portaera horiek 95.4i) artikuluko arau-hauste arintzat joko dira eta 30 eta 150 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira. Gainera, Foruzaingoari ahalmena ematen zaio herriko ikuskizunak kontrolatzeko eta eteteko animaliei tratu krudelik emanez gero (88.2c artikulua).

Bestalde, Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legean, Errioxako Autonomia Erkidegokoan bezala, debekatuta dago animaliei tratu txarra ematea eta sufrimendu nahiz kalte bidegabea eragin diezaieketen praktikak ezartzea, baita animaliak ikuskizunetarako erabiltzea ere, horrek sufrimendurik edo tratu txarrik eragin badiezaieke. Hala ere, debeku horretatik kanpo daude zezen ikuskizunak (2. eta 4. artikulua). Halaber, arau-hauste oso larritzat hartzen dira animalien ganako ankerkeria, tratu txarrak eta eraso fisikoak.

Azaldutakotik ondorioztatzen da Nafarroako Foru Komunitateko antolamenduak, aztertutako autonomia erkidegoekin alderatzen badugu, badiuela tresna nahikoak zezenketetarako animalien babesa bermatzeko, animalia horiei tratu txarrak ematea saihesteko, zezen ikuskizun tradizionalak egiten direnean.

3. JARDUTEKO ASMOA

Departamentu hau bat dator iritzi orokorarekin, hain zuzen, animaliei zezen ikuskizunei ez dagozkieen sufrimendu bidegabeak ematearen aurkako jarrerarekin. Baina, aldi berean, tradizio frogatua duten ikuskizun bereziak egitea babesten du, hala nola Lodosako sokamuturra; izan ere, ulertzen dugu tradizioa eta gaur egungo animaliak babesteko kultura elkarrekin bizi daitezkeela gure gizartean.

Horrenbestez, bi jarrera horiek bateratze aldera, Barne Zuzendaritza Nagusiak Foruzaingoaren zerbitzua jarriko du, datorren irailean egingen den sokamuturra ikusi eta zainduko duena, zezenari tratu krudelik edo tratu txar bidegabeak ematea saihesteko. Horretarako, izendatutako foruzainek "in situ" hartuko dituzte behar diren neurriak, bai soka jartzeko unean, bai, kasua bada, zezena herriko kaleetan dabilen bitartean.

Bestalde, komenigarria bada, zezen ikuskizunetan esperientzia duen teknikari albatari bat izendatuko da foruzainei lagun diezaien, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuarekin lankidetzan.

Eginiko jarduera guztiei buruzko txostena igorriko zaio Barne Zuzendari Nagusiari."

ANALISIA

Interesdunak aurkeztutako kexa, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuak igorritako txostena eta zezen ikuskizunei aplikagarri zaien araudia aztertu ondoren, ondoko ohartarazpenak egin genituen:

1.- Lehenik eta behin, departamentuaren txostenak aipatzen du ez dutela [...] jaunak 2003ko otsailaren 17an aurkeztutako idazkiaren berririk, zeinaren bitartez Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretua alda dadin eskatzen baitzuen.

Txostenean azaltzen denez, Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorreko datuak kontsultatu ondoren, ondorioztatu zen aipatu elkarteak aurkeztutako idazkiak, hain zuzen, salaketari, bigarren salaketari eta salaketaren zabalteari dagozkienak, Madrilgo Posta Bulegoaren 8. sukurtsalean datatu zirela, 2002ko urriaren 16., 17. eta 23. egunetan, hurrenez hurren. Idazki horiei azaroaren 26ko idazki baten bidez erantzun zitzaizkien. Hala ere, ez dute 2003ko otsailaren 17ko data duen idazkiaren berririk, eta aipatu departamentuak azaldu duenez, horixe da ez erantzutearen arrazoia.

Interesdunak ordea, departamentura bidalitako idazki guztien kopia aurkeztu du kexa idazkiarekin batera. Aurkeztutako kopien bidez egiazta daitekeenez, salaketa idazki guztiek, baita 2003ko otsailaren 17ko idazkiak ere, Posta Bulegoko 8. sukurtsaleko zigilua daukate lehen orrialdean, eta horrek egiaztatzen du posta ziurtatuaren bidez bidali zirela, aplikagarri den araudian ezarritako jarraikiz. Hala, 30/1992 Legeko 38. artikulua 4. atalean ezartzen denez, "Hona hemen herritarrek administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten eskabideak, idazkiak eta komunikazioak aurkezteko tokiak: c) Posta bulegoak, erregelamenduz ezarritako moduan." Bera garatzeko erregelamenduan (1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua) ezartzen denez, "herritarrek gutunazal irekian aurkeztuko dituzte posta zerbitzu unibertsala esleitu zaion eragilearen bidez administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten eskabide, idazki eta komunikazioak, igorri nahi den dokumentuaren lehen orriaren goialdean argi adieraz daitezkeen bulegoaren izena eta dokumentua onartu deneko data, tokia ordua eta minutua... Posta zerbitzu unibertsala esleitu zaion eragileak artikulua honetan ezarritako betekizunak beteta onartzen dituen bidalketak behar bezala aurkeztutzat joko dira, Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan ezarritako ondorioetarako."

Lehenengo salaketa idazkien eta azkenekoaren artean antzeman daitekeen alde bakarra da –edukia alde batera utzita, jakina– hasierakoak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Ikuskizunen bulegoburuari zuzenduak zirela eta azkena, aldiz, kontseilari jaunari zuzendua, baina horrek ezin du justifikatu administrazioak azken idazki hori ez tramitatzea eta behar den erantzuna ez ematea, 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2.- Kexa idazkian planteatutako auzia aztertzen hasi aurretik, egokia iruditzen zaigu departamentuak bere txostenean eginiko azalpen batzuei buruzko hainbat ohartarazpen egitea.

Txostenaren 1. eta 3. ataletan hau azaltzen zaigu: (1. atala) - Nafarroako Gobernuak, bere erabakien egokitasuna eta interes orokorrarekin bat etortzea bermatzeko, ezin du, organo politiko gisa, iritzirik eman eta, are gutxiago, bere jarrera politikoa pertsona baten ekimenaren menpe jarri, alde aurretik auziak ukitzen dituen interes guztiak eza-gutu gabe (antolatzailea, abeltzaina, parte-hartzaileak, sokamuturraren defentsarako elkarteak, teknikariak eta profesionalen iritzia...). 3. atalean hauxe adierazten da: “Departamentu hau bat dator iritzi orokorrarekin, hain zuzen, animaliei zezen ikuskizunei ez dagozkien sufrimendu bidegabeak ematearen aurkako jarrerarekin. Baina,aldi berean, tradizio frogatua duten ikuskizun bereziak egitea babesten du, hala nola Lodosako sokamuturra; izan ere, ulertzen dugu tradizioa eta gaur egungo animaliak babesteko kultura elkarrekin bizi daitezkeela gure gizartean”.

Erakunde honek departamentuari igorritako idazkitik argi eta garbi ondoriozta daitekeenez, bertan ez da inolako iritzirik ematen Lodosako sokamuturrari buruz (Zezen ikuskizunei buruzko Foru Dekretuko Xedapen Gehigarriaren bidez arautua), bai ordea salaketaren xede izan ziren ikuskizun horretako gertaeren tratamendu juridikori buruz. Bestalde, departamentuak ez ditu gertakizun horiek zalantzan jarri eta, azaldu zuenez, zehapen espedientea irekitzea ekarriko zuten, salaketa lehenago aurkeztu izan balitz, hain zuzen, preskripzio epea bete aurretik. Zezen ikuskizunak arautzen dituen araudiak zezen ikuskizunetan animaliei tratatu txarrik ez ematea bermatzea du helburu halako ekintzak debekatu eta zehatzen dituenean, eta horrek duin egiten du ikuskizuna bera; horregatik, ezin da kaltegarria izan beste pertsona batzuen interesentzat (antolatzaileak, abeltzainak, ikuskizunaren defentsarako elkarteak, parte-hartzaileak). Horretaz gain, ezin da ahaztu erakunde honen aurrean aurkezten diren eta gure esku-hartzea ekartzen duten auzi guztiei dagokie-

nez, ukitutako interes eta eskubide guztiak kontuan hartzen direla, halaxe ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitatearen arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean. Izan ere, lege horretan ezartzen da aurkezturiko kexak ez direla onartuko “..izapideak berak hirugarren pertsonen eskubide legitimoari kalte eragiten badio”. (22.3. artikulua).

3.- Planteatutako auziaren muinari dagokionez: zezen ikuskizun herrikoi batean animaliei tratatu txarra emateko jokaerari gure antolamenduan eman behar zaion kalifikazio edo tratamendu juridikori dagokionez, lehenik eta behin gai horri buruzko araudia aztertuko dugu:

Zezen ikuskizunei buruzko ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuan, zehapen araudia ezartzen den 95.4.i) artikuluan, arau-hauste arintzat hartzen da: “Ezarritako arauak hausten dituen edozein egintza edo ez egintza, baldin eta arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatuta ez bada”. Horrenbestez, zezen ikuskizun herrikoietan animaliei tratatu txarra emateko jokaera arau-hauste arintzat hartzen da, ez baitago arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatuta eta, gainera, halako egintzak egitea debekatzeko duen arauan azaltzen den jokaera bera baita. Aldiz, “Tradiziozko ikuskizun herrikoikiak” izenburua duen 88. artikuluan ezartzen denez, “Ikuskizunetan ezin izanena da zezena zauritu, ziztatu, kolpatu edo lotu, ezta bestelako tratatu krudelik eman ere”.

Zezen ikuskizunei aplikagarri zaien zehapen araudia zehazten duen arau horren erregelamendua izaera kontuan hartuta, baita Konstituzioan ezartzen diren legezketasun eta tipizitate printzipioak ere, departamentuak hauxe azaltzen du bere txostenean: “Eskakizun horri erantzuteak eta, horrenbestez, zezen ikuskizunetan animaliei tratatu txarrik ematea arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzeak, Nafarroako Parlamentuak ahalmen legegilea erabiltzea dakar, Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legea edota, kasua bada, Animaliak babesteari buruzko Foru Legea aldatzeko, legezketasun eta tipizitate printzipioei jarraikiz, Konstituzioaren 9. artikuluan eta Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 127. eta 129. artikuluetan ezarritako moduan”.

Eta hortik ondorioztatzen da erregelamenduan zezen ikuskizunen arloko arau-hauste gisa zehatzen diren jokaerak alde aurretik tipifikatuak izan direla aipatu foru lege horietakoren batean.

Izan ere, erregelamenduan ezartzen diren arau-hauste larriak, oso larriak eta arinak aztertuz gero, egiazta daiteke deskribaturiko jokaeretako

batzuk Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legean zezen ikuskizunen arloan aurreikusitako arau-hausteen zehaztapenak besterik ez direla. Adibidez, Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legearen 23. artikuluan arau-hauste larritzat hartzen da: “lokal edo instalazioak ikuskizunetarako edota josteta jardueretarako erabiltzea, behar den irekizentzia eskuratu gabe”. Lehen azaldutakoaren arabera, Zezen ikuskizunei buruzko Erregelamenduak arau-hauste larritzat hartzen du jokaera hori (95.3. artikulua): “zezen plazak edo bestelako tokiak zezen ikuskizunak egiteko erabiltzea, behar den irekitze edo berrirekizentzia lizentzia eskuratu gabe”.

Hala ere, erregelamenduan aurreikusten diren beste arau-hauste batzuek ez dute zerikusirik legeetan ezarritakoekin; horrela, arau-hauste larriak dira ondoko jokaerak: “lehendik toreatutako zezenak edo zekorrak ematea zezenketetarako” edota “animalien defentsak iruzurrez manipulatzeko edo animaliei drogak edo zezenketan izaten duten portaera aldatzen duten substantziak ematea”.

Hasiera batean, pentsa liteke Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legean aurreikusitako tipoen garapeneko erregelamenduan ezartzen den zehapen araudia erabat deuseza dela. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro adierazi duenez, legezkotasun printzipioak –baita printzipio horrek zehapenen zuzenbidean duen adierazpen tekniko-enak ere, hain zuzen, tipizitate printzipioak– eskatzen du lege mailako arauak ezarri behar duela beti debekuaren funtsezko mamia osatzen duen jokabide tipikoaren zatia, zehapenen zuzenbidean oinarritzakoa den ziurtasun-eskakizuna betetze aldera. Horrenbestez, legezkotasun printzipioak ez du eragozten legeek erregelamenduetara jotzea; bai ordea, erregelamenduetara jotzearen ondorioz erregulazio independentea, legearekiko menpekotasun argia ez duena ezartzen bada, horrek legereserbaren printzipioak ezartzen duen funtsezko bermea degradatzea ekarriko bailuke (Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 7ko 42/1987 epaia).

Hala ere, gaiaren azterketa sakonagoa eginez gero, ikusiko dugu erregelamenduan ezartzen diren zezen ikuskizunen arloko arau-hauste batzuk ez direla Ikuskizun publikoei buruzko Foru Legearen garapena, Zezen ikuskizunei buruzko estatuko legearena baizik, hain zuzen, Zezen ikuskizunen arloan administrazioak dituen ahalmenei buruzko apirilaren 4ko 10/1991 Legea. Bestalde, beste autonomia erkidegoetan argitaratu diren zezen ikuskizunen arloko erregelamenduetan lege hori aipatzen da, hala nola Madrilgo Autonomia Erkidegoko erregelamenduen zioen azalpenean, Gaztela-Mantxakoan, Gaztela eta Leongoan... Dena

den, autonomia erkidego horietako batzuetan animaliei emandako tratu txarra, zezen ikuskizunak baztertu gabe, animaliak babesteko lege autonomikoen bitartez zehatu da.

Zezen ikuskizunen arloan administrazioak dituen ahalmenei buruzko apirilaren 4ko 10/1991 Legearen 10. artikuluan haxe ezartzen da:

“1.- Erregelamendu bidez zehaztuko dira burtziketa, ongintzarako egiten diren zezen ikuskizunak eta abar egiteko baldintzak.

Behar diren baldintzak ezarriko dira ganadu suharrarekin egiten diren entzierro tradizionalak, zaleen jostetarako ganadu-askatzea eta bigantxen toreatzea egin ahal izateko, istripuak eta pertsonen nahiz ondasunei eragindako kalteak saihesteko, baita jai horietan parte hartzen dutenek animaliei eman diezaieketen tratu txarra ere.

Horrela, bada, lege horren 15.p) artikulua arau-hauste larritzat hartzen du: “10. artikuluan zehazten diren ikuskizunak egiteko ezartzen diren baldintzak ez betetzea”.

Hori dela eta, gure erregelamenduen 88. artikuluan ezartzen diren zezen ikuskizun herrikoiak egiteko baldintzak ez betetzea, hain zuzen, istripuak, pertsonen nahiz ondasunei eragindako kalteak eta jai horietan parte hartzen dutenek animaliei eman diezaieketen tratu txarra saihesteko ezartzen direnak, eta zehazki, zezenak zauritu, ziztatu, kolpatu, lotu edota bestelako tratu krudelik emateko debekua, arau-hauste larritzat hartzen da, berori tipifikatzen duen 15.p) artikulua aplikatzearen ondorioz.

Ez da hori erregelamenduan antzeman daitekeen irregulartasun bakarra, legean aurreikusitako arau-hausteetako batzuen garapenari dagokionez. Adibidez, erregelamenduen 95.4. artikuluan arau-hauste arintzat hartzen da “erregelamenduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten babesak, eztenak edo banderillak erabiltzea”. Aldiz, legeko 15.j) artikuluen arabera, arau-hauste larria da “babesak, eztenak, banderillak, estokeak, burtziak eta bestelako zezenketarako erremintak erabiltzea erregelamenduak ezarritakoaren aurka”.

Amaitzeko, eta aipatutakoa kontuan hartuta, esan daiteke Zezen ikuskizunei buruzko 249/1992 Foru Dekretuak ezartzen duen arau-hausteen eta zehapenen araudiak legezkotasun eta tipizitate printzipioei jarraitzen diela ikuskizun publikoei buruzko legean arau-hausteak garatzerakoan, printzipio horietan azaltzen den Konstituzioaren ikusmoldearen arabera; hala ere, ezin da gauza bera esan zehazki ikuskizunetan parte hartzen duten zezenekin egiten diren arau-hausteei dago-

kienez. Azaldutakoagatik, egokitzen jo zen Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari GOMENDIOA egitea, Zezen ikuskizunen arloko arau-hauste eta zehapen araudiari buruzko 249/1992 Foru Dekretuan ezarritako erregulazioa egoki dezan 10/1991 Legean aurreikusitako tipoetara, lege horretan bertan ezarritako mailakatzeari jarraikiz, legezketasun eta tipizitate printzipioek eskatzen dituzten Konstituzio-bermeen ondoriozko baldintzak betetzeko. Horrek guztiak ez du galarazten Nafarroako Gobernuak esleituta duen legegintzarako ekimena erabiltzea, komeni bada, eta Foru Komunitatean lege-esparru berria ezartzea, herriko zezen ikuskizun tradizionalen berezitasunak eta garapen baldintzak xeheago arautzeko, baita prebentzio eta zehapen neurriak ere, animalien babesaren eta, oro har, ikuskizunaren segurtasun baldintzak bermatzeko.

Halaber, interesdunak 2003ko otsailaren 17an igorritako idazkia erantzuteko gomendioa egin genion departamentuari.

Bi aldiz eskatu badiogu ere, orain arte ez dugu jaso departamentuak ebazpenari buruz daukan iritzia azaltzen duen erantzunik.

HERRITARREN SEGURTASUNA

IRUÑEKO UDALTZAINGOAREN JARDUKETA GRABATZEA, UDALAREN BAIMENAREKIN, ETA IRUDI HORIETAN AGERTZEN DIREN PERTSONEN ESKUBIDEEN BABESA.

AURREKARIAK

Gai horri buruz (03/100/l espediente), kexa-egileak planteatu zuen bere ustez ohorerako edo intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako duen eskubidea urratu diotela, Iruñeko Udaltzaingoak otsailaren -(e)ko 05:20ean Mercaderes kalean gertatutako istiluetan esku hartu zuenean grabatutako irudi batzuk zabaltzeagatik.

Interesdunak bere idazkian azaltzen duenez, "martxoaren -(e)an, Antena 3 Televisión telebista kateak atxilotu ninduten uenean grabatutako bideo bat eman zuen "Alerta 112" saioan. Bideo horretan atxilotu ninduten uneko irudiak eta poliziaen furgonien nengoenekoak agertzen ziren. Gainera, bideo horretan ez zen azaltzen gauzak nola gertatu ziren, ezta bestelako kontu batzuk ere, hala nola ia berehala aske utzi nindutela kargurik gabe. Jakin ahal izan dudanez, bideoa Antena 3 telebista kateak grabatu zuen. Hala ere, hauek Udaltzaingoaren baimena zuten bideoa grabatzeko eta, horren ondorioz, zabaltzeko. Nire ustez, ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea urratu da, baita intimitate pertsonalerako eskubidea ere. Gainera, 9 urteko semeak eta bere eskolako lagunek irudi

horiek ikusi dituzte, horrek niretzat eta nire familarentzat ekarri duen kaltearekin."

Kexa idazkiarekin batera, interesdunak informazio hau bidali zigun: Iruñeko udaltzainguruari igorritako kexaren kopia eta berari emandako erantzuna; interesdunari jakinarazitako ebazpenaren kopia –horren bidez onetsi zen interesdunaren aurkako zehapen espedientearen hastea, segurtasun kolektiboa nahasteagatik–, partikularrek udaltzainguruen aurka horiek ustez eginiko lesio eta ebasketa delituengatik bide penaletik aurkeztutako salaketaren kopia, eta, azkenik, Antena 3 telebista kateko "Alerta 112" saioan emandako bideoaren grabazioa.

Partikularrek aurkeztutako dokumentuetan aipatzen den liskarrean gertatutakoa eta gertaera horien ondorioz botere publikoek eta organo juridikozkoen egin ditzaketen jarduerak alde batera utzita, kexaren zioa da, kexa-egileak nabarmendu zuenez, Iruñeko Udalak irudiak grabatzeko emandako baimena, hain zuzen, ondoren irudi horiek Antena 3 telebista katearen bidez zabaltzeko.

Interesdunak azaldutakoa aintzat hartuta, Iruñeko Udalera jo genuen eta kexan azaltzen zen gaiari buruzko informazioa eskatu genion. Halaber, gogoeta laburra egin genuen gaur egun telebistan ematen dituzten saio batzuei buruz, hain zuzen, segurtasun eta babes zibilerako kidegoek beren laneko edo giza laguntza ematen duteneko egoera errealean egiten duten jarduketari buruzko informazioa ematen dutenak, baita batzuetan erreportaje horietan hartzen diren irudietan agertzen diren pertsonen oinarriko eskubideetan egiten diren balizko esku-sartzei buruz ere; izan ere, Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak hainbat adierazpen egin dituzte halako gertakarien ondorioz.

Horrela, bada, Iruñeko Udalari eskatu genion azal zezen grabazioa egin zutenek Udaltzaingoaren baimenik gabe egin zuten –hain zuzen, leku publikoa zenez, hori egin zezaketen–, edota grabazioa egiteko laguntza eskatu zioten Udaltzainguari edo udalari; finean, azal zezen telebista kateari horretarako baimenik eman zioten eta zertarako; izan ere, hura ez zen izan Iruñeko poliziaen jardueraren azaltzen zuen emanaldi soila, "Alerta 112" saioaren ondorengo emankizunetan egiaztatuta ahal izan genuenez.

Egin genuen informazio eskakizunari erantzunez, Hiritarren Babeserako zinegotzi ordezkariak hauxe jakinarazi zigun:

"- Antena 3 telebista kateak ahozko baimena zeukan 2003ko otsailaren 22tik 23rako gauean Udaltzainguari laguntzeko, "Alerta 112" saiorako

polizi jarduketei buruzko erreportaje bat egin ahal izateko.

– Halaber, azaldu behar da [...] jaunaren kexan azaltzen diren gertakariei buruzko ebazpenik ez duela oraindik eman 1. instrukzio epaitegiak.”

ANALISIA

Azaldu dugun moduan, kexa idazkian planteatutako auziaren azterketa ez zen izan otsailaren –(e)an Mercaderes kalean gertatutakoei buruzkoa –hain zuzen, udalak azaldu duenez, gertakari horiekin lotuta jarduera judizialak hasi ziren–, eta, halaber, ez zen gure asmoa izan interesdunak salatutako ohorerako edo intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen urraketari buruzko baloraziorik egitea –justizi auzitegiei dagokie Antena 3 telebista kateko erreportajearen bere irudiak azaltzearen ondorioz eskubide-urraketarik izan zen ala ez ebaztea–. Aldiz, gure azterketaren xedea zen, interesdunak eskatu zigunez, “Antena 3 telebista kateak Udaltzaingoari laguntzeko zeukan ahozko baimena... polizi jarduketei buruzko erreportaje bat egin ahal izateko”, udalak bere idazkian adierazten zuen moduan.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu hainbat alderdi azaltzea, begi-bistakoak eta zalantzan jartzen direnak izan arren, ondoren eginen ditugun gogoeten oinarria edo, nahiago bada, testuingurua osatzen baitute. Hala, aitortu behar da, udalari zuzendutako idazkian adierazten genuen moduan, Antena 3 telebista kateak ez zuela baimenik behar bide publiko batean gertatutakoen irudiak hartzeko eta informatzeko xedearekin emateko, eta, horrenbestez, ezin da zalantzan jarri alde zuzeneko baimenik behar ez duen ekintza bat egiteko emandako baimenaren zilegitasuna. Halaber, Antena 3 telebista katea da, hedabide baten bidez egiazko informazioa modu askean komunikatzeko Konstituzio-eskubidea baliatuz, grabatutako irudiak ematen dituen; beraz, berak erabaki behar du irudi horiek telebistaren bidez emateko modua. Bestalde, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro adierazi duenez, egiazko informazioa komunikatzeko eskubidea baliatzearen ondorioz, pertsonen ohorerako, intimitate pertsonalerako edo familiarerako eta norberaren irudirako eskubidean esku-sartzerik izan den jakiteko, kasuak banan-banan aztertu behar dira, inguruabar guztiak kontuan hartuta.

Hala ere, kontua da baimena eman zela, eta ez zuela partikular batek eman, Iruñeko Udalak baidarik, telebista kamerek udaltzainei lagundu ahal izateko eta grabaketa egin ahal izateko, ondoren herritar partikularrengan eragina zuen polizian jarduketari buruzko irudiak telebistaz emateko. Baimena eman zuten pertsonen izaera publikoa,

garatu behar zen jardueraren izaera publikoa, jarduketa horrek hirugarren pertsonengan eragina duela eta Konstituzioak informazioa emateko eskubidea mugatzen duela kontuan hartuta, egokitzat jo genuen hurrengo oinarritzko gaiei buruzko hausnarketa egitea:

1.- Espainiako Konstituzioaren 53.1. artikuluan oinarritzko eskubideen bermeak arautzen dira eta bertan hauxe ezartzen da: “Titulu honen bigarren kapituluaren aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat.” Ohorerako, intimitate pertsonalerako edo familiarerako eta norberaren irudirako eskubidea I. Tituluaren II. kapituluaren aitortu eta arautzen da (18.1. artikulua). Konstituzio Auzitegiak adierazi duenez, 53.1. artikuluko adierazpena Konstituzioaren 9. 1. artikuluan ezartzen den menperatze eta lotze klausula orokorraren zehaztapena besterik ez da, oinarritzko eskubideen arloan. Artikulu horretan ezartzen denez, “herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude”. Konstituzio Auzitegiaren arabera, Konstituzioarekiko menpekotasun edo lotura horrek betebeharrak desberdina dakar herritarrentzat eta administrazio publikoentzat: herritarrek Konstituzioa urratzen duen ekintzarik ez egiteko betebeharrak orokor negatiboa duten bitartean, Konstituzioan ezartzen diren betebeharrak positiboak ezertan galarazi gabe, agintariek eta funtzionario publikoek, horretaz gain, badute beren eginkizunak Konstituzioan ezarritakoari jarraikiz betebeharrak orokor positiboak (Auzitegi Gorenaren azaroaren 18ko 101/1983 epaia), eta, herritarren oinarritzko eskubideak aitortu eta bermatzen dituzten Konstituzioaren arauak dagokienez, beren eginkizunak arau horietan aitortutako eskubideekiko erabateko errespetuarekin eta babesarekin bete behar dituzte.

Horrenbestez, esan dezakegu Udaltzaingoko kideek eta, orokorrean, Iruñeko Udalak, Konstituzioari lotuta jardun behar dutela beren eginkizunetan, eta horrek dakar, Konstituzioaren I. Tituluko II. Kapituluaren aitortutako herritarren oinarritzko eskubideei dagokienez, eskubide horiek urratzen dituen jarduketarik ez egiteko betebeharrak negatiboak, baita eskubide horiekiko –Konstituzioan bertan agertzen duten konfigurazioa kontuan hartuta– erabateko errespetuarekin jarduteko betebeharrak positiboak ere.

2.- Konstituzio Auzitegia da Konstituzioaren interprete goren eta, zalantzarik gabe, berak ezarritako doktrinak lagundu du pertsonaren oinarritzko eskubideen Konstituzio-taxuketan zehazten. Konstituzioak horrela mugatu ditu 18.1. artikuluan aitortutako eskubideak:

“- Konstituzioaren 18.1. artikuluan aitortutako ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak nortasunaren eskubideak dira, giza duintasunean oinarrituak eta pertsonen ondare morala babesteko xedea dutenak. Baina elkarren artean lotura estua duten arren, eskubide autonomoak dira eta bakoitzak eduki propio eta berekia dauka (Auzitegi Gorenaren martxoaren 26ko 81/2001 epaia).

– “ohorerako eskubidearen edukia galkorra eta aldakorra da” (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 170/1994 epaia), “bere ezaugarrietako bat da kontzeptu juridiko zehaztugabea dela, unean uneko arau, balio eta gizartearen ideien arabera zehazten dena” (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25eko 46/2002 epaia). “Hala ere, eskubide horren xedearen zehaztugabetasun mailak ez du galarazten bere Konstituzio-eduki abstraktua identifikatzea, hain zuzen, pertsonaren izen ona gordeztea eta besteen iritzian izan dezakeen balio-galtzetik babestea” (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25eko 52/2002 eta urriaren 11ko 180/1999 epaiak).

– “intimitaterako eskubidearen xedea da norbanakoari bermatzea bere bizitzaren esparru bat gorde ahal izatea eta berori hirugarrenen ezagutzatik eta esku-sartzeetatik babestea, botere publikoak edo partikularrak diren kontuan hartu gabe, bere borondatearen aurka bada” (Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 22ko 144/1999 epaia eta Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 22ko 83/2002 epaia), “Konstituzioak bermatzen duena da sekreturako eskubidea, ezezagun izatekoa, besteek zer garen edo zer egiten dugun ez jakitekoa, eta hirugarrenek gure bizitza pribatuaren mugak erabaki ahal izatea galarazten du, pertsona orok gorde baitezake besteen jakin-minetik babestutako gune bat, edozein dela ere gune horren edukia” (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 30eko epaia).

– “norberaren irudirako eskubidearen berriazko ezaugarria da, intimitaterako eta ohorerako eskubideen aldean, izen ona kaltetu gabe eta bizitza intimoaren berri eman gabe ere, titularrarengan eragina duten irudiaren erreprodukzioen aurrean babesa ematea. Norberaren irudirako eskubidearen xedea da esparru berekia eta gordea, baina ez intimoa, babestea, besteen ekintza eta ezagutzaren aurrean... eta norberaren irudiaren hedapen baldintzatu gabea eragozteko ahalmena aitortzen du; izan ere, hori da norbanakoaren esparru pertsonala egituratzen duen lehen osagaia, identifikatzeko eta kanpoaldera proiektatzeko oinarritzko tresna eta norberak bere burua subjektu bakartzat aitortzeko ezinbesteko faktorea baita.

3.- Horretaz gain, arestian aipatutako eskubideak, hain zuzen Konstituzioaren 18.1. artikuluan aitortzen direnak, Konstituzioan bertan bermatzen diren beste oinarritzko eskubide batzuen erabilerari Konstituzioak ezartzen dizkion mugak ere badira. Konstituzioaren 20.1.d) artikuluan edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko eskubidea aitortu ondoren, artikuluko horretako 4. atalean hauxe ezartzen da: “Askatasun horien guztien mugak dira titulu honetan zein eskubide aitortu eta eskubideei zor zaien begirunea, horiek garatzeko emandako lege-manuak, eta, batez ere, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gaztaroa eta haurtzaroa babesteko eskubidea ere”.

Halaber, Konstituzio Auzitegiak doktrina ugaria eman du aipatu eskubideen artean sor daitekeen gatazkari eta beroriek erabiltzeko mugei buruz. Guk ez dugu gai horri buruzko azterketa sakonik egin nahi, hori epaile eta auzitegiek kasuz kasu egin beharreko lana baita. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak orokorrean eta bertan duela gutxi planteatutako eta kexaren edukiarekin antza daukan kasu batean ezarritako irizpideen ildo nagusiak aipatuko ditugu; izan ere, irizpide horiek ahalbidetzen dute interesdunak azaldutako kasuaren modukoetan eskubideak urratzeko egon litekeen arriskuaz ohartzea.

Konstituzio Auzitegiak 2003ko ekainaren 19ko epaian azaldu zuenez, hauxe ulertzen du, orokorrean: “informazioa emateko edo iritziak adierazteko oinarritzko eskubideari lehentasuna eman ahal izateko ohorerako eskubidearen aurrean, hurrengo egoerak gertatu behar dira: a) interes orokorra eta zabalduko informazioaren garrantzi publikoa... b) informazioa egiazkoa izatea (erreportaje neutralaren teoria)... c) informazioa emateko eskubidea nabarmen murrizten da pertsona publikoei ez dagokienean; izan ere, pertsona publikoek askatasunez aukeratu dute izaera hori eta, horrenbestez, nolabaiteko arriskua jasan behar dute...”

Interesgarria da, halaber, Auzitegi Gorenaren I. Salak duela gutxi, hain zuzen, 2003ko maiatzaren 23an, emandako epaia. “Televisión Autónoma de Madrid S.A.” (Telemadrid) telebista kateak emandako erreportaje bati buruzkoa da. Bertan trafiko istripu batean suhiltzaileek, Gurutze Gorriak eta Samurrek izandako esku-hartze eraginkorraren berri ematen zen, “zauritua askatzea, esku-ohean jarri eta anbulantzia batean sartzea lortu baitzuten...” Erreportaje horretan D.P.F.ren lehen plana agertzen da, autoan lotuta zegoelarik... Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak hauxe adierazi du: “errekurtsoren xedea den epaiak adierazten du saio horien helburua dela informazioa ematea,

beren laneko edo giza laguntza Madrilgo Autonomia Erkidegoan ematen duten segurtasun eta babes zibilerako kidegoek egoera errealetan egiten dituzten esku-hartzeei buruz. Hala ere, komeni da gogora ekartzea Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 8.2.c) artikuluan ezarzen dena, eskubide horiek babesten duten eremuan ez-legezko esku-sartzetat jo daitezkeenak arautzen direnean. Izan ere, bertan arautzen da norberaren irudirako eskubideak ez duela galaraziko gertakari publiko bati buruzko informazio grafikoa ematea, pertsona baten irudia informazioaren osagarri gisa soilik agertzen denean... Eta TeleMadrid telebista kateak emandako informazioan ezin daitezke osagarritzat jo istripua izan duenaren irudiak... Lehen planoak dira, proiektatzerakoan pantaila osoa hartzen baitute... Hori dela eta, istripua izan duenak berriaren protagonismo osoa hartzen du fotograma horietan... Horrenbestez, ez da berri nagusi baten osagarri den pertsona baten irudiaren erreproduktzioa, une hartan istripua izan zuenari laguntza ematen ziotenen jarduketarekin batera. Ezin da ahaztu irudi horiek grabatu zirenean istripua izan zuenari ezinezkoa zitzaioela baimena ematea edo ukatzea, nahiz eta filmazioa egiten ari zen pertsona oso gertu izan." Hori dela eta, Auzitegi Gorenak uste du ez-legezko esku-sartzea gertatu dela Konstituzioaren 18.1. artikuluan aitortutako eskubideetan.

Kexaren idazkian azaltzen den kasuaren aldean ñabardura eta ezaugarri oso desberdinak dituen beste kasu bati dagokionez, Auzitegi Gorenak, 2003ko maiatzaren 9ko epaian, kasu honetarako interesgarria izan daitekeen argipena egin zuen, jarraibide batzuk ematen baititu, Konstituzioko 18.1. artikuluko eskubideak urratzeko arriskua murrizteko: "Konstituzio Auzitegiak 5/1992 autoan adierazi duen moduan, ez-legezko esku-sartzea argia da, ez baita inolaz ere murrizten argitalpen grafikoan agertzen diren pertsonak identifikatu ahal izateko modua."

Eta, azkenik, Konstituzio Auzitegiak (urtarrilaren 28ko 14/2003 epaia), aztertzen ari garenen aldean oso bestelakoa zen kasu bati dagokionez –kasu hartan Valladolideko Poliziaren Goi Buruzagitzak hainbat hedabidetara igorri zuen pertsona baten argazkia, polizia-etxean poliziaren fitxan sartzeko egin ziotena, hirugarren pertsona bat aurkitzen laguntzeko datu gehiago biltzeko xedearekin–, hauxe gogorarazi zuen: "norberaren irudirako eskubidea zedarrizten du eskubidearen titularraren borondateak berak, berari baitagokio, printzipioz, hirugarren bati bere irudia hartzeko edo emateko baimena emateari buruzko erabakia... Konstituzio-

ko eskubide hori Konstituzioan babesturiko beste ondasun edo eskubide batzuen aurka dagoenean, ukitutako interes guztiak balioztatu beharko dira, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta... Ohorerako eskubidearen balizko urraketari dagokionez, printzipioz ezin da ukatu atxilotutako pertsona baten irudia hedatzeak pertsona horren izen onari kaltea ekar diezaiokeela; izan ere, egitate nabarmenak diren jarrera sozialak kontuan hartzen badira, horrek balio-galtzea dakar edo ekar dezake besteen iritzian, eta hala bere izen ona kaltetuta geratzen da".

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta hasieran adierazitakoarekin bat, ondorioztatzen da telebista kate batek "Alerta 112" saioan kale istilu batean poliziak izandako esku-hartzeari buruz emandako erreportajearen gisakoak ematen dituzenean –bertan ikus daiteke nola pertsona batzuk poliziaren furgoian polizia-etxera eramaten dituzten, pertsona horiek identifikatzeko–, badela pertsona horien ohorerako, intimitaterako eta irudirako eskubidea urratzeko arriskua, informazioa nola ematen den. Izan ere, erreportajearen helburua polizien jarduketa eraginkorraren berri ematea izanda ere, eskubide hori ez da mugagabea.

Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren azalpena egin badugu, Iruñeko Udalari hainbat jarraibide ematearren izan da, berriro azter dezan, ez poliziaren jarduketa horiek grabatzearen komenigarritasuna, baina bai lankidetzat hori ukitutako herritarren eskubideak babesteko behar diren neurriak hartuta egiteko modua. Finean, helburua da etorkizunean telebista kate bati baimena ematen bazaio Udaltzaingoari lagundu eta bere jardunari buruzko erreportaje bat egiteko, aukera hori ez ematea inolako baldintzarik gabe, herritarren oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta babesteko xedearekin baizik, hori eskatzen ahal baitzaie agintari eta funtzionario publiko-
ei beren eginkizunak betetzera. Halaber, Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak ezarritako irizpideei jarraikiz, kateari eskatu beharko litzaioke hartutako irudiak erabiliko dituen moduari buruzko informazioa, baita ohartarazi ere, ukitutako pertsonen lehen planoak ez emateko eta haien identifikazioa galarazteko irudia desitxuratzeko baliabideak erabiltzeko beharraz edota saioa eman aurretik partikularrei irudia hartuta bezala hedatzeko baimena eskatzeko beharraz.

Agian baimena emateko baldintza horiek betezen ote diren kontrolatzeko modua idatziz jartzea izan liteke; horrela, bada, telebista kameralariei baimena emanen litzaieke poliziak esku hartzen dueneko egoera batzuk grabatzeko, baina betiere irudi horiek ukitutako pertsonen baimenarekin edo

haien eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko moduan, Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinari jarraikiz.

Hori dela eta, Iruñeko Udalarari GOMENDIOA egin genion, etorkizunean telebista kate bati baimena ematen badiu Udaltzaingoari lagundu eta bere jardunari buruzko erreportaje bat egiteko, poliziaren

jarduketak ukitutako herritarren oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzearen baldintzapean eman dezan.

Iruñeko Udalak, Herritarren Babeserako zinegotzi ordezkariaren bidez, eginiko gomendioa onartzen zuela erantzun zigun.

II- 08. JUSTIZIA**PROKURADOREEN ELKARGOAREN JARDUNA.**

Interesdunak kexa aurkeztu zuen (02/365/J espedientea) Iruñeko Prokuradoreen Elkargoak ez ziolako erantzun bere aurrean aurkeztutako salaketa bati.

Kexa-egileak adierazi zuen idazki bat aurkeztu zuela aipatu elkargoan, behar ziren neurriak har zitzan, [...] prokuradoreak ez baitzion Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak --/01 zenbakidun prozeduran emandako epaia jakinarazi, baina kexaren idazkia aurkezteko eguna arte ez du horri buruzko erantzunik jaso, ezta epaiaren kopiarik ere.

Iruñeko Prokuradoreen Elkargoari idazkia bidali ondoren, interesdunaren eskaerari ez erantzutearen arrazoia argi zezan, edo, kasua bada, harekin lotuta eginiko jardueren berri eman zezan, elkargoko dekanok jakinarazi zigun idazki hauxe bidali ziotela kexaren egileari:

“2002ko azaroaren --(e)an sartu zen elkargo honetan zuek aurkeztutako salaketa.

Gobernu Batzarrak, abenduaren --(e)an eginiko bileran, salaketa [...] prokuradoreari igortzeko erabakia hartu zuen, 10 eguneko epean behar ziren alegazioak aurkez zitzan.

Egun batzuk geroago bidali zitzaion, eta 2003ko urtarrilaren --(e)an [...] andreak bere interesen defentsan aurkeztutako alegazioak jaso ziren elkargoan.

Gobernu Batzarrak 2003ko otsailaren --(e)an eginiko bileran, eginbide osagarriak egiteko erabakia hartu zen, baina eginbide horiek oraindik osatu gabe daude.

Behar denean bidaliko dizugu espedientearen tramitazioari buruzko informazioa.”

Horren ondoren, Iruñeko Prokuradoreen Elkargoaren beste txosten bat jaso genuen, hauxe zioena:

Gobernu Batzarrak, 2003ko -----aren --(e)an eginiko bileran, ondoko ERABAKIA hartu zuen:

Aurkeztutako alegazioak, eginiko probak eta [...] legelariaren deklarazioa aztertutik, erabaki hau hartu dugu: [...] prokuradorearen aurka aurkeztutako kexa artxibatzea, uste baita haren jokiera profesionala zuzena izan dela uneoro. Erabaki honen aurka gora jotzeko helegitea para daiteke Prokuradoreen Kontseilu Nagusian, jakinarazten

den egunetik hasita hilabeteko epean, indarrean dauden estatutuen 116. artikuluan ezartzen denez.”

ANALISIA

Lehenik eta behin, elkargo profesionalen jardunari dagokionez, ezin da ahaztu erakunde honen ikuskapen-eskumenak zuzenbide publikoko korporazio horien administrazio-alderdiei buruzkoak direla.

Ildo horri lotuta, Iruñeko Prokuradoreen Elkargoko Gobernu Batzarrak emandako egintza dugu aztergai, eta egintza horrek formaltasun batzuk bete behar ditu. Horrela, ikusi dugu bertan adierazten dela interesdunak jar dezakeen errekurtsioa, edukiarekin ez bada bat etortzen, baina, aldiz, igorri zaigun jakinarazpenean ez da ageri hartutako azken erabakiaren gutxienezko arrazoirik.

Horregatik, uste dugu Iruñeko Prokuradoreen Elkargoak emandako erantzuna, non soilik jakinarazten den kexa artxibatu egin dutela “uste baita [...] prokuradorearen jokaera profesionala zuzena izan dela uneoro,” ez dela nahikoa erabaki horren arrazoiak ezagutu ahal izateko.

Horri dagokionez, ezin da ahaztu zuzenbide publikoko korporazioei Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legea aplikatzen zaiela, bere 2. artikuluari jarraikiz, eta lege horren 89. artikuluan ezartzen denez, ebazpenean erabakitakoaren berri eman behar da, eta, 54. artikuluan aipatutako kasuetan, erabaki hori arrazoitu egin behar da. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zein errekurtsio aurkez daitezkeen ebazpenaren aurka, zein administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion, eta zein epetan.

Ebazpena ez arrazoitzeak galarazten du interesdunek eztabaidatu ahal izatea kexa artxibatzearen oinarriko arrazoiak eta, horrenbestez, zailagoa egiten du Prokuradoreen Kontseilu Nagusiaren aurrean paratu beharreko gora jotzeko helegitea prestatzea, ebazpenaren formazko akatsa izateaz gain.

Kontuan hartu behar da erabakiaren arrazoiak azaltzeak bereizten dituela diskrezionalitatearen araberrako ekintzak arbitrariotasunaren ondoriozkoak direnetatik. Izan ere, erabakia oinarritzen duen arrazoirik ez dagoenean, justifikazio bakarra izanen da erabakia hartzen duenaren borondatea eta, begi-bistakoa denez, hori ez da nahikoa zuzenbide estatu batean. Eskatzen den arrazoitzea laburra izan daiteke, behar bezain adierazgarria bada. Aldiz, ezinezkoa dena da inolako arrazoirik ez ematea.

Azaldutakoa ikusirik, uste dugu Prokuradoreen Elkargoko Gobernu Batzordeak [...] prokuradorearen aurka aurkeztutako kexa artxibatzeke erabakia arrazoitu behar zuela; izan ere, kexaren balorazioak eragin zuzena dauka kaltetuta sentitu direnen interes zilegietan, prokuradore horrek ez duela erantzukizunik erabaki baita.

Horrenbestez, Iruñeko Prokuradoreen Elkargori GOMENDIOA egin genion, halako erabakiak arrazoi ditzan, aplikagarria den araudiari jarraikiz, eta kexa aurkeztu zuenak hala eskatuz gero, 2003ko otsailaren —(e)ko erabakia igor diezaion, aurkeztutako kexa artxibatzeke erabakiaren arrazoiak labur azalduta.

Dekano jaunak emandako erantzunean adierazi zigun aintzat hartu zutela guk eginiko gomendioa.

Dena den, idazki berean gure jarrerarekiko desadostasuna adierazi zuen; izan ere, elkargoaren ustez, erantzukizun-zantzurik ez bada, bidezkoa da besterik gabe kexa artxibatzea eta kexa-egileari adieraztea erabaki horren aurka zein errekurtsor jar dezakeen eta zer organori aurkeztu behar dion, hain zuzen, kasu honetan egin den moduan.

Hori ikusirik, bidezkoa iruditu zitzaigun dekanari berriro azpimarratzea administrazio erabakiak arrazoitzearen garrantzia; izan ere, alde batera utzirik aztertzen hasi ere ez garen auziaren funtsa, baita aurkezten diren kexek izan dezaketen oinarria ere, hartzen den erabakia edo ebazpena arrazoitzeke beharraren xedea da berorrek ukitutako pertsonaren eskubideak bermatzea.

Hala ez bada egiten, elkargoak betetzen duen jardun egokia, alegia, kasuan kasuko erabakiaren aurka zein errekurtsor jar daitezkeen eta zer organori aurkeztu behar zaizkion adieraztea, formaltasun hutsa da, behar diren ondorio guztiak izanen ez dituen, berarekin batera ez baitira hartutako erabakiaren arrazoiak azaltzen; izan ere, arrazoi horiek ahalbidetuko diote ukitutakoari bere burua defendatzeko tresnak baliatzea eta erabakiari modu egokian aurre egitea, bidezkoak diren errekurtsorak aurkezten dituen.

Horrela, bada, elkargoak bere jarduna gure ebazpenean adierazitakora egokituko zuela ondorioztatu genuen, eta hala jakinarazi genion elkargoko dekanari. Hori ikusirik, amaitutzat eman genituen gai honen inguruko gure jarduketak.

ABOKATUEN ELKARGOAREN JARDUNA.

Beste kasu batean (02/372/J espediente), kexa-egileak Iruñeko Abokatuen Elkargoaren lan-

sarien batzordeak emandako laudoa hartu zuen kexaren ardatz gisa. Laudo horrek lotura du [...] jaunak aurkeztutako fakturarekin, alegia, [...] andreak kexa-egilearen aurka sustatu eta Iruñeko Lehen Auzialdiko 1. Epaitegian eginiko [...] zenbakiko munta txikiko epaiketari eta epaia betearazteko intzidentean izandako esku-hartzearen ondoriozkoarekin.

Idazkian adierazi zuenez, arbitrajeko laudoak ez zuen berorren aurka errekurtsor jartzeko aukeraren berri ematen, eta bere ustez, horrek bere defentsarako bermerik ez izatea zekarren.

Horren haritik, gai horiei buruz dugun jarreraren berri eman genien, bai aipatu elkargoari, bai kexa-egileari. Izan ere, abokatu eta prokuradoreen elkargoen funtzionamenduari dagokionez, ezin dugu ahaztu Nafarroako arartekoaren ikuskapen-eskumenak zuzenbide publikoko korporazio horien administrazio-alderdiari buruzkoak direla.

Ikuspegi horretatik, korporazio horien ebazpenek Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legea bete behar dute. Zehazki, lege horren 58.2. artikuluan ezartzen da erabakiak arrazoitzeke betebeharra, gertakariak eta zuzenbide-oinarriak laburki aipatuz, eta jakinarazpen orotan adierazi behar dela aurkez daitezkeen errekurtsorak zein diren, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.

Horren haritik, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak 1986ko uztailearen 22an emandako epaiaren bosgarren eta seigarren oinarrietan adierazten denez, "arrazoizkoa ez dena da legegileak halako auziak ebazteko sistema berezi bat aurreikusi eta arbitrajea elkargo profesionalen esku utzi izana, sistemaren gutxieneko bermeak, hala nola errekurtsorak, ezarri gabe". Izan ere, arbitrajea bada errekurtsorak jartzeko aukera, Arbitraje pribatuei buruzko 1953ko abenduaren 22ko Legean ezartzen denez. Hain zuzen, lege horretan kasazio errekurtsor ezartzen da zuzenbidezko arbitrajeentzat (28. artikulua) eta Auzitegi Goreneko 1. Salan aurkeztu beharreko balio gabetze errekurtsor, ekitatezko arbitrajeentzat (30. artikulua). Arbitraje pribatuen arloan errekurtsorak paratzeko aukera bada, are arrazoi gehiagorekin egon beharko luke elkargo profesionali esleitutako arbitrajearen arloan; izan ere, elkargo horiek, beren bazkideen ordezkari eta eledun izateaz gain, eskumen jakin batzuk betetzeko administrazio publikoaren ordezkariak ere badira.

Horregatik, Elkargo profesionali buruzko Legean ezartzen denez, kontseilu nagusiei esleitzen zaie, beste eginkizun batzuen artean, elkar-

goen egintzen aurka paratutako errekurtsuak ebaztekoa (9.1.e artikulua). Horrenbestez, administrazio zuzenbidearen menpe dauden elkargoen (eta noski, kontseilu nagusien) egintzen aurka ere errekurtsua paratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan (8.1. artikulua).”

Azaldutakoa kontuan hartuta, gure iritzia da Abokatuen Elkargoak kasu bakoitzean aurkez daitezkeen errekurtsuen berri eman beharko lukeela ondorengo jakinarazpenetan.

Kasu honetan, zehazki, gure iritzia da beharrezkoa dela interesdunari jakinarazpena igortzea eta argi adieraztea zer errekurtsu jar ditzakeen, bere nahia bada, halako erabakien aurka, bidezkoak diren errekurtsuak behar den epean eta moduan aurkez ditzan eta arestian aipaturiko eta jurisprudentziak behin eta berriro baieztatutako 30/1992 Legearen 58.2. artikulua aitortzen dizkion eskubideak ez urratzeko.

Hori dela eta, bidezkoak ziren errekurtsuak ez adierazi izanari buruzko informazioa eskatu genuen, baita alderdi hori konpontzeko asmoaz galdetu ere.

Iruñeko Abokatuen Elkargoak bertako Gobernu Batzordearen erabakia igorri zigun. Bertan, aplikagarritzat jotzen den araudia aipatu ondoren, ondorioztatzen da, kexan agerturiko gaiari lotuta, “..arbitrajeko laudoa, elkargoaren txostena denez, peritu irizpena da, eta ez dago administrazio zuzenbidearen menpe, ez egiteari, ez edukiar dagokionez.”

Hori dela eta, elkargoaren iritzia da “.. kontratu izaera duenez, arbitrajeko laudo horri buruzko auziak jurisdikzio arruntean planteatu daitezke, bidezkoa bada, gure antolamendu juridikoak defentsarako ematen dituen berme guztiekin. Horrenbestez, ez dira balizko errekurtsuak aipatzen, arbitrajeko laudoen aurka ezin baita errekurtsorik aurkeztu.”

Txostenaren edukia sakonki aztertu ondoren, bidezkotzat jo genuen ohartarazpen batzuk egitea.

Elkargo profesionalen funtzionamenduari dagozkion gaiak aztertu ditugun kasuetan –oraingoan, Iruñeko Abokatuen Elkargoaren funtzionamendua–, behin eta berriro adierazi dugu Nafarroako arartekoaren ikuskapen-eskumenak zuzenbide publikoko korporazio horien administrazio-alderdiari buruzkoak direla, eta, horrenbestez, kasu hauetan, gure jardura bideratu behar dugu interesdunari helarazitako informaziora edo bere erabakien motibaziora.

Era berean, kontuan hartu behar da bezzeroaren eta abokatuaren arteko harremana partikula-

rren arteko harreman bat dela eta harreman horretan abokatuak erantzukizun zibila daukala bere lanbidean diharduenean, eta erantzukizun hori, kasu denean, jurisdikzio horretako epaitegi eta auzitegietara joz eska daitekeela.

Aztergai dugun kexa espedienteari dagokionez, funtsean desadostasun bat dago, kexa-egileak abokatu jakin bati ordaindu beharreko lansariaren ondorioz. Ondoren, interesdunak Iruñeko Abokatuen Elkargoaren Batzordera eraman zuen auzia eta berorren arbitrajea onartu zuen, halako kasuetan Gobernu Batzordea ordezkatzan duen elkargo horretako lansariaren batzordeak emandako laudotan agertzen den moduan.

Beraz, lehen esan bezala, Iruñeko Abokatuen Elkargoaren esku-hartzean jarri genuen arreta, eta, lehenik eta behin, lansari batzordeak hartutako erabakiaren alderdi formalei buruz galdetu genuen; bereziki, kasu bakoitzean jar daitezkeen errekurtsuen berri ez emateari buruz.

Elkargoak emandako erantzuna ikusirik, kasu honetan argitu beharrekoa da aztergai dugun jarduketa administrazio zuzenbidearen menpe dagoen, eta, horrenbestez, jakinarazpenen arloan araubide horri lotu behar zaion; izan ere, kasu horretan, elkargoak erabakiaren aurka jar daitezkeen errekurtsuen berri eman beharko luke.

Elkargoaren iritzia argia da, erantzunaren arbera: arbitrajeko laudoa perituen irizpena da eta, horrenbestez, ez dago administrazio zuzenbidearen menpe, ez egiteari, ez edukiar dagokionez. Izan ere, azaldu zigutenez, Abokatuen Kontseilu Nagusiak ez ditu onartzen laudo horien aurka aurkeztutako errekurtsuak, ez baititu laudoak administrazio egintzat hartzen, ezta, horrenbestez, errekurritu daitezkeen egintzat ere.

Lehenik eta behin esan behar da gai horri buruzko iritzi bateraturik ez dagoela jurisprudentzian eta, horrenbestez, interpretazio desberdinak egin daitezke errekurtsu horiek elkargoaren organo gorenetan aurkezteari buruz. Hori hala dela egiaztatzeko, nahikoa da gure informazio eskaeran aipatzen genuen eta, era berean, elkargoak bidali digun epaia ikustea.

Izan ere, elkargoak bere txostenean defendatzen duen egintza horien izaerari edo araubideari buruzko tesiaren aldean, Justizi Auzitegi Nagusien eta, zehazki, Administrazioarekiko Auzien Salako beste epairen batean aztertu da abokatuen elkargoetako organoen arbitrajeko esku-hartzea, norbaitek bertako batzarraren erabakiari bere borondatez men egitearen ondorioz, baita Arbitrajeari buruzko Legea organo horiek emandako laudoei aplikagarri zaien ere.

Azterketa horrek abiapuntutzat hartzen du Abokatuen Estatutu Orokorra onesten duen ekainaren 22ko 658/2001 Errege Dekretuaren 4. artikuluko l) eta n) ataletan ezartzen den aurreikuspena. Atal horiek Iruñeko Abokatuen Elkargoaren estatutuetan ere agertzen dira eta abokatuen eta bezeroen arteko arbitrajeko eginkizunari buruzkoak dira; arlo horren barruan, auzi horiek ebazteko ematen diren laudoei buruzkoak. Hain zuzen, aipatu errege dekretuaren 53. artikuluko t) atalean Gobernu Batzordeari esleitzen zaio eginkizun hori.

Jarduketa horiek elkargo profesionalek, zehazki, beren gobernu batzordeek eginiko bitartekotza lantzat hartzen dira. Aldeek eskatuta egiten dituzte eta nagusiki elkargoko berariazko eskumena duten abokatuen lansarien arlokoak izan ohi dira. Elkargoak, estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, zerbitzu hori ematen du, auzibidera jo aurreko gatazka profesionalak konpontzeko zerbitzu gisa.

Gure ustez, beharrezkoa da gai hori aztertzea; izan ere, keixaren idazkian 1988ko Arbitrajeari buruzko Legeak arautzen duen arbitrajearen arloko hainbat akats salatzen dira, hala nola arbitroen izendapena eta abar.

Horri dagokionez, jarduketa horiei buruz egin dako azterketatik ondorioztatu dugu elkargoko estatutuetan ez dagoela gai horri buruzko hutsunerik eta, horrenbestez, ez dagoela Arbitrajeari buruzko Legea subsidiarioki aplikatu beharrik; izan ere, argi dago abokatuaren eta bezeroaren artean lansariei buruz sortutako desadostasuna Elkargoko Gobernu Batzordeak ebatziko duela –kasu honetan, elkargoko lansarien batzordeak, eskuordetze bidez–, bera baita organo eskuduna estatutuaren arabera; beraz, organo horretako kideak dira erabakia hartzeko eskumena dutenak, aldeek horien irizpidearen menpe jartzea erabakiz gero.

Horrela, bada, Arbitrajeari buruzko Legean araututako arbitrajeen aldean –horietan, ezinbestekoa da aldeen nahia eta proposamenak kontuan hartzea arbitraje batzordea osatzeko–, elkargo profesionalek haien eskumeneko gaietan eginiko arbitrajeko esku-hartzeetan, kasu honetan bezala, ez dira arbitroak alde aurretik izendatu behar; izan ere, erregulatzen duen araudiari eta aldeen borondateari jarraikiz, Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordea da –lansarien batzordea, eskuordetze bidez–, berariazko kideekin, arbitrajeko laudoa emateko eginkizuna duena.

Aurrekoa galarazi gabe –izan ere, halako prozedurak Arbitrajeari buruzko Legean arautzen diren prozeduretatik kanpo uzten ditu– eta errekurtsuen araubideari eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean –laudoa– haien berri emateko

beharrari berriro lotuta, lehen ere adierazi dugu interpretazio desberdinak egin daitezkeela.

Aurreko hori gorabehera, zeinak ez baition inondik ere segurtasun juridikorik ematen azkenean eman beharreko konponbideari, uste dugu Abokatuen Elkargoak egiten duen interpretazioa, laudoari kontratu izaera ematea hain zuzen, ez dela eragozpen bertan adierazi ahal izateko laudo hori aurkatzeko bidea, epea eta forma, bai administrazio zuzenbidearen arloan –beste tesia aukeraturaz gero–, bai jurisdikzio arruntean, txostenean esaten den bezala.

Kontrakoak, jarrera formalista hutsa eta zurruegia izateaz gain elkargo horren bitartekari eta berme eginkizunei dagokionez, defentsa-gabezia egoeran jarriko lituzke interesdunak, partikularrak kasu honetan: bete beharreko epeak daude eta gai korapilotsua gerta daiteke –erabakiak araubide juridiko bat baino gehiago izan dezake eta minutak aurkatzeko prozedurak asko dira–; gerta daiteke, gainera, eta sarritan gertatuko da, pertsona horiek ez dutela zuzenbide arloko profesionalen aholkurik izanen.

Aztertzen ari garen kasuan, Iruñeko Abokatuen Elkargoak hartutako erabakia aurkatzeko bidea ez adierazteak kexa-egilea egoera horretan jarri ahal izan du; izan ere, ez bazegoen erabaki horrekin ados, eta hala esan du, beharbada erabaki hori aurkatzeko zuen epea pasatu zaio, eta ezin izan ditu, beraz, erabaki horren aurka egiteko zituen bideak erabili.

Horregatik guztiagatik, uste izan genuen Iruñeko Abokatuen Elkargoari iradoki behar zitzaizola ezen, aurrerantzean, bai eta hizpide dugun kasuan ere interesdunak hala eskatuz gero, horrelako prozedura motetan hartzen dituen erabaketan adierazi behar duela, amaieran, erabakia aurkatzeko zer bide dauden, hala administrazio bidean nola jurisdikzio arruntean.

Elkargo horretako dekanok helarazi zigun erantzunean adierazi zigunez, Iruñeko lehen auzialdiko 7. epaitegian jarraitutako prozesuaren ondorioz (—/— zenbakia), 2003ko uztailaren –ko autoaren bidez, kexa-egilea eta abokatuak akordio adostu batera iritsi ziren.

Elkargoaren jokabide orokorrari dagokionez, jakinarazi ziguten eginiko iradokizuna onartzen zutela, eta horrela, adierazi zigutenez, asmoa dute prozedura horiek erabiltzen dituzten partikularrei alde aurretik ematen zaien informazioa hobetzeko.

EPAIAK BETETZEA.

Beste kasu batean, (02/220/J espedientea), helarazi ziguten atzerapena gertatzen ari zela Lizarrako lehen auzialdiko 2. epaitegian tramitatzeko ari zen prozesu batean, ganantzialen sozietatea likidatzeko munta txikiko epaiketa batean hain zuzen (—/— zenbakia).

Kexa-egileak jakinarazi zigunez, 2000ko irailaren 19an interesdunak Lizarrako lehen auzialdiko 2. epaitegian epaia betearazteko demanda aurkeztu zuen ganantzialen sozietatea likidatzeko munta txikiko epaiketa baten (—/— zenbakia) ondoriozko autoak zirela eta.

Demanda aurkeztu zuenean, aipatzen zuenez, indarrean sartu gabe zegoen oraindik 2000ko Prozedura Zibileko Legea; uztailaren 25ean eman zen lehenengo probidentzia.

Probidentzia horretan, uztailaren 27an jakinarazi baitzen, interesdunaren eta ——— jaunaren arteko ezkontzaren ondasun-erregimena desegin zen eta, horrela, likidazioari buruzko ebazpen proposamena aurkezteko eskatu zen, barne zirela ezkontide bakoitzari eman beharreko kalte-ordainak eta haiei itzuli beharrekoak bai eta gerakinak banatzeko modua ere, Prozedura Zibileko Legeko 810. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Probidentzia betetz, ezkontzaren ondasun-erregimena aurkeztu eta eguna eta ordua eskatu ziren Prozedura Zibileko Legeko 810. artikulua agindutako agerraldia egite aldera.

2002ko ekainaren 10ean, interesdunaren esanetan, Lizarrako lehen auzialdiko 2. epaitegiaren inongo jakinarazpenik jaso gabe zegoen.

Nafarroako Auzitegi Nagusiari kexan ageri zen gaiari buruzko informazioa eskatu zitzaion eta, horrela, konponbidea bilatzeko behar ziren neurriak har zitzala. Auzitegi Nagusiak Lizarrako lehen auzialdiko 1. epaitegian bildutako informazioa helarazi zigun.

Hor, prozesuan izaniko urratsen kontakizun kronologiko bat egin ondoren, adierazi zitzaigun ez zela inongo atzerapenik gertatu tramitazioan, baik eta prozedura abian jarri zuen alderdiaren

ordezkari prozesalak ez ziola halako ezer eskatu epaitegiari. Horrela, 2001eko uztailaren 25ean emaniko probidentzia bat aipatzen zen, zeinari buruz ez zen errekerimendurik egin ia urtebete beranduago arte, eta kexa-egileak, epaia betetzeko prozedura abiarazi baitzuen, ez zuen hori justifikatzeko arrazoirik eman.

Horregatik guztiagatik, kexa-egileari jasotako informazioa helarazi genion, ez baitzitzaigun iruditzen horri buruzko inongo oharrik egiteko arrazoirik zegoenik.

Beste espediente batean ere (03/83/J espedientea), kexa bat aurkeztu zen Iruñeko lehen auzialdiko 3. epaitegiak emaniko epai bat betetzean izaniko atzerapena zela eta, munta txikiko epaiketa batean hain zuzen (—/99-A zenbakia).

Kexa-egileak idazkian azaltzen zigunez, egoera horrek arazo ekonomiko larriak eragiten zizkion; are gehiago, kontuan hartzen badugu prozesua 1999an hasi zela, epaia emateko prest 2000ko uztailaren 6an gelditu zela, eta epaia 2001eko maiatzaren 9an eman zela.

Gainera, adierazi zigunez, martxoko lehenbiziko egunetan, titulu judizialen exekuzio prozeduran (/2001 C1 atala), epaitegi horri eskatu zion, aurreko urtarrilaren 29ko probidentziarekin bat, ezarrezala zer diru kopuru ordaindu behar zion senarrak konkisten sozietatea likidatzearen ondorioz.

Informazioa eskatu genion Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari auzi honi buruz, eta hark epaitegi horretako buruak prestatutako txostena igorri zigun; era berean, kexa-egileari helarazi genion txostena, nahi izanez gero oharrik egin ziezazkion. Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak berak geroago jakinarazi zigunez, interesdunak ez zuen inongo alegaziorik egin eta, horrenbestez, ulertu zuten ados zegoela eman zitzaion azalpenarekin (berari ere jakinarazi zitzaion hori).

Gure aldetik, horren denaren berri eman genion interesdunari, horri buruz esatekorik bazeukan esan zezan; ez zuenez aurkako iritzirik agertu, amaitutzat eman genituen gai horri buruzko gure jarduketak.

II- 09. INGURUMENA**HIRIKO INGURUMENA****– AUTOEN GARAJE-TAILER BATEN JARDUNA AZTERTZEA ETA UDALAK EZARRITAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK BETETZEA.**

Kexa eragin zuena izan zen (02/2/M espediente) kexa-egilearen etxe azpian autoen garaje-tailer baten jarduna eta haren eragin gogaikarriak: gasak, hezetasuna, usainak eta zaratak.

Interesdunak azaldu zuenez, 2000ko ekainaren 1ean Burlatako Udaleko Gobernu Batzordeak udal lizentzia eman zion establezimendu horri autoen garaje, garbitze eta koipeztatze jardueretan aritzeko, eta neurri zuzentzaile batzuk ezarri zizkion. Neurri horiek ez ziren behar bezala bete, eta horrela, 2001eko ekainaren 6an, udalak ebazpen bat eman zuen eta agindu zuen tailer horren jardura behin-behinekoz gelditu zedila, ez zuelako irekitzeko lizentziarik eta ez zituelako bete ezarritako neurri zuzentzaileak.

Hala ere, kexa-egilearen esanetan, tailerraren jarduna gelditzeko agindua bete gabe zegoen artean, eta tailerrak irekita jarraitzen zuen nahiz eta lizentziarik ez izan eta gauzatu gabe eduki aipatutako neurriak; horrenbestez, tailerrak eragin gogaikarriak ditu auzoengan: zaratak, keak eta hezetasuna.

Informazioa behin eta berriro eskatu ondoren, Burlatako Udalak establezimendua irekitzeko tramitatu zen espedientearen kopia igorri zigun.

Espediente horretan jasota zeuden sustatzailearen eskaria eta arkitektoek egin behar izan zituzten proiektu teknikoak, Nafarroako Gobernu Ingurumen Kalitatearen zerbitzuburuak eginiko eskakizunekin bat. Era berean, Burlatako Udalaren Gobernu Batzordeak 2000ko ekainaren 1ean hartu zuen erabakiaren kopia ere helarazi zitzaizgun, hau da, lokala egokitzeko obretarako lizentzia eman eta neurri zuzentzaileak ezarri zituen. Egintza horretan, eskatzaileari gogorarazi zitzaion obretako zuzendaritzaren ziurtagiria aurkeztu behar zuela irekitzeko lizentzia eman aurretik, frogatzeko obrak eginak zituela eta neurri zuzentzaileak ere hartuak zituela.

Igorri zitzaizgun espedientearen jasota daude irekitzeko zenbait baimen-eskariren kopiak, obren sustatzaileak udalean 2001eko uztailaren 18, 24 eta 27an aurkeztuak, zuzendari teknikoaren zenbait ziurtagirirekin batera. Agiri horietako bat da "Jarduera sailkatuaren obra amaieraren ziurtagiria", 2001eko uztailaren 24an aurkeztua; ziurtagiri horretan esaten denez, isurien eta hondakin solidoen tratamendua udal ordenantzetan ezarritakoa-

rekin bat dator, hondakinak enpresa espezializatu bati ematen zaizkio eta jabea izena emanda dago hondakin arriskutsuen sortzaile txikien erregistroan. Amaitzeko esaten du dekantazio ontzia eraiki dela isurietarako, hiru zatitan banatua; hori dena jarduera lizentzia emateko eskatutakoekin bat.

Jasota dago, orobat, Altsasuko Guardia Zibila- ren Sepronak 2001eko maiatzaren 4an egindako salaketaren kopia ere. Salaketa 32/1990 Foru Dekretua urratzeagatik egin zen; jarduera, izan ere, irekitzeko lizentziarik gabe jarri zen abian. Jarraian, 2001eko ekainaren 4an, ebazpena eman zuen alkateak, igorritako espedientearen jasota baitago, eta jarduera, badaezpada, berehala geldiaraztea agindu zuen, ez zuelako irekitzeko lizentziarik, ez zituelako bete neurri zuzentzaileak eta hasierako obra lizentzia iraungita zegoelako.

Gero, Burlatako Udalaren Obra eta Zerbitzuetako buruak establezimendua ikuskatu eta txostena egin zuen 2001eko uztailaren 5ean; txosten horretan salatzen du ez direla betetzen jarduera lizentzian isuriei eta hondakin solidoei buruz ezarritako neurri zuzentzaileak.

Udalak ez zuen ezer esan salaketaren ondorioz abian jarri beharreko zehapen espedienteari buruz, ezta 2001eko uztailaren 24an irekitzeko lizentziaren eskaria ez erantzun izanari buruz ere; eta ez zuen ezer esan, era berean, tailer horren egungo funtzionamenduari buruz.

Halaber, igorritako espedientearen, kexa-egileak 2001eko azaroaren 23an aurkeztutako salaketaren kopia bat ageri da, jardueraren titularrari eskatuz bete ditzan Nafarroako Gobernuak ezarritako baldintzak.

ANALISIA

Kexa honetan ageri zen arazo nagusia mugatze aldera, salatutako jarduera sailkatuaren egoera juridikoa argitu beharra zegoen. Horretarako, Burlatako Udalak igorritako espedientearen jasotako funtsezko datuak azpimarratu ziren; hona, laburtuta:

Jarduera sailkatuen espediente bat tramitatu aurretik, Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea garatzen duen erregelamenduan ezarritako tramiteei jarraituz, udaleko Gobernu Batzordeak obra eta jarduera lizentzia eman zituen 2000ko ekainaren 1ean hartutako erabakiaren bidez eta, gainera, zenbait neurri zuzentzaile ezarri zituen.

Irekitzeko lizentzia lortu aurretik, sustatzaileak abian jarri zuen jarduera, eta horrek Guardia Zibi-

laren salaketa eta horren ondoriozko badaezpada-ko gelditzea ekarri zuen, Burlatako Alkateak 2001eko ekainaren 4an hala aginduta.

Jardueraren sustatzaileak, hurrengo hilabetean, irekitzeko lizentzia eskatu zuen –eskariarekin batera jarduera sailkatuaren obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu zuen, teknikari eskudun batek emana–. Eta udalak ez du orain arte ezer esan eskari horri buruz. Hala ere, tailerrak funtzionatzen jarraitu zuen.

Egia esan, 2000ko ekainaren 4ko ebazpena egokia izan zen: jarduera badaezpada gelditzea eskatu zen, irekitzeko lizentziarik gabe hasi baitzen funtzionatzen. Baimen hori nahitaezkoa zen inondik ere, hala ezartzen baitu aipatutako foru legeko 10. artikulua. Egintza hori irakurrita, ondorioa da ez zela lokala behin betikoz itxi nahi, baizik eta “badaezpada” geldiarazi nahi zela jarduera, hala baitio hitzez hitz. Hurrengo hilabetean partikularrak irekitzeko lizentzia eskatu bazuen legean ezarritako ziurtagiriekin batera, begi-bistakoa zen udalak eman zezakeela lizentzia hori, alde aurretik teknikoek egiaztatuta jarduerak betetzen zituela egoki funtzionatzeko baldintzak. Udalak, ordea, ez du ezer esan, eta, beraz, legeko 11. artikulua xedatzen duenarekin bat, “jarduera sailkatuei dagozkien jarduera lizentzietarako eskaerak emantzat hartuko dira, ustezko egintzaren bidez, salbu eta indarra duen legeriak bestelako epe eta ondorioak ezartzen dituen jardueren kasuan”.

Legearen xedapen horren arabera, egun jo daiteke establezimenduak irekitzeko lizentzia baduela, isiltasunez lortua udalaren pasibotasunaren ondorioz. Udalak ebatzi behar ditu egiten zaizkion eskariak, eta esan beharra dauka eskari bat legearekin bat datorren edo ez; edozein modutan, ez zuen espresuki erantzun eta ez du egiaztatu ea neurri zuzentzaileak gauzatu diren.

Bestalde, 2000ko ekainaren 4ko ebazpenak aipatzen duenez, jardueraren badaezpadako gelditzearen arrazoietakoa bat da emandako obra lizentziaren iraungipena. Argi dago iraungipen horrek ezin duela inongo baliorik izan, udalak ez baitu, legeak agindu bezala, iraungipena espresuki deklaratu eta behar zen espedientea ez baitu tramitatu interesduna entzunez. Eta, edonola, partikularrari, lizentzia ematean, ez zitzaion esan zein zuen obrak egiteko epea. Gainera, Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen Erregelamenduko 19. artikulua ezartzen duenez, jarduera lizentziaren iraungipena lizentzia ematen den egunetik kontatzen hasi eta bi urteko epean gertatuko da. Hitz batean, ez dago inongo eraginkorta-

sun juridikorik ematerik ebazpen horrek aipagai duen lizentziaren iraungipenari.

Tailerrak uneotan isiltasunez lortutako irekitzeko lizentzia duela onartzeak ez du esan nahi ez denik kontuan izan behar autoen garaje, garbitze eta koipeztatze jardueretan ari den establezimendu batek eragin kaltegarriak edo gogaikarriak izan ditzakeela, edo auzoei eragozpenak ekar diezazkizakeela, baita, aztergai dugun gaiagatik, espediente behar bezala onetsi balitz ere. Jarduera sailkatuen gaiak araubide berezia du: Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 13. artikulutik 21.era bitarte dago araututa. Funtzionamenduan dauden jarduera sailkatuak, horrela, etengabe daude administrazio publikoen kontrolpean, horrela ziurtatzeko jarduera ez dela kaltegarria izanen ez pertsonentzat, ez ingurumenarentzat. Jarduera, beraz, lizentziarekin eta ezarritako neurri zuzentzaileekin bat gauzatzen ari bada ere, ziurtatu beharra dago, betiere, ez diela legeak babestutako eskubideei kalterik egiten, eta, hala, espediente behar bezala baloratu gabeko hutsuneak atzematen badira, beste neurri zuzentzaile batzuk ezar daitezke, foru legearen 8. artikuluan espresuki jasota dagoen bezala.

Hori horrela, esan beharra daukagu kexa-egileak 2001eko azaroaren 23an Burlatako Udalean salatu zuela tailerrak ez zituela betetzen jarduera lizentziaren bidez ezarritako neurri zuzentzaileak, eta keek, hezetasunak, zaratek eta abarrek eragozpenak eragiten zituztela; udal organoek edo funtzionarioek ez zuten ezer egin salatutako gertakariak argitze aldera. Beraz, udalaren jardun eza zela-eta, salatzaileak erakunde honetan egin behar izan du kexa.

Kexaren arrazoiak aztertzen hasita, esan behar dugu afera hori zuzenki lotuta dagoela Espainiako Konstituzioko 15. eta 18.1 eta 18.2 artikuluetan xedatuaren bidez babestutako eskubideekin; izan ere, herritar guztiek dute bizitzeko eta osasun fisiko eta morala izateko eskubidea (15. artikulua), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 artikulua) eta bizilekuaren bortxaezintasunerakoa (18.2 artikulua). Gai honetan, Espainiako jurisprudentziak bere egin du erabat Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik sortzen dena, doktrina hori baita, nazioarteko tratatu eta akordioekin batera, Konstituzioak aitortzen dituen oinarriko eskubide eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko oinarria, 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Konstituzio Auzitegiak ere argi eta garbi esan du zaratak, keak eta antzeko emisioek urratu egi-

ten dituztela intimitaterako, osotasun fisikorako eta bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubide oinarritzkoak –119/2001 zenbakiko epaia, besteak beste–, eta ezarri du ezen partikular batek arlo honetan beste bati sortutako lesioagatik Konstituzio Auzitegiaren babesa eska daitekeela baldin eta administrazio eskudunak ez badu behar bezala jardun (culpa in vigilando). Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina erabili du Konstituzio Auzitegiak oinarritzko eskubideen interpretazioari eta babesari dagokienez, eta hirietako udalek ingurumenaren arloan izaten duten jardun ezari buruzko ohartarazpena egiten du; izan ere, udalek, polizia ahalmena oinarri, esku hartzeko edo babesteko titulua dute pertsonen ongizatea eta bizilekuaren bortxaezintasuna babeste aldera.

Ikuspegi horretatik, ondorioa da administrazio publikoek, babestutako oinarritzko eskubideak bermatze aldera, berehala esku hartu behar dutela herritarren bizilekuei kalte egiten bazaie keak, zaratak, usainak, hezetasuna eta antzekoak sortuz –horrelakoak, gainera, neurri zuzentzaile egoiak jarriz ekidin daitezke–. Azpimarratu nahi dugu administrazio eskudunak nahitaez erabili behar dituela dituen ahalmenak, eta ez duela askatasunik esku hartu behar duen ala ez erabakitzeko.

Herritarren eskubide horiek babestea funtsezko zeregina dute udalek; hori ondorioztatzen da Toki araubideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 f) eta h) artikuluan udalei esleitzen zaizkien eskumenetatik. Era berean, Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 13. artikulua ezartzen duenez, “jarduera sailkatua non dagoen kokatuta, dagokion udalak eginen du haren ikuskaketa.” Horrela, bada, Burlatako Udalak arintasunez jokatu beharra dauka aztertzen ari garen moduko kasuetan; izan ere, salaketa izan denez, zer gertatzen ari den ongi baina hobeki daki Udalak, eta badaki, azpimarratu dugunez, jarduera sailkatuen espedientearen tramitazioa bereziki arazotsua izan zela: eskatzaileari behin baino gehiagotan eskatu behar izan zitzaion dokumentazioa osa zezan, irekitzeko lizentzia izan baino lehenago jarri zen abian jarduera, Guardia Zibilarren salaketak izan ziren, eta abar. Kasu honetan, gainera, ukitutako ondasun juridikoak bereziki daude babestuak Konstituzioan, eta hori nahikoa da udalak berehala ikuska dezan salatutako establezimendua eta begira dezan zer maila duten zaratek, keek, usainek eta hezetasunak, jakin ahal izateko, horrela, eragin kaltegarririk ba ote duten, eta egiaztapen horiek kaltetuta gerta daitezkeen etxebizitzetan ere egin beharko litzuzke.

Hori horrela, GOMENDIOA egin zitzaion Burlatako Udalari lehenbailehen egin zitzaion behar ziren egiaztapen teknikoak jakiteko zer maila duten establezimendu horrek sor ditzakeen zaratek, keek, usainek eta hezetasunak, eta, horretarako, inguruko etxebizitzetan eragiten duen kaltearen maila era ikuskatu beharko zela esan zitzaion.

Zenbait idazkitan erantzun hori eman ondoren, udalak jakinarazi zigun Gobernu Batzordeak, 2003ko urtarrilaren 9an, tailerraren sustatzaileari jarduera horretarako irekitzeko lizentzia ematea erabaki zuela.

Erabaki horretan tailerrari irekitzeko lizentzia eman zitzaioela baizik ez zenez esaten, beharrezkotzat jo genuen erabakia hartzeko oinarri izan ziren txosten teknikoen kopia eskatzea. Udalak, horrela, Obra eta Zerbitzuetako buruak sinatutako txostenaren kopia igorri zigun, non esaten baita tailerrak HAPOko eraikuntza ordenantzetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta bete direla Nafarroako Gobernu Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez jarduera sailkatuetarako ezarritako neurri zuzentzaile guztiak.

OSTATUEN PILAKETAK HIRIGUNEN ALDE BATEAN ERAGITEN DITUEN ERAGOZPENAK.

Nafarroako Parlamentuan aurkeztu genuen 2002. urteko txostenean, jasota utzi genuen Vianako Udalari egin genion LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA (02/153/M eta 02/154/M espedienteak), eraginkortasunez bete zitzaion, gai horretako araudiarekin bat etorritik, gure ebazpenean aipatzen genituen oinarritzko eskubideak babestearren udalak dituen eskumenak; hartara, planteatu zitzaigun kasuan, egin beharreko ikuskapen eta egiaztapenak egin behar zituen, erabakitzeko bidezkoa ote zen neurriak hartzea 135/1989 Foru Dekretuan ezarritako soinu maila gehienezkoak –bai eta emandako baimenetako baldintza berarizkoak ere– errespetatu eta betetzen zirela bermatzeko.

Udal horretako alkate udalburuak erantzun zigun gure oharra onartzen zuela, eta jakinarazi zigun, baita ere, teknikorik ez zutenez, lehenbailehen hartuko zirela hartu beharreko neurriak; kexa-egileak guregana jo zuen berriro ere esanez Vianako Udalak ez zuela aurrekoa gauzatzeko neurririk hartu.

Adierazi zigunez, urriko eta azaroko zenbait egunetan, interesdunak beti aipagai izan dituen tabernetako musika goizeko 04:30ean eten zen, eta 05:30ean, legediak baimendu baino bi eta hiru ordu beranduago.

Hori horrela, udal horrengana jo genuen informazio eske, aurrekoari buruz bai eta erakunde honek eginiko legezko betebeharren gogorazpena betetzeko eginiko balizko jarduketei buruz ere.

Udalak igorri zigun komunikazioan, alkate udalburuak adierazi zigun ez duela langilerik salaketak egiteko, eta, beraz, Guardia Zibilak eta Foruzaingoak egin behar dutela.

Erantzuna ikusita, gure iritzia helarazi genion, hau da, oso kezkatuta geundela, udala itzuri egiten baitzaie jarrera horrekin gai horretan dituen eskumenei. Argudio hori oinarri hartuta, alegia, udalak ez duela nahiko bitarteko, edozein araudiren ez-betetzea justifika daiteke, nahi denean, herri horretan.

Guk behintzat ez dugu uste hori denik egungo antolamenduak udalei esleitzen dien zeregina; gure ustez, udalek, legezko betebeharren gogorazpenean aipatu genuenez, helburu behinena dute interes orokorraren alde objektibotasunez jardutea, herriko bizilagunen alde bereziki. Eta hori, noski, kontuan hartuz helburu hori lortzea zaila izanen dela zenbaitetan, gure toki entitate askoren tamainaren ondorioz; baina ez dugu uste hori denik Vianaren kasua, kontuan hartuz ia 3.500 biztanle dituela, gure herri askoren batez bestekoa baino askoz kopuru handiagoa, eta, beraz, udalari bere eskumenak erabiltzeko gutxieneko bitarteko batzuk izateko aukera ematen diona.

Hasteko, begi-bistakoa da, udalei aplikatzeko zaien araudia oinarri hartuta, horrelako eskumenak erabili behar dituztela (Toki araubideko oinarriak arautzen dituen Legeko 25.2 artikuluko d), f) eta h) letrak, eta Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 29. artikulua).

Eskumen horiek erabiltzearen ondoriozko ikuskaketa lana langile berekiekin nahiz kontratatuekin egin daiteke, eta zerbitzuak kontratatuz ere bai; horiek gertakaria epaitzeko behar diren elementuak ekar ditzakete, behar den erabakia hartzeko.

Gainera, ordutegiak edo zarata maileri buruzko arauak haustearen ondoriozko zehapenak –erabili behar litzatekeen azken bidea, edonola ere– langile berekiek jar ditzakete; izan ere, udal horrek ez badu udaltzainik, horien eginkizunak guardia, zaindari, agente, albiente eta gisako izeneko langileek egin ditzakete –Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko 13. artikulua; urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen lege horren testu bategina–.

Lege horretan bertan beste neurri osagarri batzuk ere jasotzen dira, horrelako aferetarako konponbidea izan daitezkeenak. Horrela, 9.1 arti-

kuluko g) letran Foruzaingoari esleitzen zaizkion eginkizunen artean, besteak beste, Nafarroako agintariekin elkarlanean aritzea dago, baldin eta haiak eskatzen badute, aplikatzekoak diren xedapenetan ezartzen den moduan.

Ildo beretik, aukera hori 19. eta 20. artikuluetan ere jasota dago: elkarlan hori zer gaitan eta zer modutan gauza daitekeen zehazten da.

Hitz batean, gai honetan behar den espezialitatea eta konstantzia gorabehera, uste dugu badirela nahi adina mekanismo eta tresna udal horrek kexagai izan den arazoan dituen eskumenak behar bezala erabil ditzan. Eginkizunei itzuri egitea litzateke bestela jokatea, edozein administrazio publikoren jardunbidearen printzipiorik oinarritzkoenak urratzea.

Horrela, beraz, legezko betebeharren gogorazpena errepikatu eta udal horri behar ziren ikuskapenak eta egiaztapenak egin zitzaizkion eskatu genion, jakin zezan lokal horiek betetzen ote zituzten funtzionamendu baimenetan ezarritako baldintzak eta 135/1989 Foru Dekretuan ezarritako gehienezko soinu mailak.

Era berean, eta horren berri eman zitzaigunez, araudi berrira egokitzen ari diren lokalen kasuak ezagutu nahi izan genituen, zertan zen egokitze horien tramitazioa.

Beste bi aldiz eskatu ondoren, eta sei hilabete geroago, erantzuna jaso genuen, non hau adierazten baitzitzaigun:

“Bi bilera egin dira tabernen jabeekin, eta auzoen kexak helarazi zaizkie ixteko ordua eta musikaren ordutegia betetzen ez dutela eta. Jabe horiek eta elkartearen lehendakariak ordutegiak betetzeko konpromisoa hartu dute, ixteari eta musikari dagokienez.

Bestalde, beste gutun batean lehenago ere adierazi nuenez, herri honetako albienteen ordutegia goizeko 8etan hasi eta gaueko hamarretan bukatzen da, larunbatak eta igandeak barne direla.

Foruzaingoak zaintza zerbitzuak egitea nahi nuke, Nafarroako beste leku batzuetan jakin badaikit-eta egiten dituela.

Esan gabe doa udal honek, alkatea buru duela, argi duela pertsonen atsedena dibertsioaren eta ganberrismoaren gainetik dagoela –bestalde, aste-buru batzuetako kontua baizik ez da–, eta denon zeregina da, nire ustez, horrelako egoerak ekiditea.

Era berean, jakinarazten dizut udal honek ofizialki ez dakiela lokalak araudi berrira egokitzen ari ote diren.”

Hori ikusita Vianako Udaleko alkate udalburuari gure iritzia helarazi genion: arazoa aintzat hartua izan dadin udal horrek egindako jarduketaren bat kontuan hartzen bagenuen ere –tabernen jabeekin eginiko bilerak–, erantzunean aipatzen ziren gainerako aferek ez zituzten indarrrik gabe uzten aurreko komunikazioan azaldu genizkion iritziak, hau da, udalak, betiere, esleituta dituen eskumenak erabiltzeko betebeharra duela.

Horregatik, gure iritzia errepikatu ondoren, ulertu genuen udalaren jardunbidea ez zettorrela bat guk gai horri buruz behin eta berriz adierazitakoarekin, eta gainera ez genuen horrela jokatzeko batere borondaterik ikusi; horregatik, urteko txostenean islatu dugu.

TABERNETAKO MUSIKA EKIPOEN BOLUMENA ETA IXTEKO ORDUTEGIA KONTROLATZEA.

Kexa eragin zuena izan zen (02/75/M espediente) kexa-egileak zenbait urte zeramatzala Corellako ————— kalean dauden bi tabernak gauetan eragiten zizkioten eragozpenak jasaten –bizilekutik oso gertu ditu taberna horiek–.

Interesdunaren arabera, bi lokal horiek behin eta berriz urratzen dute ixteko ordutegiari buruzko araudia, eta gehienezko soinu maila gainditzen dute, ez baitaude behar bezala intsonorizatuak. Egoera hori larriagoa da asteburuetan eta jai bezperetan; izan ere, ordutegiak ez betetzeaz gain eta gaueko ordu txikiak arteko zarataz gain, pintadak izaten dira hormetan, kristalak hausten dira, etxe-ko ataria zikin-zikin egoten da, gernu egiten baitute bertan, eta abar.

Horri buruz esan zigun salaketa ugari jarri duela Corellako Udalean, baina ez dela inongo neurri eraginkorrik hartu arazo hori konpontzeko, eta atseden hartzeko duen eskubidea ezin duela gauzatu.

Beste idazki batzuk ere helarazi zizkigun, dokumentazio ugariarekin batera, eta Foruzaingoak eta Udaltzaingoak eginiko zarata-neurketen aktak ere bai. Azkenak 2003ko urtarrilaren 19an goizeko 4retan eginiko neurketaren fede ematen du, “—————” izeneko tabernako musika ekipoak sortutako zaratarena hain zuzen; akta horretan jasota dagoenez, etxebizitzako egongelan entzuten zen zarata, batez beste, 45,7 dezibelekoa zen, eta 54,4koa izatera ere iritsi zen.

Hori horrela, eskatzen zuen hartu beharreko neurriak har zitezela lokal horiek zaratei eta ordutegiei buruzko araudia bete dezaten, errespetatzeko, horrela, inguru horretan bizi diren pertsonen eskubideak, eta jar daitezela, behar izanez gero, behar diren zehapenak.

Corellako Udalean afera honi buruzko informazioa eskatu ondoren, eta galdetuta jarduketarik egin ote zen establezimendu horiek funtzionamendu baldintzak betetzen ote zituzten egiaztatzeko, erantzun hau jaso genuen:

«————— kaleko, — zenbakian dagoen tabernari dagokionez, jakinarazten dizugu [...] jaunaren izenean tramitatu zela jarduera sailkatuaren espediente, eta irekitzeko lizentzia 1994ko urriaren 8an eman zela.

1999ko maiatzean, Nafarroako Gobernuo Jarduera Sailkatuen Aholkularitza Teknikoak lokala ikuskatu ondoren, mugatzaile bat eta motelgailu bat jarri zirela justifikatu zen 1999ko uztaileko faktura baten bidez.

2001eko azaroan, jabez aldatu eta zuzendari-tza teknikoaren ziurtagiria aurkeztu zen, non egini-ko obrak eta instalazioak islatu baitziren, obra amaierako planoak ere barne zirela.

«————— kaleko, — zenbakian dagoen tabernari dagokionez, jakinarazten dizugu [...] jaunaren izenean tramitatu zela jarduera sailkatuaren espediente, eta irekitzeko lizentzia 1997ko abenduaren 31n eman zela.

1999ko maiatzean, Nafarroako Gobernuo Jarduera Sailkatuen Aholkularitza Teknikoak lokala ikuskatu zuen.

Ordutegiari dagokionez, esan beharra dago, gutxi batzuetan, salbuespen gisa, ordutegi orokorra aldatu egiten dela.»

ANALISIA

Udalak emaniko erantzunean bertan ikusten da zein eskematikoa eta laburra den, ez baitu zaraten eta ordutegien arloan erreklamatzailak salatzen digun arau-hauste larriei buruzko informaziorik ez aipatzen ez ematen, eta arau-hauste horiek ongi frogatu dizkigu erreklamatzailak. Gure informazio eskaerei horrela erantzunda, ez zaigu erraza gertatzen elementu guztiak izatea guregana kexa egitera jo duen pertsonari egoki erantzuteko eta esateko kexagai den administrazioak benetan egoki jokatu duen ala ez.

Administrazio publikoengana jo eta haiek laguntzarik ematen ez badigute, ezin dugu bete erakunde honek esleiturik duen eginkizuna, hain zuzen ere legeek aitortzen dituzten askatasun nahiz eskubideen babes-maila hobetu eta aldeztu, eta hortaz, uste dugu ezen administrazioarekiko harremanak oinarri izan behar dituela elkarrenganako konfiantza eta erakundeen arteko leialtasuna. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak

berak 26. artikuluan xedatzen duenez, “botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari lehenatasunez eta presaz haren ikerketa eta ikusketetan.”

Egin beharrekoak iruditzen zitzaizkigun zehaztapen horiek gorabehera, kearen arazoak aztertzen hasita, esan behar dugu afera hori zuzenki lotuta dagoela Espainiako Konstituzioko 15. eta 18.1 eta 18.2 artikuluetan xedatuaren bidez babestutako eskubideekin; izan ere, herritar guztiek dute bizitzeko eta osasun fisiko eta morala izateko eskubidea (15. artikulua), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 artikulua) eta bizilekuaren bortxaezintasunerakoa (18.2 artikulua). Gai honetan, Espainiako jurisprudentziak bere egin du erabat Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik sortzen dena, doktrina hori baita, nazioarteko tratatu eta akordioekin batera, Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubide eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko oinarria, 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bereziki esanguratsua da Europako Auzitegiak 1994ko abenduaren 9an emaniko epaia (Gregoria kasua izenekoa); izan ere, epai horretako doktrina, gaur egun, onartuta dauka Konstituzio Auzitegiak. Epaian esan zen usainek, zaratek eta ke kutsagarriek urratu egiten dituztela oinarritzko eskubideak baldin eta bizilekuari eta bizitza pribatuari eta familiarri kalte egiten badiete, Giza Eskubideen Adierazpeneko 8. artikuluan bermatuta baitaude.

Konstituzio Auzitegiak ere argi eta garbi esan du zaratak, keak eta antzeko emisioek urratu egiten dituztela intimitaterako, osotasun fisikorako eta bizilekuaren bortxaezintasunerako oinarritzko eskubideak –119/2001 zenbakiko epaia, besteak beste–, eta ezarri du ezen partikular batek beste partikular bati zaraten bidez kaltea eragiten badiu, Konstituzio Auzitegiaren babesa eska daitekeela baldin eta administrazio eskudunak ez badu behar bezala jardun –“culpa in vigilando”–, zaratei buruzko araudia urratuz. Halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina ekarri du gogora, «Guerra eta beste, Italiaren aurka» kasuko epaian oinarritzko eskubideak direla-eta egiten duen interpretazioa aipatzean; izan ere, epai horretan, agerian uzten du udalek ezer gutxi egiten dutela ingurumenaren alorrean oro har eta kutsadura akustikoaren alorrean bereziki, zeren udalek, alor horretan, esku hartzeko eta babesa emateko ahalmena baitute, «lasaitasuneko polizian» oinarrituta, eta gogorarazten du ezen gisa horretako jarduerak eragina izan dezaketela pertsonen ongizatean eta

nork bere etxebizitzaz gozatzeko eskubidean, bai eta bizitza pribatuan kaltea eragin ere.

Halatan, ondorioa da ezen, herritarren osasuna larri kaltetzen duen neurrian, norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubideari eskainitako babes bera eman behar zaiola zarata eta eragozpen jasanezina luzaroan pairatzen duenari, are gehiago zarata eta eragozpen horiek neurri egokiak hartuta ekidin badaitezke.

Udalei funtsezko zeregina dagokie herritarrek babesteko eginkizunean. Ondorio horretara eramaten gaituzte Toki araubidearen oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2.f) artikulua (lege hori apirilaren 21eko 11/1999 legeak aldatu zuen) esleitzen dizkien eskumenek. Halaber, kontuan eduki behar da lege bereko 84.1.b artikulua xedaturikoa, Toki korporazioen zerbitzuei buruzko Erregelamenduko 1.1 artikuluekin loturik; alegia, biek ahalmena ematen dute administratuen jardura pribatuetan esku hartzeko, babes juridikoa izan dezaketen ondasun eta interesak, lehen adieraziak, defendatzeko xedez. Administrazio publiko horiei dagokie, azken batean, aisialdiko establezimendu publikoek zaratei eta ixteko ordutegiari buruzko araudia bete dezaten, eta, gainera, beren ordenantzak onets ditzakete.

Gure erkidegoko araudiari dagokionez, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.1.b) artikulua osasun publikoaren arloko eskumenak esleitzen dizkie udalei, horien artean zarataren nahiz bibrazioen osasun-kontrola.

Era berean, Ingurumena babesteko jardura sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeak eta Zarata eta bibrazioak eragiten dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuak, gisa horretako jarduerak arautzen dituzte, bai eta, oro har, pertsonen gogaikarri gerta dakizkiekeen edo pertsonen ongizaterako nahiz osasunerako arriskutsu gerta daitezkeen zarata edo bibrazioak eragin ditzakeen beste zeinahi elementu ere.

Erregelamendu horretako 15.2 artikulua ezartzen duenez, etxebizitzek gauez jaso dezaketene gehieneko zarata 30 dezibel da, eta muga hori 3 eta 10 dezibel artean gainditzea arau-hauste larria da, eta muga horiek gainditzea, berriz, arau-hauste oso larria (24. artikulua). Hala ere, gai honetan, kontuan hartu behar da Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, 26/2001 Foru Legeak orain gutxi aldatu baitu, non arau-hauste larritzat jotzen baita onargarriak diren gehieneko mugak 10 dbA baino alde handiagoz gainditzea eta arau-hauste

arintzat, berriz, muga hori iristen ez dutenak (23. artikuluko 20. idatz-zatia eta 24. artikulua). 27. artikulua testu berriak ezartzen duenez, arau-hauste arinengatiko zehapenak tramitatzea eta ezartzea Corellako Udalari dagokio, eta gainerako arau-hausteengatikoak, berriz, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari. Udalak, edonola ere, arau-hausteak salatu beharra dauka, nahiz eta ez udala izan prozedura zehatzailea tramitatu behar duena.

Halaber, establezimendu publikoen eta josteta jardueren gehieneko ordutegien araudiak aldaketa handiak izan ditu lege honekin, arau-hauste larritzat jotzen baitu arlo honetako edozein arau-hauste. Orain dela gutxi onetsi den irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuak ere aldaketa nabarmenak ekarri ditu aisialdiko establezimenduak ixteko ordutegiari buruz, doitasun eta zorrotasun handiagoz arautu baititu horiek irekitzeko eta ixteko orduak, aurtengo martxoaren 23tik aurrera nahitaez bete beharko direnak; une horretara arte, ekainaren 13ko 221/1991 Foru Dekretuan ezarritako ordutegiak aplikatuko dira.

Beraz, Corellako Udalak egiaztatu beharra dauka, ikuskapenen bidez, salatutako establezimenduen jarduera aplikatzekoak diren arauekin bat datorren, eta horren arabera jardun beharko du, esleitzen zaizkion ahalmenekin bat. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro adierazi izan du jarduera sailkatuei buruzko lizentziak funtzionamendu-baimen deritzenen adibide tipikoa direla; baimen horiek, hala-koak diren aldetik, ez dute behin-behineko harreman bat sortzen administrazio baimen-emaile eta subjektu baimen-hartzailearen artean, baizik eta lotura iraunkor bat, eta horren xedea da administrazioak interes publikoa uneoro modu egokian babestea, jarduera gauzatzean etorkizunean gerta litezkeen balizko gorabeheren aurrean hura ziurtatuz.

Horregatik guztiagatik, LEGEZKO BETEBEHARRAREN GOGORARAZPENA egin zitzaion Corellako Udalari, aipatu dugun araudiarekin bat udal eskumenak erabil zitzan, Udalaren betebeharra baita erreklamatzailerak duen defentsa-gabezia lehenbailehen konpontzea; horrela, beharrezkoak diren ikuskaketak eta egiaztapenak egin behar ditu erregelamenduz ezarritako gehieneko soinu mailak errespetatuko direla bermatze aldera, eta establezimendu horiei ixteko ordutegia beteko dutela eskatu behar die.

Udalak gure oharrei buruz zuen iritzia bitan jakinarazi ondoren, hau jakinarazi zitzaigun: "tabernako jabeei instalazioak zuzendu zituztela egiazta zezaten eskatu zitzaion. Horren ondorioz,

tabernaren jabeak orain gutxi Udalari jakinarazi dionez, aldaketak egin ditu lokalean, eta falta dena da indarrean dagoen araudia betetzen dela frogatzen duen dokumentazio teknikoak.

Informazio hori oinarri, Corellako Udalak esan zigun, alkate udalburuaren bitartez, erakunde honetan aurkeztutako kearen espediente berehala eta modu egokian amaituko zela uste zuela.

Helarazi zitzaigun informazioaren ondorioz, entitate horri berriro esan genion horrelakoetan jarduera sailkatuei orokorrean dagokien moduan jokatu behar dela, eta lizentzia behar dutela, noski, neurri zuzentzaileak barne, eta funtzionamendu ordutegiak errespetatu behar dituztela.

Gogoratu nahi dugu Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro adierazi izan duela horrelako lizentziak funtzionamendu-baimen deritzenen adibide tipikoa direla; baimen horiek, hala-koak diren aldetik, ez dute behin-behineko harreman bat sortzen administrazio baimen-emaile eta subjektu baimen-hartzailearen artean, baizik eta lotura iraunkor bat, eta horren xedea da administrazioak interes publikoa uneoro modu egokian babestea, jarduera gauzatzean etorkizunean gerta litezkeen balizko gorabeheren aurrean hura ziurtatuz.

Auzitegi Gorenak administrazio publikoei jarduera horiek eteteko ere eskatzen die jarduera horiek lizentziarik gabe edo lizentzian ezarritako baldintzak errespetatu gabe ari direla jakinez gero, non eta ez den posible horiek legeztatzea behar den espediente tramitatuz; izan ere, lizentziaren bidez eskumen hau gauzatzen dute: herritarrentzat edo ingurumenarentzat gogaikarriak, osasungaitzak edo arriskutsuak izan daitezkeen jardueren ingurumen kalitatea zaintzea.

Beraz, hasieratik lizentziarik gabe edo baldintzetara egokitu gabe gauzaturiko jarduera batez ari garenean, ez dago eskuratutako eskubideez hitz egiterik, ezta jarduerari buruzko tolerantziaz edo jardueraren behin-behinekotasunaz ere.

Horregatik, eta udalak egindakoak aurrerapena izan daitezkeela ahaztu gabe, udal horri eskatzen diogu, jarduketak egiten ari dela esaten duenez, bide batez lehenbailehen jakinaraz diezagula, espediente horren ebazpenak zuen atzerapena kontuan hartuta, zein den azken emaitza; hain zuzen ere, lokal horiek horrelako jardueri buruzko araudia betetzeari edo ez betetzeari buruz zer erabakitzen den, bai eta, halakorik bada, neurri zuzentzaileak eta ezarritako baldintzak betetzeari edo ez betetzeari buruz ere.

Azkenik, udalak esan zigun tabernen jabeen zenbait neurri eskatu diela, eta, behin horiek jarrita, “_____” entitatea kontratatu duela beharrezko egiaztapenak egin ditzan, ziurtatzeko, horrela, neurri zuzentzaileak nahikoa direla auzoen lasaitasuna bermatzeko (txostenaren kopia erantsi zuen). Tabernei, hain zuzen ere, atekak eta leihoak itxita izan ditzaten eskatu zaie, eta musika ekipoetan mugatzaileak jar ditzaten, barruan ez dadin izan 75 dezibel baino gehiago, hala ezartzen baitu aplikatzekoa den araudiak.

Informazio hori kexa-egileari helarazi eta hark esan zigun egoera ez dela batere aldatu, aipatutako tabernak berdin gogaikarriak gertatzen baitira eta ez baita inongo neurri zuzentzailearik betetzen: atea ez da ate bikoitza; ixteko orduak erabat gainditu dira, udalak baimena emanda, zioenez Eguerberrietan goizaldeko 8ak arte egon baitziren irekita; eta, orokorrean, udalak ez omen ditu betebeharrak dituenak bete.

Hori horrela, espedientea berriro ireki eta Corellako Udalarari eskatu diogu txosten bat aurkez diezagun, teknikari eskudun batek sinatua, azaltzeko ea establezimendu horiek egokituta ote dauden, “_____” entitateak proposatutako neurri zuzentzaileen arabera, eta zaraten arloko araudia betetzen ote duten. Era berean, Corellako Udaltzaingorari ere beste txosten bat eskatu diogu, adieraz dezan ea taberneak ixteko ordua bete ote duten aurreko Eguerberrietan, eta ea gaur egun betetzen ote duten.

AUZO-KOMUNITATE BATEKO GARAJEAREN ATEAK SORTUTAKO ZARATA.

Kexa, kasu honetan (02/354/M espedientea), Tuterako Udalaren jardun ezari buruzkoa zen. Kexa-egileak, Tuterakoa baita, etengabeko zaratak eta bibrazioak ditu etxebizitza barruan, etxe azpian dauden garajeetara sartzeko atekak eraginda, eta kalte larriak eragiten ari zaio kexa-egilearen familiari.

Garaje horretan 40 plaza daude, eta udalak emandako irekitzeko lizentzia du. Hala ere, sartzeko atekak, bai ibilgailuentzakoak bai oinezkoentzakoak, nabarmen gaintzen dituzte ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuko 15. artikuluan ezarritako mugak –foru dekretu horretan ezartzen dira zarata eta bibrazioak eragiten dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak–.

Ikusita ez obren sustatzailea izan zen enpresak, ez garaje jabeen komunitateak, ez ziotela arazoari konponbiderik jartzen, kaltetuak udalaren salatu zuen egoera, eta peritu batek eginiko neurketa bat aurkeztu zuen soinu emisioen mailak bai-

mendutakoaren gaindi zeudela frogatzeko; aurreago, berriro egin zuen salaketa. Tuterako Udalak, egun gutxi batzuk geroago, komunikazio baten bidez, garaje jabeen komunitateari agindu zion –hura zen irekitzeko lizentziaren titularrak– berriro zitzala garajeko atea irekitzeko motorraren instalazioak eta erregula zezala haren soinu emisioa; 20 egun balioduneko epea eman zitzaion agindutakoa egiteko.

Udalak, 2002ko apirilaren 5ean, jakinarazpen bera egin zion komunitateari, eta, berriro ere, 15 eguneko epea eman zion sarbidea ixtea ekar zezakeen zehapen espedientea abian jarri aurretik. Hala ere, zarataren arazoa ez zen konpondu. Horregatik, interesdunak, 2002ko urriaren 14an, berriro eskatu zion Udalarari behar ziren neurriak har zitzan; kexa aurkezteko egunean, kexa hori erantzunik jaso gabe zegoen artean. Kexa-egileak ez zekien, halaber, zehapen espedientea abian jarrita ote zegoen, nahiz eta aspaldi gaintutua egon Udalak akatsak konpontzeko emaniko epea.

Horregatik, kaltetuak Udalarari eskatzen zion jardun eza bertan behera utzi eta har zitzala beharrezkoak ziren neurriak arazoa behin betiko konpontzeko.

Tuterako Udalak, lehenbiziko erantzunean, hau adierazi zigun:

“Zuzena da [...] jaunak eginiko kontakizuna; hala ere, gauza batzuk zehaztu beharra daukagu.

Arazoak gertatzen ari diren eraikina berria da, eta, beraz, eraikitzailea da, ondo-bidean, epe jakin batean agertzen diren kalte, akats eta abarren erantzule erabatekoa. Hala ere, garajeen kasua oso berezia da; izan ere, behin eraikina amaituta, eraikitzaileak horien funtzionamendurako lehenbiziko lizentzia eskatu zuen komunitatearen izenean, eta eraikitzailearen izena ez zen agertzen jarduera horretan; horrenbestez, garaje jabeen komunitatea bihurtu zen –lizentzia beharrezkoa da autoak sartzeko– jardueraren ondoriozko balizko kalte-galderen erantzule erabatekoa.

Horiek horrela, udalak kexa-egileari jakinarazi zion “bere garajeko” atearen zaraten arazoa konpontzeko biderik egokiena zela bide zibila erabilteza eraikitzailearen aurka; [...] jaunak ez zuen bide hori hautatu nahi izan, Udalak, jakin arren, aipatuko ez dituen arrazoiengatik.

Administrazio bidea hautatu zuen [...] jaunak, eta, hori horrela, ohartarazi zitzaion udalak har zezakeen neurri bakarra garajeak ixtea zela (bera ere jabea da) baldin eta komunitateak – garajeen jabea hura da– ez bazuen neurririk hartu nahi uste izateagatik zaraten arazoa eraikitzaileak konpondu

beharrekoa zela. Ohartarazi zitzaion auzo guztiei eraginen ziela erabaki horrek, berari barne, eta ixteko neurria auzoetako batek eskatuta hartuko zela. Edonola ere, [...] jaunak administrazio bideari eutsi zion.

Proposatu zitzaion beste aukera bat izan zen garajeen komunitatearen batzarrean esan zezala komunitateak ordaindu behar zituela hasieran gastuak eta, gero, egoki iritziz gero, bide zibila erabil zezala gastuak eraikitzaileari eskatzeko. Konponbide hori ere ez zuen erabili nahi izan.

Interesdunak administrazio bidea hautatu zue- nez, eta garajeko ateak sortzen zituen zarata arazoak konpontze aldera, udalak zenbait errekerimendu igorri zizkion Santa Ana — zenbakiko garajeen komunitateari, arazoaren konponbidea eskatuz; garaje jabeen komunitateak, betiere, arazoa konpontzeko borondate ona erakutsi du.

Horrela, hasieran, garaje jabeen komunitateak peritu baten azterketa eskatu zuen jakiteko zenbat kosta zitekeen arazoa konpontzea; azterketa horren emaitza eraikitzaileari igorri zion, dakigunez, eta hura luzamendutan ibili zen eta ez zuen arazoa konpondu.

Azkenean, udalak garajeko ateak sortzen zuen zarataren neurketa agindu zuen, eta legeak baimendutako dezibelak gainditzen zituela ikusita, garaje jabeen komunitateari azken errekerimendua igorri zion; komunitateak, hori ikusita, obrak egitea eta gastuak ordaintzea erabaki zuen arazoa konpontzeko. Ez dakigu erabaki ote duten, geroztik, eraikitzaileari gastuak bide zibiletik eskatzea.

Beraz, udalak idazki honen jatorri izan zen gutuna jaso zuenean, gai horri buruz beste zer gertatuko zen itxaroten ari ginen, arartekoari arazoaren azken konponbidea jakinarazteko, baina oraindik ez da konponbiderik izan, 2003ko martxoaren 6an [...] jaunaren emazteak jakinarazi zigunez; haren esanetan, ixterakoan ateak ematen zuen kolpearen hotsa konponduta zegoen, baina motorrari dagokionez, nahiz eta aldatu zuten, zarata egiten jarraitzen zuen eta instalatzaileari esatekotan zeuden, gaia behin betikoz konponduta zegoela jakinarazteko guri.

Arartekoak berriro ere informazioa eskatu digunez 2003ko martxoko idazki baten bidez, aurreko guztiaren berri ematen dizugu arazoaren behin betiko konponbideari itxaron gabe.

Esan beharrean gaude, halaber, arazo hori dela-eta udala ez dela gelditu ezer egin gabe, baik eta interesdunak eskatu duen guztietan jardun duela. Arazoaren konponbidea luzatu bada izan da funtsezko zalantzak daudelako konponbideari

buruz, hau da, ea komunitate bateko garajeak eragiten dituen zaratak konpontzeko garajeko jabe guztiak eta interesduna bera kaltetzea egokia den, kontuan izanda arazoaren konponbidea jardueraren funtzionamendu okerrean bainoago eraikuntza akatsetan dagoela eta bide zibiletik eska daitekeela erantzukizuna.“

Hortaz, aipatu udalak nolabait ere justifikatu egin zituenez informazioa eskatu zitzaioneko alderdiak, kexaren egileari igorri genion jasotako informazioa, eta jakinarazi genion berriro esku har genezakeela konponbide egokirik ez bazen lortzen amaieran.

Geroztik, aurreko informazioa igorri eta sei hilabete pasatuta, kexa-egileak berriro jakinarazi zigun Tuterako Udalak beste neurketa akustiko bat egin zuela, eta ondorioa zela arauk ezarritako mugen gaindi zegoela zarata, hala ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuak nola Zaratei eta bibratzioei buruzko Tuterako Ordenantzak ezarritako mugen gaindi alegia. Ordenantza hori eman zen, hain zuzen ere, gai horretan aplikatzekoak diren legearen eta erregelamenduaren garapen gisa —Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea eta hori garatzen duen erregelamendua—.

Ordenantzaren 2. artikuluan udalaren eskumena ezartzen dira eta, hor xedatutakoaren arabera, udalari dagokio horiek betetzen direla kontrolatzea, beharrezkoak diren prebentzio, zuzentze eta/edo konpontze neurriak har daitezten eskatzea, mugak ezartzea, beharrezkoak diren ikuskaketak erabakitzea eta, ez-betetzeak gertatzen direnean, zehapenak jartzea.

Kasu honi dagokionez, udalak ez zuen modu eraginkorrean ekidin zarata eragiten zuen jarduerara, eta ez zuen modu eraginkorrean eskatu zaratak ekiditeko behar ziren konponketak egin zitezten; beraz, antolamendu juridikoak gai honetan ezartzen dituen betebeharrei itzuri egin zitzaion eta defentsa gabezia utzi zuen kaltetutako auzoa. Zarata mailari buruzko frogara argi eta garbiak zeuden kasu honetan, eta egiaztatua zegoen baimendutako mailak aise gainditzen zirela, hau da, aplikatzekoak ziren arauak hausten zirela.

Udalak, 2003ko martxoaren 10eko idazkian, argiro adierazi zuen zergatik ez zuen jardun; idazki horretan, “biderik egokiena” zein zen aholkatu zion kaltetuari; horrela, garajeak eraiki zituen enpresa eraikitzailearen aurkako akzio zibilak erabiltzeko aholkua eman zion, ohartarazi baitzion administrazio bidea denentzat izanzen zela kaltegarria, garajeak itxi beharko baitziren komunitateak arazoa ez bazuen konpondu nahi.

Egin beharrekoak iruditzen zitzaizkigun zehaztapen horiek oinarri, eta perituaren informeari itzuri egin nahi zitzaionez –zaratak 38 dezibelekoak ziren–, azpimarratzen dugu afera hori zuzenki lotuta dagoela Espainiako Konstituzioko 15. eta 18.1 eta 18.2 artikuluetan babestutako eskubideekin; izan ere, herritar guztiak dute bizitzeko eta osasun fisiko eta morala izateko eskubidea (15. artikulua), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 artikulua) eta bizilekuaren bortxaezintasunerakoa (18.2 artikulua). Gai honetan, Espainiako jurisprudentziak bere egin du erabat Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik sortzen dena, doktrina hori baita, nazioarteko tratatu eta akordioekin batera, Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubide eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko oinarria, 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Halatan, ondorioa da ezen, herritarren osasuna larri kaltetzen duen neurrian, norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubideari eskaintako babes bera eman behar zaiola zarata eta eragozpen jasanezina luzaroan pairatzen duenari, are gehiago zarata eta eragozpen horiek neurri zuzentzaile egokiak hartuta ekidin badaitezke.

Horiek horrela, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin genion Tuterako Udalari, eraginkortasunez erabil zitzan antolamendu juridikoak gai honetan esleitzen dizkion udal eskumenak, eta legeek eta erregelamenduek jarduera sailkatuentzat ezarritako soinu mailaren mugak errespetatuz, eta errespetarazi, kexa horretan salatutako jarduerari zegokionez.

Azkenik, Tuterako Udalak txosten bat igorri zuen esanez itxaroten ari zirela zer erabakitzen zuen Santa Ana etorbidea, 7-9ko garajeen eta trastelekuen jabeen hurrengo batzarrak; udalak jabeen komunitateari dei egin zion zaraten arazoa lehenbailehen konpon zezan. Txostenarekin batera, zinegotzi delegatuaren ebazpen baten kopia igorri zuen udalak, non komunitateari ohartarazten baitzitzaion 601,02 euroko zehapenak jar zitezkeela hilero, arazoa konpondu bitartean.

Ondorioz, gure ustez, udala gure oharren bideetik ari zen jarduten, aplikatzekoa den araudia betetzeko eskatzen hain zuzen; horrenbestez, interesdunari helarazi genion informazioa, arazoa ez bazen konpontzen, berriro ere guregana jo zezan nahi bazuen.

JARDUERA BAT BEHARREZKO LIZENTZIARIK GABE GAUZATZEA.

Kasu honetan (03/25/M espediente), kexa Ablitaseko hiri-lurzati baten jabeak aurkeztu zuen, ondoko finkan jarduera sailkatuaren lizentziarik gabe ari zirela eta; kexa-egileak, gainera, lurzati horretan zuen etxebizitza.

Aurkeztutako idazkian esaten zigunez, sei urte zeramatzan kale horretan bizitzen, eta denbora horretan [...] jaunak udalarenak ziren zenbait lurzati erabili izan zituen eraikuntza-materialen biltegi gisa.

Lursail horien erabilera desegokia zela-eta interesdunek aurkeztutako salaketak ikusirik, Ablitasko Udalak 2000ko azaroaren 27an [...] jaunari agindu zion materialak kentzea eta garbitu zitzala lurzati horiek; 2001eko martxoaren 20an, aurrekoa betearazteko agindua eman zuen. Une horretan, salatuak eraikuntzako material eta makina guztiak kaltetuaren ondoko lurzatiara eraman zituen, beste partikular batena baita, eta han jarraitu zuen, jarduera sailkatuaren lizentziarik eta irekitzeko baimenik eskatu gabe.

Esan zigutenez, 2002ko urriaren 9an, enpresa eraikitzailearen jarduera areagotu zela-eta, beste salaketa bat aurkeztu zuten Ablitasko Udalean, eta, horren ondorioz, Alkateak ebazpena eman zuen 2003ko urtarrilaren 13an, [...] jauna premia-tuz jarduera sailkatuaren lizentzia, eta, gero, irekitzekoa, tramita zitzan; eta, behar zen baimena izan arte, material gehiago biltzea debekatu zuen. Era berean, aipatutako ebazpenean xedatzen zenez, bilduta zuena kendu baizik ezin zuen egin; hori bai, garraibide astunik eta makina zaratatsuegirik erabili gabe.

Hala ere, kexa-egilea jarduera legeztatzearen aukera horren aurka zegoen; haren iritziz, eraikuntzako materiala biltzea eta makina astunen zirkulazioa ez da bateragarria eremu hori "bizitegitarako" izatearekin.

Horregatik, jarduera horrekin jarraitzen ez uzteko eskatu zuen, eta udalak hark herritar gisa dituen eskubideen alde egin zezala, hori baita legeak ezartzen dion betebeharra.

Ablitasko Udalak gai horri buruzko espediente igorri eta agiri hauek helarazi zituen:

Interesdunak 2000ko irailaren 22an aurkeztutako eskaria, non salatzen baitu "bizitegitarako" diren lurzatiak eraikuntzako materiala biltzeko eta makina astunak aparkatzeko erabiltzen ari direla.

Udalak [...] jaunari 2000ko azaroaren 27an eginitako errekerimendua, non lurzati horietatik erai-

kuntzako materialak eta hondakinak ken zitzan premiatzen baitzitzaien.

2000ko abenduaren 4an [...] jaunak aurkeztu zuen alegazio idazkia; lurzatiak material horiek uzteko erabiltzen zituela justifikatu zuen esanez eskatu zuela udalaren lursail bat horretarako eta ez zitzaiola erabiltzen utzi.

Interesdunak 2001eko urtarrilaren 18an aurkeztutako idazkia, non Udalari berriro eskatzen zion behar ziren neurriak har zitzala, indarreko legediarekin bat, arazoa konpontzeko.

Udalak 2001eko martxoaren 20an emaniko ebazpena: [...] jaunari jakinarazi zitzaion orubeak 15 eguneko epean garbitu behar zituela, eta ohar-tarazi zitzaion ez bazuen bere borondatez egiten, ordezkotza prozedura jarriko zela abian, bere kontura. Ebazpen hori [...] jaunari ere helarazi zitzaion, orubeetako baten jabea baitzen, eta kexa-egileari.

Lurzati horiek erabiltzen ari zen pertsonak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa. Alkateak 2003ko apirilaren 15ean emaniko ebazpena, aurreko errekurtsoa ezetsiz.

ANALISIA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, [...] jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ebaztean udalak izaniko atzerapena azpimarratzen dugu; izan ere, errekurtsoa 2001eko martxoaren 20an aurkeztu zen eta 2003ko apirilaren 15ean ebatzi zen, hau da, bi urte pasatxo geroago.

Hori dela-eta, gogorarazi behar dugu Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez eman zitzaion testuan, 42. artikuluan hau diola: "administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere." Lege bereko 117.2 artikulua, halaber, udalak hilabeteko epea zuela ezartzen du berraztertze errekurtsoa ebazteko.

Aurreko arauak irakurtzea nahikoa da ondorioztatzeko Ablitasko Udalak laster erantzun behar ziola jarritako errekurtsuari, erreklamatzailerak kexan aurkeztu duen funtsezko kontua ebazteko bi urte pasatzen utzi gabe. Konstituzioaren egileak administrazioaren jarduketari ezarri zien lehen printzipioa (Espainiako Konstituzioko 103. artikulua) eraginkortasunarena izan zen, eta horrek esan nahi du, bistan da, interesdunek gauzaturiko prozedurak eta eskaerak espresuki, modu arrazoituaren eta behar den epean ebatziz amaitu beharra dagoela.

Kasu honetan, argi eta garbi zegoen administrazioaren atzerapenek mesede nabarmena egin diotela lege kanpoko jardueraren titularrari; hark, izan ere, udalaren pasibotasunari esker, eraikuntzako materialak eta makinak gordetzen jarraitu ahal izan du inongo espedienterik tramitatu gabe eta udal lizentziarik izan gabe, hori dena, gainera, auzoen kaltetan, 2000. urtetik behin eta berriz eskatu baitziote udalari jarduera horren aurkako legezkotza neurriak har ditzan.

Aurkeztutako gai nagusia aztertzen hasita, iritsi genuen ondorioa izan zen eraikuntzako materialak eta makinak gordetzea jarduera sailkatuaren kontzeptuaren barrenean zegoela. Horrela, Ingurumena babesteko jardura sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 2.1.f) artikulua ezartzen duenez, "erregaiak, objektuak edo materialak biltzeagatik sute edo eztanda arriskua duten jardura eta instalazio oro sailkatutzat joko dira."

Lege hori garatu zuen Erregelamendua, otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, 2. artikuluan xedatzen zuenez, objektuen eta materialen biltze jarduerak ez daude arau horien aplikaziotik salbuetsirik, 300 metro koadro baino gehiago behar badituzte, isolatuta egonez gero, edo, gainerako kasuetan, 150 metro koadrotik gora behar badituzte; beraz, begi-bistakoa da, helarazi zaizkigun datuekin, jardura hori legearen arabera gauzatzen hasi aurretik beharrezkoak direla jardura lizentzia eta irekitzeko lizentzia.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak horrelakoa "jardura klandestinoak" direla esan du, lizentziarik gabe eta arau kanpo gauzatuak, eta inola ere ezin direla zilegi edo legezkotza bihurtu denboraren joan hutsarekin (1986ko uztailaren 18ko epaia, 1987ko maiatzaren 5eko epaia eta 1995eko uztailaren 4ko epaia, besteak beste).

Auzitegi Gorenak administrazio publikoei horrelako jarduerak eteteko eskatzen die horien berri badute, non eta ez den posible horiek legeztatzea behar den espedientea tramitatu; izan ere, lizentziaren bidez eskumen hau gauzatzen dute: herri-tarrentzat edo ingurumenarentzat gogaikarriak, osasungaitzak eta arriskutsuak izan daitezkeen ustiatzearen ingurumen kalitatea zaintzea. Administrazioaren ardura ez da lizentzia ematean amaitzen: etengabeko ardura da. Horrela, lizentzia eman ondoren eragin kaltegarriak atzematen badituzte, neurri zuzentzaileak ezar ditzakete. Beraz, hasieratik lizentziarik gabe gauzaturiko jardura batez ari garenean, ez dago eskuratutako eskubideez hitz egiterik, ezta jarduerari buruzko tolerantziaren edo jardueraren behin-behinekotasunaz ere (1998ko urriaren 20ko epaia).

Era berean, gertakari horiek izan zirenean, Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aplikatzeko zen, zeinak 224. artikuluan xedatzen baitu lursailen, ekimen partikularreko urbanizazioen eta eraikinen jabeek kontserbatzeko betebeharra daukate-la, eta eraikinak segurtasun, osasungarritasun eta txukuntasun baldintzetan eduki behar dituztela, ingurumenaren babesari, ondare babesari eta hiri errehabilitazioari buruzko arauak lotuz; halaber, udalak baimentzen ditu baldintza horiek kontserbatzeko behar diren obrak egin daitezela agintzeko, bere kabuz nahiz edozein interesdunek eskatuta, burutzeko epea ere adieraziz.

Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Lege berriak ere, 10/1994 Foru Legea indargabetu eta martxoaren 27an hartu baitzuen indarra, mota guztietako lur eta eraikinen jabeek betebeharra ezartzen die segurtasunari, osasungarritasunari, apaintasun publikoari eta bizigarritasunari dagokien lurrak eta eraikinak behar den egoeran mantentzeko, kasuan kasuko xedearen arabera, behar diren lanak eginez egoera hori kontserbatu edo konpontzeko. Lege berri horretako 195. artikuluan ezartzen duenez, udalak, bere kabuz edo interesdun batek eskatuta, exekuzio aginduak eman ditzake, ondasun higiezinak jabeak 87. eta 88. artikuluetan ezarritako beharrak, hots, ondasun higiezinak erabili, kontserbatu eta zaharberritzekoak eta inguruneari egokitzekoak, betetzeko behar diren neurriak hartzera behartzeko. Exekuzio agindu bat ez betetzeak eskubidea ematen dio udalari exekuzio subsidiarioaren bitartez jarduteko.

Begi-bistakoa zen, beraz, Ablitasko Udalaren betebeharra zela jardutea eta legea bete zedin eskatzea. Nahiz eta ikusten zen udalak ustiapenaren titularrari eta lurzatiaren jabeari eskatua ziela materiala biltzen zuten orubea garbi eta txukun utz zezatela, horiek ez zuten kasurik egin, eta, horrenbestez, udalak berehala jardun behar zuen salatutako egoerarekin amaitze aldera. Udal administrazioak ezin dio arazoari itzuri egin ezer egin gabe denbora pasatzen utziz; legeak ezartzen dion betebeharra ez betetzea da hori, eta ez dator bat antolamendu juridikoarekin.

Hori horrela, Ablitasko Udalari LEGEZKO BETE-BEHARREN GOGORARAZPENA egin zitzaion, lursailaren jabeari eta jardueraren titularrari eska ziezaien legezko betebeharrak bete zitzatela, hau da, lurzati garbi eta osasun-egoeran izan zezatela; udalari esan zitzaion bestela berehala betearazi beharko zituela berak emaniko ebazpenak, legeak nahitaezko betearazpenerako aurreikusitako bitartekoak erabiliz horretarako.

Alkate udalburuak helarazitako erantzunean jakinarazi zigunez, jarduera bertan behera utzi zuten, eta, horrela, sortutako arazoa konpondutzat har zitekeen; horren berri eman genion kexa-egileari.

INGURUMEN OSASUNA

HIRIGUNETIK GERTU ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK EGOTEA.

Kasu honetan (02/224/M espedientea), kexa Ablitasko zenbait bizilagunek aurkeztu zuten: haien etxeetatik gertu, Ablitasko hirigunean bertan, zenbait granja omen zeuden, zerrienak eta hegaztienak bereziki, eta auzoentzat gogaikarriak gertatzen omen ziren zenbaitetan.

Ziotenez, zenbait alditan salatua zuten hiru ustiategi legez kanpoko egoeran zeudela, baina ez omen zen inongo neurririk hartu instalazio horiek ixteko, nahiz eta ustiategi horiek, kaltetuen arabera, arauk eskatutako higieze eta osasun baldintzak eta ingurumenaren arloko baldintzak ez zituzten betetzen; SEPRONAK eginiko zenbait txostenetan ere hori agertzen zen –udalean hori dela-eta bost salaketa jarrita ditu SEPRONAK–.

Ablitasko Udalak, gure eskariari erantzunez, kasuarekin zerikusia zuten zenbait agiri igorri zituzten, eta horietatik gertakari hauek ondoriozta zitezkeen:

2001eko abuztuaren 27an, herriko bizilagun batzuek sinatutako idazki bat jaso zen udaletxean, “Biltegien aldean” dauden biltegiei eta abeltzaintzako ustiategiei buruzko informazioa eskatuz –alde hori Ablitasko arau subsidiarioetan araututa dago–. Era berean, jarduera lizentziarik ez zuten granjak eta beharrezkoak diren neurriak –higieze eta osasunekoak nahiz ingurumen arlokoak– betetzen ez zituzten granjak udalaren lursail egokietara eramanean zitzaten nahi zuten. Geroago, salatutako ustiategietako jarduera behin-behinekoz geldiaraz zezaten eskatu zuten.

2001eko urriaren 1ean, Ablitasko Udalak administrazio espedientea jarri zuen abian, instalazio horietan gauzatzen ziren jarduerari buruzko datuak jasotze aldera, lizentziak eta interesgarria izan zitezkeen beste edozein datu alegia; horrela, abeltzaintzako ustiategiak zeintzuk ziren jakin ahal izan zen eta Ablitasko arau subsidiarioetako “Biltegien aldean” zeuden zenbait eraikinetan zer jarduera gauzatzen zen ere bai. Jasotako informazioa aztertuta, ikusi zen hiru ustiategi zeudela legeztatu gabe, eta gainerakoek bazutela irekitzeko lizentzia, edo ez zutela inolako jarduerarik.

Udalak, 2001eko azaroaren 12an, jarduera lizentziarik ez zuten abeltzaintzako ustiategien titularrei jakinarazi zien ez zutela jarduera lizentziarik, 2003ko abuztuaren 7an itxi egin beharko zutela eta, bitartean, justifikazio tekniko bat aurkeztu beharko ziotela udalari horrelako jarduera gogaikarri eta osasungaitzek beharrezkoak dituzten higie eta osasun neurriak eta ingurumenaren arloko neurriak betetzen zituztela egiaztatzeko. Halaber, era horretako jarduerak ezartzeko egokiak ziren lursailletara joateko aukera ematen zitzaizkien.

2002ko martxoaren 27an, ukitutako titularrek alegazioak eta txostenak aurkeztu ondoren, udalak ustiategiak ixteko eguna berretsi zuen, 2003ko abuztuaren 7a alegia, eta gogorarazi zien egun horretara arte bete behar zituztela higie eta osasun neurriak eta ingurumenaren arloko neurriak, auzoei eragozpenik ez sorrarazteko. Halaber, horrelako jardueretarako egokiak ziren lursailak eskaini zizkien berriro ere. Udalak, egindakoak egiteko, "Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A." entitateak emaniko txostena hartu zuen oinarri besteak beste; txostenean aldeko iritzia agertzen zen legezta gabeko abeltzaintzako ustiategien egoerari buruz eta auzoei gogaikarri ez gertatzeko hartutako higie neurriei buruz.

Era berean, Sepronako agenteen jarduketan berri ematen zitzaion udalari; horiek salatu zuten, zerbait ustiategitan ez zegoen abeltzaintzako ustiategiaren liburua eta botika bidezko tratamenduen liburua, eta, hori oinarri, foru administrazioak diziplina espedienteak jarri zituen abian.

ANALISIA

Prozedura honetako aldeek aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuta, zenbait zirkunstantzia bereziki azpimarragarriak iruditzen zaizkigu.

Ohartu gara, lehenik, etxebizitzak granjak baino lehenago eraiki zirela. Herriko arau subsidarioak aztertuta, 1990ean onetsi baitziren, ondorioa da San José Alta eta Baja kaleetako etxebizitza blokeak –granjek kaltetzen dituztenak– granjak baino zenbait urte lehenago eraiki zirela; izan ere, 1970eko plano historikoan ageri dira jada. Erreklamatuzaileek dioten moduan, 1961. urtean-edo eraikita egonen ziren. Granja edo abeltzaintzako ustiategiak, aldiz, geroztik eraiki ziren; lehenbizikoz, herriko 1982ko planoan ageri dira. 1984ko planoan, hegazti-granja gisa ageri dira. Ustiategiak, hala ere, aipatutako arauak hirilurra dela dioen lurretan daude eraikita; arau horiek, gainera, berdin granjatarako edo nekazaritzako biltegitarako erabiltzeko baimena ematen dute.

Bigarrenik, ustiategiak baimenik gabe ireki ziren; jarduera sailkatuak diren aldetik, nahitaezkoak eta saihestezinezkoak diren baimenak gabe, hain zuzen. Inon ez da ageri auzoek gehien salatzten dituzten ustiategiek garai bateko lizentziarik dutenik, hau da, jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen lizentzia; izan ere, 1989ra arte, Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea onetsi arte hain zuzen, Nafarroan Jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen Erregelamendua aplikatzen zen, eta eskatua behar zuten lizentzia hori. Udalak ere, establezimendu horiek irekitzeko, ez zuen espedienterik tramita zedin eskatu, harik eta kaltetutako auzoek jarritako salaketan ondorioz abian jarri behar izan duen arte.

Zalantzarik gabe, jarduera horiek gogaikarritzat jo behar dira, eta, horrenbestez, berariazko espediente ireki behar zen, obra lizentziaz gain; izan ere, 1961etik aurrera jada, Jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen Erregelamendua, erantsitako nomenklatorrean, gogaikarritzat jotzen zituen. Geroztik, horrelako jarduerak Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen menpe gelditu ziren (2.1e artikulua), pertsonentzat gogaikarriak gerta baitaitezke.

Aurrekoak oinarri, aipatu beharra dago, baita ere, ustiapenak ezarri zirenean aplikatzekoa zen araua, Nafarroan, Jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen Erregelamendua zela, eta erregelamendu horren arabera, 10.000 biztanle baino gutxiagoko landa herrietan uzten zen horrelakoak egon zitezten (13. artikulua). Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, orain gutxi, arau horren baliozkotasuna, onartu, onartu du (RJ 3959/1980, 5703/2000, 7897/2000 eta 2057/2002), baina neurri zuzentzaileak eskatuz instalazioen ondoriozko eragin kaltegarriak eta gogaikarriak arintze aldera. Hala ere, horrelako granjek nahitaez behar zuten jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen baimena; espediente hori Ablitasko Udalean tramitatu behar zen, eta, edonola ere, neurri zuzentzaileak jarri behar zitzaizkien.

Gero, Nafarroako Gobernuak uztailaren 24ko 188/1986 Foru Dekretua eman zuen, abeltzaintzako ustiategien higie eta osasun baldintzak eta ingurumenaren arloko baldintzak ezarri zituen. Arau horrek etxeko tegien eta abeltzaintzako ustiategien araubidea bereizten du, abelburu kopurua araberaren arabera, eta landa guneak –300 biztanle baino gutxiago dituztenak– eta hiri guneak ere –biztanle gehiago dituztenak– bereizten ditu.

Hiri guneetan dauden ustiatzei dagokienez, kexa honetakoak kasu, 7. artikuluan hau esaten da: jarduera lizentziarik ez dutenek desagertu egin beharko dute hiri guneetatik, 15 urteko epean gehienez ere, eta hori ez da eragozpen izanen neurri zuzentzaileak eskatzeko; bitartean, ez da abelburu kopurua handitzen utziko. Ustiatzei berriek, 8. artikuluan arabera, hiri guneetatik 100 eta 1000 metro bitarte –herriaren arabera– egon behar dute. Gero, irailaren 24ko 268/2001 Foru Dekretuan, epea 2003ko abuztuaren 7ra bitarte luzatu zuen; Ablitasko Udalak ustiatzei titularrei gogorazazi die egun hori dutela jarduera eteteko epe-muga.

Beste arau batzuk oinarri hartuta, Ablitasko Udalak espedientea abiarazi zuen eta interesdunei entzunaldia eman zien, nahiz eta esan behar den hasieratik tramitatu behar zuela jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen espediente, edo, geroztik, jarduera sailkatuen espediente, eta ez zuela utzi behar zenbait hamarkada pasatzen ezer egin gabe, auzoek salaketa jarri arte. Hala ere, espediente bat tramitatu eta ebatzi badu ere, ohartu gara ez dela osasun zerbitzuen inongo esku hartzerik ageri, eta horiek dira txostena egin behar zuten instalazioen osasungarritasunari eta herritarrentzat izan ditzaketen eragin kaltegarriak buruz, hala agintzen baitu 32/1990 Foru Dekretuko 6.b)3 artikulua (Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea garatzen du). Arau horrek jarduera lizentziak emateko prozedura arautzen du, eta nahitaezkoa ez bada ere zehazten duen formula jarraitzea –izan ere, kasu honetan ez zaie abeltzaintzako ustiatzei baime-na eman behar, baizik eta neurri zuzentzaileak ezarri–, bai da nahitaezkoa zehatz jakitea granja horiek hor egoteak giza osasunarentzat arriskurik ba ote dakarren, eta hori osasun arloko profesionalen beste inork ezin du neurtu. Ondorioz, beste teknikari batzuek eman dituzten txostenez gain, nork bere lanbidearekin zerikusia duten gaiei buruz eman baitu txostena, nahitaezkoa da udalak behar bezala egin dezan espedientearen instrukzioa, eta udalaren osasun zerbitzuaren txostena ere gehitu dezan edo bertako oinarrizko osasun laguntzako ekipoena; behar izanez gero, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari ere eska dakioke hori egiteko.

Udalak txosten horiek ikusita jardun beharko du: ustiatzeiak bere horretan utzi beharko ditu baldin eta horiek ez badira kaltegarriak edo gogaikarriak auzoentzat, legeak titularrei negozioarekin jarrai dezaten uzten baitie aipatu ditugun mugekin; edo bestela neurri zuzentzaileak ezarri beharko dizkie, eta, hori ezinezkoa balitz, granjak ixtea

agindu beharko luke horiek bateragarriak ez izate-agatik bizitegiekin.

Komenigarria litzateke, bestalde, udalak zenbait ekimen abian jartzea ez dadin berriro jarduerarik izan jarduera utzita duten granja horietan, eta, horretarako, hau da, ez dadin berriro abian jar abeltzaintzako jarduerarik, eta lizentzien eskualdatzeak ekiditeko, jarduera lizentziaren iraungipena deklaratu behar du, Jarduera sailkatuei buruzko Erregelamenduko 19. artikulua ezarritakoari jarraikiz, horretarako baldintzak betetzen badira betiere, eta interesdunak entzunda.

Gaur egun jarduerarekin jarraitzen duten abeltzaintzako ustiatzei dagokienez, egokia litzateke hirigunetik irten daitezen sustatzea, lursailak eskura jarri eta beste neurri batzuk hartuz, negozio horien titularrek irtenbide egokia izan dezaten, ondarean kalterik izan gabe; horrela, modua egonen litzateke planeamenduan aldaketak egin eta hiri gunean bizitegiekin bateragarriagoak diren erabilerak soilik egon daitezken. Egungo hirigintzaren arabera, ez dirudi egokia planeamenduak bidea ematea, Ablitasen tamainako herrietan, gune bat aldi berean abeltzaintzarako eta bizitegi-etarako erabilia izan dadin.

Horiek horrela, Ablitasko Udalarik GOMENDIO bat egin zitzaion: lehenbailehen eska ziezaiela osasun zerbitzuei txostena egin zezaten, jakiteko zer eragin izan zezaketen granja horiek auzoen osasun-ean. Era berean, iradokizun bat ere egin genion; hain zuzen ere, emaniko jarduera-lizentziak iraungitzeko prozedurak abian jar zitzala, eta ezar zitzala behar ziren neurriak, ustiatzei horiek bizitegi-etarako gunetik irtetea sustatzeko.

Udal horri helarazitakoak gorabehera, eta erantzunaren zain geunden bitartean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzura jo genuen, horri buruz eginiko txostena ezagutzeko.

Txosten horretan, xehetasunez aztertzen zen salatutako ustiatzei bakoitza, bai eta kaltetutako auzoek aurkeztutako kexak, eta, amaieran, titularrei ezarri beharrezkotzat jotzen ziren neurrien zerrenda ematen zen. Argiago gera dadin, txostenaren arabera ezarri beharrezkoak ziren neurri zuzentzaileak hitzez hitz ekarriko ditugu hona:

“Ekoizpen prozesuan gogaikarrienak diren lanak egiten ari ziren unean ustiatzei-etarako eginiko hiru bisiten ondoren, zerbitzu honek, 16/1986 Foru Legeko 18. artikuluan arabera, nahitaezkotzat jotzen du neurri hauek har daitezken, ustiatzei-eko auzoengan duten eragina murrizte aldera:

[...] granja, 2 A granjan, aurreko atea ixtea eta abereen irteera eta zamalanak etxebizitzetatik urrunen dagoen fatxadako atetik egitea. Horrela, hautsa, lumak eta auzoek izaten dituzten usainak gutxituko lirateke.

[...] granja, 2 B granjan, instalazio egokiak dituela iruditzen zaigu. Granja eta etxebizitzak bereizten dituen lur puska, gainera, garrantzirik gabeko lur puska bat da, era askotako hondakinak uzteko erabiltzen dena.

[...]-ren granja, 3. granja, gogaikarriena da, hori baita etxebizitzetatik gertuen dagoena. Nahitaezkoztat jotzen dugu abere guztien zamalanak, hondakinen ateratzeak eta abar, bi solairuetakoak, etxebizitzetatik urrunen eta finkaren irteeratik gertuen dagoen fatxadatik egitea. Horrek esan nahi luke ate bat ireki beharko litzatekeela bigarren solairuan. Estraktoreak estalkian jarri beharko lirateke edo etxebizitzetatik urrunen dauden fatxadetan, haize nagusien norabidean. Iparraldeko fatxadan uzten bada, emisioak estalkiaren gainetik eginen dira, tximinien bidez.

Zerri granjari dagokionez, 1. granja, gomendagarria deritzogu udalak jabeari iradoki diezaiola ustiategia lurzatiko beste nabe batera (trastelekura) eraman dezala, hutsik eta etxebizitzetatik urrunago baitago; izan ere, barruko instalazioak oso xumeak eta eramaten errazak dira. Era horretan, auzoei heltzen zaizkien usainak gutxiagotu litezke, nahiz eta ez zaigun iruditzen granja horrek usain gehiegirik eragiten duenik, horrelako granjek izaten dituzten usainak kontuan hartuta.

Neurri zuzentzaile horiek eskatuz, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak nahi duena da abeltzaintzako ustiapen horiek egokitu daitezela horrelako jarduerari aplikatu beharreko araudira.

Horregatik, neurri horiek beteta bermatuta dago, gure ustez, ingurumen arloan bete beharreko gutxienekoetara egokituta daudela granja horiek, eta, beraz, utz daitezkeela dauden lekuan 2003ko abuztuaren 6ra arte; izan ere, epea luzatu zen, baina 188/1986 Foru Dekretuko higie eta osasun neurrien betetzea eskatzeari eragozpenik jarri gabe. Egun horren ondoren, zirkunstantzia hori aurreikusi beharko duen araudia onetsi gabe dagoenez, ez dago esaterik granja horiek leku horretan jarraitu ahalko duten.

Baina, Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean ezartzen denaren arabera, udalak dira, jarduera sailkatu baten lizentzia ematerakoan edo hark jarrai dezan uzterakoan, beharrezkotzat jotzen dituzten eskakizunak edo/eta neurri zuzen-

tzaileak ezar ditzaketenak, aintzat hartuz jarduera sailkatu bakoitza eta hari lotutako arazoak.

Kasu honetan, Ablitasko Udalak, aipatutako ingurumen neurriez gain, egoki deritzon beste edozein neurri ere hartzen ahal du, kontuan hartuz granjak San Joséko etxebizitzetatik gertu daudela eta hirigintza arazoen iturri dela etxebizitzetarako lurzorua eta abeltzaintzako jardueretarako erabiltzen dena hirigintza unitate berean egotea. Gainera, egin beharreko egiaztapen teknikoak egin eta ondorioztatzen bada granjen jarduera eten behar dela auzoei eragiten zaizkien kalteak direla-eta, eten daiteke; hala erabakiz gero, abeltzaintzako jardueren etena eskatu eta betearaziko da.

Azkenik, udalak kontuan izan beharko du ezen San José auzoko granjen eta gertueneko etxebizitzeten arteko tartea askoz txikiagoa dela granja berrientzat araudiak eskatzen duena baino, eta horrek arazoak eragiten dituela.

Bestalde, Ablitasko San José auzora eginiko bisitetan, departamentu honetako teknikariek tamaina handiko hondakinak ikusi dituzte inguruan, eta, horrenbestez, udalari gonbidapena egin zaio, dituen eskumenak erabiliz ingurua garbitu dezan.”

Ondorioz, txosten tekniko horrek kexaren gaiari buruzko iritzia ematen zuenez, GOMENDIO bat ere egin genion Ablitasko Udalari: granjen jabeei txostenean adierazitako neurri zuzentzaileak ezar ziezakiela, eta tamaina handiko hondakin solidoak, horiek ere aipatzen baitziren, ken zitzala inguru horretatik.

Udalari ohar horiek helarazi ondoren, Ablitasko alkateak emaniko zenbait ebazpen jaso genuen, non abeltzaintzako ustiategien titularrei eskatzen zitzairen ezar zitzatela Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak gai horri buruz eginiko txostenean aipatutako neurri zuzentzaileak. Partikularrei berriro adierazi zitzairen granja horiek jarduera erabat eten behar zutela 2003ko abuztuaren 6tik aurrera.

Ondorioz informazio hori jaso genuela adierazi eta, eskaera horien emaitzen eta udalak ondoren eman beharreko informazioaren zain geratzeaz gain –espedienteari amaiera emateko–, jakin nahi izan genuen ea udalak aurrerabiderik egin ote zuen granjen eraginpeko inguruaren antolamenduari buruzko azterketan, eta, orobat, abeltzainen eta udalaren artean elkar ulertzeko formulak aurkitzeko zer bide egon zitezkeen; horrela, ustiapenen egoera eta kokalekua behin betikoz hobetuko litzateke, eta gaur egun granjak kokaturik dauden bizitegi auzoaren hiri-ingurumena irmotasunez babes-

tuko litzateke, arazoa erabat konpontzeko modu bakarra baita konponbidea ukitutako pertsonekin batera kudeatzea.

Granjei neurri zuzentzaileak ezartzeko egiten ari zen jarraipenaren berri eman ondoren –Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak gomendatutako neurriak– eta Osasun Departamentuak txostena noiz emanen zuen zain zegoela, udalak jakinarazi zigun, era berean, granjen jarduera sailkatuei buruzko espedienteak osatze aldera VINSA sozietate publikoarengana jo zuela, hirigintza antolamendu berri baten bidez konponbide bat bilatzeko aipagai dugun inguruan eta, horrela, arazoa konpontzeko, ahal zen neurrian.

Ondorioz, egiten ari den kudeaketen emaitzei buruz udalak igorriko digun informazioaren zain gaude, konponbide egoki bat zehaztu eta espediente artxibatu aurretik.

HARROBIETAN GAUZATUTAKO JARDUERA.

Gai honi buruz aurkeztu zitzaigun kasuetako batean (01/290/M espediente), Olaztiko hirigunetik gertu dauden harrobietan aspalditik egiten diren leherketa bortitzak aipatzen zituen kexa-egileak, herriko etxeetan kalte larriak eragiten ari baitira; pitzadurak, hala etxeen fatxadetan nola barrualdeetan, elementuen hausturak, etab.

Interesdunaren arabera, udalean, banaka, kexa ugari aurkeztu izan dira, baina ez dute erantzunik izan. Horrenbestez, herriko biztanleen artean sinadurak bildu eta udalera jo zen arazoaren konponbidea eskatuz; seihun sinadura inguru aurkeztu ziren leherketak txikiagoak izan zitezen, eragiten ari ziren kalteak ikusita.

Aurkeztutakoa ikusita, udalera jo genuen jakiteko harrobi horien jardueraren baimenak zer baldintza zituen eta baldintza horien –edo ingurumen arloko araudiaren arabera bete beharrekoak diren baldintzen– betetzeari buruzko zer jarraipen eta egiaztapen egiten zituen udalak; leherketen eta etxebizitzek izandako kalteen artean kausa-efektu erlaziorik ba ote zen adierazteko daturik lortu bazen jarraipen eta egiaztatze lan horretatik, datu horiek helarazteko eskatu zitzaion udalari.

Lehenbiziko erantzunean, udalak jakinarazi zigun horri buruzko txosten bat eskatua zuela, epe adierazgarri batean eginiko jarraipena oinarri izan zuten zuek. Udalak zioen, txosten horiei buruz, izan bezain laster emanen zizkiela ezagutzera Olaztiko herritarrei, eta arartekoaren esku ere utziko zituztela nahi izanez gero.

Txosten horiek eskatuta, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Departamentuak eginiko azterlana igorri zigun, non ondorio hauek ageri baitziren:

“2002ko urtarriletik 2002ko maiatzera bitarte [...] harrobien eginiko leherketek eragin dituzten immisio mailak UNE 22-381 arauak eta DIN 4510 arauak maiztasun kaltegarrienerako (<15 Hz) eta edozein egitura motatarako proposatutako mugabaliok baino txikiagoak dira. Beraz, leherketa horiek ezin dute Olaztiko egituretan inongo kalterik eragin.

2002ko urtarriletik 2002ko maiatzera bitarte [...] harrobien eginiko leherketek eragin dituzten aire-uhinen immisio mailak txikiagoak dira US Bureau of Mines-en RI 8564 arauak (Siskind eta Summeren irizpide ere deitzen zaio) proposatutako mugabaliok baino. Beraz, leherketa horiek ezin dute Olaztiko egituretan inongo kalterik eragin.

EHUko Meatze Ingeniaritzako Departamentuak ezin du ziurtatu leherketen diseinuak (karga eragingarriak, tiro-laukia, pizte-eskema, etab.) benetan erabili direnak direnik. Horregatik, ezin da ziurtatu bibrazio balio eta aire-uhinen balio horiek direnik Olaztiko egiturek jasan dituztenak [...] harrobiaren ustiatze-aldi guztian, hau da, azterlan honek hartzen ez dituen aldietan.

Hori argitzeko, [...] ustiategitik gertuen dauden lekuetan neurketa puntualak egin behar dira sistematikoki, alde zuzenetik ohartarazi gabe.

Leherketen diseinuari buruzko gomendioei dagokienez, nabarmendu behar da, erregistratutako bibrazio mailak eta aire-uhinen mailak kontuan hartuta, ez dela beharrezkoa diseinuan inongo aldaketarik egitea. Hala ere, EHUko Meatze Ingeniaritzako Departamentuaren iritziz, parteetan jasotako leherketen diseinua alda daiteke, leherketak eragindako bibrazioaren eta aire-uhinen maila txikiagoa izan dadin. Horretarako, gomendagarria litzateke karga eragingarriak gutxitzea abiarazte sistema ez-elektrikoak erabiliz, lehergailu baten eta bestearen arteko irteera denboren aldea 17tik 25 milisegundora baino handiagoa izan dadin saiatuz.”

Halaber, idazkian azaltzen zitzaigunez, azken gomendio hori gutxi gorabeherakoa zen, zehatz aztertu behar bailitzateke ezarri aurretik.

Aurrekoaren ondorioz, neurketak egiten jarraitzearen komenigarritasunaren ondorioz hain zuten –ohar hori egiten zuten txostenak–, Olaztiko Udalera jo genuen berriro ere; horri buruz zer jarraipen egiten zen jakin nahi genuen, eta adieraz ziezagutela zer neurri hartu zituzten eta neurketa horiek zer

egunetan egin ziren. Gainera, informazioa eskatu genuen, begi-bistakoa zenez eginkizun horrekin jarraitu behar zela, aurrerantzean instalazioaren funtzionamenduaren jarraipen egokia egiteko aurreikusita zegoen moduari buruz.

Azkenean, alkate udalburuak jakinarazi zigunez, azterlanen ondoren eta Nafarroako Gobernu-ko Industria Seguritasunerako Zerbitzuarekin zenbait bilera egin ondoren, hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak, Euskoiker Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Meatze Ingeniaritzako Departamentuak, eta, hori oinarri, hiru hiletik behin aire-uhina eta bibrazioa neurtuko zituzten, eta bi hiletik behin, berriz, hautsa eta zarata.

Jakinarazi zitzaigun, era berean, neurketa horiek alde aurretik ohartarazi gabe egingen zirela, eta urte horretako urtarrilean hasiak zirela.

Alkate udalburuak adierazi zuen, nahiz eta neurketa horiek ez direla nahi bezain sarriak iritzi, uste osoa zuela norabide zuzenean eginiko lehenengo urratsa zela herriko harrobiak une horretara arte bezain gogaikarriak edo, kasu batzuetan, alarma-eragileak ez izateko, eta industria jardueraren eta auzoen ongizatearen arteko oreka egokia aurkitzeko.

Helarazi zitzaigun informazioa ikusita, nolabait ere jarduera sailkatuei orokorrean dagokien moduan jokatzeko ari zela iritzi genion; jarduera horiek lizentzia behar dute, noski, neurri zuzentzaileak barne.

Gogoratu behar da Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro adierazi izan duela horrelako lizentziak funtzionamendu-baimen deritzenen adibide tipikoa direla; baimen horiek, hala-koak diren aldetik, ez dute behin-behineko harreman bat sortzen administrazio baimen-emaile eta subjektu baimen-hartzailearen artean, baizik eta lotura iraunkor bat, eta horren xedea da administrazioak interes publikoa uneoro modu egokian babestea, jarduera gauzatzean etorkizunean gerta litezkeen balizko gorabeheren aurrean hura ziurtatuz.

Aurrekoa gorabehera, eta aurkeztu zitzaigun gaian azaldutako neurriek ekar zezaketen aurrerabidea azpimarratu arren, kexa-egileari adierazi genion itxaron egin beharko zela, aipatutako hitzarmena sinatu zuten, ea zein ziren neurketen emaitzak eta Olaztiko Udalak gai hori zela-eta jarritako jarduketaren emaitzak.

Horiek horrela, eta esku hartzeko datu berririk ez zegoenez, informazio guztia kexa-egileari helarazi eta amaitutzat eman genituen gaiari buruzko

jarduketak; adierazi genion guregana jo zezakeela berriro ere uste bazuen salatutako egoera ez zela hobetzen.

Beste kasu batean (03/36/M espediente), harrobi baten jarduerari buruzkoa hori ere, jakinarazi zitzaigun Atondoko Kontzejuan dagoen harrobi bat [...] entitateak ustiatzen du orain— zegozkion baimenak gabe ari zela lanean, ustiatzeko epea amaitu eta Atondoko Kontzejuak ez baitzuen baimenik eman jarrai zezan, ezta Itzako Kontzejuak, ezta, halaber, Nafarroako Gobernuak ere.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak martxoaren 13an emaniko 340/2003 Ebazpenaren kopia bat helarazi zitzaigun, non espresuki ukatzen baitzaio enpresa horri harrobia handitu dezan, ez izateagatik jarduera hori bateragarria Itzako Arau Subsidiarioekin eta Iruñerriko EHA eskualdeko hirigintza arauekin.

Adierazi zitzaigun, bestalde, baso-berritzeko planak hasia behar zuela lursail horietan, kontzezio-epea amaitu ondoren jarri behar baitzen abian, baina artean hasi gabe zegoela enpresak aterakuntzazko jarduerarekin jarraitzen baitzuen, epea amaitu izan ez balitz bezala.

Hori horrela, Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion behar ziren aginduak eman zitzaion harrobia lehenbailehen eta behin betikoz itxi eta, onetsitako proiektuaren arabera, natura ingurunea egoki lehenera zedin.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak honakoa adierazi zigun lehenbiziko erantzunean:

1.- Ustiategiaren legezko egoera.

Kexan adierazten denez, Canteras [...] ek baimenik gabe jarraitzen du jardunean. Hori ez da egia. Lurraldearen Antolamendu zuzendariak, uztailearen 5eko 1264/1994 Ebazpenaren bidez, agregakinak ateratzeko jarduera sailkatuaren proiektua —Canteras [...] ek sustatua, Errotzen (Arakil) eta Atondon (Itza)— onetsi zuen.

Ebazpen hori oinarri, toki entitate eskudunek jarduera lizentzia eta irekitzeko lizentzia eman zituzten, eta zenbait neurri zuzentzaile ezarri zituzten.

Bestalde, Ingurumen zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 1305/2002 Ebazpenaren bidez, Canteras [...] i baimena eman zitzaion, ingurumen ondorioetarako, aterakuntzazko jarduerari ekin ziezaien Ingurumen Departamentuan aurkeztutako ustiapen plan gaurkotu baten arabera. Ustiapen plan hori aurkeztu zen jardueraren etetea bertan

behera uzteko eskaria zela-eta –aurrerago ematen dugu horren berri–.

Foruzainek behin eta berriz egiaztatu duten bezala (2002ko azaroan eta 2003ko apirilean, azkenekoz), aterakuntzazko jarduerak ez ditu gainditzen aipatu ditugun bi ebazpenetan baimendutako mugak.

Beraz, Canteras [...]ek aurrera daraman jarduerak behar diren ingurumen baimenak ditu, eta aldizka egin diren kontrolek ez dute erakutsi gainditu denik baimendutako ustiapen eremua.

Canteras [...]ek, bestalde, Errotzen eta Atondon gauzatzen duen agregakinak ateratzeko jardura zabaltzeko eskatu du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan. 2002ko abenduaren 23an, dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion enpresari, egoki ebaluatzeko proiektu horren balizko ingurumen eragina. Orain arte ez du aurkeztu dokumentazio hori.

Zabaltzeko proiektuaren ingurumen alderdiei buruz Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak eman beharreko txostenaren aurretik, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak, martxoaren 13ko 340/2003 Ebazpenaren bidez, ukatu egin du eskatutako zabalpena, Atondon (Itza Zendea) indarrean dagoen hirigintza planeamendua- ren aurkakoa baita.

Horrek esan nahi du jarduera ezin izanen dela zabaldu, nahiz eta itxaron beharko den ea Canteras [...] enpresak errekurtsorik jartzen duen zabalpena ukatzen duen ebazpenaren aurka eta zer emaitza duten errekurtsio horiek.

2.- Baso-berritzeko plana.

Kexan esaten da, halaber, kontzesio-epea amaitu eta baso-berritzeko plana, oraindik, hasi gabe dagoela. Horri buruz esan behar da Canteras [...] enpresak ustiapen plana, aldatuta, aurkeztu zuela, eta ulertzen dela maiatzaren 28ko 1305/2002 Ebazpenak onetsi zuela. Plan horretan, eta enpresak eginiko leherketak ikusita, hasieran –1994an– onetsitakoa baino ustiapen-inguru zabalxeagoa erabil zitekeen, horrek leheneratze hobe ahalbidetzen baitu aterakuntzazko jarduerak kaltetutako eremuetan. Jarduketa horiek behin aterakuntzazko lanak amaituta gauzatu behar dira, lan horiek baimenduta baitaude eta oraindik jarraitzen baitute.

3.- Ondorioa.

Egoera zein den ikusita, ez dago kexari kasu egiterik, hau da, ezin da harrobia lehenbailehen eta behar bezala itxi; baimena du, izan ere, gaur egun baimendutako ateratze mugara arte lanean

jarraitzeko, nahiz eta etorkizunean ezin izanen duen jardura zabaldu, hirigintza-arrazoiak direla eta.

Gaur egun baimendutako aterakuntzazko jarduerarekin amaitutakoan jarriko da abian harrobi horren leheneratze plana.”

Erantzun hori ikusita, igorritako informazioa areagotu beharra zegoela iritzi genion, eta, beraz, departamentu horri hauek eskatu genizkion: Lurraldearen Antolamendu zuzendari nagusiak uztailaren 5ean emaniko 1264/1994 Ebazpenaren kopia, maiatzaren 28an Ingurumen zuzendari nagusiak emaniko 1305/2002 Ebazpenaren kopia –aterakuntzazko jarduerari berriro ekiteko baimena eman zion enpresari, plan gaurkotu baten arabera– eta ebazpen horietarako oinarri izan diren ingurumen txostenak. Azkenik, aterakuntzazko jardueraren gehienezko epearen berri eman ziezagun ere eskatu genion, baimendutako aterakuntzazko mugak iritsi edo ez.

Eskatutako kopiak eta harrobiaren funtzionamenduari buruz irekitako espedienteetan zeuden ingurumen txostenak igortzeaz gain, Departamentuak hurrengo adierazi zigan:

“Aterakuntzazko jardueraren gehienezko epeari dagokionez, esan beharra dago 1264/1994 Ebazpenak ez duela gehienezko ustiapen-eperik ezartzen. Aurkeztu zuen ingurumen eraginaren azterlanen esaten zenez, eta hala dago jasota Ingurumen Zerbitzuaren zuzendariak emaniko txostenean, hamar urteko epean 2.000.000 m³ kareharri ateratzea zegoen aurreikusita, hau da, 200.000 m³ urtean.

Kopuru horiek, ustiapenaren ingurumen eraginari dagokionez, ez dira bete beharreko baldintzat hartu behar, gutxi gorabeherako kopuru gisa baizik; izan ere:

– aterako den kareharri kopuruaren datua neurketa topografikoen ondorio da, eta, neurketa horiek zorrotzak eta zehatzak ez direnez, akats nabarmenak gerta daitezke.

– ustiapenaren iraupena, betiere, denboran zehar ateratzen diren kopuruaren baitan egonen da, eta horiek, berriz, merkatuaren eskariaren baitan, hau da, eraikuntzaren eta herrilaren sektorearen bilakaeraren baitan.


Aterakuntzazko jardura batek inguru naturalean duen ingurumen eraginaren ikuspegitik, benetan azpimarragarria dena da (eta horrela ebaluatzen dira aurkeztzen diren ingurumen eraginaren azterlanak) ukitzen duen eremu geografikoa, eta hori zehaztuta dago proiektuan, harrobiaren amai-erako egoera azaltzen duten plano batzuetan.”

Informazio zabal hori igorri bazigun ere, Departamentuak ez zigun inoiz ere jakinarazi harrobi hori ixteko agindua eman zuela.

Horrela, beste informazio iturri batzuen bidez jakin genuenez, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak abuztuaren 5ean 1086/2003 Foru Agindua eman zuen, non, kontzesioan esleitutako aprobetxamendua amaituta egoteagatik, harrobia ixteko agintzen baitzuen eta Canteras [...] enpresari agintzen baitzuen, kontzesio-hartzailea den aldetik, abian jar zezala aterakuntzazko eremua leheneratzeko plana, eta "bereziki, aurrealdean irekitako sarbideak eta Bizkai mendiaren mendebaldeko mazelan eginiko

material isuriak". Era berean, desegin zuen ikuspantaila ahal zen neurrian berregin zezala ere agindu zitzaion.

Azken batean, begi-bistakoa zirudien aipatutako foru aginduarekin konpondutzat jo zitekeela kexa eragin zuena; hala ere, Departamentuari gure kezka helarazi genion, uste baitugu kexa honetan nabarmena izan dela Departamentuak ez diola laguntzarik eman erakunde honi, ezkutatu egin baitio aipatutako foru aginduaren bidez harrobia ixteko hartutako erabaki garrantzitsua, eta ixte hori zen kexan agertzen zen funtsezko eskakizuna.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 41,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,05 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,23 »	